

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskera XXXIV (2. aldia)
(1989, 1)
34
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Elkano, 5 - 1. - 48011 Bilbo

Fotokonposaketa: Rali
Particular de Costa, 12-14
48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza
Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

© Euskaltzaindia
Ribera, 6 - 48005 Bilbo

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua: BI-1258-89

Maketazio eta orrazketak: R. B. U.

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.

Esta **Revista** se intercambia con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

JUAN MARI LEKUONAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

<i>Jon Iñarra: JUAN MARI LEKUONA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA</i>	9
<i>Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua: JOAN MARI LEKUONAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA</i>	11
<i>Juan Mari Lekuona Berasategi: ERDI-AHOZKOTASUNAREN LITERATUR ESTILOAZ</i>	17
<i>Juan Mari Lekuona: MANUEL LEKUONA KULTURLARI EUSKALDUNA</i>	45
<i>Jean Haritschelhar: JEAN HARITSCHELHAR-EN HARRERAKO ERANTZUNA</i>	53
<i>Andoni Lekuona: ANAIARI BERTSOAK</i>	59

ORIXEREN MENDEURRENA

<i>Juan Cruz Martirena: EUSKALTZAINBURU ETA EUSKALTZAINDIKO BAZKIDE AGURGARRIOK</i>	65
<i>Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua: "ORIXE-REN JAIOTZAKO MENDEURRENEAN</i>	67
<i>Patxi Altuna: ORIXEK JESUSEN LAGUNDIAN EMANIKO URTEAK (1907-1923)</i>	71
<i>J. M. Aranalde: EUSKALDUNAK: ORIXE BERE BERRI EMATEN, EDO EGILEA PROTAGONISTA</i>	123
<i>Juan Mari Lekuona: IZAERA ETA OFIZIO BEREZIKO PERTSONAIEN ERRETAULA "EUSKALDUNAK" POEMAN</i>	131
<i>Fermin Ixurkoren Predikua</i>	151
<i>Luis Mari Mujika: ORIXE OROITUZ</i>	153

BATZAR TXOSTENAK

<i>Juan Garmendia Larrañaga: EUSKAL LEXIKO ETNOGRAFIKOA-REN IKUSPEGI TXIKI-LABUR BAT</i>	157
<i>Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua: ALTUNAREN TXOSTENARI SARRERA</i>	163
<i>Patxi Altuna: EUSKAL FILOLOGIAZKOAK, NAHAS-MAHAS</i>	165

BESTELAKO TXOSTENAK

<i>Igone Zabala, Juan Carlos Odriozola: GAZTELERAREN COMO JUNTA-GAILU POLISEMIKOAK EUSKARAREN BAITAN IZAN DITZAKEEN ORDEZKOEN PROBLEMATIKA: 1. SUBORDINAZIOAREN ESPARRUA</i>	187
<i>A. Irigoien: EZ UKAITZAILEA EUSKAL TRADIZIOAREN BIDETIK NOIZ TA NOLA</i>	241
<i>Michel Morvan: BASQUE ON ET LATIN BONUM</i>	247
<i>A. Irigoien: VASC. DOÑU, 'AIRE, MELODIA', Y EL RUMANO CIRILÓGRAFO</i>	253

<i>Zytsar' Yy.VI.: QUELQUES COMPARAISONS KHARTHVÉLO-BAS-QUES DU DOMAINE DU LEXIQUE DE L'ÉLEVAGE</i>	257
<i>Koldo Zuazo: EUSKARA BATUA: AITZINDARIAK ETA BESTE</i>	265

VICENTE AMEZAGA ARESTIRI OMENALDIA

<i>Javier de Sarria: VICENTE AMEZAGA ARESTIRI OMENALDIA</i>	275
<i>Ricardo Badiola Uriarte: VICENTE AMEZAGA ARESTIREN OMENEZ</i> ..	277
<i>Mirentxu Amezaga Clark: HOMENAJE A MI PADRE VICENTE AMEZAGA ARESTI</i>	285
<i>Arantzazu Amezaga: RESEÑA PARA UN ACTO</i>	287

ENCUENTRO DE LOS TRES DURANGOS

<i>Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua: ENCUENTRO DE LOS TRES DURANGOS CON LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA "EUSKALTZAINDIA"</i>	293
<i>Juan San Martin: FRANCISCO DE IBARRA, CONQUISTADOR DE NUEVA VIZCAYA Y FUNDADOR DE LA CIUDAD DE DURANGO, EN MEXICO</i>	299
<i>A. Irigoien: II ENCUENTRO DE LOS TRES "DURANGOS" Y OTROS HOMONIMOS EN LA TOPONIMIA</i>	305
<i>Fr. Luis Villasante: ANTONIO MALLEAREN ARTIKULUAZ</i>	309
<i>A. Mallea: ZUMARRAGA MEXICOKO APEZPIKUAREN GUTUNA URTI ABENDAINORI 1547N IDATZIA</i>	311

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

Herri izandegiari buruz adierazpenak

<i>Jose Luis Lizundia: ELDUAIN</i>	325
<i>Jose Luis Lizundia: OIARTZUN</i>	327
<i>BATZAR-AGIRIAK (1988-VII, IX, X, XI eta XII)</i>	331

BERRIAK

<i>A. Irigoien: EUSEBIO ERKIAGA LEKEITIO-KO SEME OSPETSU</i> ...	355
<i>A. Irigoien: F. KRUTWIG ATHENETAN ELKARTE BATEKO KIDE OSOA/MIEMBRO TITULAR EN ATENAS</i>	357
<i>Jean Haritschelhar: L. DASSANCE EUSKALTZAIN ZENAREN OROITZAPENETAN</i>	361
<i>Fr. Luis Villasante: GUERO-REN FAKSIMILEZKO EDIZIOA AURKEZTEAN</i>	365
<i>Fr. Luis Villasante: EUSKO LEGEBILTZARREAN</i>	375
<i>Jesus Egiguren: EUSKALTZAIN JAUNOK</i>	379
<i>E. Knörr: J. HARITSCHELHAR DOCTOR HONORIS CAUSA</i>	383

HILBERRIAK

<i>Juan San Martin: JAZINTO CARRASQUEDO OLARRA</i>	387
--	-----

**JUAN MARI LEKUONAREN
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Oiartzun, 1988-VII-30

JUAN MARI LEKUONA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Oiartzun, 1988-VII-30

Jon Iñarra

herriko Alkatea

Euskaltzain agurgarriok, jaun-andreok, eguerdi on guztioi:

Ongi etorriak izan zaitezte denok gure herrira. Oiartzun gaurko egunean bere apaingarririk ederrenekin jantzita dagoela esango banizue, beharbada dotoreziazko hitz hutsak direla pentsatuko zenukete. Baina ez dira axaleko hitzak-bene-benetakoak baizik. Gutxienekoa da, nahiz eta berriztaturik agertzea gaur hemen, denon aurrean. Kanpoko apainduriak barrukoaren ispilu izan behar bait du. Eta zerbait eta inoiz izatekotan, gaur bai dugula oiartzuarrok pozik eta harro egoteko arrazoi sakona: herriko seme bat, Juan Mari Lekuona, euskal kultur erakunderik ospetsueneko partaide izendatua ikustea. Juan Mari Lekuona, oiartzuar peto-petoa, euskararen alorreko langile fina, adiskide jatorra, guar hemen omentzea, neurri batean bederen, Oiartzun osoa omentzea bait da, gure hizkuntzaren eta kulturaren mendeetako harrobi, hizkeraz nafar, historiaz giputz, eta izakeraz osoki euskaldun den gure Oiartzun hau.

Nori berea omen da zuzenbidea, eta burubidea. Ezin hasiko naiz, beraz, neure ofizioko gorabeheraz, Udaleko administrazioaren trikima-luez eta politikazko tirabidez zertxobait jakitearekin ere nahiko lan badudan Alkate hau, orain, zuen aurrean, Juan Mari euskal kulturaren alorrean egindako lan sakon eta baliotsuen goraipamena egiten. Ez da hori, noski nire eginkizuna; atrebentzia lotsagabea ere izan liteke ni gai horretaz mintzatzea: inondik ere, zuek bait duzue hitza horretan, euskaltzain jaun agurgarriok. Baina, era berean, eta herri honen ordezkari naizen aldetik, ez nioke muzin egin nahi neure eginbarra derizkiodanari. Neure gain, besteak beste, ardura politikoa ere badudanez gero, besteak beste, politikoki ere mintzatu beharra dagokidala uste bait dut. Alderdikeriarik gabe, ahal dela, hori bai, gauza xamurra ez baldin bada ere. Dena dela, ez dut uste inongo euskaldun euskaltzalek aldedikeriatzat hartuko duenik, zuek egun handi berezi honetan gure herrira inguratu zaretela-eta egokieraz baliaturik, jaun euskaltzainok, nik orain, bihotz-

bihotzez, honako hau zuei esatea: zorionak, Euskaltzaindia, zorionak, gure hizkuntzaren defentsan erakutsi duzun kemenarengatik, Gure euskara bigarren mailako hizkuntza bere etxean erdararen morroi izatera kondenatzen duen Espainiako Konstituzioa bere garaian irmoki eta adoretzuki salatu zenuelako, zorionak. Ez dakit orain baino lehen beste inork horrelako eskerronik erakutsi ote dizuen, euskaltzainok; nik neuk, behinik-behin, barruak agindu bezalaxe adierazi dizuet neurea, eta eginaz ez naiz damu.

Izan ere, gure hizkuntza erdarak suntsi ez dezan, zeinen garrantzizkoak diren Juan Mari Lekuona edo beronen osaba On Manuel Lekuona bezalako euskaltzaleak! Zeinen garrantzizkoak geure kultura aintzakotzat hartzen erakutsiko diguten aintzindariak!... Hala dio gaur hemen omentzen ari garen gure oiartzuar prestuak, bere osabaren omenaldirako esku-programan idatzitako biografia laburrean: “Kulturdun behar dugu izan, baina Euskal Herriak. Euskaldun behar dugu izan, baina kultura unibertsalera zabalik”. Hitz bikainak, benetan, denok goiburutzat hartzeko modukoak. Eta gaineratzen du: “Hau da Manuel Lekuonak utzi digun ondarea. Eta hau, berak egindako lan guztien mezua eta ardatza”. Bistan da Juan Marik, euskaldun guztiok bere osabarengandik jaso dugun ondare eder hori, berak ez duela inondik ere lardaskatu edo hondatzen utzi, baizik-eta gehitu, aberastu eta zabaldu egin duela, eta horretan diharduela egunero buru-belarri, etengabeko lanean... bere poema batean aipatzen den gure “errota zahar maitea”ren “zotin sikuak” leuntzen, Herriaren kultur aleak maitekiro xehetzen, arnasa bezain beharrezkoa dugun kulturaren ogia inori falta ez dakigun. Hitzak eskas ditut, eta esamoldea ere trakets; horregatik, bukatzeko, hauxe besterik ez dezaket esan: *zorionak*, Juan Mari. *Zorionak*, Euskaltzaindia. *Zorionak*, Oiartzun. Mila esker guztioi zuen arretagatik.

JOAN MARI LEKUONAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Oiartzun, 1988, Uztailak 30

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jon Iñarra, Oiartzungo Alkate jaun agurgarria; Mari Karmen Garmendia, Hizkuntz Politikarako idazkaria; Imanol Murua, Gipuzkoako Diputatu Nagusia; Oiartzungo zinegotziak eta gainontzeko agintariak. Euskaltzainkideak; Ospakizun honetara etorri zareten guztiak.

Agur denoi!

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiot Jon Iñarra alkate jaunari eta Oiartzungo herriari, Euskaltzaindiari egin dion harrera amultsuagatik. Egia esan, ez da lehenengo aldia. Orain dela sei urte ere, hemen izandu zen Euskaltzaindia Mendibururen bigarren ehun urte burua ospatzera etorria. Eta orain dela urtebete ere hemen ginen On Manuel zenaren hileta-elizkizunean.

* * *

Egun hauetako ospakizunek, Oiartzungo alkate jaunak egitarauetan txit ederki esaten duenez, bi ardatz dituzte: Bata, On Manuel Lekuona zenaren heriotzeko lehen urteurrena gogoratzea, eta bestea, haren iloba Joan Mariren Euskaltzaindian sartzea ospatzea.

Bidezko izango da, beraz, bion aipamena gaur hemen egitea.

Joan Mari Lekuonak badu gaur bere aitabitxia, eta horren esku uzten dut Euskaltzaindian sartzeko dituen merezimenduez zerbait esatea. On Manueli buruz, bestalde, badakit euskaltzain berria mintzatuko dela bere sarrera-hitzaldian. Halaz guztiz, nik ere hitz batzuk zor dizkiodala iruditzen zait, euskaltzainburu eta kargu honetan haren ondorengoa naitzen aldetik. Besterik ez bada leudekeen oker-adituak argitzen laguntzeko. Eta eskertzen diot Oiartzungo herriari, horretarako aukera ezin hobea paratu baitigu.

Ez da ez dakienik On Manuel izan zela, neurri handi batean, herri-literaturan gorderik zeutzan ondasunen aurkitzaile eta zabaltzaile. Begi

ernea izan zuen, alegia, pitxi horiek ikusi eta argitara ateratzeko. Horretan aitzindari eta bide urratzaile izan genuen On Manuel.

Behin baino gehiagotan atera dudan adibidea da: On Manuelen aurkiketek gure Aita Salbatoreren gain izan zuten eragina hurbildik ikustea gertatu zitzaidan. Olerkari zen Aita Salbatore, eta Lizardiren olerki-bidea segitzen zuen. Baina heldu zitzaion bide horretatik aitzinago jotzerik ez zuen aldartea edo muga. Bazirudien ahiturik zegoela harentzat iturri hori. Eta olerki-bide berririk ez zuen ezagutzen. Halako batean On Manuelen liburua *Literatura oral euskérica* (S. S., 1935) heltzen da Salbatoreren eskuetara. Hura mundu berria, hark zabaldu ziona! Eta horra berriz ere pilpil irakiten gure olerkaria. Salbatore Mitxelenaren *Arantzazu euskal sinismenaren poema*, 1949an atereak, asko zor dio On Manueli, batez ere aipatu dudan liburu hori dela medio. Olerkiak, inspirazio-leku berriak non egon zitezkeen antz emateko, asko lagundu zion liburu horrek, eta Salbatore berberak hala aitortzen zuen.

1950. urteko Doniane eguna, eta Iruñean. Koreako gerrak leher egin zuen eguna. On Manuelek Euskaltzaindian bere sarrera-hitzaldia egiten du. Han zen Azkue ere. Ni artean ez nintzen Euskaltzaindiko, baina ondo gogoan dut nola joan nintzen Arantzazutik hitzaldi hori entzutera (1).

Handik bi urtera, 1952, Maiatzak 23, Euskaltzaindiko nere sarrera-hitzaldia Bilbon. Bizkaitik kanpoko euskaltzainik ez zen inortxo ere agertu, salbu eta bat, On Manuel. Berak sinatua eta ondo gordea dut egun hartako diploma. Euskaltzainburuaren ordeztatu du. "Lekuona-tar Imanol" irakurtzen da bertan.

Hurrengo urteetan On Manuelek *Egan* aldizkarian orrialde-parrasta ederrik idatziko du eta Axularren *Gero*-ren edizio berria Euskaltzaindiaren eginduz prestatu ere bai (Zarautz, 1954).

Azkue hilez gero Inazio M^a Etzaide donostiarra izan zen euskaltzainburu hautatua; eta ondoren Jose M^a Lojendio, donostiarra berau ere. Karguaren iraupena berez bi urterako izaten da, baina azkeneko honek epea bete gabe utzi egin zuen. Ondoren, baina uste dudanez ez berehala, On Manuel hautatzen du Euskaltzaindiak euskaltzainburu.

60.go hamarkadan gaude. Edozeinek daki orduan gure Euskal Herriak gizarte-giro aldaketa nabaria ezagutu zuela. Indar berriak ere sortzen dira, lehen somatzen ez ziren bezalakoa. Giro berri honen ondorioz, gero eta

(1) Hemen esan behar da Euskaltzaindiko urgazle askoz lehenagotik zela On Manuel, Euskaltzaindiaren sortzetik beretik, alegia. Ikus *Euskera* I (1920), 15.

usuago datoz eskeak Euskaltzaindira euskararen batasun-arazoa erabaki dezan.

1968an betetzen ziren Euskaltzaindia sortu zeneko 50 urte. Urrezko eztaiak, beraz. Eta erabakitzen da Urrian, eta Arantzazun, Kongreso bat berariaz auzi honi buruz egitea, eta Koldo Mitxelenari agintzen zaio euskara batu horren egitasmoa edo aurre proiektua han aurkeztea eta eztabaidatzea.

Arazoa ez zen ttipikeria bat edo funsgabeko auzia. Hizkuntza batek, munduaren alderdi honetan kokaturik dagoen hizkuntza batek, ezin aurpegi eman diezaieke gaurko erantzukizunei, bere buruaren normalizapen-lana egin gabe duen bitartean. On Manuelek esaten zuen hitzekin esateko, normalizapen hori egitea ez da euskarak dituen aje guztien “panazea” edo sendabidea. Hori ere ez. Hori eginik ere, euskarak izango du nahikoa lan aurrera irteteko. Baina hori egiten ez duen bitartean, ez da aurrera irtengo.

Mitxelenak esaten zuen bera lehenago ez zela gehiegi arduratu normalizapen-problema horretaz, ez beronen garrantziaz jabetzen ez zelako, zabalbiderik ikusten ez ziolako baizik. Euskaltzale edo euskalari batek egin dezake egitasmo edo proiektu bat euskararen normalizapenaz. Baina hori alfer-lana da, gero egitasmo horrek zabalbiderik ez badu. Euskarak ez zuen orduan sarrerarik eskoletan. Euskal Herria nekazari-giro batean bizi zen. Euskaldunek beren eskualde edo euskalkiko euskara ezagutzen zuten, eta besterik ez.

Halaz guztiz, Azkue arduratu zen batasun-bide bat antolatzen, “gipuzkera osotua” deitu zuen bidea, alegia. Euskaltzaindiak, ordea, ez zuen sekulan bide hori erabaki; euskaltzainburuaren gauza bezala gelditu zen. Eta ez zuen arrakasta gehiegirik ere izan. Gipuzkoar ez zirenek esaten zuten: “gipuzkera baldin bada, berek erabil dezatela, gu ez gara gipuzkoarrak”. Gipuzkoarrek, berriz, “osotua” gehigarri horri ez zioten kasu gehiegi ematen, eta gipuzkera arruntean idazten zuten. Horiek hola, proposamen hori pixka bat bazterrerat utzia gelditu zen. Baina Mitxelena konturatzen da hirurogeigarren hamarkadan badirela indar berriak, lehen ez zeudenak, eta egiten du auziaren bir-planteaketa bat “gipuzkera” izen hori alde batera utzirik, baina gainerakoan Azkueren bidetik hurbil samar dagoena, eta hark izan ez zituen zabalbideak bere alde izango dituen.

Egin zen, bada, zorioneko Biltzarra. Bertan izan ziren, bai, eztabaida zaratatsu batzuk, batez ere H-aren alde eta aurka. Biltzarra bukatzera zihoanean gela batean bildu ziren euskaltzainak bakarrik, eta han idatzi zuten azken Agiria. Gela hartan bildutakoen artean ez zuen inork desakordiorik agertu. Agiri hori gomendio gisa emana dago eta Mitxelenak proposatutako batasun-bideari atea zabaltzen dio. Ikus **Euskera** (1968), 250.

Istilurik larrienak, ordea, gero etorri ziren, batez ere handik urte betera edo, Euskaltzaindiaren Agiri hori eta Arantzazuko Biltzarraren lanak ofizialki Euskaltzaindiaren agerkari den **Euskera**-n azaldu zirenean. Orduan hasten da zatiketa, baita Euskaltzaindiaren barnean ere. On Manuelek Euskaltzaindiko batzarrean lan bat irakurtzen du batasun-bide horri buruz bere desakordioa agertuz, eta segituan lan hori *Zeruko Argia* asterokoan argitaratzen da. Orduan Euskaltzaindia kinka larri batean sartzen da. Bestalde, On Manuelek berak esaten du kargu berritze-hauteskundeak egiteko garaia ere badela, eta egin daitezela eskatzen du. Egin ziren 1970eko Uztailan, eta horietan ni izan nintzen euskaltzainburu hautatua. Pentsatu zuten, nunbait, euskaltzainek euskaltzainburu berri bat behar zela egoera larri hartan. Neretzat ez zen bat ere gozoa, baina Euskaltzaindiak eskatzen zidanez gero, bihurgune hartan zerbitzu hori egin behar niola iruditu zitzaidan.

* * *

Kargu-aldaketa, berriz, 1970eko Urriaren 25ean ospatu zen Zuberoako hiriburuan, Maule-n, Sallaberryren *Chants populaires du pays basque* liburuaren mendeurrena ospatzearekin batera. Han izan zen On Manuel, eta gauzak anaikiro eta bakerik ederrenean egin ziren. Berak egin zuen bere hitzalditxoa eta nik neurea. Ikus **Euskera** (1971), 114-123.

Aldaketa egin ondoan ere etortzen zen On Manuel batzarreetara eta nik behin eta berriz eskatu nion etortzeko, zeren eta eritzi batekoak eta bestekoak han egonik, horrek mesede egin zezakeen denon jarrerak hurbiltzeko. Baina handik laster uzten dio batzarrera etortzeari, beste batzuek bezala. Esan behar da une txar batzuk pasatu genituela. Eskerrak Iparraldeko euskaltzainen laguntasunari; horiek, Lafitte buru zutela, txintxo asko etortzen ziren batzarreetara eta beren atxikimenduaz asko egin zuten kinka txar hura gainditzeko.

Hortik zabaldu zen bota egin genuela On Manuel Euskaltzainditik. Hori ez zen bat ere hala. Gainera Euskaltzainaren izendapena bizi guztirako da. Euskaltzaindi barruko karguak, berriz, alda daitezkeenak dira, Euskaltzaindiko arautegian jarririk dauden legeen arabera.

Bai. Urte txarrak izan ziren. Koldo Mitxelenak aitortzen zuen adiskide on asko galdu zituela zorioneko batasun hori dela eta ez dela.

Gaur itsas haserre horiek baretu direla iruditzen zait. Eta bai batzuen, eta bai besteen alde ere, esan behar da denok eritzi bereko ez izatea normala dela gizonen artean. Inori ezin ken dakiok bere eritzi propioaren jabe izateko eskubidea, ez eta instituzioari ere bere onerako on dena iruditzen zaiona egitea, baldin legeen arabera egiten bada behintzat.

Bestalde, arazoa ez zen guti gorabeherakoa, axola handikoa baizik, hots, euskara, idatzizko zereginetarako araupetzea. Euskal Herriak Eus-

kaltzaindiari bere sortze-egunean eskatu ziona zen, eta honen arautegian zeregin nagusienetako bat bezala aipatzen dena, eta oraindik erabaki gabe zegoena.

Horrelako auziak planteatzen direnean, ia beti sortzen dira sesioak eta ikuspuntu desberdinak. Katalanaren batasun-problema sortu zenean, esate baterako, aski sonatuak izan ziren Pompeu Fabra eta Mosen Alcover-en arteko eztabaidak. Baina sesio batzuk sortuko diren beldurrez, egin behar dena egin gabe uztea ere ez da arrazoizko. Neurri handi batean Euskaltzaindia auzi hori erabakitzeko sortua zen eta.

Gaur, esan dudan bezala, istilu horiek gaingitu dira. Baina iruditu zait esan ditudanak noizbait esan beharrekoak zirela, gauzak laino artean uztea txarrago baino ez da eta. Gauzak diren bezala esatea bezalakorik ez dago.

Gainerakoan, guk beti gorde izan diogu On Manueli geure estimazioa. Euskaltzaindiko laugarren euskaltzainburua izan zen. Batasunaren auzi hori dela eta, urte korapilatsuak tokatu zitzaizkion, baina hori ez da, inolaz ere, zor zaion estimazioaren gutigarri.

* * *

Eta beste gabe, pasa gaitezen ospakizun honen bigarren ardatzera: Joan Mari, On Manuelen iloba denaren Euskaltzaindian sartzea ospatzera. Baina honek, esan dudanez, badu bere aitabitxia, eta hark egingo du bere garaian beronen aurkezpena.

ERDI-AHOZKOTASUNAREN LITERATUR ESTILOAZ

Oiartzun, 1988-VII-30

Juan Mari Lekuona

Nire aurreko euskaltzain osoaren oroigarri

Andere eta jaunok:

Nire aurreko euskaltzain osoaren oroipena egin behar eta, egoera nahiko berezian ikusten dut neure burua, osaba nuenez nik lekua hartzen diodan Manuel Lekuona, gure aitaren anaia. Eta odolaren lotura ezezik, eta bokazioan, langintzan eta hamaika gustamoldetan genuen kideasuna ezezik, badut harekin beste zerikusi bat ere, adierazgarri xamar dena: osabak zuen espezializaziotik izendatu nautela euskaltzain oso, literaturatik batez ere.

Lotura horiek guztiak argi eta garbi esaten digute, nire gaurko oroipen hau ez dela izango egun bateko oroipen eta aipua bakarrik; eta ez dela izango ere gaur zuen aurrean hitzez bakarrik egina: osaba eta biok nahiko bat izanak esan nahi du, nire lanetan —eta bereziki ahozketasunaren inguruan nabilenean— bai eskolaz eta bat apetaz gogora ekarriko dudala beti osaba; eta esan nahi du, bestalde, idazterakoan ere, orain arte bezala, eta bidezko denez, oroitaraziko ditudala beti haren metodoak eta kultur jarrerak.

Horrez gainera, osaba Manuelen berri emana dizuet, haren omenaldia dela eta, esku-programetan, antolatzaileek hala eskaturik, ezarri ditudan argibideetan. Idazkiz emanak ditut osabaren bizitzako aroak, lekuan lekuko kultur joerak eta eskakizunak, han eta hemen osabete zituen lanak eta idazkiak. Beraz, ez daukat horrelakorik hemen zertan aipatu. Baina badut gauza bat, une honetan erantsi nahi nukeena. Eta zera da: “Etxetxiki”-tik datorren Iñarra-Lekuona familikoak, hiru belaunaldi bagarela Oiartzunen, euskal idazleak eta euskararen inguruko irakasleak. Eta ehun urtez iraun duela gure familiakoen langintzak euskal letretan.

1. *Migel Antonio Iñarra Mitxelena (1864-1898)*: “Etxetxiki”-ko semea, 1864ko Irailaren 28an jaioa. Hamazazpi-hemezortzi urte arte meagizon izan zen, Sanartazuko meakan (San Narciso, Irun). Apaizetarako ikaske-

tak Urnietan hasi zituen, Antia apaizarekin. Eta baliteke, ez dakit ziur, Antiarengandik jaso izana Iñarrak euskal gaietarako gogo. Olerkari sarizatua izan zen: Donostiako Euskal Jaietan lehenengo saria jaso zuen 1891an. Azkueren laguntzaile izan zen “Euskalzale” aldizkarian. Eta lekeitiar gogoangarri hark esanda dakigu, Nafarroako Diputazioak euskara erakusteko irakasle bat izendatu behar eta, konkurtso bat eratu zuela, eta M. A. Iñarra izan zela irabazle. Honela dio Azkuek Migel Antonioren hil-oroigarrian: “Nafarroako Ekautak beregana deitu orduko, eroan dau Jaunak, toki oba batera” (1). Guzti hau 1898an izan zen. Gizon honek eman zion hasiera gure familiak euskal letretarako izan duen atxekimentuari.

2. *Manuel Lekuona Etxabeguren (1894-1987)*: Osaba Manuelek oso umetandik etxean nabaritu zuen Migel Antonioren ondorena eta zantzuak: liburuak, oroitzapenak eta izpiritua. Osabari buruz, gauza bakarra adierazi nahi nizueke: “Idaz-lan Guztiak” liburuetan ageri den ardatza.

Antropologiatik, etnologiatik eta historiatik ezagutzen du hemengo gizona, hemengo herria, hemengo kondaira. Eta ezagutza honen arabera sakondu dizkigu bai euskal literatura, bai euskal artea, bai euskara. Eta haren ikaskuntzen azpi-azpian, beti ikuspegi iraunkor eta errepikatu bat legoke: euskal kultura, euskal nortasuna. Agian ez zen iritsi funtsezko pentsamentu eragile hori hitz bitan laburbiltzera. Baina ardatz bera du beti haren pentsamoldeak. Batasun horretan nabarmenduko nuke azken batean osaba Manuelen pentsamoldea eta langintza.

3. *Hirugarren belaunaldia*: Senide eta lehengusoak nituzke hemen gogoan. Eta neronek akademiko aulki-hartzea dudanez gaur, gauza bat bakarra aipatuko nuke neure buruaz kontestu honetan: barren-barrendik eskertzen diodala Euskaltzaindiari erakunde honetako euskaltzain oso izendatu izana. Eta gauza bera Oiartzungo herriari, nire sarrera-hitzaldia hemen egin dezadan erraztasun, gogo eta arreta sutsuak agertu dizkidayelako. Dela Euskaltzaindiak, dela Oiartzungo Udalak, dela Probintzia mailako eta Euskal Herri mailako ordezkariak, eta gainerako pertsona guztiek, har bezate nire eskerrik beroena.

Eta bereziki eskertzekoa nire aldetik, euskararen arloan gure familiari egiten diozuen aitorpena, bai Euskaltzaindiak, bai Oiartzungo Udalak, bai Diputazioak eta bai Eusko Jaurlaritzak oso gogoan izan dutelako, Iñarra-Lekuona familiakoen ekarria euskal letretara.

Gauzak horrela ulertuz eta azalduz, badakit hau dela, besteak beste, osaba Manueli buruz, nire aurreko euskaltzain osoari buruz, nik gaur, hemen Oiartzunen, egin dezakedan oroipenik eta aipurik bereziena.

(1) R. M. AZKUE: *Miguel Antonio Iñarra*, in “Euskalzale”, 2(1898), 158-159 or.

Eta orain, nire aurreko euskaltzain osoaren aipamena egin ondoren, irakur dezadan zuen aurrean nire sarrerako mintzaldia.

ERDI-AHOZKOTASUNAREN LITERATUR ESTILOAZ

Marcel Jousse-k, bere *Style Oral* liburua dela eta (2), euskal ahozko-larritan arrasto nabaria utzi duen autore honek, beste liburu batean giza espresioaz ari delarik, hiru estilo bereizten dizkigu: mimetikazko estiloa, ahozko estiloa eta idatzizko estiloa (3).

Sailkapen hau, eremuak eta esparruak bereizteko sistema bezala, ongarri dela esan behar, giza espresioaren arlo desberdinak zehazten direnez. Gehiago oraindik: autore horren ildotik hemen ere ahozko eta idatzizko estiloak bereizi izanak, eta ahozkotasuna aztertu eta balioztatze-ko dauden metodo egokiak erabili izanak, aurrerakada bat suposatu zuten euskal ahozkotasunaren ezagutzan eta lanketan. Hortik hasia dugu umotuagoko euskal ahozko-larritza oraintsukoa. Eta bide bat egiten ari dela esan behar egunotan ere gure ahozkotasuna, azterlari berriak, beste lanmetodoak erabiliz, gaia zabalago eta xehekiago erakusten ari zaizkigunez (4).

Sailkapen horrek, ordea, badu puntu ilunagorik. Eta zera da: estiloak batetik bestera permeatzen direla eta irazitzen, eta bateko nahiz besteko osagaiak elkartuz, bien arteko estiloak edo sortzen direla, muga dauden estilo bestelakoak. Kontuan hartu behar ditugunak, noski, eta bere neurrian balioztatu beharrekoak gainera.

Mimetikazko estiloaz ezer ez dugu esango hemen, zeharka ez bada, gestuen eta imintzioen antropologia gure arloa ez denez. Gu hemen ahozko eta idatzizko estiloen mugaldean ibiliko gara, bateko nahiz besteko osagaiez ehotzen den estiloari buruz ihardunez. Hau da, erdi-ahozkotasun baten ezaugarriak azpimarratzen ahaleginduko gara.

(2) M. JOUSSE: *Le Style oral rythmique et mnemotechnique chez les Verbo-moteurs*, "Archives de Philosophie", "Gabriel Beauchesne", Paris, 1925.

(3) Id.: *La Manducation de la Parole (L'Anthropologie du Geste, II)*, "Galimard", "Imprimerie Floch à Mayenne", 1975.

(4) J. M. LEKUONA: *Ahozko euskal literatura*, "Erein", Donostia, 1982, Bibliografia, 11-17 or. Gerrondoko idazlanak arakatuz gero, nahiko garbi ageri da, iturriak, azterketak, sailkapenak, metodoak eta abar berritzean, herri-literaturari buruzko ikaskuntzek dagiten aurrerakada, bakoitzak bere sailcan.

Horretarako, gaiaren zenbait alderdi nagusi azalduko ditugu:

1. Idazkeraren erakus-aukera edo "muestreo" bat.
2. Idazkeraren literatur fenomenologia.
3. Erdi-ahozkotasunaren estiloaz.
4. Ondorio orokorrak.

Lau urrats hauetan datza gaurko mintzaldi honen saiabidea.

I. IDAZKERAREN ERAKUS-AUKERA EDO "MUESTREO" BAT

Ahazkotasunean bizi izan diren jendeak, eta gure kultur ingurune jakinaz ari garelarik, bai banaka eta bai taldeka, idazkiez eta izkribuez baliatzen hasten direla gauza garbia da. Eta bilakabide honen hari nagusiak ematea, idazkera noiz eta nola sartu zen aditzera ematea, guretzat ezinezkoa bada ere (eta ez hain beharrezko gainera gure helburuetarako), aipa ditzakegu zenbait adierazpen baliotsu, gure gaiaren argigarri direnak, eta mintzaldi honi apio eta sarrera bat emango diotenak.

1. Eskuizkribuak

Gure gaiaren harira, argitalpenak badira ere garrantzirik haundiena dutenak, eskuizkribuen munduko xehetasunek ere badute, idazkeraren fenomenologiari buruz, kontuan hartzeko den nabardurarik. Zenbait eratako eskuidatziak aurkez ditzagun.

1.1. *Norberaren gordailu kutun direnak*

Hala zen, adibidez, Oiartzungo "Alkate Xaharrene"-ko neskatzak "berekin zuen karteratxoa, beste bertso berri zenbaitekin Santa Klararen koplak kopiatuta gordetzen zituena, isilpean kantatzeko" (5).

Eraginik txikienetarikoa du jokalmolde honek, bai testuen produkzioan, bai kontsumoan eta bai zabalkundean. Norberaren mailan bukatzen da testuon eragin-indarra.

(5) M. LEKUONA: *Bi antzerki ta itzaldi bat*, "Kuliska Sorta", 56 z., "Itxaropena", Zarauz, 1965, 108-109 or.

1.2. *Familia barruko altxor direnak*

Aipa ditzagun, esate baterako, Leizako Uhalde familiak idatzirik zeuzkan Pasioko bertsoak eta errosarioko misterioen iruzkinak, 1835ean Maria Josefa de Uhaldek idatziz jarriak (6).

Testua ez da herri-mailakoa. Elizgizonen batek idatzia izan zitekeen. Batek bakarrik erabiltzekoak ziren, agian, baina errosarioko irakaspenek pentsa-arazten ere digute familiartean erabiltzen ote ziren. Eta transmisioa, berriz, norberaren gordailu kutunak baino zabalxeagoa izan zezakeen testuak, famili barruan gutxienez. Hala ere, ez da literatura sailekoa idazki honetan ematen den dotrinazko iruzkina. Aldiz, herri-poesiatik nahiko hurbil daude Pasioko bertsoak.

1.3. *Ofiziokoan artean erabilitakoak*

Argibide ona damaigu hemen Oiartzunen gertatutakoak: "Erreal biko kaier-kuadernotxo batean kuriosoki birridatzia, erriko jostundegi batera etorri zan..." (7). *Santa Jenobebaren Bizitza*, Juan Kruz Zapirainek, Gregorio Arruek euskeratutako liburu batetik gaia hartuz, bertso berrian paratua (8).

Jostundegitik etnografiara irago zen, eta etnografiatik liburuska izatera. Estiloz bertso-papera zen, baina ezin ahaztuzkoak ditugu ofiziokoan artean eginiko erabilkera eta ahoz-ahozko transmisio horiek.

1.4. *Arrastoen bidez hitz biziko testuak adierazten*

Udarregiren sistemaz ari gaituzu. Bertso-paperak ateratzera beharturik zegoen eztabaida baten eskakizunez. Idazten ez zekenez, berak bere

(6) *Jesusen Pasio Doloroso edo Arrosarioco Bost misterio Dolorosoac*. Lehendabizi misterioen iruzkina dator, eta ondoren guruzbidea bertsoan. Eta azkenean honela dio: "La escribió Josefa de Ugalde en esta Billa/ de Leyza en los Años de/ 1835". Pasiok 197 estrofa ditu. Eta eskuizkribua Aresotik etorri eta Donostian bizi den Arregitarren familiak gordetzen du. Familia batek dituen eskuidazkien artean, ikus J. M. SATRUSTEGUI: *El cantar de "El Judío Errante"*, in "Fontes Linguae Vasconum", 7(1975), 339-361 or.

(7) M. LEKUONA: *Genoveva de Brabante, por el "bertsolari" Juan Cruz de Zapirain*, in "Trabajos del Laboratorio de Eusko-Folklore, Vitoria, 1929. III-XII or. A. ZAVALA: *Zapirain Anaiak*, in "Auspoa", 123-124-125 zz., "Izarra", Usurbil, 1975, 61-132 or. "Sorabillane"-koen jostundegian, "Tronpeo" baserrian, Oiartzunen, neronek entzuna.

(8) M. LEKUONA, ibid.

kasa marrazko adierazpide berria asmatu zuen, izkribukera berria. Hala dio A. Zavalak:

“Bertso sumatzen, bere gisa, garia jotzeko kuartuan aritzen zan, ta, bertsoa sumatu-alean, tella-puska batekin paretan arrastoa egiten zuan... Gero... (idazkaritza egiten ziona etorritakoan) garia jotzeko kuartora joaten ziran, ta an, arrastoaren aurrean, Udarregi sumatutako bertsoak esaten hasten da, ta Jose Txiki eskribitzen. Gero, onek betetako papera, inprentara eramaten zuten” (9).

Gogoan hartzeko gertakizuna haxe: idazkeraren legez eta moldez ari beharrak eramaten du bertsolaria, idazkeraren kideko sistema bat, bitxia bezain harrigarria, asmatzera. Ahozkoaren eta idatzizkoaren artean bertsolariak amore dagio idazkerari, guztizko argitasunez erantzun praktikoa bat aurkituz.

Adibide soil hauek, zabalagoko ikuspegi batzuren aurrean jartzen gaituzte: idazkeraz baliatzearen aurrean, bai norberaren mailan, bai familiarren eta taldearen mailan, bai ofiziokoen lanordutako mailan. Lumaz idazten jakin beharra zegoen, argitalpenen itxurapean zetorren joera berriari erantzuteko. Eskema metrikoak errespetatuz idazten ikasi aurretik, ortografia konbentzionala ikasi aurretik, eta *abc* sistema ikasi aurretik ere, eginik zegoen idazkeraren kultur hautapena.

2. Argitalpenak

Eskuizkribuek baino areago eragiten dute argitalpenek estilo berriago baten sorkuntzan. Testu inprimatueta hiru modalitate aukeratuko genituzke: bertso-paperak, aldizkaritako testuak eta liburuskak.

Moldiztegi inprimaturiko testuek, tirada bat izaten dute, eta ale asko izan ohi dira eskuarki testu bakoitzarenak. Honek zabalkunde ezin hobea dakarkio testugintzari, leku askotara iristeko, eta denbora luzean irauteko ahalgoa paperak eskuratzen duenez. Eta publikotasuna ere hartzen dute idazlanek argitaratzeari esker, modako joerak bermatuz eta beste zaharragoak baztertuz. Hitz batean, estilo berri baten ezaugarriak markatuz.

(9) Id.: *Udarregi bertsolaria*, in “Auspoa”, 56 z., “Izarra”, Donostia, 1966, 54 or. “Bañan Jose Txikik joaterik etzeukanean-edo, Udarregi bera jeixten zan Usurbilla, eskuan makil bat artuta, eta paretako arrastoko makillan ekartzen zituan. Ta makillari begira esaten zizkion bertsoak Jose Txikiri” (56 or.).

2.1. *Bertso-paperak*

Kontsumoko herri-literatura bat hasten zaigu bertso-sorta idatziekin. Eskuizkribu izan behar zukeen pieza horrek, erosleak ditu, eskabide bat dago, eta handik eta hemendik eskaintza bat egin behar zaie erosle eta irakurleei. Merkantzia bat izatera iristen da bertso-papera, ferietan, mezon-dotan eta jendea bildu ohi den lekuetan, eta ateondoan ere bai, saltzen delarik (10).

Jokoan sartzen dira autoreak, argitaletxeak, saltzaileak, harreman jakinak direlarik horien artean, testugintzan bere eragina duten harremenak. Eta aurkezpen jakineko produktoa eskaintzen da: kantatua, estrofa luzeetan idatzia. Eta gaiak ere oso jakinak ditu: ahozko estilotik asko duen publikoak gogoko dituenak dira, kroniketatik hasi eta lirika indartsurainokoak. Gure artean eraskotara landua izan den mugabarru idatzizkoa (11).

2.2. *Aldizkariak*

Aldizkarietan datorren bertso-sorta, edota ipuin herrikoia, ez da bertso-paperan datorren bezalakoa edota herriak kontatzen duen antzera idatzitako eleketak. Ez dira protagonismo bat duten piezak, baizik eta apaingarri, entretenigarri eta dibertigarri datoz, beste "sakonagoko" idazlanen erdian. Aldizkariak berak du lehentasuna, eta testu herrikoi horien artegintza beste helburu batzuen zerbitzurako jartzen da.

Bestalde, aldizkariak berak ikuspegi mugatuak eduki ditzake, bai ahozko testugintzari buruz, bai autore jakinei buruz, bai literatur politikari buruz. Eta guzti hauek kanpotik baldintza dezakete, axalean bederen, herriarengana iristen den testugintza, duda-mudakoa gerta litekeelarik horrelako aldizkarien laguntza eta ekarria herri-literaturan. Hala ere, beti izan dira aldizkari espezialduak, lan ederra utzi dutenak arlo honetan, edota espezialduak ez izan arren, lan estimagarria egin dutenak bertso berrien eta ipuingintza tradiziozkoaren mesedetan (12).

(10) Id.: *Bosquejo de historia del bertsolarismo*, "Añamendi", 37 z., Zarauz, 1964.

(11) Id.: *Bertso paperak*, in "Jakín", 14/15(1980), 115-132 or. Batez ere ikus "Auspoa" bilduma, 1-196 liburuak, salbu kontaerak, teatroak eta abar.

(12) Id., *ibid.*, 129-131 or.

2.3. *Liburuskak*

Liburuska edo opuskuloetara iristean, autoretzak luze-zabal berezia hartzen du. Ez da iadanik nahikoa testua bera bakarrik eta bere soilean. Liburuak autorearen ezagutza dakar: beronen bizitza, lan osoa, artista maila, eginkizun artistikoa eta abar balioztatzea. Norbaiten langintza da nabari, nortasun horrek gero eta lehentasun haundiagoa bereganatzen duela.

Lehen tradiziozko altxorra eta bilduma zena, orain antologia bilakatzeko joera dago. Antologiak ordezkatzan du, lehen buruz gordetzen zen altxorra. Eta generoak bereizten hasten gara, joera nagusien historia egiten, eta pertsona jakinen ekarria bereizten, konparatzen, mailakatzen eta sailkatzen. Eta autoreen inguru eskolak eta mugimentuak aipatzeari ere ekiten diogu, testuetan oinarri hartuz, ikerkuntza aurrera eramaten delarik. Eta zerbait berria mamitzen zaigu, ahozketasuna literaturan eta literatura ahozketasunean errefraktatzen eta barneratzen direnean.

Erakus-aukera edo “muestreo” honek erakusten digu, ez bakarrik gaiaren zaila eta korapilotsua, baizik eta zeintzuk diren punturik arretagarrienak erdi-ahozketasunaren eta literaturaren artean aztertu beharko lirakeenak. Aipamen eta bereizketa bat egin dezagun:

a) *Alderdi historikoa*.—Guk ikuspegi ongi hornitua dugu XIX-XX mendeko herri-literaturaz. Hala ere, lehenagoko daturik ere bil liteke, batez ere baladetatik abiatuz. Ez dugu ahaztu behar, “colportage” deituriko literatura, edota mertxeroena eta kinkilariena, XVII-XVIII mendeetan nahiko zabaldurik dagoela Frantziako zenbait lurraldetan, eta horietako piezak euskarara itzuli-ta daudela. Eta orain arte egin duguna baino zerbait gehiago zehaztu litekeela XVII-XVIII mendeetako baladen eta eleketen historia. Baina gure gaurko arlotik kanpo dago ikuspuntu hau.

b) *Alderdi soziologikoa*.—Nola gero eta ugariagoa den alfabetatzearen bilakabidea, gizabanakoa eta gizartea bera ere eraldatzen direlarik. Gertaera progresiboa da. Gero eta gehiago dira irakurtzeaz eta idazteaz baliatzen direnak. Eta honek aldaketa soziologiko bat dakar erdi-ahozketasunaren sorkuntzan, erabilkeran eta transmisioan. Baina bilakabide soziologikoa ezin izan gure gaurko eginkizuna, bistan denez.

c) *Alderdi antropologikoa*.—Kantari eta esatari izanez bizi zen artistak psikologia aldatu egiten du. Idazkerari esker, idanik ez du beharrezko interpretari izatea jendaurrean. Eta ahalmen eta prozedura mnemoteknikoak beste era batera lantzen ditu. Ospakizun eta festa giro kolektibotik bakarkako idazlanetara bihurtzen du bere eginpidea. Baina alderdi hau, denik eta interesgarriena jotzen bada ere, eta euskal ahozketasunean fruitu estimagarriak eman dituen, ez da guk gaur kontuan hartuko dugun saihesta.

d) *Alderdi estilistikoa*.—Hau legoke azkenean, eta berori dugu guk hemen azpiragotik harrotuko duguna. Bertso-papera eta liburusetako estiloa batikbat. Ez agian tradiziozkoa eta literatura kultoa bezain landua, baina bai ugaria gure artean, eta benetako garrantzia hartu duena.

II. IDAZKERAREN LITERATUR FENOMENOLOGIA

Erdi-ahozkotasunaren gertakizuna sakonagotik ezagutzeko, bide ego-kia iruditua zaigu, idazkerak sorturiko fenomenologia bere alderdi desber-dinetatik aurkeztea, horrela, idazkera zein baldintzetan egiten den ikusiz, estiloaren berezkotasunak era egoki eta tajutuan uler eta baliozta ditzagun.

Hitz bizia delako hori grafia soil bihurtzeak, eraldaketa bat dakar testuan bertan, autorearen nortasunean, testugintzaren kontsumoan, idaz-lanen transmisioan. Eta orain estilo berriago honen azpiegitura xehekiago irudikatu nahi genuke.

1. Testuaren ezaugarriak aldatzen dira

Testua ahozkoa izatetik idatzia izatera eginiko aldakuntzan, ahozko-tasunaren zenbait ezaugarri galtzen diren heinean, idatzizkoaren beste zenbait eskuratzen dira, testugintzaren nolakotasuna eraldatuz.

1.1. *Idatzizko testua beti bera da, aldaezina, iraunkorra*

Ahozko testua, idekia esaten diogun hura, pieza bat baino gehiago-ren osagai izan liteke, tradiziozko klitxe eta estrofa berak pieza bat baino gehiagotan agerzen direnez. Legezkoak dira testuen arteko kutsadurak, testu zeharrekin egindako eraikuntza berriak. Zilegi da tradizioa, usarioa-ren lege barruan jakina, batek eta besteak erabiltzea.

Idatzizkoa, bestalde, testu itsia deiturikoa dugu. Bertsio bat bakarra onartzen du eskuarki. Eta papera dugu beti testuaren arau eta lege seguruena. Kantore bati memoriak hutsegingo balio, idazkian luke, noski, berriro haria hartzeko modurik egokiena. Lanaren jatorrizkotasunak eta orijinaltasunak ikuspegi berria bereganatzen du. Testuak erabat berria izan behar du, idazmunduaren lege barruan jakina, beste pieza bat asma-tzen eta ehotzen denean.

1.2. *Buruz ikasi beharrik ez du*

Piezaren iraunpenerako oroitzapena beste biderik ez zenean, artistak kontuan zuen beti mnemotekniaren arazoa testua sortzerakoan. Kontuan zituen, adibidez, estrofatik estrofarako loturak errepiken bidez eginak, sekuentzien egitura paralelistikoak, kontzeptuen kontrajartzeak, eskema erritmikoen barruan dauden tinkapen akustikoak, hoskidetzak, isuri foni-koak eta abar.

Oroitzapenarekiko zerikusi hau ezkutuago geratzen da testu idatzian. Iadanik ez da beharrezko prozedura guzti horietaz baliatzea, memoriari laguntzeko behintzat. Beraz, estetikagatik erabil daitezke eskuarki aurretantzean. Eta galdu ere gal litezke eta ahaztu, batez ere horrelako baliabi-deak, ahotan dabilzan eta modan dauden eredueta, erabiltzen ez badi-ra. Adibidez, euskal ahozketasunak bere-bereak dituen errepikak egiteko prozeurak, ezkuta litezke aurretantzean, memoriari guztiz beharrezko ez zaizkionez, eta beti ikusten ere ez denez berorien balio estetikoak.

1.3. *Bapatekotasuna galtzen du*

Ahozkararitza, inprobisazio edo bapateko ihardunean ari denean, asko du mimetikatik eta entzuleen eta ingurugiroaren aldetik. Ez da berdin bertso-saioa zuzenean entzutea eta gero haren transkripzioa irakurtzea. Bertsolarien keinuek, entzuleen eta plazako mila zirkunstantzien eraginek osatzen dute espresio poetikoaren maila betea. Eta gerta liteke, idazkiz bakarrik ezin ulertu izana bapateko bertsoen esanahia. Edota gerta liteke, bi kantuk entzuterakoan efektu bera guri egitea era irakurtze-rakoan alde handia ikustea saio baten eta bestearen artean.

Testu idatziekin, berriz, ez da horrelakorik. Paperak du erreferentzia bakarra, esanahiaren aldetik behintzat. Testuak, une eta leku jakinak ezezik, ingurune geografiko eta historikoak gaintitu behar ditu, halako unibertsaltasun bat hartuz.

1.4. *Xehetasunetan irabazten du*

Ahozketasunaren beste ezaugarri bat "ideien eta irudien mugimendu azkarra" baldin bada (13), idazkerak honi beste jokabide logikoago eta zehatzago bat kontrajartzen dio.

(13) M. LEKUONA: *Literatura oral vasca*, in "Idaz-lan Guztiak", 1 t., "Kardaberaz Bilduma", 22 z., "Eset", Gasteiz, 1978, 267-269, eta 276 eta hur. or.

Ez ditu hain maite estilizazio prozedurak, koerentziarik gabeko loturak irudien eta mezuen artean. Hausturarik gabeko estiloa da, eta behartu gabea. Xehetasunetan zehatza. Logikan errurik gabea. Eta piezen egituraketan ere eraikuntza oso baten eitea gordetzen duena ahal den neurrian.

1.5. *Bertsio bakarra izaten da*

Ahozko tradizioari dagokion kantua polimorfoa da, eta kantuak ez du bizibiderik bertsio askotan osaturik ez bada. Eta ez du indar bera bertsio bakoitzak tradizioan, memorizatzaileen oroipen-indarra berdina ez den antzera; edota generoen usuarioak leku guztietan indar bera ez duen antzera; edota testuen jatorrizko euskalkitik beste euskalki batera iragozteak iraun-indar bera ez duen antzera.

Testu idatziak, aldiz, badu kemen bat, badu eitte bat, badu tajukera bat, gizabanakoen eta gizataldeen baldintzek ere eraldatzen ez dutena. Eta testuak izaera objektibotik badu, beste baldintza guztien gainetik dagoen baldintza objektibotik, alegia.

Hitz biziaren adierazpen grafikoa dugu idazkera. Eta ahozkotasunean hotsen memorizazioan bizi zen testua, idazterakoan tresna bihurtzen da, ikusmenezko zeinuen bidez testua jasotzen duen tresna, beti bera, erabilgarria, iraunkorra, ugaria, memoriaren askatzailea, interpretatzailerik eskatzen ez duena, zehatza eta fierra. Idazkerak dakarren lehenengo aldaketa nagusia testugintzaren munduan.

2. **Autoreak nortasun berria hartzen du**

Egileari buruzkoak lirateke idazkerak ezarritako beste aldakuntzak.

2.1. *Anonimotasuna galdu eta autoretza jasotzen du testuak*

Tradiziozko kantuak ezabaturik eta galdurik dauzka autorearen zantzu zehatzak. Ez du inor jakinik egile, eta autoretza ezagutu beharrik ere ez du, noski, testuaren ñabardurak balioztatzerakoan, kolektibitatearen zertzeladek garrantzi haundiagoa dutenez eskuarki autorearenak baino. Autorerik ez bait litzan funtzionatzen du ahozko testugintzak.

Ez hala, ordea, idazkeraren munduak. Hemen-honetan, autorearen luzapen duzu testua. Egileak izenpetzen du idazlana. Dena idazlearen galbaean ehotzen da. Tradiziotik ere baduke, baina autorearen haritik eta

ondaretik beti. Joera sozio-kulturalak ere autorearenak dira, testuek koka-men historikoa badutelarik. Zer esanik ez egilearen nortasunak ezartzen dituen izaerak, gustamoldeak, iritziak, sentiberatasunak eta gainerako dohai artistikoak.

2.2. *Idazle izatera lerrätzen da artista*

Plazagizonaren alboan, idazle huts den artista sortzen da. Gogora ditzagun Bordel bat (14) eta Graziano Anduaga bat (15) lanordutan ere papera eskuetan zutelarik, edota azkar idazteko asmoz, aritzen zirenak, bururatzen zitzaizkien bertsoak ahaztu baino lehen kopiatzekotan. Eta antzeko bidetik hartzen dute bertso-jartzaile huts direnek ere.

Ez dute festa paratu beharrik. Idaztea da beren lana. Eta honek eramaten ditu idatzizko ereduak ezagutzera, egitura aberatsagoak eraikitza, garaiko eskakizunei erantzun bat ematera. Eta ahaleginduko da literatura idatzian eskolatzen, nahiz eta urria izan berak jaso dezakeen idaz munduko prestakuntza eta eskolatzea.

2.3. *Interpretari eta gordailu bizi izatea galtzen du*

Piezaren egilea iadanik ez da nahitaezko antzeslari, kantari, hizlari, errezitatzaile. Ez du zuzeneko harremanik entzulegoarekin. Gero eta gutxiago du mimetikazko estilotik eta ahozko estilotik.

Iadanik ez da "liburu bizia", liburugilea baizik. Iadanik ez da tradizioaren gordailu berezi, norberezko etorriaren sortzaile baizik.

Eta herri-kontzientziaren interpretari den aldetik, beste maila batekoak ditu kolektibitatearen aitorpena eta onarpena. Eginkizun sozial desberdina du idazle den aldetik: pluralagoa, libreagoa, kultur proiektu berriago baten eusgarri izan ohi delarik.

Autoretza tartekatzen den heinean, eta idazletza ofizio berezi egiten den neurrian, artistaren nortasunak alderdi semantiko berria dakarkio

(14) J. M. SATRUSTEGUI: *Bordel bertsulaia*, in "Auspoa", 45-46 zz., "Izarra", Donostia, 1965: "Lur iraultzen ari bazen ere, paperra eta luma sakelan zituen beti" (28 or.).

(15) L. VILLASANTE: *Itzaurrea*, in "GRAZIANO ANDUAGA: Egunsentiko txoria ta beste bertso asko", in "Auspoa", 30 z.: "Soluan, itoian (ikulluan), oian nunai (egiten ditu bertsoak). Egun danetan ezta izaten berdin. Eria beti ezta izaten. Eria danian buruz asmatu eta gero eskribiduaz joan bear..." (12 or.).

testuari eta, bestalde, zeregin berrietan osabetetzen da testugileak bere gain harturiko eginkizuna.

3. Kontsumo-legeak ere eraldaturik daude

Paperak eskuartean eduki ahal izateak ere, zeharo aldatzen du testuen erabilkera. Eskuera dagoen zerbait da, irakurtzen ikasi duen edonork bere gogara daukana, nonahi eta noiznahi, eta nahi adina bider, dasta litekeen artegintza.

3.1. *Balia daiteke gizabanakoa*

Kantariak eta esatariek, ihardun ahal izateko, arrazoibide kolektibo bat behar izaten zuten, gertakaria kolektibo bat. Baina irakurlearengan ez dago horrelako loturen beharrik, bakoitzak nahi eta ahal izatea besterik. Norberaren motibaketak dira agintzen dutenak, irakurri edo ez irakurri erabakitzerakoan.

Tradiziozko ospakizunen munduak baino jendeen kezka eta ametsak zerikusi haundiagoa dute, noski, horrelako testugintzan. Eta moda sartzen da tartean, eta denen ahotan dabiltzan joerak, sentierak eta ikusmoldeak dira indarra hartzen dutenak.

3.2. *Balia daiteke kolektibitatea ere*

Jendaurrean irakurtzen duenak, lektoreak, osabete dezake, papera lagun, tradiziozko artistak bete ohi duen eginkizuna. Entzulegoak testua entzuten du, eta memorizatu ere egiten du. Eta testugintza berria hurbiltzen zaio jendarteari, estilo berriagotara entzulegoa hurbilduz.

Eta iadanik testu idatziak ahoskatzen dira elizetan, sukaldetan, ofizioen lanordutan, gremioen langintzetan. Eta tradizioaren alboan sortu eta indartu zen idatzizko testugintza bizia, gero tradizioan sartuko zena, adar berri bezala txertatu ere, tradizioaren zuhaitzean.

3.3. *Nahi adina aldiz errepika daiteke*

Eta honek erabilgarritasunari balio berezia ematen badio ere, aspertea ekar dezake eta, batez ere, beste testu berriagoen irrika eta gosea. Eta eskakizun haundiegirik gabe, askotan nolerebaiteko egokitasunez mami-tzen dira testuak.

Eta dena ona da askotan, idatzirik baletor sorkuntza berria. Ez dago eskakizun haundiegirik testuen aukeraketan eta lanketan.

Kontsumoko testugintza baten aurrean gaude. Eta gizabanakoak gero eta zerikusi haundiagoa du testuen izateko arrazoian. Hala ere, irakurkera kolektiboa bide berri bat da tradizioa ugaritu eta berritu dadin. Baina beti kontuan edukiz, kontsumoa adiago dagoela testuen eskabideari berauen kalitateari baino.

4. Testuen transmisioa eraberriturik

Testuak hel-araztea, iadanik ez da ahoz-kotasunaren eremuan bakarrik osabetetzen, idazkiek horretan gero eta eragin bereziagoa dutenez. Orrialde ibiltarien bidez transmisioa zehatzago egiten da testuaren aldetik, zabalago hedaduraren aldetik, aberatsago xehetasun jakinen aldetik.

4.1. *Testua zehatza da eta finkoa*

Ahoz-aho eginiko zabalkundea ez da erabat berdina izaten transmititzailerik batetik bestera, denek zerbait aldatzen dutenez, zerbait eransten, kentzen edo zuzentzen. Oroimenetik oroimenera ibiltze horrek eraskotako aldakuntzak dakarzkiz testuen oihalean.

Idazkien bidez eginiko transmisioan, ordea, batbera da ereduak beti. Idazkerari esker, algebratzko eitea hartzen duela esango genuke, Jousseren esakera erabiliz (16); eta espresabideen mekanismo biziak esklerosis itxura hartzen dute, eta materia iraunkor bihurtzen dira.

Horrelako espresabide finkoez baliatuz, ikasaldi berdina egiten dira beti, nahi adina aldiz errepika litezke ikasaldi horiek, eta nolerebait gainditurik geratzen dira memoriak dakarzkien arazoak.

4.2. *Zabalkundean gainditzen dira lekuak eta garaiak*

Idazkiarekin zerikusia duten pertsonak, belaunaldiak, erakundeak eta garaiko lege-moldeak igarota gero ere, iraun dezake idazkiz finkaturiko testuak. Denboraren gainetik zabalkundea hartzen du testuak berak tinkotasunean.

(16) M. JOUSSE: *La Manducation...*, 46, 139 etc. or.

Eta berdintsu esan behar lurraldeak gainditzeari bagagozkio. Ahoz-aho eginiko zabalkundeak beso luzeak baditu ere (gogora dezagun "Bortegaray"-ren zaldia, Oiartzunen "Berdabio"-ren zaldia dela bertso-klitxe berean, eta Bizkaian ere jasoa izan dela klitxe hau) (17), ez dituzte zango motxagoak bertso-paperek, aldizkariek eta liburuskek.

Eragozpenik gabe iristen da idazkia edozein mugetara, eta testu berbera da han eta hemen, idazkerari esker gailentzen dena. Eta testugin-tza jakin bat bailara bateko espezialitatea izatetik, denen ondare bihurtzen da, eta genero guztiak ezagutzea badago han eta hemen, eta tradizioa errekuperatu ere egin liteke idazkiei esker, galdurik zegoen beste bailaratan, batez ere subkonszientean berekin zeramaten jendalde haietan.

4.3. *Idazkitik tradiziora*

Honelatsu eman daiteke batetik besterako bilakabidea: idatzitakoak gizabanakoak irakurtzen ditu eskuarki, eta honek buruz hartzen, gero aho biziz entzuleei banatzekotan, entzuleok ere beren aldetik transmititzaile izan litezkeelarik gerora. Edota bestela, eskuarki analfabetoa den entzulegoari testuok zuzenean irakurtzen zaizkio ahots ozenez.

Testua, belarriz entzun eta buruz jaso dutenengan, berriro ahozkotasunaren legeetara makurtzen da: besteak beste, xehetasun konkretuegiak ezabatzeraz, eta osagai berriekin nahastera. Eta baldintzapen horietan jasango du bere erosio-prozesu ohizkoa, harik eta berriro idazkiak erosio horri konponbide bat ezartzen dion arte.

Esan beharra dago, baita ere, idatzizko ederlanda ahozkotasunaren eremuetan onartua izango bazen, estiloz idazki horrek ahozko eredu, prozedura, teknika eta gustamoldetatik hartu beharra zeukala, benetako txertaketarik egingo bazen. Idazkiak zail du ahozko munduan sartzea, estilo honetako osagai asko eta asko erabiliz ez bada.

Ahozko eta idatzizko estiloen mugan bere legeak ezartzen dituen fenomenologia bat azpimarratu ondoren, ikuspegi edo perspektiba moduko bat badugu, mugaldean garatu den idazkuntzak, zernolako proportzioak dituen ikustagun.

— *Corpus* bat metatzen doa, gero eta bibliografia zabalagoa osatzen delarik idazkien bidez, berauek, suntsitzen ez diren arabera, pilatzen ari direnez.

(17) J. M. LEKUONA: *Berdabioren bertsoak* (2), in "Oiartzun", 16(1986), 17-19 or. J. LAKARRA, K. BIGURI, B. URGELL, *Euskal Baladak*, 2 t, "Hordago", Donostia, 1983, 61 or.

— *Dinamika* bat sortu da idazkion eraginpean. Iadanik desberdinak dira testuen bidez artistek hartzaileekin dituzten harremanak. Idazkia dago tartean. Eta tradiziozkoan ez bezalako kontestuan osabetetzen dira, testugintza bera, piezen dastapena eta berauen transmisioa.

— *Estilo* bat markatzen da, kontsumoko idazkietan oinarritua, baina, aldi berean, tradiziozko legeetara lerratzen ezezik, usariozko literatur bitxi preziatuenak tartekatzen ere ahalegintzen dena.

Corpusari buruzko xehetasunak alde batera utziz, eta orobat dinamika horri dagozkion alderdiak, bertso-paperetan eta liburusketan agintzen duen literatur estiloaz dugu geure hirugarren txangoa.

III. ERDI-AHOZKOTASUNAREN ESTILOAZ

Fenomenologia orokorretik abiatuz, estiloaren arazoa zehazki aztertzekoan, lehenik nabari den puntua da, eredu berriak aukeratzen direla, berauen antzirudira testugintza osabetetzeko asmoz. Jokabide honen zergatia, arrazoibide bat baino gehiagotan egon daiteke. Funtsean zera da: artistak ez diela aurkitzen edertasunik aski tradiziozko moldeei, ez gaie-tan, ez hizkeran, ez egituretan. Eta kanpoko ereduetara jo beharra dauka-la, hauen antzeko estiloa erabiliz (18). Eta eredu-aldaketa hau da lehenik azpimarratu behar genukeen alderdia, erdi-ahozkotasunaren estiloa zehazterakoan.

1. Ispilatzen diren ereduak

Eraskotako zantzuak eta arrastoak nabari dira herri-literaturaren idazkeran. Behin baino gehiagotan itzulpen hutsekin egingo dugu topo, bertso-paperen eta liburuska herrikoien itzulpenekin. Beste batzutan jatorrizko testuak izanik ere, bistan da iturria “colportage” edo mertxero eta kinkilariek saldutako testugintza dela. Kontsumoko idazkien kerantza dateke, teknikaz, prozeduraz, kalitatez eta arnasez maila deberdinetakoa; baina beti duintasun apalekoa den produkzio zabala.

Argibiderik emango diguten zenbait ereduren aipamena eskain deza-gun, esanahitsu diren eta eskuera ditugun ereduen aipamena.

(18) D. GIRAUDON: *Chansons populaires de Basse-Bretagne sur feuilles volantes*, “Skol Vreiz”, Montroules, 1985, 95 or.

1.1. *Baladen estiloa*

Aipa ditzakegu frantzesetik itzulitako zenbait eredu (19). Eta balade-tan aurki daitezke erdaratik euskaratutako erromantzeak ere (20).

Egokitze lan bat egon arren horrelako itzulpenetan, autorea saiatzen da, testuak berdintasun dinamikoa izan dezan jatorrizko testuarekin, honen eitzea eta itxura gureganatzen direla. Eta euskal munduko nortasun etnikoari eusten zaion arren, bistan da kalkoaren efektu berbera dutela, eta alboerrietako konta-poesiaren estiloa bertarakotzen digutela horrelako generoen oiartzun horiek.

Oraindik geratzen dira ahozkotasunean agintzen duten legeak, hala nola memoriaren apiorako lagungarriak, sekuentzien hasiera paralelistikoak eta mila teknika zahar eta bertako. Bistan da, baita ere, euskal gizarterako arrotzegiak lirakekeen ñabardurak ezabatzen direla, adibidez burges-aristokratikoen zenbait gortesia, zenbait ohitura kanpotiar. Baina estrofen kopurua, hurrenkera, eta batez ere klitxe murriz eta ilunetan agerturiko pasarteek, adierazten digute zerbait berria sartu zaigula gure testugintzan. Eta ez sartu bakarrik. Geroagoko bilakabideari jarraitzen badiogu, bistan da, XIX mendeko lehen herenean, genero bat landu zuela bertsolaritzak, urkaberako bertsoen multzo lazgarria (21).

1.2. *Idazki erlijiosoen estiloa*

Lehenik eta aurren-aurreneko, buruz ikasten ziren ereduaren eragina legoke. Izan ere, zenbait bertsolariren testugintzan nabaria da eta ukaezina doktrina zaharra deiturikoak utzitako arrastoa (22). Pernando Amezketarra, Xenpelar, Pello Errota, Udarregi eta abarrengan ikus daiteke, nola doktrinaren antzeko estiloa onartzen duten hitzetan eta esalditan, jendau-

(19) L. DASSANCE: *Chronique de la Chanson basque. Anderea gorarik*, in "Gure Herria", 38 (1966): "Ne faut-il pas, dans ces conditions, voir plutôt dans *Anderea gorarik* une adaptation de quelque vieille chanson, de France probablement, comme c'est le cas pour *Errege Jan*, *Elhorri churiaren azpian*, ou *Baldumeko oihana?* (320 or.).

(20) Adibide modura, J. M. SATRUSTEGUI: *Romance del amante relegado en la literatura popular vasca*, in "Fontes Linguae Vasconum", 1(1969) 353-361 or.; *Romance vasco de la doncella guerrera*, *ibid.*, 3(1972), 73-85 or. Beste xehetasun gehiago Y. LAKARRA, K. BIGURI, B. URGULL, *Euskal baladak*, 2 t. han eta hemen.

(21) *Idem.*, *ibid.*, 207-245 or.

(22) Buruz ikasten zen doktriaren eragina, gehiago zehaztu gabe, gauza nabaria da bertsolari zaharretan, bai hizkuntz ereduari, bai lesikoan, modismoetan, arrazoietan eta abarretan. Baita doktrinako pasarteren bati buruz parodiaren bat egiten denean ere.

rreko hizkera hura zela uste izanez, elizetan ere antzeko mintzaera entzungo bait zuten. Beraz, eredutzat egiten die Kristau Bideko testuak, gero hain gaitzetsia izango zen doktrina zaharrak (23).

Bazen, ordea, eliz literaturan beste genero bat, agiografia edota santuen bizitzak deiturikoa, bertso-papera eta liburusketan zerikusia izango zuena idazkeraren aldetik. Ahozkotasunean garai hartan ikusten ez den egitura luzeko bertso liburua sortu zuen Santa Jenobebaren bizitzak (24). Eta Xenpelarrek santuen bizitzei buruz bertso-berriak egiterakoan, agiografiak ematen dio bide, estrofa kantatuen erritmotan klitxe erlijiosoak mamitu zitzen. Eta berdin "tenplu santuan", "sermoi eder bat entzun ondoren" sortu zituen klitxe apokaliptikoak (25).

Literatur kalitatearen aldetik ez liteke zuzeneko ekarri haundirik espero, literaturakoak ez diren piezetatik. Baina agiografiaren herri-onarpenean ez dago ahazterik, jendeek leienda unibertsalen egitura estetikoa aurkitzen dutela, batez ere Erdi Arotik datozen eskema mentalen zantzu estetikoa. Eta gero, ez liteke onarpenik espero, esaldien taxukeran, tradiziozko klitxeen ederra eta jatorra aurkitzen ez bada.

1.3. *Teatroaren estiloa*

Mugaren bi aldetan era eta neurri desberdinetan ematen den bulkoa litzateke teatroarena. Eta hala behar, izan ere, mugaren bi aldetako antzerki usuario desberdina kontuan hartzen badugu.

Ifarraldeko kantutegietan, eta umorezko nahiz satirazko bertso-berrietan, gauza nabaria dugu teatro zaharraren presentzia, gaietan, egoeretan, pertsonaietan, elkarrizketa moduetan, poemen erritmo osoan.

Etxahundarrak bakarrik aipatuko nituzke adibide modura. Barkoxekoaren kantugintzan ongi nabaria da herri-teatroaren zantzia eta bizia. J. Haritschelharrek aski ongi agertu digunez (26). Eta Etxahun Iruri deitu-

(23) J. M. REMENTERIA: *Euskal "Kristau Ikasbideen" historia laburra*, in "Kristau Bidea", "Jakin", Oñati, 1975, XXI-XXII or.

(24) A. ZAVALA: *Zapirain Anaiak*, ..., 61 eta hur.

(25) Id.: *Xenpelar bertsolaria*, in "auspoa", 88-89-90 zz., "Izarra", Donostia, 1969, 379 eta hur.

(26) J. HARITSCHELHAR: *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun, (1786-1862). Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe. siècle*, "Cino del Duca", Biarritz, 1969, 324 eta hur. or.

rikoaren liburuan ere, bete-betea agertzen zaigu pastoralen estiloa, hain zuzen ere, bertso-sorta asko eta asko pastoraletako zati direnez (27).

Eredutza hori zailago gertatzen da hegoaldean zehazten, lehen begirada batean behintzat. Hala ere, bada gertakaria bat aski esanahitsutzat jo litekeena: teatrogile eta antzeslari direla bertso-paperen zenbait egile. Hiri haundietako bertsogintza bat teatroarekin loturik datorkigu. Hala nola Donostiako eta Tolosako zenbait autore. "Iru komeri bere burutik asmatu zituan Pepe Artolak" (28), eta "bi komeri asmatu zituen Ramos Azkaratek" (29), eta teatro-lanetan saiatu zen Biktorianoa Iraola ere (30).

Txirritaren bertsolaritza komikoak ere asko du teatrotik, zelebrequeriazko egoera prantatzean, elkarriketa moduan, pertsonaien karakterizazioan (Txirrita bera ere, mutil zahar eta gizen porrokatu, pertsonai hauekako bat delarik bere zelebrequerietan, eta publikoari eginiko oharkizunetan. Bakarriketa zelebreen eitea dute Ereñozukoaren zenbait bertso-saio idatziek (31).

Mimetikazko estiloaz asko baliatzen da bertsolaria, eta esataria ere bai. Baina ez gutxiago teatroak izan duen tradizioetik. Eta ahozko antzerkigintza alde batera utziz, hiri haundietako bertsogintza hor dago, teatro-giroan bizi izan dena. Idazleek buruz ikasten zituzten teatroko piezak, itzuliak zirelarik behin baino gehiagotan idazlan horiek. Eta itzuliak zirenez, erdarazko moldetan osabetetzen zen beren ekarria.

Estilo honek herri haziagokoen tankera izan dezake: ez hain landua ahozkotatasunaren aldetik, baina bai bizia, eta jendearengana iristen dena, garaiko topikoen sorburu jakina.

(27) J. LARRONDO: *Etxahun-Iruri khantan*, "I.P.A.", Pau, 1977, "Phastual khantoirik", 29-48 or.

(28) A. ZAVALA: *Pepe Artola Elizetxea*, in "P. ARTOLA: *Ustez laguna detan ta beste bertso asko*", "Auspoa", 4 z., "Itxaropena", Zarauz, 1961, 15 or.

(29) Id.: *Ramos Azkarate Otaegi*, in "R. AZKARATE: *Galtzaundi ta beste bertso asko*", "Auspoa", 7 z., "Itxaropena", Zarauz, 1962, 10 or. eta abar.

(30) Id.: *Bitoriano Iraola Aristegieta*, in "B. IRAOLA ARISTEGIETA: *Oroitzak eta beste ipui asko*", "Auspoa", 9 z., "Itxaropena" Zarauz, 1962, 10 or.

(31) Id.: *Txirrita (Bizitza ta bat-bateko bertsoak)*, in "Auspoa", 19-20 zz., "Itxaropena", Zarauz, 1962. *Txirritaren bertsoak (I eta II)*, in "Auspoa", 101-102-103-104 zz., "Izarra", Donostia, 1971. *Ustu ezin zan ganbara (Txirritaren zenbait bertso ta gertaera)*, in "Auspoa", 126 z., "Izarra", Usurbil, 1976.

1.4. *Aldizkarietako estiloaz*

Kultur politikaren aldetik helburu finkoak eta zehatzak ditu aldizkariak, eta talde baten iritziak adierazten ditu. Proiektu bat dakar hizkuntza-ren arloan, eta honek marka bat uzten du testuen nolakotasunenean, estetikazko gustamoldetan, gaien aukeran, egituren forman, ahozkoari buruzko ikuspegi eta onarpenean edota gaitzespenean, eta beste hainbat alderditan.

Beraz testua ez da erabat autonomoa bertso-paperan bezala, bitarte-koek balioztatu eta erabilia baizik. Aldizkariaren araberrako funtzionalta-suna hartzen du testuak.

Aldizkariak eskua sar dezakete, ez bakarrik ortografian edota morfo-sintasian, baita lexikoaren aukeran, estilistikan, generoen aukeran, pieza-ren luze-zabalean, eta funtsezko literatur alderdien balioztatzean ere.

Poesi arloan, pieza laburragoak egiteko joera da gailentzen dena. Eta aldizkariaren barruan, funtzionaltasun jakina dutenez bertso-sortek (eder-garri eta deskantsagarri izan), bineta eta asmakaria eitea ere sartzen dira estiloan. Aprobata berriak egin ditzake bertsolariak, kazetari munduko apaingarri eta denbora-pasarako diren saioen haritik. Bilintxengan ikus daitekeenez (32), eta berdin Basarriren bertsozko iruzkin laburretan, pro-sazko lan luzeagoen erremate eta bukaera gisan erabilietan (33).

2. **Prezeptibakiko aldaketak**

Gorago adierazi dugun fenomenologiaren arabera, estilo mudantza nahiko nabarmenak dira idazkerak ezartzen dituenak. Eredu zabalak aipatu ditugunez, orain xehekiago ager ditzagun prozedura eta tekniken alderdietatik sarturiko aldakuntzak.

2.1. *Pieza luzeen egituraketa*

Ahozko estiloko kantarien eta esatarien iharduna, laburra da eskuar-ki, batez ere idatziarekin kontatzen dugun unetik. Idatzizkoak, ordea, ez du mugarik, hasteko behintzat. Eta egitura-molde batzuk erabiltzen ditu, ihardunari osotasun bat emango diotenak.

(32) J. M. LEKUONA: *Ahozko euskal literatura*, ..., 173-174 or.

(33) Id., *ibid.*, 103 or.

Ahozko testugintzak zailtasun haundiak ditu pieza luzeak asmatzeko, nor bere biografiaren hariari jarraituz mintzatzen ez bada, edota norberak ezagutzen dituen gertakarien kronologiari jarraituz ez bada. Eta horrela-koetan ere behar izaten du literaturan ikasia den norbaiten laguntzarik, ezer tajuzkorik eraikiko badu. Horregatik, azken urteotan agertu diren kontaera jakingarriek, liburuen egiturari bagagozkio, beti han dute idatzizko estiloaren langintza eta laguntza: edo idazlea bera da teknika hori ezagutzen duena, edota beste norbaitek lagundu beharko dio kanpotik, liburuen egitura ongi eraiki dezan.

Uste baino zailtasun haundiagoak daude, ahozko eta idatzizko estiloen mugan lanak argitara ematen dituztenentzat. Honek esan nahi du, tradiziozkoak ez diren beste mugabarruan sartzen garela, eta egituraketa zabalago horiek ahozkoak ez diren beste estilora eramaten gaituztela azken batean.



2.2. *Hoskidetzan grafemak arau bihurtzeko joera*

Tradiziozko kantugintzan, hoskidetza gauza zabala zen eta aberatsa. Hasi hoskidetza magikoa deitu diogunetik (34), eta nahiz bokalez nahiz kontsonantez eginiko aliterazio guztietaraino, ezin aberatsagoa da ahoz-kotasuna, puntua deituriko atalean. Gaur, ordea, bertsolari askotxo ote dagoen nago, aliterazioa erabiltzeko joera galdu duenik. Hoskidetzatik idatzizko sistemara iragotzean, ez dira ohartzen aliterazioek han beren langintza mneumoniko eta estetikoak egin dezaketeenik.

Hiztegi errimatuaren gertakariak ere baduke zerikusirik ahozko estilotik idatzizkora lerratze horretan. Tradizioan hitz errimatuaren kopurua ez da hain ugaria, eta gainera klitxe jakinen barruan ikasi eta erabiltzen ziren, hoskidetasuna esaldiarena ezezik pentsamentuaren erritmoa ere bazelarik. Gaur bada metrikaren alderdi bat, liburuetan ikasi dena eta grafemen bidez ulertu eta erabiltzen dena. Mugaldeko jokabidea hau ere.

Lehenago puntuak eredu zaharretatik gehiago ikasten ziren. Gero bakoitzak zuen bere ahalgoa, horiek erabiltzeko moduak asmatzeko, edota puntu berriak asmatzeko ere bai. Krazio lana zen lehenago puntuen sorkuntza. Gaur, ordea, eskolatze bat dago, estilo berri bat markatzen duena.

2.3. *Baliabide poetikoak*

Ahazkotasunaz egin diren ikaskuntzetatik begiratuta, tradiziozko estiloak dituen prozedura eta teknikarik estimagarrienak eta landuenak, ez dituela ez menderatzen, ez erabiltzen, bertsolariak. Hor daude estilizazio eta abstrakzio prozedurak, hor irudien erabilkera desarrazoizkoa: hitz batean, dekorazio-olerkia eta koplak. Eta jakingarri dena, prozedura landu horiek, tradiziotik datozenak, lehenago berreskuratu dituztela idatzizko estiloan diharduten olerkariak, azken aldera behintzat, bertsolariak baino.

Arrazoibide asko egon liteke guzti honen esplikakizun. Baina esan beharra dago, zama erretoriko ikaragarria jaso duela poemagintza mota batek, eta ez dituela bereganatu hizkuntzak dituen baliabide finenak. Bapatekotasunak, mnemotekniak, ironiak, estilizazioak, estetika tradizionalak ez ditu arduratzen; eta onartzen dira paperetan kurri dabilzan hainbat eredu arrunta eta merkeago, tradiziozko onenetik gutxi dutenak.

(34) M. LEKUONA: *Literatura oral vasca*, ..., 343-344 or.

2.4. *Kontaera luze eta xehatua*

Bai deskripzioetan, bai hiru unitateei dagozkien xehetasunetan, zuhurrara da eta hitz justukoa herri-kontaera, non eta berari gertatutakoez ari ez den. Ez horrela idatzizko kontaera, ugariagoa denez hau, eta xeheagoa ere bai, mila ñabarduretan.

Eta bertsogintzan ere, indartzen da estilo bat, kronikatik asko duena; edota nahia bada, poetaren eitea baino gehiago kazetari eitea duen estiloa, Daniel Giraudon-ek esaten duena aipatuz (35).

Gehienez, estimu haundiagoa ekarri zaio bertsoari prosari baino. Oraintsu arte herri-kontaerak ez du izan bertso-paperen eta debozio liburusken zabalkunderik. Urteotan, berriz, *Auspoa*-k emaniko haizeari esker, garra biztu zaio eleberrigintzari. Ez du narratiba zaharraren gauza bitxirik. Baina estilo berri bat antzatu da, idatzizkotik ere lerratu dena. Eta bere goitasuna duena gainera, batez ere norberaren bizikizuna edo esperientzia, eta aurrekoetatik dakien tradiziozko altxor pertsonala isladatzen dituenen.

IV. ONDORIO OROKORRAK

Gure gaia garapen-puntu honetara iritsiz gero, ondorio bat baino gehiago legoke guk hemen nabarmentzea merezi lukeenik. Arlo asko sartzen dira hor jokoan: kreazioa, zabalkundea, irakaskuntzak eta antolabidea. Guk geure aldetik, ikuspegi bat, balioztatze bat eta terminologi hurbilketa bat eginez bukatzen dugu.

1. **Erdi-ahozkotasuna**

Hau litzateke mintzaldi honen ondoriorik nagusia: ahozko eta idatzizko estiloen artean hirugarren bat azpimarratzea, batetik nahiz bestetik duen testugintza, bata eta bestea nahasian joaten diren arabera.

Aipatu dugun fenomenologiak eta beronen ondorioz sorturiko estiloak, apio eta oinarriak aski ematen digute, erdi-ahozkotasunaren estiloaz mintza gaitezen.

Testugintza idatzia izanak, eta idatzizkotik dastamena bera eta zabalkundea eta transmisioa egin beharrak, estilo jakin baten nolakotasunak

(35) D. GIRAUDON: *Chansons populaires de Basse-Bretagne*, ..., 105 or.

ditu berekin: testu finko, bakar, autorehun eta ahozketasunak dituen kezkarik gabea. Baina kontsumoko literatur moldeetara isuria, funtzionala, eredu apaletan oinarritua, itzulpen edota egokitze-lana eskuarki. Hala ere, testuak idatzia izatetik bereganatzen dituen abantail guztiak dituen.

Ahozketasuna, berriz, autorearen herri-ondaretik datorkio, eta har-tzaileen giza eta etnika mundutik. Autoreak ez daki ahozko erreferentzia-rik gabe idazten. Eta bildu ohi dituen testugintzan tradizioz datorzkion eta memorizatu dituen esaldiak, espresioak, teknikak, hitzezko esamolde bitxie-nak, mintzabiderako baliabide egokienak. Eta ahozketasunean dabilen aldetik, testigu bat da hitzegiten duena, honek berekin dituen alderdi on askorekin.

Aspaldian euskalduna erdaraz bederen, eta erdaraz gehienik orainstu arte, alfabetatua denez, ez da harritzeko idatzizko estiloaren eragina eta marka nolerebait nabari izatea. Baina agian teori mailan dihardugunean, ez ditugu behar adinbat kontuan hartzen, testu bat noiz den ahozko huts, noiz idazki huts, eta noiz bien erdiko, horrelako bereizketak egin litezkeen neurrian, noski. Eta behar-ordutan, ez dugu adierazten praxis mailan, erdi-ahozketasun bat hor dagoela, tratamendu berezia eskatzen duena, geure adierazpenak egiterakoan.

2. Balio erlatiboko estiloa

Folkloristen ildotik doazenentzat, bertso-papera eta liburusketan emani-ko testuek ez bide dute interesik, ahozko tradiziozkoak diren testuekin konpara balitez (36). Merkeak omen beren edukinez, formez eta artez. Eta egon badago arrazoibiderik aski, gure artean ere horrelako irizpideak nonean-nonean ager daitezten. Jakintz arloan, ezer bada eta, etnologiak eta antropologiak egin dute aurrerapen gure ikaskuntzetan. Beraz, azter-tuago eta preziatuago daukagu tradizioa bertso-paperetako testugintza baino.

Antzeko jarrerari eutsiz, literaturako teorigile eta kritikoak leudeke. Mertxeroen eta kinkilarien testugintza honi eskerrik ez hartzea ez da harritzeko, papera horietako ereduak eta errazkeriak ikusiz. Eta egiaz, idatzizko estiloa eredu bakartzat onartzen bada, zail da horrelako beste irizpide batzutura eramaten, gutxiestera izan ezik.

Beste muturrean, berriz, ahozketasunean berezko giroan bezala bizi direnen irizpide eta jokamoldeak leudeke. Teori mailan mintzatzerakoan,

(36) Id., *ibid.*, 95 or.

eta batez ere prasis mailan, zaku berean sartzen dituzte tradizioa eta erdi-ahozkotasuna. Eta biz bat eginik, bata bezala bestea goraiatzan dituzte edota gaitzesten. Bizitzan gero, liskar asko sortzen da, erabat goratzaile edota erabat mendrezatzaile direnen artean.

Erdi-ahozkotasunari literatur balio erlatiboa ematearen aldeko gara (37). Noiz litzatekeen estimagarri, eta noiz ez hain estimagarri edo balioitsu, mailaz-maila, zenbait adibide aipa dezagun:

a. Nahiz eta gaia kanpotik hartu, eta zenbait egitura eta prozedura ere bai, berridazketa bat ezezik, birsorketa bat ere gailurtzen denean, honelakoetan aurki daitezke tradizioaren eta norberaren aberastasun preziazgarriak, tematikaren eta estruktura aldetik oso onargarri gerta litezkeenak gure literatur kontsumorako. Tradizioak eta norberaren altxorrak zoragarri bihurtzen dute horrelako egokitze lana.

b. Badago literatur maila oneko ereduen kalkorik. Horrelakoetan, kalko huts izanik ere, itzulpena tajuzkoa bada, ekar lezake zerbait onik idatzizko estiloaren aldetik. Berriro ere, baladen itzulpenak, bizirik iraun duten haienak, ditugu gogoan. Eta areago estimagarri, kalko horietan tradiziozko literatur osagai ederrik sartzen bada.

c. Bada literatur mailara iristen ez den eredurik ere, gerta litekeelarik gainera, kalko txarra izatea bestalde. Eta horrelako testugintza ontzat ezin eman, literaturaz kanpoko beste dohaiengatik ez bada.

Beraz, balioa erlatibizatu beharra dago, ereduen, kalkoen eta tradiziozko ekarriaren arabera. Eta beti berezi beharko genituzke ahozko eta idatzizko estiloa erdi-ahozkotasunetik. Eta bertso-papera eta liburusketan ere oso adi egon behar zaio ahozkotasunaren balioari.

Izan ere, ahozkotasuna preziazgarri jotzen dugu. Ez du honek egitura zabalik. Hedadura motxekoa da eta aldian-aldiko saioaren neurrikoa. Baina prozeduren aldetik, mekanismo ezin-hobeaz aparte, hor daude pieza txikiak, eztarriz eta ahoz mamituak, erritmo bizietan kulunkatuak, hotsez eta erritmoz ideien azalpen instintibo eginik. Bai poemagintzan, bai eleberrigintzan, literatura idatziaren punta-puntako estilizazio, abstrakzio eta errepikatze prozeduretan, han dabil ahozkotasuna. Hitz batean, autore bakoitzak tradizioetik dakarren ondare etnikoa dugu.

3. Pedagogi irakatsiak

Erdi-ahozkotasuna eta beronen balio erlatiboa adierazi ondoren, bada guk azpimarratu nahi genukeen alderdi jakinik. Besteak beste, eta orain

(37) Lan estimagarria zaigu J. CARO BAROJA: *Ensayo sobre la literatura de cordel*, "Círculo de Lectores", Madrid, 1988.

une honetan kezkarri edota auzibide diren bi gogoratuz bukatu nahi genuke ikaskuntza hau. Gaurko pedagogi mailan zerikusia duten alderdiak ditugu: erdi-ahozkotasunaren balioa kultur proiektu bat egiterakoan, eta bigarren, ahozko eta idatzizko fenomenu hauek izendatzekoan sortzen diren terminologi arazoak.

3.1. *Erdi-ahozkotasuna testu-ereduen jerarkian*

Testugintzan zer den goien mailako eta zer den bigarren mailako erabakitzeak, pedagogi planteiamentua zuzen edo oker eginik dagoen epaitzen du azken batean. Ahozko eta idatzizko estiloak gutxietsiz, erdi-ahozkotasuna denen gainetik indartzeak, ez luke ondorio on eta beterik testugintzan ekarriko. Bertsolaritza, pastoralak eta herri-eleberrigintza eredu onak ditugu, tradizio-eredu finak aukeratzen baditugu, erdi-ahozkotasunaren eraskin makal, trakets eta hala-holakoak beztertuz. Baina arriskugarri lirateke ahozko eta idatzizko testu proiektuak, ikuspegi kritikorik gabe, erdi-ahozkotasunean batez ere oinarrituko balira. Besterik ezean, ahozko eta idatzizko estiloek behar lukete lehentasuna kultur proiektu bat egiterakoan.

3.2. *Terminologi arazoa*

Gaia zuzenean ukitzen ez badugu ere, zeharka bederen balegoke zerbait aipatu beharrik, estilo desberdinak aurkezterakoan erabiltzen ditugun zenbait terminori buruz.

Ahozko literatura deritzana. Gerraurrean Manuel Lekuonak *Literatura oral* deituriko hura, *ahozko literatura* bilakatu zen euskal idazkietan. Bada izendatze honen aurka dagoenik, batez ere azkenaldi honetan; eta ez arrazoirik gabe noski, batez ere, guk gaur egin dugunaren antzera, mimetikazko, ahozko eta idatzizko estiloak, gutxienez teori mailan, bereiztan badira.

Hala ere, izenburu hori hemen eta hemendik kanpo beste gehiagok ere erabiltzen dutenez (38), erabilgarritasun bat ezin ukatuko diogu hitzari, nahiz eta gauza anbigua dela gogoan. Badirudi hor, *ahozko literatura* esatean testua adierazi nahi duela, nahiz hotsez, nahiz grafiaz mamituri-ko zer hura.

(38) D. LAURENT: *La littérature orale*, in "PLUSIERS AUTEURS: Bretagne, "Christine Bannetan", Le Puy, 1979. Ataizean bederenik dio, espresio hau lehengo gizaldikoa dela, eta bretoi bati zor zaiola gainera: "S'il est un domaine où l'apport de la Bretagne à la culture européenne est depuis longtemps manifeste, c'est bien celui de ce qu'on appelle —l'expression est d'ailleurs d'un folkloriste breton du siècle dernier, Paul Sébillot— la littérature orale" (327 or.).

Ahozko hitzetik abiatuz, beste izendatze hauetara iristen gara: *Ahozko* (oral), *ahozkolari* (oralista), *ahozkolaritza* (oralismo), *ahozkotasuna* (oralidad). Eta gero *ahozko* esatean zer bereizten, mugatzen eta zehazten dugun ikusteko, honelatsu joka dezakegu hobeagorik datorren arte: *ahozko estiloa* (estilo oral), *ahozko testugintza* (actio), *ahozko testua* (passio) ("literatura oral"), *ahozko tradizioa* (tradición oral) eta abar adierazteko.



Bestalde, *herri-literatura* da, behar bada, gehienik erabiltzen dena, eta gure erdi-ahozkotasunaren mundu honi ez bairik gabe dagokiona. Literatura kultoari kontrajartzen denez, bere hedadura zabalean barruan hartzen ditu *herri* mailako testuak, dela ahozkoak, dela erdi-ahozkotasunaren amorez idatzitakoak.

Ez genukeen xehetasun hauetara zertan jaitsi, ikusi izan ez bagenu, pedagogi aldetik testugintza ona aukeratu eta bultzatzeko dagoen beharra, eta bestalde, terminologia zehazten hasteko dagoen premia. Baina badirudi gauza xehe asko dauzkagula arakatu beharrak, gaurko literatur proiektu zabala, eta gaurko irakaskuntza bideratuko badira.

AZKENA

Laburtasunari amore emanez, mintzaldi honen zenbait zati eta zenbait hari nagusi baizik aurkeztu ez baditut ere, nahiko garbi geratu dela uste dut hemen nik, gaiaz, metodoz eta jarreraz, osaba zenak bultzaturiko ahozketasunarekin daukadan zerikusia. Eta aurrera ere saiatuko naiz, herri-literaturari buruzko ikaskuntzak egiten, ahozketasunari zerbitzurik minenak eskainiz, oralismoa zenez osabaren gairik kutunena, eta eskaini zuen mundurik bereziena, eta gure ikasgaia ere bai.

Eta saiatuko naiz, gainera, hau oso gogoan hartuz: gaurtik aurrera beste lotura bat badaukadala osabarekin, bera bezala, eta bere aulkia hartuz, euskaltzain oso izanez, herri-literatura alderdia landu eta zabal-tzea dagokidanez.

Gaurko ekintza honi, bai pertsonen eta erakundez, bai mila modutako harrera onez, eman diozuen duintasuna eta ohoreagatik, eskerrik beroenak guztioi. Herri honetan duzue familia bat, euskararen zerbitzari izan dena. Aurrera ere, eta niri dagokidanez, itxaro ezazue nire gogo bizia eta langintza apurra euskararen alde.

“Agur, jaunak, Oiartzundik; jaunak, agur; agur t’erdi”.

MANUEL LEKUONA, KULTURLARI EUSKALDUNA

1988-VII-30

Juan Mari Lekuona

Pasadizuan ez bada, oraindik landu gabea dago Manuel Lekuonaren biografia. Eta baluke bererik haren bizitza ezagutzeak, hobeto jabetuko ginatekelako, ez Manuelen egintzaz bakarrik; baita euskal kulturaren azken urteotako zenbait alderdiez ere.

Hala ere, berak arreta gehiago zien idazkiei, bizitzako gertakariei baino. Erretirua hartu eta gero, Oiartzuna etorri zenean, esan zitzaion hura izan zitekeela egokialdi ona, bere oroitzapenak idaz zitzaion. Ez zuen aurpegi onik agertu; eta bere idazlan guztiak argitaratzeari ekin zion. Beraz, haren bizitzari buruzko argibideak bi eratakoak dira: idaleek, nahiz euskaldun, nahiz erdaldunek, han ete hemen agerturiko aipamenak, eta kazetariak galdekizunen bidez atera zizkioten eraskotako xehetasunak.

Guzti hauetaz baliatuz, haren idazkietako berriak bilduz, eta zuzenean entzun eta jasotakoak gogoan, geure laburpen biografikoa eskaini nahi dugu. Lekuek eta garaiek ondoen agertuko digute oiartzuar honen nortasuna eta langintza.

1. ETXEA ETA HERRIA

Bi osagai hauek erabat baldintzatzen dute Manuel Lekuonaren kultur izaera osoa. Etxetik eta herritik datozkio eta tradizioa bakarrik, baita euskal literatura eta historia ikasteko bultzada berezia ere.

Manuel Alejandro Lekuona Etxabeguren "Etxetxiki" baserrian jaio zen, 1894ko otsailaren 9an. Gurasoak oiartzuarrak zituen: Jose Luis Maria Lekuona Etxeberria aita, "Espaindegi"koa, eta Franziska Antonia Agustina Etxabeguren Intxaurreaundietza ama, "Lizarraga"koa. Eta bederatzi senide izan ziren, sailean bigarrena zelarik Manuel. Gero, berekin izaten zuten Manuelek hainbat aldiz aipatzen zuen amona Tomasa. Kale-baserri horietakoa zen "Etxetxiki", aita lehenik "Makutso"-ko lantegian eta gero "Portu-berri"-ko zentrolean aritu zelarik lanean.

“Etxetxiki”-ko semea zen baita ere, Manuel Antonio Iñarra, apaiza, euskal idazlea eta euskalaria. Osaba-orde honek Nafarroako Diputazioak euskara irakasteko atera zuen katedra oposizioz irabazi zuen. Baina katedraz jabetu baino lehen hil zen, Manuelek lau urte besterik ez zituenean. Baina Miguel Antonioren liburuak “Etxetxiki”-ra ekarri zituzten: liburuak, idazkiak eta gainerako oroigarritxoak. Eta guzti hauen bulkoa eta eragina ume-umetandik sentituko du beti, batez ere seminarioko bidea hartzen duenetik.

Kultur joera idatzizkoa etxekoa duen eran, aitarengandikoa du bertsolaritzarako zaletasuna ere, aitzak festarik ederrenen artean, meza nagusia eta pilotariekin bertsolariak parekatzen zituenez. Eta etxekotik asko du, gero Manuelek erabiliko dituen tradiziozko kantu, ipui eta hitz biziko ikasketa bildumak.

Herrikoa du euskalkia, eta honen eusgarri diren hainbat hitzezko bitxi. Baina tradizio guztiaz gainera, herrian egin zituen histori mailako lehenengo ikerketa moduak. Serapio Mujila artxiboa ordenupean jartzen ari zen. Eta laguntzera joaten zitzaion “Etxetxiki”-ko estudiantea. Eta Errengako kromlechak ikustera ere joan omen ziren, T. Aranzadi lagun zutela. Eta hartu-eman hauek garrantzitsuak izan ziren, bai Manuel Lekuona histori eta arkeologi bidetan sartzeko, eta bai, beronen bidez, J. M. Barandiaran ere lan horietan hasteko. Hitz bitan, etxetiko eta herritiko hasierak ditugu.

2. PROFESORETZA

Irakasletzan oso gazterik hasia genuen; eta ezer bazen eta, irakaslea zela esango genuke Manuel Lekuona. Izan ere meza berria eman aurretik, banatzen zituen eskolak iadanik seminarioan. Eta 1916an, apaiz egin berria zelarik, ekin zion Gazteizko seminarioko irakasletzari.

Hogei urteren buruan egindako zerbitzuan denetik irakatsi zuen: euskara, arkeologia sakratua, hebraiera, grekera, teologia eta filosofiako zenbait gai eta abar. Ikasle asko eta irakasle gutxi dauden garaietako kontuak ditugu hauek. Hala ere, eragin onik ere izan zuen eremu asko landu behar honek Manuel Lekuonaren jakintz neurrian eta erabiliko zuen metodologian. Jakintza zabaleko gizona agertzen zitzaigun, eta metodo interdisziplinarrrez gaiak ulertzen eta argitzen zituen.

Gaiekiko zerrenda luzeegi honetan, bi sail dira osperik haundiena ekarri diotenak: herri-literatura eta artea. Eta ez da harritzeko bi gai hauetan nabarmendu izana, kultur sentiberatasunez, intuizioz eta jakintzaz aparteko nortasuna zuenez.

Benetan aipagari irakasletzan kideko zituenen lantaldea. Aldian aldian biltzen ziren, gaiak eguneratu eta idaztortza zorroztu asmoz bildu ere, A. Pildain, Canarias-ko gotzaia izango zena, J. M. Barandiaran, L. Araviotore eta M. Lekuona. Lagunarteko batzar hauek zerikusi haundia dute Seminarioko ikasketetan, eta zeresanik ez oiartzuarraren idazkeran, ikerkuntzan eta lanerako gogoan. Seminariokoa du beraren ekarririk estimagarriena, ahozko literaturari buruz ikuspegia, hain zuzen bibliari buruzko bibliografian oinarritua zuenez, batez ere Marcel Jousse-ren idazlanetan.

Hiru sailetakoak ditu aldi honetako idazlanak: batetik eskoletan banatzen zituen gaien inguru landutakoak, (*Métrica vasca*, ikasturtearen hasierako mintzaldia, 1918, *La Poesía popular vasca*, Eusko Ikaskuntzak Bergaran ospaturiko batzarrean eman zuen mintzaldia, 1930, *Literatura oral euskérica*, liburua, 1935. Gero, literatur kreaziokoak leudeke, *Eun dukat*, antzerkia, bi idazkeraldi dituen, eta *Yesu Aurraren bizitza*, Lekeitioko Olerti jaietan saritua 1936an. Eta azkenik *Anuario de Eusko Folklore*-ko idazlanak, Oiartzuni eskainiak.

Gasteizen hezurberritzen da Manuelen kultur nortasuna: irakasletzako apeta betea, arte gauzetarako begirada espezialdua, metodo interdisziplinarra, gaiak idazteko disziplina eta kreaiziorako trabakuntza. Gasteizen mamitu zela esan liteke Manuel Lekuonaren kultur proiektu zabala, eta garatzen hasi ere bai neurri eder batean.

3. ARTXIBULANETAN

Gerrateak mozketa gogorra eta mingarria ekarri zuen Manuelen herrira eta familiara. Egoera ezin izan gozoa: bi anaia fusilatuak zituen, Julian eta Martin: eta Gasteizen jakin-arazi zioten beraren atzetik ere hasiak zirela. Eta orduan, bizirik aterako bazen, ihesari eman zion. Lasarteraino lehen txangoan, handik Frantziara joateko asmotan. Baina Don Antonio Abauntzek kaperau-etxean eman zion gordelekua. Eta lau urtez han egon zen ezkutuan.

Gerratea bukatutakoan, bere egoera normaldu asmoz hasi zenean, hemendik 200 kilometrotara aldegin beharra ezarri zioten, eta Calahorra aukeratu zuen erbeste-leku. Eta bazuen arrazoibiderik Errioxako huri hau aukeratzeko: han zeuden Euskal Herriko zati eder baten historia luzeenaren eliz artxiboak.

Hantxe murgilduko zen, erbestealdiari kultur etekina atera alde.

Bai Lasarten eta bai Calahorran artxiboak baino ikerketa-gai hoberik ez zuenez, eta euskal lanentzat orduan mila eragozpen, eta arrisku zue-denez, dokumentu zaharretan murgildu zen, historilarien ildora lerratuz, eta euskararen esparruko lanak egun argiagotarako utziz.

Urtealdi honetan ez zuen izan lagunarte zabala edukitzeko erarik. Artxibu-maiaketa eta hauetan aurkituriko emaitzak argitaratzea izan zen orduko haren langintza. Hala ere, aurkitzen zuen beti tarteren bat kreariorako eta hizkuntz gaietarako.

Lasarten idatziak ditu *La Parroquia de San Pedro de Lasarte*, 1949an argitaratua. *El convento de las Brigidas de Lasarte*. 1941ean bukatua. Eta konbentu honetan idatzia du *Gerrateko nere Amabi Kantak*, konta-poesiazko olerki idilikoak, autorearen azken poema lirikoa. Andoaina etorrita gero ere, mintzaldi modura edo, behin eta berriz aipatuko ditu Lasarteko historiari buruzko gaiak.

Calahorrako artxibuan hamalau urtez aritu izanak ikuspegi berria, jakintz altxorra eta heldutasun bat ematen diote euskal gaietarako, dokumentu zaharren irakurketen eraginez. Eta Calahorrako elizei buruzko ohar historikoak argitaratzen ditu: *La Catedral de Calahorra*, 1949, *La Parroquia de San Andrés de Calahorra*, 1949, *La Parroquia de Santiago de Calahorra*, 1952. Eta hauekin batera aipatzekoa han bildu zuen Euskal Herriari buruzko dokumentazioa, eta Errioxako toponimiaz eta etnografiaz argiratu zituen ikaskuntzak.

Urtealdi hartan izendatu zuten Euskaltzain Oso ere, 1950ean. Eta Iruñean egin zuen sarrerako mintzaldia. Orduan prestazen du *Gero* liburuaren laugarren argitaraldia, Euskaltzaindiaren aginduz, *Aintzin-Solasa* ere berak paratua duelarik 1954ean.

Beharrak eragiten dio ez gutxi Manuel Lekuonari historiaren barrutia harrotzera. Oso bigarren mailan gelditzen zaizkio ahozko literatura eta literatur sorkuntzazko lanak. Baina artearen historian gehiago sartzen da, Antxieta eta Bazcardoren eskulturgintza dokumentuen bidez arakatzuz. Berriro lotu zaie arteskoletan eman ohi zituen gaiak.

4. KULTUR ZABALKUNDEAN

Erbestealdia 1955eko udazken aldera bukatzen du. Handik etorrita laister, ebakuntza bat jasan ondoren, kaperautza baten atzetik dabil, ogibide bat izateaz gainera, ordu libreak nahi zituen bere idazlanetarako. Ez zuen erraztasun gehiegirik izan, arik eta Andoaingo jesuitinak, txoko bat opa zioten arte.

Zabalkunde urteak direla esan behar Berrospeko kaperauak Andoainen bizitutakoak. Euskal kulturaren dibulgazioari emaniko urteak. Eta balegoke noski guzti honen sustraizko argibide eta esplikaziorik. Irakasletza zuen gogokoena Manuel Lekuonak; eta giro politikoa zerbait lasaitzen hasi zen hartan, gero eta eskabide haundiagoak zetozen handik eta

hemendik euskal hitzaldi eta idazlanetarako. Bokaioz eta beharra lotuz, kultur zabalkundeari eman zion Manuelek, berak ikerturik zeukana banatuz.

Andoainen landuriko jakintz eremuetan bat bereiztez gerotan, artea azpimarratuko nuke behar bada. Eta bi arrazoirengatik: A. Arrazola: *El Renacimiento en Guipúzcoa* lantzen ari zenean, Manuel Lekuona zuen zuzendari *campus*-lanetan. Lehenagoko aldietan arteari buruz lan monografikoak baizik idatzi ez bazituen ere, Andoainen *Arte-izti: estetika eta Arte edergin euskaldunak* idazten ditu. Ikuspegi orokor bat eman zuen berak hain ongi menderatzen zuen gaiari buruz, arte orokorrari buruz, eta Euskal Herrikoari bereziki, bere ikuspegia aurkeztuz. Arteaz gainera, azpimarratzekoa berak hainbat aldiz aipatzen zuen *Euskalerrria historiaren sarreran* izeneko saiakera.

Hasieran Oiartzunen egin zuen eran, eta gero Lasarten eta Calahorran, lekuko kultur gaiak jorratu zituen Andoainen ere. Etorri eta laister, 1958an, opuskulo eran, *La Iglesia Parroquial de Andoain* (boceto histórico), *Doble conferencia acerca de la figura histórica de la M. Cándida de Zipitria y Barriola, Fundadora de la Congregación Religiosa de las Hijas de Jesús*, 1956, *Aita Larramendiren jaiot-etxea*, 1966, *Juan Bautista de Erro y Azpiroz*, *Conferencia-estudio*, 1973 eta abar.



Erraz nabarmentzen da Andoaingo urtealdiaren garrantzia. Andoainen bukatu zuen gerraurretik hasia zeukan *Del Oyarzun antiguo* liburua, 1959. Orduan egin zuen liturgi itzulpenetako lana, taldearen idazkaria zelarik. Garai hartan izan zen Euskaltzainburu, eta bere lehendakaritzapean hasi ziten euskara batua bideratzeko ahaleginak. Eta zuzeneko jokabidez esku-hartu zuen garaiko hizkuntz eta askatasun ahaleginetan. Zabalkundean gogotik egin zuen lan, inoiz baino gehiago idatziz, inoiz baino gehiago ibiliz herriz-herri zabalduriko irakaskuntzan. Sasoitsu etxeratu zen Oiartzuna, atzean utziz Andoainen urtealdirik emankorrena.

5. AZKEN URTEAK

Hogei urte, lau hilabete gutxi Andoainen egin ondoren, jaioterrira itzuli zen 1975eko Urriaren azkenetan. Lehenagoko lanetan eta pausutan jarraitu zuen. Lan berezia izan zuen bere *Idaz-Lan Guztiak* argitara emateko pretaerak egiten. Eta gogotsu aritu zela esan behar langintza honetan.

Sariak jasotzeko garaia ere iritsi zitzaion. Besteak beste, “Doctor Honoris Causa” izendatu zuen Gasteizko Seminarioan dagoen “Universidad Teológica del Norte de España” deritzan Ikastetxe Nagusiak; gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak Urrezko Domina ematen dio eta Gipuzkoako Seme Kutun izendatu, Euskao Ikaskuntzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek omenaldi bat eskaintzen diote Donostian. Eta Eusko Ikaskuntzak “Manuel Lekuona Saria” deritzana jarri du, euskal kultura lantzeko zereginetan nabarmendu diren ikertzaileentzat. Gainera, bertsolariek omenaldi bat eskaintzen diote Donostian eta Bertsolari Elkarteke ohorezko bazkide izendatzen dute.

Euskal Herriko Unibertsitatea ere familiakoekin harremanetan jarri zen, “Doctor Honoris Causa” egin nahi zukeelako erakundeak. Baina ordurako Probintziako Ospitalean aurkitzen zen, mundutik eramango zuen gaisoaldiak beharturik. Ez zuen izan sari hori jasotzeko egokialdirik. Hilabete eta erdi eritetxean egon ondoren, Jaunak berekin eraman zuen, 1987ko Uztailaren 30ean.

Hilez geroztik ere izan du aitormenik bere langintzak. Euskal Gobernuak, hil-ondorengo tituluz “Gernikako Arbolaren Gurutzea” eskaini zion, euskal kulturari egin zerbitzuengatik. Eta Gipuzkoako Aldundiak, *Idaz-Lan Guztiak* bilduma bukatu zuen eta argitaratu, liburuon erabateko aurkezpena eginez. Eta azkenik, Oiartzungo Udalak Herriko Seme Kutun izendatzen du, Uztailaren 31an, alderdi askotatik hain berea zuen herriaren bereizkuntza, bertakoentzat ohoragarriena, sustrairik sakonenetik sortutakoa denez.

Edukin jakinekoak eta neurri berezikoak ziren Manuelek euskal kulturaz zituen jakintza moldeak; ahozkotasuna eta literatura, ikonografia eta ikonologia, etnia eta historia, folklorea eta hizkuntza. Eremu zabalegia, behar bada, gaurko espezialduentzat. Baina jakingarria ere bai euskal tradizioa landu, gaurko pedagogian sartu eta benetan maita-arazi nahi litzatekeen ordurako.

Adimen zorrotzekoa zen gaiak aukeratu eta ikusterakoan. Disziplina gogorrekoa gaiak idatzi eta argitaratzekoan. Manuel Lekuonak utzi digun ondarea herri-kultura aurkitu izana da, aztertu izana, sailkatu eta balioztatutak izana. Eta erakutsi zigun, maila sustraituan eta maila gorenean kulturadun izaten, bertako mundu honi eta beronen ulerkuntzari atxekimentua edukiz. Kulturadun behar dugu izan, baina Euskal Herritik. Euskaldun behar dugu izan, baina kultura unibertsalera zabalik. Hau da Manuel Lekuonak utzi digun ondarea. Eta hau, berak egindako lan guztien mezua eta ardatza.

JEAN HARITSCHELHAR-EN HARRERAKO ERANTZUNA

Oiartzun, 1988-VII-29

Jean Haritschelhar

Euskaltzain buru ordea

Agintari ohoragarriak,
Euskaltzain lagun-kideak,
Jaunak eta andreak.

Iparraldeko eta Hegoaldeko harremanen aipatzekotan pilotarien arteko lokarriak nahi nituzke lehenik gogoratu herri literaturaren bitartez, gure bertsolariak edo kantu egileak izan direlaketz gertakari ospatsuen lekuko.

Utzirik alde baterat Perkainen kantuak, zaharrenak dudarik gabe, nola ez aipa Irungo partida famatua 1846-eko Abuztuaren 9-an jokatua. Zoritxarrez, irakurtzen dugularik orduan sortu zen kantua, izen bat bakarririk aurki daiteke, Gaskoina Hazparneko pilotari paregabekoarena.

Handik bost urteren buruan, 1851-ko Irailaren 8-an jokatu zen erraboteko lehen partida Urruñako plaza laxo berrian, Antoine d'Abbadie-k eskaintzen zituela sari ederrak: 400 libera erraboteko partidaren irabazleeri, 100 libera pilotari hoberenari, 100 libera plekako pilotari hoberenari. Gaskoina eta hiru Saratar (Michel Dihursubehere, Norberto eta Arrondio (sic)) ari ziren lau Oiartzuarren kontra, hauen artean Belchor eta Manuel, bertzetik bien izen edo deiturak ez zazkiela kasetalariak.

Nahiz Oiartzuarrek galdu partida, Oiartzungo Manuel-ek irabazi zuen pilotari hoberenaren saria. Jakiteko nor zen delako Manuel hori eskuratu nuen 1852-ko Urruñako besten programa eta hauxe aurkitu nuen:

“3.º. Içanen tuzte yar lekhu berechiac, Gascoina Haspandarrac, Michel Dihursubehere, Norberto, Larrondo Saratarrac, guanden urthian erreboteco partida irabaci çutenac:

Manuel Lecuona Oyarzundarrac, ceinec içan baitu yas pilotari hoberenari aguindu precioa:

Norberto Saratarrac, Duhalde Uztaristarrac, pleicaco partida irabaci cutenac.”

Pilotari famatua beraz Manuel Lekuona hori, Iparraldean maiz jokatuko dela bai Urruñan, bai orduan eraiki zen Miarritzeko plaza laxo berrian, bereziki, hain zuzen ere 1854-eko Urruñako bestetan. Hona nolakoa zen partida: Gaskoina eta Harriague Hazpandarrak, Michel Dihur-subehere eta Otharre Saratarrak alde batetik, Elizanburu guarda, Arrondo eta Vicente Urruñarrak Manuel Lekuona-rekin bertze aldetik. Azken hauek irabazi zuten eta Manuel Lekuonak bereganatu zuen pilotari hoberearen saria: erraboteko guante bat, horretan idatzirik zagoela Urruñia-1854 eta guante horrekin dirua: bi ontza urre.

Dakigularik orai bezala lehen ere partidaren ondotik bazela bazkaria eta gero kantu eta bertsuek sortzen zuten omore ona, ez zagon leku txarrean Manuel Lekuona bere lagun pilotaria Elizanbururekin, Jean Baptiste Elizanbururen anaia hau, Leon izenez, guarda Urruñan, bera bertzea bezala bertsolaria eta kantu egilea. Alabainan, Leon Elizanburu horrek eta ez Jean Baptiste-k, askok uste duten bezala, irabaziko zuen 1855-ean Antoine d'Abbadie-k eskainikako olerki saria, urte horretan gai bakarra zela: emazte edalea.

* * *

Horrela egin nuen Manuel Lekuona pilotariaren ezagutza, duela orai 30 bat urte Pariseko liburutegi nagusian, Antoine d'Abbadie-ren paperak ikertuz. Nor zen Manuel Lekuona hori ez dakit. Don Manuel-en aitona beharbada edo bederen familiakoa. Dena den, deitura eta izena berekoak ziren bai pilotaria eta bai igaz ehortzi dugun gure euskaltzain lagun-kidea. Manuel Lekuona pilotiarekin eta Leon Elizanbururekiko adixkidetasuna gatik sartzen gara Don Manuel euskaltzain zenak hain ederki aztertu duen euskal ahozko literaturaren arloan.

Larogoi eta hamahiru urte zituelarik (1894-ean sortua) zendu zen Don Manuel Lekuona bizi luze bat iraganik, elizari, euskarari eta euskal kulturari emanik bere gogo eta indar guziak. Lau apezpiku, berrehun bat apez eta zazpi Euskal Herrietarik jinikako jende ostea Oiarzuarren eta familiaren inguruan, elizan eta kanpoan zauden erakusten ziotela Don Manuel-i beren atxikimendua. Ezin ahanztizko ehorzketak!

Ezin ahanztizkoa ere Donostiako Gotzaiaren mintzaldia Don Manuel-en gorputzaren aurrean, haxe erraiten ziola:

“Hasieratik esan nahi nuke hemen azaltzen danak ez dituela ukatzen Don Manuel onak, inñolaz ere, izango zituan hutsegite eta hutsuneak. Ez luke izan nahi haundiespen-panegiriko bat. Ez zuen horrelakorik onartuko Don Manuel-ek. Bañan uste det badirala une honetan ixildu ezin

leizkeenak: badirala nola edo hala esan beharrezkoak: badira une batzuek, leial jokatu nahi bada, zerbait bereizia eskatzen dutenak.

Baita ere hasieratik Euskalerriko eliz-barruti bateko buru izanik, eliz-estrukturako Gotzai izanik, barkamena eskatu nahi diot bene-benetan, pentsatzen bai det, une gogor eta larri batzuetan, gure zoritxarreko gerratian, Elizak ez zuela behar dan bezalako jokabidea izan Don Manuelekin ta beste batzuekin. Don Manuel, Zuk hainbeste ta hainbeste, ixil-ixilik, mardul-mardul, jarraipen osoz, eskeintza betez, leialtasun argiz, zintzotasun haundiz, maite izan dezun gure Eliza - Ama, gaur bere eguna ospatzen degun Loiolako Inazio donearen antzera, Zuk bai benetan esan izan dezula, hitz eta egitez: Sinisten det, sinisten det.

Hauien jokabidea ikusita diot aurrera, gaurko nere hitz hauek omenalditxo bat izan nahi dute beste hainbeste apaizentzako: ta hoiien artean bere anai Don Martin ospetsu, jator ta langillearentzako. Hauen jokabidea ikusita, honek hainbeste urteetan zear eraman izan dan bidea ikusita, hau da neri bihotz barrendik datorkidana: Merezi, merezi du.”

Hala mintzatu zen Gotzaia, bere omenaldian biltzen zituela bi anaiak, bat bortizki tirokatua, bertzea herbestean hogoi urtez egona, ixilik jasan zituela bere pairamenak.

* * *

Bainan biziak bere bidea derama eta Euskaltzain bat hiltzen delarik bertze euskaltzain bat izendatzen da. Don Manuel Lekuona-ren ordezt bertze Lekuona bat, izenez Juan Mari, osaba bezala Oiartzuarra. Nepotismoa ote, batzuk pentsatu duten bezala? Ez dut uste, ezen hautaketak egiten dituelarik Euskaltzaindiak, tituluak, diplomak eta merezimenduak azterturik bere erabakia hartzen du, erabaki hori dela gehiengoaren erabakia. Eta ez da Juan Mari Lekuona, titulu, diploma eta merezimendurik gabekoa.

Orai zuri mintzo nitzaizu Juan Mari adiskidea. Lehenik nahi dizkitut eskerrak bihurtu aitabitxi gisa hautatu naizulakotz. Zertako ote? Zure osaba eta zu bezala Herri-literaturazale naizelakotz? Badaiteke. Behar bada, bere sortegunetik Euskaltzaindiak Iparraldeko eta Hegoaldeko kideak biltzen dituela ikusirik, nahi ukan duzu erakutsi Europa batu bati buruz goatzilarik, ez duela mugak deus ikustekorik gure harremanetan. Badaiteke ere. Jakin-zazu atsegin haundirekin etorri naizela goiz honetan honarata eta ohoretzat hartu dudala egin duzun hautaketa.

Ohartxo bat hasteko: Sacha Guitry frantses antzerki idazleak, Lucien Guitry antzerki jokolari famatuaren semeak maiz erraiten zuen: Jadanik badaukat aitak emanikako deitura ohoragarria. Norbait izaitekotan, izenaz bakarrik behar dut deituraren arabera fama lortu. Lekuona zara deitu-

raz, deitura ospetsua, Gipuzkoako seme Kuttun baten deitura, osabarena. Osaba zen Don Manuel, zu zara Juan Mari.

Egia da izan dela osaba bide urratzaile, egia da izan zarela haren jarraitzaile. Hura apaiza zen, zuk ere bide berbera hartu duzu. Bainan urrunago joan zara. Erromako Gregoriana Unibertsitatean segitu ditutzu istudioak eta tesia landu Doktore tituluaren lortzeko teologian. Hori zen 1966-eko Maiatzean, Erromako “Pontificia Universitas Gregoriana” famatu hartan, gaia zinuela: “Ideario ascético-pastoral de Fray Bartolomé de los Mártires, O. P. (1514-1590)” urte berean argitaratua.

Bide urratzaile osaba Gasteizko Seminario nagusian sortu zituelarik —hori zen 1920 eta 1936 artean— euskal literaturazko ikasketak, Jose Migel Barandiaran-ek denbora berean idekitzen zituela apaiz-gaien gogoak Euskal Herriko aurre-historia eta etnografia erakatsiz. Zu, halaber arizan zara Donostiako Seminario nagusian, Aszetika eta mistika lehenik, Euskal literaturaren historia gero erakasle izanez eta euskal literaturaren erakaskuntza segituz bai Donostiako EUTG-en, bai Deustuko Unibertsitatean. Beraz biak, osaba eta zu, erakasleak izan zarete, bakoitza bere garaian. Hura zen Don Manuel, zu zara Juan Mari.

Ez dago erakaskuntzarik, bederen mail horretan, ikerketarik gabe. Egia da izan dela bide urratzaile Don Manuel, gerla aurrean nehork ez baitzuen harek bezala sakondu ahozko literatura. Gogora ditzagun haren lanak, hala nola *De métrica vasca* (1918), *Poesía popular vasca* (1930), eta *Literatura oral euskérica* (1935) azken hau berrargitaratua. Zu ere bide hortarik ibili zara eta zabiltza, orai bertan erakutsi duzun bezala. Zuhau-rek aitortzen duzu diozularik: “Ahozko literaturarekiko atxekimendua etxetik datorkit, Manuel Lekuona euskal oralisten artean aitagoietakoa bat osaba dudanez eta zeinari apaizgoan ezezik oralismoan eta poemagintzan hurbildik jarraitu diodanez”.

Duela orai sei urte, 1982-an hain zuzen, argitaratu duzu 265 orrialdeko liburu eder bat, *Ahozko euskal literatura* deritzana. Bainan ez du tituluak egiazki salatzen duen mamia, herri literatura aztertu baituzu ere, herri literaturak ahozkoak baino eremu zabalagoa besarkatzen baitu. Denak ikertu dituzu liburu mardul horretan, bai dekorazio-olerkia, bai kopia zaharrak, bai bertsolaritza, erretorika, estetika eta metrika kontutan hartuz. Aldi bat baino gehiago irakurtu dut eta beti miraturik egona naiz agertzen baitira liburu horretan zure kalitate gehienak: jakituria, zehaztasuna, argitasuna. Nehor ez daiteke herri literaturaz mintza zure liburua aipatu gabe. Liburu horren sarreran zuhaurek aitortzen duzu osabari zor diozuna: “Manuel Lekuona-ren idazlanak oinarri hartzen badira ere, hor doaz gure azterketak eta oharkizunak”. Eta urrunago: “Hemen ere Manuel Lekuonari jarraituz ematen dira kopia izeneko horien pentsaera eta teknika berezia. Bainan saiatu gara gure aburuz arretagarriak diren beste alderdi teknikoak eta ohar kulturalak ekartzen”.

Zein polliki eta zein goxoki, nehorri minik egin gabe erakustera emaiten duzun beste ikuspegi bat azaltzen duzula. Osaba bide urratzaile izan balinbada, zuri esker xendra edo bidexka hori errege bide bilakatu da. Hura zen Don Manuel, zu aldiz Juan Mari.

Eta azkenik nola ez aipa ez zarela Euskaltzaindian sartzen literatura-zale gisa, bainan olerkari eta kreatzaile gisa ere. Hor dira zure olerki liburuak *Muga beroak* eta *Ilargiaren eskolan*, jakinik “Ezkontzeko eskari otoitzak bertsotan” agertu direla *Jaunaren Deia*-n 1982-an. *Ilargiaren eskolan* irakurtuz, ikus daiteke olerki askotan neurtitz libreak baliatzen dituzula askatasun gehiagoren ukaiteko, behar-bada, pentsamenduaren alde-tik. Mundu magiko baten barrenean murgiltzen gara, gorputz eta arima, eta gure gorputz eta arimen zoko-mokoak ikertu nahian zaude, gure nortasunaren hobeki zilatzeke. *Bizi leku*, *Esku*, *Ile adats*, *Haragizko esta-tua* eta *Begitarte* dira olerki nagusiak estetika eta metrika oso desberdinen bitartez argitara eman dituzunak.

Har ditzagun bi adibide. Lehena erritmo zabalekoa:

Eta ile adatsetan loraturik dagerkigu
barne indarren sinbolu magnetikoa
ile beltzaren
eta ile gaztainaren
lurtasun iluna.
Ile horiaren eguzki lorezko
unibertso beroa
Ile gorriaren eragin benusiar demoniozkoa.

Bigarrena aldiz, erritmo arin eta jauzikorrean:

Eskuak eskuekin
txalopin-txaloka:
eskuak eskuekin
txalopin-txaloka:
Zeruan hasi dira
izarrak saltoka
ala morena!
izarrak saltoka...
Eskuak eskuekin
txalopin-txaloka.

Español erran zahar batek diona “Siempre la cabra tira al monte” nabari da zure baitan, koplaz zaharren neurtitz eta neurkadetarat itzultzen baitzira:

Eder basoan haritza
gaztain besangek zumitza,
Gerri ederrak ordu zuritan
gau luzatzen dabilta.

Eder hibaian ahate;
 kanpai dorreak lau ate;
 Lepoa tornuz biribilduek
 musika sutan daukate.

*Liburu*en *karroxen* ironiak herrikoi estetika beharrezkoa du, karroxa, berez, asto laster eta tobera idurikoa baita. Bainan hauetan kausi daiteken kritika zorrotza zuk idatzitakoan ironia ezti eta goxo bilakatzen da, argi eta garbi erakutsiz nor zaren:

Liburu berriz dator Aresti.
 Bertso oroz, bainan diruz garesti.
 Gain eta barne, gorria guzti.
 Askotan garratz, gutxitan ezti,
 Bainan ez daukat zertan malmeti
 Min dut zaigula joan urruti.

Bertso horretan agertzen zaigu Aresti hitz gutxitan jujatua:

Gain eta barne, gorria guzti
 Askotan garratz, gutxitan ezti

eta denbora berean zuhaurek salatzen duzu zure burua juja gisa eta kristau edo apaiz gisa azken neurtitzean

Min dut zaigula joan urruti.

Erakusten duzu zuretzat norbait zela Xalbador hain goxoki aipatzen duzunean:

Hegala eta usoa;
 lainoa eta lausoa.
 Hegala eta usoa;
 lainoa eta lausoa.
 Gauza bat-bera du Xalbadorrek
 bere izate osoa
 goien mailara jaso
 bizitza eta bertsoa.

Apaiz, erakasle, ikertzaile, olerkari, ez ditut dauzkatzun merezimendu guziak aldarrikatu, utzi ditut ilunpean idatzi ditudzun hanbat eta hanbat artikulu, saio, hitzaurre eta prediku. Nahiago izan dut gaingiroki aipamen bat egin. Gure artean sartzen zara egun ofizialki, hemen, Oiartzunen, zure sort-herrian. Lekuona baten alki hutsean Lekuona bat jartzen da. Deitura berekoak, hura zen Don Manuel zu zara Juan Mari.

Ongi etorri!

ANAIARI BERTSOAK

Andoni Lekuona

KOPLA BERRIAK

Gaurko egun honetan, Euskaltzaindiaren eta Jaun Mariren egunean, familiak parte hartzea nahi izan duzutenez gero, utzi zaidazute egun hau gure erara ospatzen. Gurean, beste familietan bezela, egun haundi batek otordua eta lagunartea bereak ditu otorduak eta lagunarteak kantua berea duten bezala.

Kantuan hasiez gero, hor etorriko dira, seguru bartso zahar batzuk, askotan koplak eta antzinako kantak eta batzutan, gurean bahintzat, kanta berriren bat ere bai. Berria letra-aldeetik, berria doinu eta letra-aldeetik. Ahozko literaturan, bai sortzerakoan eta batez ere belaunaldiz belaunaldi pasatzerakoan, garrantzi haundikoa izan da orain arte familiak eta famili-giroak izan duen eragin indartsua.

Garuko honetan koplak batzuekin ospatu nahi izan dit gure gaurko eguna. Nik ez dakit koplak hauek ahozko literatura estiloa duten ala literatura idatziarena. Sailketa lana Juan Mari berari utziko diogu. Garbi dagona hauxe da: kantuz eta kantatzerako eginak dirala. Dena dela eta horretan ez dut dudarik, azken batean Herri-literaturaren adibide bat dirala.

KOPLA BERRIAK

"Santa Ageda" bezela

Agur Herriko jende noblia
gure Sanistebanetan.
Zorion eta osasun ona
bezate beren etxetan.

1. Pozikan gatoz auzo-herritik,
pozik gure Sorterrira.
Pentsatuz han bilduko gerala
bihotzak lasaitzen dira.
2. Aurtengoan ospatutzen dugu
Euskaltzaindiko eguna.
Herritar bar onartu bait dute
euskal lanetan laguna.

Juan Mari anaiari

A-gur He-rri-ko jende no-bli-a ga-re
Sa-nis-te-ba-ne-tan Zo-ri-on a-ta o-sa-sun
o-na be-za-te be-ren etxe-tan
Po-zi-kan ga-toz au-zo-ha-ri-ke Po-zi-ka gu-re sor-te-ri
Pen-ta-tuz han bil du ko ga-ra-ko bi-ko-
teak la-taitzen di-ra pen-ta-tuz han bil-du-ko ga-
ra-ko bi-ko-teak la-taitzen di-ra

Eudacia 1989 uztailak 30 *[Signature]*

3. Osabak markatua utzi du
zer egin gure Herrian.
Juan Marik txanda gogoz hartu du
sarturik Euskaltzaindian.
4. Euskal lanetan gure Herriak
eman du zenbait landare.
Izendapen hau izan dedila
Oiartzun-entzat ohore.
5. Euskaltzaindia eta Herria,
jokatuz biok batera.
Era horretan salbatuko da
hain maite dugun Euskera.

Letragilea: Andoni Lekuona
Endaian, 1988-go Uztailak 30

ORIXEREN MENDEURRENA

Uitzi, 1988-XI-27

EUSKALTZAINBURU ETA EUSKALTZAINDIKO BAZKIDE AGURGARRIOK

Uitziz, 1988-XI-27

Juan Cruz Martirena Sagastibelza

herriko Alkatea

- Nafarroako Komunitate Foraleko agintariok.
- Euskal Komunitate Autonomoko agintariok.

Jaun andreok:

Aurten bete dira Orixek —Nikolas Ormaetxea zena— jaio zela ehun urte.

Ez bazen hemen Uitzin jaio ere, Uitzikoa bezela ezagutzen zuen bere burua zentzu askotan, eta uitziarra bezela onartzen dugu guk ere uitziarrok. Gure herria askotan aipatzen da bere idatzietan; hemengo hizketa aintzat hartu zuen eta bere idatziak askorentzat eredu eta adibide izan diren neurriak gure herriko hizkuntza ere altxatua eta onartua ikusi dugu eta gertatu da.

Amak hiru ume eta bi titi, idatzirik utzi zuen bera jaio berria eta hirukia zenez, gero Uitzira ekar zezaten izan zuten arrazoina aipatzeko. Hementxe ba Orixek Uitzin edan baldin bazuen ama ordearen titia, entzun izanen zituen ere, bere euskarazko lehen hitzak; hemen ikusiak zituen nekazako laneko ohiturak, nekeak, ezinak eta baita ere urtaro bakoitzat zekazkien pestak eta lanak.

Uitzin ikasi zuen Orixek, euskaldunok, lana askotan apostua bihurtzen dugula eta apostua eta jokoak beste hainbestetan lana eta nekea bihurtzen zaizkigula. Edo berdin dena, bizimodua, gizarteko goraberak, ohiturak, harremanak, lanak, jokoak eta pestak osatzen dutela.

Horrengatikan *Euskaldunak* izena duen haren liburuan bizimoduko gauza guzti horiek agertzen dira.

Eta baita ere hemen herri honetan hasi zen zalantzarik gabe Orixek orain dela ehun urte ez bakarrik euskara entzuten eta euskara ikasten

baizik baita maitatzen, eta gure herriaren ezaugarriak nabarmena bezela ezagutzen ere. Euskararik gabe, herri hau ez zela herri berdina izanen, idatzirik dago, *Euskaldunak* liburuaren hasieran “Egin dezagun euskarak, iraun dezan, edo, bestela aitor dezagun, herri hau izan zan”.

Baina, horretaz gainera, geroago ere adineko gizona zenean berriro Uitziko herriak eta batez ere Uitziko batzuk eman zioten Nikolas Ormaetxea, Orixeri, behar zuen laguntza eta babesa bizirik iraun zezan eta askatasunera itzul zedin. Hementxe egon zen gordeta eta gau ilunen batean kapusalez jantzita, artzain itxura hartuta, mando baten gainean ihes egin omen zuen, hizkuntzara eta bizimodura hemen sortua izan zena berriro ere bizitzara eta askatasunera hemendikan zuen bidea hartu.

Uitzi Orixerentzat eper kabia omen. Uitzi izan zen baita ere beretzat gorde leku, eta baita ere herria, Euskal Herriaren itxura hemen ikusi zuen, eta hemendik hartu zuen gero ondoren betirako ezarririk utziko zuen Euskal Herriaren irudia.

Guk, gaurko uitziarrok, guk gaurko nafartarrok ere, bere lebatako batzuk, Orixeren kezka batzuk aurrean ditugu. Gure bizimodua, gure euskalduntasuna, gure izaera eta etorkizunak, gure lana eta jokoa salatu beharra eskatzen digute aurrerabidean.

Lana egiteko prest bagaude ere, lan horrek jokoa badirudi ere askotan, beti jokoa, lana eta gure izaera euskalduna bizkor eta tinko eutsiko ditugula zin dagigu eta aitortu nahi dugu.

“ORIXE”-REN JAIOTZAKO MENDEURRENEAN

Uitzi-n (Nafarroa), 1988-XI-27

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

- Juan Kruz Martirena, Uitziko alkate jaun agurgarria.
- Juan Jose Ekisoain, Nafarroako Gobernuaren Euskara zerbitzuko Zuzendaria.
- Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz politikarako Idazkari nagusia.
- Imanol Murua, Gipuzkoako Diputadu Nagusia.

Euskaltzainkideak

Uitziarrak, eta Uitzira Orixeren oroitzapenezko ospakizunera etorri zareten guztiok.

Egun on:

Lehenik eta hasteko, eskerrak zuri, alkate jaun horri, eta eskerrak Uitziko herriari Euskaltzaindiari egin diozuen harrera ezin hobeagatik. Atzo eta gaur Uitzin dago Euskaltzaindia zenbait lan eta ekintza egiten: Lexikologi Erizpideak finkatzeko taldearen X. Jardunaldiak, Euskaltzaindiaren hileroko batzarrea, eta gaur, bereziki, Orixeren omenez antolatu duen batzarre ageri hau.

Bai. Hau izan da batez ere Euskaltzaindia Uitzira etortzearen arrazoa, aurtan betetzen baitira ehun urte Nikolas Ormaetxea jauna (izen ordez “Orixe”) sortu zela. Ez zen hemen sortu, Gipuzkoako Orexan baizik, baina lehen hautzarotik eta Xabier-era ikasketak egitera joan arte, hemen bizi izan zen, hemengo ohitura, mintzamolde eta bizikeraz bat eginik. Berberak *Kiton arrebarekin* izeneko liburuan esango digu artzai-kondo ibili zela hemen.

Eta ez da inor ez dakienik *Euskaldunak* bere poema handiaren kokalekutzat Orixek herri hau hautatu zuela. Horiek hola, betiko gelditu

dira Uitziri eta Orixe elkartuak. *Kiton arrebarekin* izeneko liburu horretan Uitziri buruzko oroigarri asko gogoratzen ditu. Adibidez, eta bat aipatzeagatik, esango dizu hemen ikasi zuela Arrizurrietaren euskarazko kristau dotrina, etab.

* * *

Euskaltzaindia —hots, euskararen Akademia—, mendeurrenak ospatzeko asmoz eta euskararekin zer-ikusi duten gertaldiak gogoratzeagatik, herrietara joan ohi da eta beroietan jende-aurreko batzarre ageriak antolatatu ohi ditu. Nafarroan, esate baterako, ni euskaltzainburu izan naizen denboran, Iruñean egindako batzarreak kontuan sartu gabe, honako herri hauek bisitatu izan ditu: Altsatsu, Arizkun, Auritz, Bera, Elizondo, Lakuntza, Leitza, Lekunberri, Luzaide, Urdazubi... eta beldur naiz ez ote ditudan batzuk aipatu gabe uzten.

Zergatik egiten ote ditu, ordea, Euskaltzaindiak joan-etorri hauek euskal herrietan barna? Turismo egiteagatik? Ez, noski. Hori ulertzeko, jakin behar da zer den Euskaltzaindia eta zertarako den. Euskaltzaindia euskararen Akademia da, esan nahi baita, euskararen arta eta kargu hartzeko jarririk den batasuna. Gure inguruan diren hizkuntza handiek, bai gaztelaniak eta bai frantsesak, badute zeinek bere Akademia, hizkuntza hauei dagozkien gauzez arta hartzeko jarriak. Hizkuntza horiei buruz arau gidariak emateko auktoritatez hornituak dauden erakundeak, alegia.

Euskara, horien aldean, hizkuntza nimiñoa da, eta gainera, guztia beharrean dagoena; baina gurea da. Beraz, arrazoi gehiagorekin behar du izan nork zaindu eta artamendatu. Eta, hain zuzen, horretarako sortu zen Euskaltzaindia, euskararen Akademia. 1918an sortua da. Eta nork sortua? Euskal Herriko agintariek, hau da, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek. Beraz, herriko agintariengandik du erakunde honek, bai eskubidea, bai auktoritatea eta bai mandatua ere, hizkuntza honen arta izan dezan. Baita Erregeren oso-osoko onespena ere badu, 1976an emana.

Beraz, erakunde bat da Euskaltzaindia, instituzio bat, alegia, propio eta berariaz euskara artamendatu eta euskarari buruz arau gidariak emateko jarria. Eta lan horretan ari da. Hizkuntza honen Ortografia, Gramatika eta Hiztegia finkatzen, alegia.

Bazterrerat utziak edo abandonatuak egon diren hizkuntzak —eta hori da euskararen kasua— gaurko mundu korapilatsu honen mintzagaiak taxuz adierazteko, birmoldaketa bat jasan beharrean egoiten dira, eta hori da Euskaltzaindiak euskara batua eginez erdietsi nahi duen xedea: euskara egokitu, gai bihurtu, trebatu eta trenpatu, idatzizko zereginetan batez ere, gaurko kultura eta zibilizazioko mundu hori adierazteko. Baina hori egiten duen bitartean, Euskaltzaindiak nahi du, baita ere, tradizioz heldu

zaizkigun literatur euskalkiak atxiki eta landu, baldintza batzuekin, ordea: hizkuntzaren ortografia orokorra eta oinarrizko egitura errespetatzekotan. Batuaren eta euskalkien artean Euskaltzaindiak ez du, bada, borrokarik nahi eta ezta etenik sortu ere etxeko eta familiako eta eskolako euskararen artean. Tokia da bai bata eta bai bestearantz, esandako baldinkizun horiek gordetzen badira, behintzat.

Euskarak, guztiok dakigunez, eremu handiak galdu ditu, batez ere Nafarroan, azken mendeotan. Zer dela eta, gertatu da galera hori? Oker egoteko beldur handirik gabe esan daiteke hauxe izan dela zergatikoa edo arrazoia —besteak beste—: euskaldunaren beraren begitan euskarak ez zuela prestijiorik, eskolan gure mintzairak ez zuela sarrerarik, administrazioan ere ez, duintasun-maila zerbait zuten arazoetarik baztertua zela. Tresna ezteusa zen, eta orduan ez da harritzekoa herriak berak gaitzetsi baldin badu. Askotan euskarari ikusi izan du euskaldunak bere zoritxar guztien erroa.

Orain bada, gauzen egoera hau iraultzen eta atzekoz aurrera jartzen ez den bitartean, ez dugu euskara bere ahulezia eta jausialditik aterako. Euskaltzaindia herrietara agertzen baldin bada eta honelako festak antolatzen baldin baditu, horrexegatik da batipat: herriak berak euskararen balioa ikus eta ikas dezan, bere mintzairaren estimua eta amodioa hartzen ikas dezan. Herriaren atxikimendu hau gabe ez dugu euskara salbatuko XX. mendeko kenka larri honetan.

Erdaraz ere ikasi beharra dagoela? Bai, eta ez dugu hori ukatzen. Batak ez du betea kentzen ordea. Eta bego hau garbi: Euskaltzaindiak euskararen aldeko obra hau burutu nahi du politika, hots, alderdien politika, alde batera utzirik. Hizkuntza herri osoaren ondarea da eta ez dugu nahi ezin hautsizko lokarritz aukera politiko jakin batzuei lotua ager dadin. Horrekin jende asko euskaragana erakarri beharrean, hastandu egiten baita, hoztu eta etsaitu. Gizarte pluralista batean hizkuntzak behar du orekena izan eta alderdien gainetik egon.

* * *

Orixeren eguna dugu gaur. Nortasun handiko gizona izan zen, zalan-tza gabe, lekuko aparta. XX. mende honetan mugarri antzo ageri zaigu Orixe. Badakigu gaurko ospakizuna baino gehiago merezi duela eta izango ere duela. Hor dabilta berari buruz mahai inguruak, hitzaldiak eta liburuak prestatzen. Itzultzaile miraritsua, olerkari, poema egile, prosista. Ia euskalki guztiak menderatu eta erabili izan zituen. Ez da erraza Orixe eskola jakin batean sailkatzea, zeren pixka bat bere bidetik ibili baitzen beti. Fededun handia, bestalde. Hori egiaztatzeko, ez dago bere lanetan fedeari eskaini dion tokia ikusi besterik.

Euskaltzaindiak, sortu berri hartan, 1919an, euskaltzain urgazle izendatu zuen Orixe, eta badakigu lehenbiziko euskaltzainburuari, Azkueri, Euskaltzaindiko lanetan laguntzen ziola Bilbon. Urte asko geroago, Ameriketatik etorri zenean, euskaltzain oso izendatua izan zen, eta, hain zuzen, Leitzan, 1957. urtean, egin zuen bere sarrera-hitzaldia. Baina ez dut bere obraren itsaso neurgian sartzeko ez asmorik eta ez astirik ere. Baditugu gaur hemen hiru hizlari —Altuna, Aranalde eta Lekuona— Orixeren pertsona eta obrari buruz mintzatuko zaizkigunak. Beste gabe, beroiei pasatzen diet hitza.

ORIXEK JESUSEN LAGUNDIAN EMANIKO URTEAK (1907-1923)

Uitzzi, 1988-XI-27

Patxi Altuna

1. ORIXE XABIERREN (1905-1907)

Lagundian eman zituen urteak (1907-1923) dira berez nere txosten honen aztergai, ez lehenagokoak, baina Loiolan jesuita izaten hasi baino lehen, eta jesuita izateko gai zen ala ez ikustearren, Xabierren bi urte exkax eman behar izan zituen eta nolazpait nere txostenari dagozkiola uste dut, besterik ez bada ere, oso gutxi ezagunak direlako Orixeren bizitzako bi urte horiek. Are gutxiago ezagunak, eta ez halere ardura gabekoak, dira honako beste puntu eta galdera hauek: nork erakutsi zion Xabierko bidea? Nola ernatu zitzaion harako gogo? Horien berri ematen digu aita Juanito Goikoetxea zenak EUTG-n hil zenean utzi zituen paper-muturretako batean. Honek 1966ko Apirilaren 7an, Ostegun Santu egunez —hala dio paperak— anai jesuita Zakarias Ariztimuñorekin —Uitziarra zen eta txosten honetan behin baino gehiagotan agertuko zaizkigun Aitzolen bi anaia jesuitekin ez zuen ahaidetasunik— hitz aspertu luzea egin zuen eta hark kontatuak gero paperera aldatu. Uitziarra izateaz gain, Orixeren kidekoa eta haurtzaroko laguna ere izana zen. Hona zer kontatu omen zion Uitziarrek:

“Errekalde-txiki-n bizi zan. Iñoiz, festetan eta, bere etxeak etor-tzen zitzaizkion. Errekalde ontan iru pamili bizi ziran. Azpian bizi zan Orix; gañean Don Fermin Lasarte, Hijas de la Caridad-eko kapillaua, eta gañera beste famili bat. Orix ni baño urte pare bat zaarrago ta, 1888 inguruan jaioa izan bear du (Generación del 98). Nik baño tipo obea zuan Mikolax-ek; ni zalkor antzekoa naiz, ua tentea zan eta bikañagoa. Ikasteko azkarra zan, buru argikoa; eskolan leena edo leenenetakoa beti. Kontuak oso ongi ateratzen zituan, regla de tres ta oiek denak. Dictado ta ematen zizkigutenean, guk danok *h* ta, *b* ta *v* ta oiek edozein moduz ipintzen genituen; arek ordea oso nekez, gutxitan, utsegiten zuan.

Lagunartean oso koldarra edo, bildurtia edo zan; gu alkarrekin asarretzen giñanean, edo bata-besteari eldu ta eraso, ura aparte geratzen zan, beti geld; etzan eztabaidan sartzen. “Era especie de cobarde” esan

dit erdera pitxian bi bider Ariztimuñok. Mutil saiatua zan Mikolax eskolan; jolasean ez artarañokoa. Eta bere ontatik berriz erderara aldatuta, Más bien era pacífico, no era de esos albor... Paketsua zan, ez zalaparterru oietakoa. Ni baño geio zan burrukarako; aixa menderatuko ninduan nai izan ezkeru, ni baño mardulagoa, sendoagoa baizan eta bi urtez zaarragoa. Nik eldu nion bein asarre asko, baño arek etzuan eltzen ez erasotzen, utzi bezela egiten zuan. (Etzuan ori usteko Mikolas-ek; gero 'feri animi' edo dio olerki latíñezkoan).

Ikasteko azkarra zan. Erderaz poliki ikasia zegoen Mikolas erritik Colegiora aldatu zanerako. Errian irutariko jendea zegoen: banakatxo batzuek, erdera utsa zekitenak; beste asko, euskera utsekoak; tartean, bietatik zekitenak, eta auetatik zan Mikolax. Nola ori?, galdetu diot. Ba eskolan erakusten zan erdera ta dana erdera utsez, ta arek asko ikasten zuan. Gañera apaiza ere etxean zeukan eta erdaldun umeeke ere jardun bearko zuan, plaza ondoan bizi zalako, noski. Nik orregatik uste det.

Lelengo jaunartzea egin genduanean gure Bikario jauna asko alegindu zitzaigun illeroko jaunartzalle gindezan (Jaunartu genezan). Ni ala si nintzan, illero; andikan laster amabostero, ta gero astero. Egunero asi nintzanean, erligioso nai nuala azaldu nion aitorteari. Don Fermin ori zan berau, Orixeren etxean bizi zana, ta onek mezatakoea izan nendin nai zuan, eta ala 1904-1905 neguan Loyolara zuzendu (bidaldu) ninduan nere gurasoekin, artarako nundik moldatu jakitera. Errira itzulita apaizakin latíña ikasten asi nintzan. Artan, udaran Xabier'era joateko nengoala, Mikolax aurreratu zitzaidan. Agorrean joan zan ura, ni urrian. 1905 urtean zan ori. Xabier'ko ikastetxean zegoan arrautzatik erteten. Apaizak anai bat zeukan jesuita ta ortik nunbait bere erriko ta etxeko auek jesuitetara zuzendu. Orixek 17 bat urte zituan dagoneko; ikasten asteko geiegi, noski, baño Jainkoaren alabearra izan zan liburu-lanean ezarri izana; beste erriko lagunari, bi urtez gazteagoa izanik ere, ezezkoa eman baitzioten. Erriko bi mutikoeke asmokide izan arren, etziran berrikide; etzekiten bata-bestearen berri; dana ixilik eraman zan eta etzan sekretoan inondik zulatu. Erriko jendea txor-txor asi etzedin joka zuten orrela, oi dan bezela”.

Lekukotasun aukerakoea benetan! Irakurlea ohartu da, noski, Juanito Goikoetxeak bere baitako gogoeta batzu ere txertatzen dituela Ariztimuñoren hitzetan. Bizpahiru puntu polit jakinerazten digute hauek: gaztelearra marraskatzen zuela gutxienez -“poliki ikasia” dio lekukoak— Xabier bano lehen. Latina ere ez ote zuen beste hainbeste, etxapeko apaiza Ariztimuñori irakasten hasi zitzaionez gero? Auzokoari bai eta etxekoari ez? Xabier noiz joan zen ere adierazten digute: 1905ko Irailean.

Urtebete lehenago irekia zen estrainengo aldiz Xabierko ikastetxea eta urte hartan han bildu ziren hogeitabost mutikoetatik bat Ignazio

Ariztimuño, Aitzolen anaia zen. Bestea aita Ramon Arsuaga, Loiolan oraindik bizi dena eta datorren hilean laurogeitamabost urte beteko dituen (1). Burua aski arindua du, baina hona zer kontatu zion orain baino lehen aita Intxaurrandietari: “Fui del primer grupo en la Fundación de la Escuela Apostólica de Javier en 1904. Nuestro Superior era el P. Millán. Conocí en Javier al P. Saturnino Ibarguren. Este Padre, en la inauguración de la Capilla nos cantó: ‘Bedeinka, bedeinka zazu nere anima, bedeinka, bedeinka zazu Jaungoikoa’. Nuestro estudio era sobre todo y casi exclusivamente latín y griego. Recuerdo como profesores al P. Antonino Atucha, Diez... Ignacio Ariztimuño era uno de mis primeros compañeros. Nuestro grupo se componía de 25 niños... Ormaechea era grande. Enfermó no sé de qué y bajaba las escaleras de espaldas...”.

Orixek ez zen, ordea, aita Arsuagarekin batera joan Xabierra, urtebete geroago baizik. Oso gizaseme handia zela; hamabi urte baizik ez zituen Ramon Arsuagari hala iruditzen, agidanean, hamazazpitako Nikolas. Eder da ere jakitea euskal kantak, bere xotilean, ez zitzaizkiela arrotz Xabierko bazterrean. Hiru urte geroago, Arrasateko seme zen aita Angel Alberdik han bertan Lagundiko urte ezteiak ospatu zituenean, bi mutikok, Patxi Pagadizabalek eta Etxarri batek, euskal bertsoak egin zizkieten eta gugaino heldu dira. (Diodan bidenabar aita Angel Alberdi horrek berak ia mende erdi bat lehenago junior gazte zelarik eginiko euskal bertso batzu ere gordeak daudela Loiolan).

Latina eta gerkeraz besterik ez zutela ia ikasten. Halaz ere Orixeren notetan gerkerarenik ez da ageri. Lehen ikasturtean, 1905-1906koan, latineko eta historiakoak bakarrik ageri dira; bietan Bikain atera omen zuen urteko hiru azterketetan. Bigarren ikasturtean ere Bikain latinean eta geografian. Ikasturte honetan, halere, Ekaineko notarik ez du Orixek, ikasturtea amaitu baino lehen joan baitzen Loiolara jesuita izaten hastera. Hori zergatik izan zen, etxeko historiariak jakinerazten digu: “...magnis angustii rei familiaris pressa fuit domus Xaveriana... Fortasse haec magna egestas una e causis praecipua fuit, cur mense Martio et Maio alii novi alumni ad tirocinium missi sunt”; esan nahi baita, ondasunen gabezia larria izan zutela etxean eta horregatik aurreratu zietela zenbaiti nobiziadura joateko muga.

Ia hamazazpi urtetako mutil koskorra lehenik Xabierren eta ia hemezortzikoa gero Loiolan apaiz ikaskizunak egiteko hartu izanak asko esan nahi du Orixeren alde. Bi urte gazteago zen Zakarias Ariztimuño, eta berak esan bezala Uitzin bertan latin pixka bat ikasten aritua, eta ez zuten halere hartu anai laguntzaile izateko baizik. Are gutxiago hartu behar zuten Orixek. Ez da dudarik gaztekeraz eta latinez poliki hornitua eta buruz ongi jantzia ikusi zutelako utzi ziotela apaiz-bidea hartzen.

(1) Txosten hau Uitzin irakurri eta gero hil zen Loiolan 1989ko Urtarrilaren 17an.

Izan al zen Orixe Uitzin inude-amandreei eta Orexan gurasoei agur egiten Loiolara baino lehen? Nik baietz uste, edo hartako astia izan zuen bederen, Xabierretik Martxoan atera zirela irakurri baitugu latinezko albiste horretan eta bai baitakigu Loiolan ez zela Apirila arte sartu. Hamasei hilabete doi-doi eman zituen Xabierren eta jesuita izateko ezpala zuela iritzi zioten hango agintariek.

2. LOIOLAN NOBIZIO (1907-1909)

Orixe 1907ko Apirilaren 10ean iritsi zen Loiolara, asteazken batean: “Procedentes del Colegio apostólico de Javier han llegado e ingresado en Primera Probación los Sres. Ormaechea, Urarte y García”. Ez zetorren beraz bakarrik. Nikolas zen hiruretan zaharrena, hamazortzi urte eginak zituen Abenduan. Beste biek, aldiz, batak hamabost zituen, besteak hamabost ere ez artean. Horrez gain Nikolas bi urte bakarrik egona zen Xabierren, Urarte bezala; García aldiz hiru urte. Badu honek zerrikusia gero esango dugun zerbaitekin.

Nobizioen Maisu edo zuzendari eta aldi berean etxeko erretore zen aita Cesareo Ibero azpeitiarrak eta beste bizpahiru apaiz jesuitek bi egunez esaminatu zuten, zertan aritu zen Xabierra baino lehen, nola jakin zuen Xabierko berri eta nork bultzatu zuen hara joatera, gurasoak bizi al zituen, gogo onez utzi al zioten bizibide berri hura hartzen, zerk zeragion jesuita izatera, eta abar galdeginez. Ostiralean, hilaren hamabian, hartu zitoten ofizialki izena eta esan has zezakeela bizimodu berria. Nikolasek honako agiri hau sinatu zuen, hitzemanenez prest zegoela bere burua Lagundiari lotzeko zinitzen bidez. (Ikus hor bere eskuko agiria).

“Lehen Probantza” zeritzana jasan behar zuen hamabi egunez, ondoren hasiko zuen Nobiziaduko ohiturak eta azturak ikasiz: noiz jaiki ohetik, noiz oheratu; noiz eta nola otoitz egin; zein ziren isilik egoteko ordu luzeak eta zein jolasteko aldi laburrak; nola egiten ziren etxetik kanpoko pasiuak, astean hirutan hirunaka atereaz eta bidean errosarioa erreztatuaz; nola etxe barneko jolasaldiak, nahiz baratzen pasiatuz nahiz hirugarren solairuko pilotaleku handian pilotan jokatzuz, eta abar; baina batez ere hautatu zuen Institutuaren, Jesusen Lagundiaren, legeak, arauak eta izpiritua ahalik ongiena ezagutzeko zenbait liburu irakurriz. Guzti hori irakasteko nobiziogai berriari urtebete lehenago sarturiko nobizio bat eman ohi zitzaion gidari, “aingeru” deitu ohi zena, eta Nikolasi Aitzolen anaia, Ignacio Aristimuño, izendatu zioten. Xabierren urtebete elkarrekin egonak ziren. Azkenik hiru egunetako erretiroa egin eta hilaren 21ean, garai hartan San Joseren festa ospatu ohi zen egunean, jantzi zuen lehen aldiz sotana eta nobizio izaten hasi zen, horretarako aurretik ilea arras moztu eta kaskamotz utzi ondoren. Orduz gero gainerako nobizioek

1110.

Ego Nicolaus Amacchoa Hispanus natus sum die sextae
is Decembris anni millesimi octingentesimi octogesima octave
diocesi Viterboni, provincia Tuspuana ex legitimis parenti-
bus et Maria Ignatia subcastilibus.

Humanioribus litteris quam dedi duobus annis sub T. Abra-
ham in Schola Apostolica.

Denique, melioris vitae flagrans desiderio ad Societatem Jesu a-
ingra et P. Ignatius Maria Herce Praeposito Provinciali pro
Castellae admissus sum.

Ad Totum Loyolensem navi, idque primam probationem ingressus
et prima mensis Aprilis anni millesimi noncentesimo septimi.

Examinatus fui a P. Paschoe et Magistro Mendicium. Examinatus
et examon generale Societatis Jesu et Diplomata Apostolica. Cum
M. constitutionesque servare desiderio et nominatione quae ad obedi-
entiam et perfectitudinem utique et quavis in se pertinent; item ac-
cediam ad quemvis Societatis gradum et reddendam conscientiam
m. Conterpiss ut omnes errores et defectus mei et res quaecumque q-
artat et observata faciant per quemvis qui est in Confessionem et
sacramentis, superioribus manifestetur.

Peratus item ad aliorum correptionem perire, aliorumque de-
manifestare, secundum praescriptionem et voluntatem Superiorum.
Item, Praeferam meum ad omnia officia et litteras praeposui-
das.

Permitti etiam omnia mea bona post clausum ab ingressu
meum, cuandocumque id in Superioribus injungatur, relictum.

In quorum fide, haec manu mea scripsi et subsignavi.

Peractum in Domo Probationis Societatis Jesu, die duodecima
is Aprilis anni millesimi noncentesimo septimi.

A. M. D. G. Nicolaus Amacchoa

beren artean hartu zuten, alaiki agurtuz eta guztiek besarkada emanaz. Jai eguna eta igandea zenez gero, arratsaldean elizkizuna izan zen Basilikan, aita Ramon Laskibarrek predikua euskaraz eginik. Hura izan zen segurki Nikolasek Loiolan entzun zuen lehenbiziko euskal sermoia. Ez zekien asko, handik urtebetera berak hartu beharko zuela, urtebetea zehar, parte nagusia pulpitutik Basilikako elizkizunetan! Egun hartantxe suertatu zen Etxe Santuko San Joseren kapila berrituaren sagaratzea eta juniorren latinezko egunkariak honela dio egun hartan: "Attulit Divus Joseph, ut solemnitas maior celebraretur, tres novos tyrones"; San Josek, alegia, bere festa handikiroago ospa zedin, hiru nobizio berri ekarri zituela egun hartan Loiolara.

Nobizioen egunoroko bizitza lan txiki eta eginkizun ñimiñoz betea zegoen garai hartan, orduoro eta are orduerdi oro lantegi bat eten eta berriari ekinez. Ez zukeen inor berehalakoan loak hartuko! Nobizioen bedela behartua zegoen egunoro bere egunkarian egun bakoitzeko ordutegiaren berri ematera, batez ere arrazoiren bategatik aldatzen bazen, eta Nobiziaduko bizitzan gertatzen zen edozer berrikeria bere kuadernoan adieraztera. Egundainoko albiste xeheak aurkitzen ditugu horri eskerrak uteroko egunkari horietan. Nikolasen izena aipatzen deneko batzu aldutuko ditut hona. Baina hori baino lehen beste gertari baten berri emango dut, Nikolasekin gero zerrikusi handia izango duen lagun bati dihoakiona.

Ekainaren 14ean iritsi zen Bilbotik Loiolara, Deustuko ikasketak bertan behera utzirik eta, poeta famaz gain, lepondoa estaltzen zion txima luzeaz apaindurik orduko poetak gisa, gero bizi osoan Nikolasen adiskide min-mina eta are literatur gidaria izango zen gazte txiki bat, Jose Maria Estefania zeritzana. Bi hilabeteren aldean baizik ez dute, beraz, Lagundian. Halere, gezurra badirudi ere, Orixe guztira hamasei urtez jesuita izango den arren —eta Estefania gehiago, noski—, horietatik lau urtez bakarrik biziko dira biak batera eta elkarrekin, ikusiko dugun bezala. Aski izan ziren lau urte, ordea, bien bizitzak inoiz etengabeko eta are ezin etenezko adiskidetasun lokarriz lotzeko.

Hona orain bedelaren egunkaritik harturiko pasarte batzu:

"Julio, martes 2... Ha sido nombrado ventanero de San José el H. Ormaechea".

"Julio, lunes 8... Salieron al ejercicio de modestia los HH. Urarte, García, Ormaechea y Salazar". Hor duzue lehen aldiz Nikolas nobizioen Maisuaren oinetan eta beste nobizio guztien aurrean belauniko lurrean, egotzi nahi zizkieten bekatutxoak, hutsak eta erruak entzuten. Zer esan ote zioten!

"Agosto, domingo, 18,... En el recreo de la noche... tuvimos el ejemplo...; lo dijo el H. Ormaechea". Erljio kutsuzko gertari edo ipuin

miragarriren bat kontatu behar izaten zuen batek, nobizio guztiek entzuten zutela.

“Septiembre, jueves 12. El H. Hormaechea —hemen lehen aldiz H-z idatzia dago haren deitura— ha quedado esta mañana en cama en la enfermería por sentirse indispuerto”. Eta hilaren 21ean oraindik esaten zaigu: “Por estar el H. Hormaechea enfermo...”

“Octubre, domingo 6, ... hicieron la confesión general del semestre” zortziren izenak ematen zaizkigu eta horietan azkena Nikolasena.

Urriaren 11an hilabeteko gogojardunak hasi zituzten azken hamaika hilabetetan nobizio sartu ziren berogaitamar nobizioek eta azaroaren 12an bukatu. Biharamonean, San Estanislao eguna izanik, bigarren urteko nobizioek akademia edo jaialdi poetikoa eskaini omen zuten: “declamaverunt optime aliqua carmina” dio juniorren bedelak, euskarazkorik izan zen ala ez argitu gabe.

“Noviembre, lunes 18. Hoy a las 7 de la mañana han marchado a Burgos para hacer el mes de Hospital los Hnos. Laburu, Urarte, Leturia Pedro y Hormaechea”; eta Abenduaren 16an esaten zaigu itzuli zirela.

Juniorren bedelaren latinezko egunkariak Eguberri eguneko jaialdiaren berri ematen digu, esanez: “carmina lingua et hispana et vasca” irakurri zirela.

“1908. Enero, miércoles 8. Tonos el H. Hormaechea”.

“Abril, lunes 6. Salieron al ejercicio de modestia los HH. Urarte, García, Ormaechea y Salazar”.

“Abril, Viernes Santo 17. Sei hilabeteko konfesioa egin zutela sei nobizioek eta haietako bat Nikolas izan zela.

Ezin naiteke honela jarrai, lan hau azkengabea izango ez bada, eta albiste txiki batzu aipatu gabe utziko ditut. Ohar zaitezte, orde, igaro dela urtebete Nikolas nobizio sartu zenetik; bigarren urtean haren bizi-modua pixka bat aldatuko da. Hala dio bedelaren egunkariak ere:

“Abril, martes 21... De particular fue el pasar a 2.º los HH. García, Maguregui, Ormaechea, Obieta y Urarte, después de cumplido el 1.º año de Noviciado, a ser “cicerones”. Lehen urtean ez zuten ia ikasketarik egiten —egunean ordu eta erdi bakarrik— eta bigarren urteari ekitean, berriz, hamabost ordu edo ematen zitzaizkion astero latina eta gerquera ikasteari; eta Orixek lehen maila, gramatika, ongi ikasia baitzekarren, Xabierren ikasi guztiek bezala, “humanitate” direlakoak ikasten hasi zen. Hortik zuten “cicerones” izena. Eta biharamonean egunkari berak dio: “Empiezan sus tareas literarias de 2.º los HH. Maguregui, Obieta, García, Ormaechea y Urarte”. Ikaskideetako bat Pedro Leturia izan zuen.

Maiatzaren 2an iritsi ziren Loiolara Boloniatik aita Kardaberazen gorpuzkiak. Jaialdi eta elizkizun izugarriak izan ziren, jendea Basilikak hartzen ez eta atarian eginak. Jesuita gazteek ere omenaldi bat eskaini zioten 10ean: “carmina hispana et vasca sunt lecta”. Ez zaigu esaten egileen izenik eta ez zaizkigu ere heldu, baina Orixerenen bat ere izango zen apika.

Ekainaren 20an “a las 9 academia celebrada por los HH. Humanistas... sobre el 1.º centenario de la Independencia”. Bi ordu luzatu omen zen eta “Los Hermanos estuvieron elocuentes y entusiastas”. Orixe ere humanista zela esan dugu.

Otoitzez eta ikasketez besterik ere egiten zuten, noski. Hona jokaldi baten berri:

“Jueves, domingo 21, San Luis... Siguióse el partido de pelota entre Juniores y Novicios. Jugaron los PP. juniore Huici, Aguirre y Pérez —hirurak apaiz zirelarik nobizio sartuak, horregatik ‘Padres’— contra los HH. novicios Hormaechea, Zalacain y Obieta J. Ganaron los juniore”. Orixe eta galdu, beraz.

Beste albiste berria. “Agosto, sábado 29. Cincuentenario de la Ordenación Sacerdotal de su SS. Pio X...; el Santísimo Rosario, rezado bajo la dirección del H. Hormaechea”, pulpito gainetik, noski; eta harrez gero beste bizpahiru igande eta jaitan gauza bera esaten zaigu: “rezando el rosario el novicio H. Ormaechea”. Urte hartan Orixe izan zen, inondik ere, Basilikako elizkizun guztietan errosarioa errezzatu zuena.

Handik egun batzutara etxean gelditu zela esaten digu egunkariak “por estar cojo”. San Estanislao egunean beste pilota jokoa, ez ordea juniorren aurka, nobizioen artean baizik: “en él tomaron parte los HH. Ormaechea, Huarte y Mendicute por un bando y por otro los HH. Larrañaga, Echeverría y Goicoechea. Los primeros ganaron el partido”. Bazkalondoan olerki saioa izan zen, nobizioek egin eta berek irakurri.

Horrela jarraitzen da egunkaria etengabeko jarioan Nobiziaduko gertari apurren berri ematen: humanisten beste ospakizun literarioak, bata Azaroaren 28an, bestea Abenduaren 8an; haien beren —eta Orixeren, jakina— lehen azterketak Abenduaren 23an; Inoxente eguneko akademia, juniorrek egina, non eman baitzuten “Pello, Perejillondo eta Vixente Iñaxio” zeritzan euskal antzerkia; nola hasi zen Orixe Martxoaren 13an sukaldeko lanetan laguntzen hilabetez; nola kontatu zuen beste exenplu bat nobizio guztien aurrean; nola juniorrek Fray Luis de Granada gai harturik beste akademia bat egin zuten, nobizioak entzule zirelarik; nola humanistek izan zituzten Aste Santu aurreko azterketak, eta abar luzea.

Pixka bana, eta ez haatik Orixe nahi bezain laster, bigarren urtea ere azkenera hurbiltzen ari zen eta Orixe zetorkion egun handirako

prestatzen bere barnean antsiz eta irrikaz. Sotana berria egin diote, Apirilaren 13a, Bazko hirugarrena, zinitzak meza bitartean, ohi zenez, egiteko eguna baitu. Meza laguntzaile bietako bat nor izango, eta Estefanía: “En este día hicieron los votos del bienio los HH. Urarte y Ormaechea, y ayudaron a misa los HH. García y Estefanía”. Eta juniorren bedelak ere honela dio bere latinezko egunkarian: “Meridie FF. Urarte et Ormaechea amplexi sumus, nam hodie vota nuncupaverunt”.

Osatu ditu Orixek Nobiziaduko bi urteak, egin ditu lehen zinitzak eta egun berean lekuz eta gelaz aldatzen da: nobizioen solairua utzi, Estefanía eta utzi, —ez baitzen inola ere zilegi nobizioak eta juniorrak elkarrekin mintza ere zitezen, urtean bospasei jai egun handitan izan ezik—, eta juniorrak bizi direnara aldatzen da. Baina batez ere bizimodua aldatzen du egun hartatik hasita: otoaldi laburragoak eta ikastaldi luzeagoak; erlijiozko liburuen ordezkuntzak —latina etta gerkera— eta literatura ikastekoak erabiliko ditu eskuartean lehen baino gehiago, eta batez ere lagun berriekin, nobiziaduan ezagutu dituenekin, hasiko da bizitzen, jolasten, pasiura irteten eta ikasten. Elizan igande arratsaldeetan errosarioa erreztatzea ere utzi du, nobizio baten eginkizuna baitzen hori: “Mayo, domingo 2. Desde este día rezará el Santo Rosario en la Iglesia el H. Larrañaga por haber pasado al Juniorado el H. Ormaechea”.

Anai Estefanía oraindik nobizio izaten jarraitzen da. “Junio, miércoles 2... Improvisó el H. Estefanía sobre las palabras de Jesucristo (S. Juan): “Nemo potest venire ad me, nisi Pater, qui misit me, traxerit eum”. Baina bi hilabete igaro eta honi ere zinitzak egiteko eguna iritsi zaio: “Junio, viernes 18. Fiesta del Sdo. Corazón. En la misa de 6,30 se consagraron a Dios por medio de los Santos Votos el P. Vicente Alcorta y los HH. escolares Daniel Salazar, Julio Fernández y José María Estefanía...”

Horra berriro bi hilabeteren buruan elkarrekin Orixe eta Estefanía, hau latinaren eta gerkeraren gramatika buruan ezin sarturik gatazka bizian, hura berriz Erromako eta Greziako idazleen obrak atseginez eta ez-tan dastatzen. Denbora gutxi gelditzen zaie, halere, elkarrekin egoteko. Humanitate direlako ikasketen ondoan Retorika ikasi ohi zen bi urtez eta hori ikastera Burgosa joango da Orixe, beste erretoriko guztiak bezala. Loiolan gramatika eta humanitateak ikasi behar zituzten juniorrak bakarrik gelditzen ziren eta bi maila horiek iada gaindituak ditu Orixek; erretorika, aldiz, Burgosen ikasten zen garai hartan.

Ez da, ordea, ikasturtea oraindik bukatu eta humanistek egiten dituzten akademia eta ospakizun literarioetan esku hartzen du, lanak eginez eta irakurriz, eta igande arratsaldeetako “tonuak” direlakoak txanda dator-kionean deklamatuz. Apirilaren 29an “academia hispana” izan omen zuten. Maiatzaren azken egunean ospakizun poetikoa, bederatzi juniorrek berek eginiko olerkiak irakurri zituztelarik. Uztailaren 15ean humanistek

Fray Luis de Leonen poesia eta hitz lauzko zati batzu deklamatu zituzten beste akademia batean eta hari buruz eginiko idazlan bat ere irakurri. Azkenik hil beraren 28an egin zituzten azterketak eta ikasturtea amaitutzat eman.

Ez da guganaino heldu, esan bezala, garai hartako akademia eta jaialdi literarioetan irakurtzen zen ia batere idazlanik edo olerkirik eta heldu diren bakanek ez dute egilearen izenik; bai, ordea, ekain hartako egun batez Orixek ondu zuen olerki txiki-polit bat. Ez da, seguru aski, bizian egin zuen lehena; bai, halere, nik dakidala, egin zituenetarik gelditu zaigun zaharrena. Orduan —eta orain ere bai— Nobiziadua bukatzean eginiko zinitzak berritu ohi zituzten jesuita gazteek urtean bi bider: Ekainean, San Pedro egun inguruan, eta Urtarrilean, Errege Magoen egunean. Orixek ere lehen zinitzak egin eta bi hilabeteren buruan berritu zituen lehen aldiz bereak. Horretarako hiru egunetako gogojardun laburrak egin ohi ziren eta —orduko ohitura, geroago galdu eta nik neronek ezagutu ez nuena!— junior guztiei gelaz-gela pasatzen zitzaien kuaderno bat; han idatzi ohi zuten hiru egun haietako isilaldietan paratu behar izaten zuten olerki bat; ez, ordea, gazteleraz —euskaraz ere ez artean—, baizik latinez, gerkeraz edo erretorikoek hebreoz ere bai. Orixeren hebreozko bat aurreraxeago aurkituko dugu; urte honetakoa latinezkoa da. “Se colocan los versos de renovación el día en que ésta tiene lugar en la solana; para esto se pide al H. Galarza el paño y el listón dorado donde se ponen y se dejan hasta la Octava”. Hona Orixek bere zinitzen lehen berrialdian egin zuen latinezkoa; “In Societatem Iesu”, Jesusen Lagundiari, titulua du:

Te nullus hortulus potest feracior
 Toto esse, Mater, in solo;
 Nam te hortulanus Iesus acriter colit
 Curatque summo studio.
 Rivo fluenti Cordis irrigat sui
 Spinisque sepit asperis,
 Quibus coronatum suum fuit caput
 Fortique defendit manu.
 Gemmis onusto pallio Mater tegit
 Iesu, et favet benigniter
 Ioseph, simul constans et acer angelus.
 Terni hortulum custodiunt.
 Quantum beatus ille qui tam dulcibus
 Perfunditur solatiis!
 Custodibus quis ergo palmes tam probis
 Marcescet horto in compari?
 Iesu benigne, Virgo coelorum decus,
 Iosephque felix et pie,

Rogo colatis me, nec unquam languidum
Spectetis heu! Tantum hoc precor. (2)

Eta azpian sinadura: F. Ormaechea s.j. Bi urte horietan hainbat akademia eta jaialditan Orixek segur aski olerki eta idazlan gehiago ere egin zituzkeela esan dut eta hau ez da guztiz oinarri gabeko susmoa. Hona froga bat. “Los Madrigales” titulua duen idazlan bat burutu zuen anai Jesús Zabalegik 1926an. Mutiko nintzelarik ezagutu nuen; hura orduko apaiz zen eta Bakion ito zen uda batean. Zabalegi horrek junior zelarik “madrigal” izeneko olerki motaren bereizgarriak ikertzen dituelarik, hiru jesuitek behiala eginikoak aipatzen ditu eta horietako bat, hain zuzen, “de Nicolás Ormaechea, muy hermoso en verdad y verdadero madrigal, aunque no tan claro en cuanto a la idea”. Ene ustez, guztiz argia du esanahia. Anai Zabalegik txosten hori, esan bezala, 1926ko Ekainean ondua da; ez dakigu ordea Orixeren olerkia noizkoa den, ez eta nondik eskuratu zuen Zabalegik. Egingo nuke aita Estefaniak zeukala gorderik eta honek eman ziola bere ikasle Zabalegiri. Honek bere idazlanean Orixeren olerki hori aipatu ez balu, ez zitzaigukeen segurki helduko. “Al Smo. Sacramento” du izenburua “madrigal” bikain honek:

Pues has sido tan diestro en perseguirme,
divino cazador, que me has rendido,
¿qué tardas en herirme?
O ¿no estás para herirme apercibido?

(2) Orixek berak mila bider hobeki itzuliko zukeen, maisua baitzen; haren itzulpenik ezean, hona hau, zer dioen latinez adi ez dezakeenarentzat:

Zu baino baratzño naraagorik
ezin dateke, Ama, lur osoan,
ezen Jesus baratze-zainak lantzen zaitu
arduraz eta zaintzen arretaz,
bere bihotzeko xurrua ixurberaz ureztatzen
eta arantze latzez hesitzen,
—burua koroatu zioten arantzez, gero!—,
eta esku bortitzez gordetzen.
Jesusen Amak harri-pitxizko soinekoz
estaltzen zaitu eta San Josek,
begirale erne-zintzoak, laguntzen.
Baratze baten hiru zaindari!
Oi dohatsu mila aldiz, horrelako bozkarioz
gozatzen duen kristaua?
Halako baratzean halako zaindariekin
nola zimel daiteke kimurik?
Jesus laztana, Birjina zeruko aintza,
Jose zintzo eta leiala,
Landu ni ere, otoi, eta ez inoiz zimeltzen
utzi! Horra ene eskea.

Si es que es arco el viril y tú eres flecha
 y yo la presa soy, tu ojo me acecha
 e inquieto yo te espero a que me hieras.
 ¡Cuándo será, Señor, que herirme quieras!
 Mas... esperar el tiento de tu brazo
 me es ya mortal flechazo.
 ¡Hiéreme, pues, Señor, y dame vida
 sanándose esta herida con tu herida.

Burgosa Erretorika ikastera joateko egunak kontatzen ari da agidanean Orixe, baina hara baino lehen Loiolan emango du uda osoa. San Inazio bigarrenenez elizkizun arras nagusia izan zen Basilikan; Madrilera Nuntzioak eta beste apezpiku batek eman zuten meza eta aita Vilallongak, urte batzuren buruan Orixe Lagunditik aterarazi zutenetako batek, egin hitzaldia. Biharamonean hasi zituzten Loiolako gazteek udako opor handiak —handiak eta txikiak izan ohi ziren—, eta juniorrek Zumaian igaro zituzten bospasei egun bi txandatan, gainerakoak Loiolan gelditzen zirelarik beren txanda zain.

Opor handiak 16an amaitu, Burgoserako pardela prestatu, Loiolan gelditzen diren jesuita guztiak besarkadaz agurtu eta hor doaz guztiak hiru sailetan Abuztuaren 19, 20 eta 21ean; nor zein egunetan ez digu esaten Loiolako juniorren egunkariak; bai, ordea, Burgoskoenak: “Aug. 1909, 20, ven. ... Hodie Loiola Burgos pervenerunt FF. Zalacain, Zabalza, Arrizabalaga, Puig et Ormaechea”. Abuztuaren 20an, ostiralean, heldu omen zirela.

“Agur, Euskalerrri...”. Agur samina, segurki. Bederatzi urte igaroko ditu Euskalerrira, bizitzera bederen, itzuli gabe. Loiolak bihotzean txertatu dion maitasuna —Euskalerrri eta euskararekikoa— ez zaio sekula itzali; are gehituz eta handituz joango zaio, oztopoak oztopo.

3. BURGOSEN RETORIKA IKASLE

Lehendik ere ezagutzen zuen Orixe Burgos; han egina zuen hilabeteke egonaldia gaixotetxe batean, esan dugun bezala, nobizio zelarik. Bi urtetarako joan da orain, “La Merced” zeritzan etxera, Retorika delakoa ikastera. Bi mailatako ikasgaiak hartzen zituen izen horrek bere baitan. Lehen mailako ikasgai nagusiak, asteko egunik eta ordurik gehienetan ikasi behar zirenak, hauek ziren: latina, gerquera eta hebreoa, antzinako Greziako eta Erromako idazlerik hoberenen obrak, bertsozkoak nahiz hitz lauzkoak, poetika eta estetika, eta literaturaren —Espainakoaren ia bakarrik— historia. Bigarren mailakoak, aldiz, haien osagarri gisa jai edo erdi-jai egunetan, ostegun eta igandeetan batez ere, ikasten zirenak beste

hauek: historia orokorra, aritmetika eta geografia, eta hizkuntz moderno-ren bat.

Bedelaren egunkariak ez du gehiago Nobiziadukoaren emanik; jario urriagoa du, eta juniorren izenak ere gutxiagotan aipatzen ditu. Orixerena bizpahirutan bakarrik agertzen da. Hogeitalau lagun ziren Retorikako lehen ikasturtean. Horien artean badira Orixe baino urtebete, eta are bi urte, lehenago Lagundian sartuak: hots, Burgosa baino lehen Loiolan gramatika eta humanitateak ikasi behar izan zituztenak; beraz lau urte Loiolan bizi izanak. Horretarakoxe gelditu zen han Estefania ere beste bi urte eta, Orixe eta biak Nobiziaduan bateratsukoak izanagatik, bi urteren alde kendu zion batbatean Estefaniari. Geroago honek alde hori berdindu eta are aurrea hartuko dio.

Urte hartan, 1909an, Probintzi-buru aita Pedro Bianchi donostiarra zen eta Probintzia –jesuiten barne-administrazioako probintzia, noski–geroago zatituko eta bereziko ziren Leonek eta Castillak osatzen zuten. Euskaldunak, gaztelaukoak eta leondarrak baturik zeuden, beraz, etxe hartan. Bai ote da esan beharrik han ez zuela Orixek Loiolan bezalako euskal girorik aurkitu, ez eta, esate baterako, Loiolan 1907ko Irailaren 15ean bezala, On Mateo Mujika, artean Gasteizko kalonje gazte zenaren, euskal predikurik entzun? Arras bestelako giroa bizi du Gaztelauko bihotz-hiri hartan; etxean latina, gerquera eta hebreoa aritzen da jo eta ke ikasten; auzoan, aldiz, ez du gaztelera baizik entzuten. A, hori bai: gaztelera eder, bizi, zailua, eta hura ere biziki maitagarria gertatu zitzaion Orixe gazteari eta sakonki menderatu zuen, lehen irakurri dugun olerkiak eta, beste gehiagoren artean, Berzeoren hizkera imitatuz behin paratu zituen bertsoek ezin hobeki erakusten digutenez. Leongo eta Granadako bi Fray Luisen eta Abilako Teresaren eta Gurutzeko Juanen hizkera liluragarri zitzaiola ondotxo dakigu.

Etxeko erretore aita Jose Mari Salaverri Mondoñedotarra izan zuen Burgosko lehen urtean eta gogo-zuzendaria euskalduna, aita Inazio Aramburu Segurako semea. Irakasleen artean ere bazuen euskaldunik: Balentin Galdos eibartarra, euskal letretan ezagunxeagoa dugun Romualdoren anaia. Gerquera batetik eta bigarren mailako historia orokorra eta geometria erakutsi zizkion honek Orixeri lehen urtean. Aita Camilo Abad-ek, aldiz, poetika eta estetika latinezko eta gerkerazkoa, eta literatur historia. Frantsesezko eskolen arduradun ere berori zen.

Irakasle gutxitxo aukeran eta gai gehiegixko irakasle berak emateko. Bai, ez da dudarik. Artean bakanak ziren ikasgai bakarrean edo gehienez bitan espezializatzen zirenak. Ikasle gazteei ematen zitzaien hazibidea ere orokorra zen, ikasgai askotxo besarkatzen zituena, ezertan gehiegi trebatu gabe. Urte batzuk igaro beharko dute Espainan nahiz erbesteetan espezializaturiko Errandonea, Rufo Mendizabal, Estefania eta gainerako irakasle iaioagoak –Zaitegik, Lauaxetak, Ibiñagabeitiak izango zituztenak–

juniorren irakasle izatera etortzeko. Halaz ere, egia esan, ikasle gazte haien bere gisako jardunak eta gatazkak eta ordu handitako egunoroko ahaleginak osatzen zuten nolazpait irakasleen ikasgai guztietara ezin hedatzea. Ondorioak ikusi besterik ez da!

Hiruzpalau hizkuntza aski ongi ikasirik ateratzen ziren bi urte haietako jardunetik. Latinez, gerkeraz, hebreoz, frantsesez —honen ordeztu bestetako ingelesez— onduriko olerkiak dira diogunaren lekukorik hoberena. Ez zaizkigu heldu damurik bi urte haietan Orixek —ez eta bestek— ondu behar izan zituen latinezko mintzaldiak, gero txandaka buruz ikasita —ez irakurrita, gero!— jantokian guztien aurrean egin behar izaten zituztenak; ez eta urtean zeharko jaiegun berezietarako —Ama Birjinaren festak, Maiatzeko azken eguna, Eguberriak eta abarretarako— paratu ohi zituzten olerkiak; ez eta afalartean jantokiko pulpitutik egin ohi zituzten gaztelezko prediku laburrak... Bai, ordea, sei hilabetez behin zinitzak berritzezarakoan paratu zituen latinezko olerkiak. Lehengo hura “Jesusen Lagundiari” bezala, 1910eko Urtarrilean tolestaturiko hau “Ad S. P. Ignatium” egina da. Behin Erroman gau oskarbi batean San Inazio zeru ederrari begira esan omen zituen hitz “Zein nardagarri deritzadan lurrari zerura begiratzean!” haiek ditu kantagai. Hona olerkia:

Desistit rumor perstantque silentia cuncta
 Noctequae siderea
 Assidet in tecto curarum Ignatius experts.
 Inspicit astriferum
 Coelum, et ferventi in patriam devinctus amore
 Luminibus rutilis,
 Vultum cum lacrimis irrorat, talia fatus:
 “Heu mihi, quam nihili,
 Quam, dicam potius, spernenda haec sordida terra est,
 Tegmina cum tueor
 Aetheris immensi, clara quae luce refulgent!”
 Indigus hoc precibus
 Assiduis supplex, Pater, unum eflagito, Sancte,
 Ut mihi perpetuum
 Concedas clemens, regni coelestis amorem
 Et miseri exsilii
 Istius horrorem moestum, capitaleque semper
 Obtineas odium. (3)

(3) Surmurrak geldit, isila da nonnahi nagusi
 eta gau izartsuan
 Inazio etxeganean lasai da eseri.
 Zeru oskarbira

Ikasturtea oso luzea, astuna eta trinkoa izan ohi zen; udako bi hilabetetako oporraldi handi eta txikiak kenduz gero, ia gainerako guztia: Urriaren lehen egunean hasi eta San Inazio bezpera arte. Eguberrietan eta Bazkoan ere izaten ziren eskola gabeko egunak; ez, ordea, norberak bere gisa egin beharreko ikastaldi gabekoak. Eguberri egunean berean ere bi ordutako ikastaldia egin behar izaten zen. Ostegunetan ikasgai nagusiak bazterrera uzten ziren, baina hizkuntza modernoak ikasteko eta gero haietazko eskola hartzeko ordu eta erdi izaten zen guztira, bai eta bakoitzak idatzi behar izaten zituen latinezko mintzaldiak arretaz lantzeko beste ordu eta erdi ere ilunabarrean. Ostegunetan izan ezik, astegunetan bataz beste lau ordu izan ohi ziren nork bere gelan ikasteko eta beste hiru edo lau ordu eskolak hartzeko. Horretarako bazuten gazteek bere liburategia: “Para sacar un libro de otra biblioteca que la del Juniorado se requiere permiso del Rector”.

Ordu eta erdiko ibilaldia izan ohi zen astearte eta larunbata arratsaldeetan etxetik kanpoko bide eta herrixketan barrena: “No vayan a la Catedral y en general no pasen por los puentes de Santa María, San Pablo y Besón hasta la ciudad, a no ser que la necesidad los obligue”. Ostegunetan hamar eta erditan edo hamaiketan, hizkuntz eskola amaitzean, txango luzeagoa egin ohi zen: etxetik atera, leku zelai edo kaxkoren batean bazkaldu eta bostak aldean berriro etxera: “Tampoco pasen a lo largo de la vía del ferrocarril; a lo más se permite atravesar el puente que está al terminar la Quinta”. Ibilaldi horietara hirunaka atera ohi ziren; inori ez zitzaion zilegi beste bi lagunak berak hautatzea; aitzitik hirunako sailak bedelak izendatzen zituen egunean-egunean txandaka, guztiek guztiekin harremanak izan zitzaten eta ez beti lagun berekin. Lehen ordu erdian elkarrekin gazteleraz mintzatzea galerazia zegoen, latinez hitz egin behar zen: “La media hora del latín de martes y sábados empieza a contarse desde que se sale de la portería”. Ez da harritzeko, beraz, azkenerako batzu latinez ia gazteleraz bezain aise mintzatzeko gai

begira, izarren argiek zeru egarri bizia

diote irazeki;

eta begitartea negarrez bustirik honela da mintzo:

“Ai ene, bai ezdeus,

are bai nardagarri deritzadala lur satsuari,

egurats zabaleko

eremu argi garbiz distiratsuei nagoela so.”.

Errumes honek

batño dizu eskatzen Aita on horri:

idazu, otoi,

zeruko erresumaren betiko maitasuna

eta erbeste dohakabe

honen higuin muzina eta gorroto bizia.

Idazu bai, arren!

gertatzen baziren. Hala moduko latina batzurena, bai; eta guztiz dotorea eta aberatsa gehiagorena. Bazen garai hartan bat baino gehiago hitzetik hortzera latinezko bertso biribilak egiten zekiena; hala diote ni baino zaharragoek aita Florentino Ogara Etxanoko semeaz, esate baterako. Berebiziko etorria eta erraztasuna omen zuen.

Ezin esan daiteke bere garaiko munduak ezagutu zituen aurrerapenetatik erabat aldenduak bizi zirenik; gramofonoa entzun eta are zinema ikusi egiten zuten bederen Eguberrietako atsedeen eta jolas aldietan: "...convenimus ut gramophonum aliasque compositiones ligatas audiremus", irakurtzen dugu egunkarian Eguberri eguneko olgeten artean; eta "convenimus in aulam magnam ut cinematographum videremus gramophonumque audiremus" biharamonekoen artean.

Lehen ikasturte hartako beste latinezko olerki bat ere badugu. Ekainean berriro zinitzak berritzeko hiru-urrenean ondu zuen. San Pedro jai inguruan izan ohi zen batzutan berritu aldi hori eta San Pedrori egina da olerkia. "Pase agnos meos" du izenburua:

Qualis cum puro spargens aurora per umbras
 Lumine, silvestris pastor per gramina ducit
 Gregem quaeritque intonsum de vertice montem,
 Quo neque sint limosae squalentesve paludes,
 Quo gelidum rorem solvat rubicundus Apollo
 Et rigui fugiant capientes murmure fontes,
 Haud aliter, precor, ut Solis possimus Iesu
 Lumine perfundi, duc nos ad culmina montis
 Nec coeni gregem patiaris labe foveri,
 Neve error turbet quandoque obnoxius alium,
 Sed per gramineum campum, per pabula laeta,
 Torrentem in fluvium quo Christi pectore manat
 Compellas, quaeso, atque illic dulcedine abundet.

Hexametroak dira bertso guztiak, Virgiliorenak bezalakoak, eta badute honen bertsoen errainua eta oihartzuna. Orainokoetan ez bezala, gaztetango Orixe, mendi eta basa kume, artzainen bizimoduaren jakile eta maitale, agertzen zaigu hemen. Hona zer eskatzen dion San Pedrori laburkiro esanik: artzainak artaldean egunsentian belardietan barna eraman eta, lohirik gabeko kaxko belartsuen bila, eguzkiak intza urtu eta ur-xurruapak dauden muinoetara gidatzen duen bezala, halaber Santuak ere eraman gaitzan Kristoren bihotzera, han ezti-gozotan bizitzeko.

Bigarren ikasturtean (1910-1911) etxeko erretore eta irakasle berriak ditu. Erretore aita Mauricio Cid eta irakasleak aita Isacio Morán eta aita Ramiro Arri. Lehenak Retorikaz gainera hebreoa eta gerkera eta aritmetika gehiago irakasten dio; bigarrenak poetika eta estetika, lehen urtean baino autore zailagoetan, eta literatur historiaren beste zatia. Hogeitazaz-

pi ikaskide dira bigarren mailan. Ikasturte honetan ere, lehenbizikoan baino areago, egin behar izan zituen, ohi zenez, zenbait txosten, idazlan eta “konposizio” zeriztenak; bai eta jantokian etxeko bazkaldar guztien aurrean egin ohi ziren gaztelerazko eta latinezko mintzaldi aski luzeak; bai eta, astebete lehenago Ebanjelioko pasarte bat gaitzat hartu eta, afalarlean prediku gisa pulpitutik egin ohi zen hitzaldi koxkorra edo homilia; bai eta eskoletan ikertzen zituzten Greziako eta Erromako autoreez, halaber gaztelerazko idazle klasikoez ere, idazlanak, urtean zehar bi hilabetez behin edo izan ohi ziren ospakizun literario dotore eta nagusietan irakurri ohi zirenak, eta abar. Hala badakigu bedelaren egunkariari eskerrak urte hartako Azaroaren 13an, San Estanislao egunean, prediku saio bat egin zuela Orixek latinez jantokian: “De S. Stan. verba fecit latine F. Ormaechea”. Orobat Abenduaren 18an, Peredaren “Peñas arriba” aztergai zutelarik, akademia bat egin zutela —“dissertatio et declamationes”—, nahiz zeintzuk parte hartu zuten ez digun esaten, aita Arri txostenen zuzendari izan zutelarik, eta bi egun geroago “ludi optimum exitum” ospatu zutela. Eguberri egunez ere ez zitzaien barkatzen, esan bezala, ordu pare bateko ikastaldia, eta egun hartan goizeko 6etan jaiki eta gaueko hamarrek arteko egutegi zehatza zein izan zen daukagu egunkarian adierazia. Bada hor irakurtzen dugu goizeko 8etan ordu bete-ko ikastaldia eta 11,15etan beste hiru ordu laurdenetakoa izan zutela, eta arratsean zinema, biharamonean bezalaxe, eta Inoxente egunez “cine, gramophonum, sombras chinescas et alia eiusmodi”.

Eguberrien ondoren Errege egunez zinitzen berritzea, hiru egunetako gogojardun laburrak aurretik eginez. Eta egun horretantxe ondu zuen latinezko beste olerki hau, “Ad PP. Lusitanos e patria depulsos” titulua duena:

Quales dulcisonae volucres super arbore sidunt
 Magnificumque canunt festivo gutture Patrem
 Aetheris immensi, ponti nemorumque satorem,
 Haud aliter vitam placidi sine labe tulistis
 Laetitiamque diu vestram Lusitania vidit.
 Sed veluti fagum cum ingrata falce viator
 Percutit, errantes tum pura per aethera surgunt,
 Non secus injuste patrio de littore pulsi
 Quaeritis enixe sedem requiemque serenam.
 Surgite, Loiolae nati, capita alta ferentes,
 Vos iterum spectat frondoso tegmine quercus.

Bertso zati osoak dira Virgiliorenak berberak eta haren adabakiz osatua dela esan daiteke ia soineko guztia. Hainbestetaraino zekizkien buruz Mantuako poetaren bertsoak; eta hori ez da harritzeko, berrogeita-mar urte geroago guri ere buruz ikaserazten baitzizkiguten Virgilioren eta gainerakoen sail luzeak. Portugaletik iraitzi berriak ziren jesuitei hauxe

יחנח

ישוע גטו נצור מִשְׁרֵי יֵשׁוּ אֲשֶׁר עָנוּ לָכ
 אֲשֶׁר יֵאָבֵב עַם-כְּכָשׁ וְנָמַר עַם-עֲגֵל הוֹשִׁיב
 תְּדַבֵּר רֹמַם עֲנֹת וְיִרְאַת יְחִנֹּחַ
 אֲשֶׁר תִּשְׁתַּעֲשַׂעַת כְּרִדִּי עַל מַחְמָרִי מ
 וְנָטוּ אֶת-יָדָהּ עָלַי וְתִיחַ עָנוּ

Interpretatic.

Gloria teneris Jesu, natus de stipite Jesse,
 Fortis at imbellis, cordeque blande Juver,
 Ursus qui vitulis, agnum qui jungis et boedum
 Imparidis monstis, me quoque vince ferum.
 In casto exultans qui ludis pectore Matris
 Brachia si tendas et mihi, suavis ero.

A. M. D. G.

W. Amatech 11


kantatzen die gutxi gorabehera: pagu baten gainean baketsu eta txioka dauden txoriak, nekazari ankerrak igitaiez adarrak inautetan, hegan beste zuhaitz batetara ihesi doazen bezala, halaber aizatu omen dituzte Portugaletik jesuitak, baina aurkitu ere bai hauek ostape ederreko beste arte bat.

Errege ondorenean eskolak hasi zituzten berriz. Otsailaren 28an gartzelako presoek bisita egitera lau junior aita Arambururekin joan zirela ere badakigu. Presondegia hartantxe egongo ziren preso hogeitamar urte geroago euskal gudariak eta hantxe bertan aterako zuten izkutuan *Espe-txean* izeneko aldizkaria, non idatzi baitzituen Mitxelenak bere lehen artikulutxoak eta paratu bere *Bertso berriak* 1940ko Irailaren 18an, Donostiko *Amaikak Bat*-ek estropadak irabazi ondian. Martxoaren 26an beste akademia bat izan zuten eta han badakigu Orixek lan bat irakurri zuela, honela zeritzana: “El aula y el campo”. Gero Ekainean zinitzen berritzea ostera ere. Berrialdi hartako olerkia hebreoz egin zuen; bost lerroz osatua da eta hona hemen berorren fotokopia. Bost bertso horien ondian latinezko sei oratu zituen, hebreozkoen itzulpena agian, *Interpretatio* izenburu pean. Hona hauek:

Flos tener, oh Iesu, natus de stipite Iesse,
Fortis at imbellis, cordeque blande Puer,
Ursum qui vitulis, agnum qui iungis et haedum
Impavidis monstis, me quoque vince ferum.
In casto exultans qui ludis pectore Matris,
Bracchia si tendas et mihi, suavis ero.

Hauek distikoak dira. Orainoko guztietan baino areago mintzo da hemen Orixe bere buruaz, besteak baino pertsonalagoa deritzat honi. Isaiasen oihartzuna entzuten dugu hiru lehenbiziko bertsoetan. Jesus haurrari, hartza zekorrarekin eta bildots-ahuntzak bidutzi izukaitzekin batean bizierazten dituenari, garraxi sarkor hau egiten dio: “me quoque vince ferum”, “ni naizen basati hau ere mendera ezazu!”. Eta honela burutzen: “Amaren sabel garbian jauzika jostatu zinen horrek neri ere besoak luzatzen badizkidazu, otxan naizateke”. *Ferum* omen da eta *suavis* izan nahi. Hezikaitz ikusten zuen bere burua inondik ere!

Junioradua amaitzera doa Orixe eta puntu honetan ohar bat egitea beharrezkoa iruditzen zaigu. Haren gerkerazko olerkirik ez da ageri zinitzen berrialdiko olerkien bildumetan; beste zenbaitenak bai, aldiz. Ez ote zuen bere burua hain trebe ikusten hizkuntza horretan? Ez litzateke harritzeko. Beste mutikoak hamar edo hamaika urte zituztela joaten ziren Xabierra, eta Orixe hamazazpi zituela. Alde handia da, noski. Horrez gain hiruzpalau urtez aritzen ziren haiek han latina eta gerpera ikasten, eta Orixe biez bakarrik. Hebreoarena oso gauza desberdina da: guztiak batera hasten ziren Burgosen ikasten eta ez zion inork inori ikasten

jarduniko urteen alderik kentzen. Gerkerak beste batzuk bezain ongi menderatzen ez zuelako susmoa indartuko digu Oñako beste gertari batek.

Ikasturtearen bukaeran, Uztailaren 26an, "academia finalis" izan omen zen. Gaia "La usurpación de los Estados Pontificios: discurso preliminar, cantos, poesías". Hemen ere ez digu bedelak txosten eta olerkigileen izenik eman. Azterketak eginez amaitu zuten ikasturtea. San Inazio eguna handikiro ospatu eta, ohi bezala, hamabost egunetako opor handiak izan zituzten, berehala Oñara aldegitako pardelak eginez. Loiolatik Burgoseratu behar zutenei lekua uztearren, Burgoskoak joan ohi ziren Oñara lehenbizi eta ondoren Loiolakoak etorri. Beraz ez zuten Estefaniak eta Orixe Burgosen elkar ikusi. Abuztuaren 17an agurtu zituzten afari-merienda batez han jarraitu behar zuten lehen urteko juniorrek eta irakasleek: "...merendam lautam ad valedicendum 28 FF. qui die crastina, Deo volente, Onniam sunt petituri. Inter prandendum versibus et canticis his 28 FF. valedictum est". Eta biharamonean, egunkariak hala diosku, goizeko hamarretan atera ziren etxetik.

4. OÑAN FILOSOFO (1911-1914)

Burgostik Oñara hiru urtetarako joan da Orixe filosofia ikastera. Hogeitabi urte eder ditu. Etxeko egunkarian honela idatzi zuen egun hartan "Scriptor domus" kargua zuenak: "Agosto 18... han llegado a las 3,15 de la tarde de Burgos 28 para Filosofía"; eta gauza bera latinez filosofoen bedelak, hauxe erantsiz: bat Burgosen gelditu zela gaixorik. Berrehun eta hamabost lagun bizi dira guztira Oñako etxe kankailuan, haietatik hirurogeitamabost filosofo eta hirurogeitamazazpi teologo. Baina filosofoek eta teologoen ez dute beren artean batere harremanik, urtean bospasei jai handitan izan ezik. Bi lagunarte edo komunidad gisa bizi dira. Filosofoen artean batzu ezagunak ditu, baina gehienak aurpegiak berriak. Izenak agian entzunak ditu, batez ere Burgosko ikaskizunetan latina eta gerkerak eta hebreoa hobekien omen zekitenenak, edota predikuak egiten nahiz olerkiak tolestatzen gehiena nabarmendu omen zirenenak. Hala gertatu ohi baitzen: ahoz aho ibili ohi ziren ondorengoen artean aurreko ikasle iaio eta trebeenen izenak eta sendagailak. Laster ikasiko ere zuen zeintzu ziren Filosofiako bigarren eta hirugarren ikasturteetako ikasleen artean azkarrenak eta zorrotzenak.

Zer sentitu ote zuen Orixe? Erretorikako jardunaldiak bezain errazak gertatuko zitzaizkiola Filosofiakoak? Olerkigintzarako bezain dohatua eta hornitua zuela adimendua Filosofiako argudio mehe eta zorrotzetarako? Ez ditugu inon aurkitu Burgosko notak; ez ziren beharbada gorde ere egiten, ez baitzuten inolako eraginik jesuitaren geroko *status*-ean.

Pentsa dezakegu, halere, oso onak izan zirela, latinean eta literaturan batikpat. Filosofiakoak bai aldiz, gero esango dugunez, eta ez agidanean berak uste bezain onak. Inori ez zitzaion gaztigitzen nolakoak irabazi zituen eta ez zituen inoiz jakiten; azterketa gainditu zuen ala ez esaten zitzaion soil-soilik. Baina ez ditzagun gauzak garaiz lehen konta.

Oñara iristean, aita Isidoro Zameza mungiarra zen erretore; hiru hilabeteren buruan, ordea, Azaroaren 21ean, erretore berria izendatu zuten, aita Enrique Carvajal, eta Filosofoen arduradun, egunoroko gora-behera txikiatarako erretorearen ordezkari, aita Gutiérrez del Olmo zen, Orixe Loiolan nobizio zenetik ezagutzen zuena, aita Cesareo Iberoren laguntzaile izana baitzen bigarren urtean.

Urriaren 3an hasi zituzten lehen mailako ikasgaien eskolak, bezperan Espiritu Santuaren meza entzun eta “lectio brevis” zeritzana burutu ondoren. Ez da erraz jakiten zein eta zenbat izan zituzten urte hartan eta ondoko bietan goi-mailako ikasgaiak. Katalogoek ez egunkariek ez dute horien berri zehazkiro ematen, iragaitean bata edo bestea aipatu baizik, eta ikasturteko azken ahozko —besterik ez zen— azterketen notak ez ziren ikasgai bakoitzean mereziak ipintzen, baizik aztertzaile bakoitzak nota bakarra ezarri ohi zuen azterketa osoari bere ustez zegokiona. Eta, zer esanik ez, urteen joan-etorrian ikasturte bakoitzeko ikasgaien ordena aldatu egiten zen, edo hobe beharrez edo irakasleen komenientziatz.

Akademiak, zirkuloak, errepikapenak eta bigarren mailako ikasgaiak Urriaren 16an hasi zituzten, aldiz. Bigarren mailako ikasgai direlakoak gehienez hiru hilabete luzatzen ziren eta ikastaro gisakoak izaten; bata amaitu bezain laster, haren azterketa egin eta beste ikastaro bati ekiten zitzaion. Egunkarian ikastaro horietako bakoitzaren azterketa eguna adierazia daukagu eta badakigu horrenbestez lehen ikasturtean Dialektikaz gainera Matematika, Trigonometria —edota bestela Kimika— izan zirela. “Akademia” deitu ohi ziren ostegun eta igandeetan bakarrik ikas zitezkeen hizkuntzen ikastaldiak eta eskolaldiak. Gerkerak eta hebreoa ikasten jarraitzen ziren batzu, horietarako trebeen zirenak eta egunen batean horien irakaskuntzan aritzeko gogoak zutenak. Beste batzu, aldiz, frantseza, ingelesa, bai eta alemana ikasten ere. “Tonuak” izeneko deklamazio saioak, inoizko sermoigintzarako hain beharrezkotzat jotzen eta igande arratsaldeetan izaten zirenak, Urriaren 29an hasi zituzten aita Aniceto Galdosen gidaritzapean.

Hortik aurrera ezer gutxi kontatzen digute —Loiolakoek eta Burgoskoek baino askozaz gutxiago— Filosofiako egunkariek. Orixeren —eta beste askoren— izenik ez da lehen urtean aipatzen. Ez dakigu ere urte hartan eginiko olerkiren berririk. Ikastaroen azterketa egunak, bai ematen zaizkigu, esan bezala: Dialektika, Azaroaren 26an; Matematika, Maiatzaren 1ean; Kimika, Uztailaren 2an. Eta beste hitzaldi ospetsu batena, San

Juan Crisostomo egunez, Urtarrilaren 27z, jantokiko pulpitutik urteoro egin ohi zen gerkerazkoarena. Ez zitzaion edozeini agintzen, bistan dagoe-nez, gerkerak hobekientsu zekien bati baizik. Hilabete bat lehenago izendatu ohi zen hizlaria eta, lana osorik idatzia zuenean, buruz ikasi eta igo ohi zen jantokiko pulpitura, entzule guztien epai-nahiak zorroztuak zituen begi eta belarrien gozagarri —eta zenbaiten bazkariaren gazigarri?— ordu erdiz gerkeraz mintzatzeraz. Urte hartan anai Páramo bigarren urteko filosofoak egin zuen; hurrengoan anai Guereta legazpiarrak, hirugarren urtekoak; hurrengoan anai Olondrizek, hirugarrengoak, Orixeren ikaskideak. Orixek, aldiz, behin ere ez, eta beste askok eta askok ere ez, noski. Baina gauza bat esan behar da hemen bertantxe Orixeren alde: gerkerazko predikalari Páramo eta Olondriz Filosofia bukatzean Comillas-a igorri zituztela “maisú txiki” izatera eta latin-gerkerak irakastera, eta Orixe ere bai. Ez zen, beraz, herrena Greziako hizkuntzan! Gero han “de facto” latin-gerkerak irakatsi zituen ala ez, bere garaian ikusiko dugu.

Uztailaren 22an hasi zituzten lehen ikasturteko filosofoek —gainerakoek orduko burutuak zituzten— ikasgai nagusien azken azterketa ahozkoak. Lau irakaslek osatu ohi zuten orduan epaimahaia eta Orixe nortzuk aztertu zuten badakigu: aita Arrazola, Galdos, Ibero eta Maestro-k. Nola-ko notak ipini zizkieten ere bai, geroxeago esango dugunez.

Oñako udaldiek ez dute ia parerik eguraldiaren aldetik. Ez dago esan beharrik han bertan ematen zutela uda osoa, inora atera gabe. Atera bai, hobeki esan, baina egun berean etxera itzultzeko, inguruko herrixkaren batera txangoa egin ondoren. Hori hamabost egunetako opor handietan; txikietan jolasaldiak urritu eta ikastaldiei ekiten zieten berriro: hizkuntzak ikasteko neguan baino ikastaro trinkoagoak egin ohi ziren. Ohartu orduko, gainean dute berriz ere ikasturte berria, Irailaren azken egunetan zortzi-urreneko gogojardunak —urte hartan aita Astrain historiolaria buru zutelarik— egin ondoren. Urriaren lean “lectio brevis” delakoa hartu eta geroxeago eman zitzaient abia tonu, zirkulo, akademia, errepikapen eta behe mailako ikasgaiei. Hauetako bi Biologia eta Fisika bederen izan zirela badakigu, egunkariak gaztigatzen baitigu zein egunetan izan ziren bion azterketak: Uztailaren lean eta Uztailaren 26an, egun honetakoa bi egun geroago, astelehenean, egiten jarraitzeko 26an egiteko astirik izan ez zutenak.

Ikasgai nagusietatik bi aipatzen ditu egunkariak: Sikologia enpirikoa, aita Jose Maria Iberok azaldu zuena, eta Etika, aita Jose Mostazak irakatsia. Hau bi urteren buruan Comillas-en biziko da Orixerekin batera eta honen etsairik handienetako bat izango. Ez dakigu beste ezertxo Orixeri dihoakionik, ez baitu honen izena aipatzen ere egunkariak. Hau aurrerago eta hitzetan zuhurrago da, bidezko denez. Olerkirik ere ez zaigu aipatzen eta geure bilaketan ere ez dugu batere aurkitu; hurrengo ikasturtekorik bai, halere, aurki esango dugunez. Uztailaren 18an anai

Páramo, gerkerazko predikugilea, Comillas-era doa, esan bezala, “magisterio” zeritzan aldia igarotzera. Egun horretantxe hasi ziren bigarren urteko filosofoen azken azterketak eta ondoko egunetan jarraitu. Orixek honako irakasle hauek aztertu zuten: aita Galdos, Ibero, Mostaza eta Dominguez-ek. Laster jakineraziko dizkizuet notak.

Uda hura lehengoak baino luzeagoa iruditzen zitzaion Orixeri, apika. Burgosko juniorrak, han Retorika bigarren urtea bururatu zutenak, noiz iritsiko zain zegoen irrikaz. Haien artean etorri behar zuen Oñara anai Estefaniak, Orixek bezain olerkigile trebeak. Ez dirudi Loiolan nobizio sartzean euskara zekienik; heldu zaizkigun olerkiak ere —latinezkoek gain— guztiak gaztelerazkoak dira, honako ale pitxi hau, gaur lehen aldiz argitaratu agertzen dena, eta beste bat izan ezik. Bere aitari eskaini zion sorta handi baten hasieran dago. Holandako Valkenburg-en teologiako hirugarren urtea ikasten ari zelarik ondua da bere aitaren egunean. Aitak ba ote zekien euskara? Bere xotilean, euskara maite ez ezik, ikasi ere ikasi zuelako ezaugarri polita da. Honela dio:

Nere aitari

Erbestetik zure egunean,
txoritxu bat lez egazka,
nere au zure seme-biotza,
aita! of doa zeugana.

(Valkenburg'tik)

Baina Valkenburg geroko utzi —horiek 1923ko kontuak baitira— eta itzul gaitzen 1913koetara, Oñan gertatu zirenetara. Irailaren 2an Oñaratu zen anai Estefania: “Por la tarde han venido... los HH. Retóricos Estefanía y Larrea a Filosofía” idatzi zuen egun hartan “Scriptor domus” delakoak. Biharamonean jaialdi edo academia arranditsua egin zuten filosofoek, eta bazen zergatik. Hiru hilabetez lehenago Erromako aita Jeneralak gaztigatu zion Probintziko nagusiari, aita Bianchi donostiarrari, harrez gero Txinan misio bat izango zuela bere Probintziak eta hasteko lehen bait lehen gazte batzu hara bidaltzen. Sei destinatu zituen lehen kolpean: lau apaiz, Videgain, Serapio, Ponsol eta Ruiz, eta bi filosofo Orixeren ikaskide: del Olmo eta Rodríguez. Egun hartan, Irailaren 3an, egin zieten etxeko lagun guztiek literatur jaialdi batez agurra, Probintziko beste etxe eta ikastetxe batzutako buru edo agintariak ere, aita Bianchi Probintzialaren kontseilari zirenak, entzule zirelarik: alegia, aita Bianchi bera eta honen idazkari aita Ciarán; aita Cesareo Ibero Gijongo erreto-rea, Loiolan Orixek nobizio hartu zuena; aita Baltasar Irigoyen Valladolideko erreto-rea; aita Pedro Bastera Urduñako erreto-rea; aita Martín Garmendio Burgosko erreto-rea eta aita Santiago Sádaba Tuterako erreto-rea. (Benetan seinalagarria da ez zela orduan jesuita euskaldunen eskasari-rik Probintziko kargurik handienetan!). “Pulcherima academia ad PP. eta

FF. *missionarios*” dio bedelak egunkarian, nortzuk parte hartu zuten zehaztu gabe. Egun horretako gertakizunari alderik alde dihoakion Orixeren olerki latinezko bat gorde zaigu beharrik eta, nahiz *Ekaina 1914* data daraman, egingo nuke Irailean tolestatu zuela eta gero aurkitu dugun kuadernoan data berriarekin ezarri. Hau ez da haatik gauza segurua; izan daiteke 1914eko Ekainean egina ere, Orixeren beste ikaskide batzu izan baitziren orduan ere Txinara destinatuak. Tituluak salatzen du ezin hobeki egin zeneko parada: *Ad navim fratres vehentem* (“Anaiak daramatzan itsasontziari”):

Fortunata ratis, piam
 Christi quae sobolem militiae rapis
 Lascivae! Pete concita
 Oras in placidas. Nescia criminis
 Arcâ tuta domesticâ
 Risit diluvium casta columba, tum
 Intacta super elevans
 Plantas et fugiens summa cadaverum
 Ramum cum viridem tulit.
 Sic te, fida ratis, quod socios precor
 Ducas per freta sic meos!...
 Fortunata nimis! Iam mare mitigat
 Undarum strepitus, videns
 Sacras divitias. Oceanum lege
 Heu! tranquila per aequora
 Spirantis Zephyri seu ope murmuris (4).

Duda-mudazko “*precor quod*” bat gorabehera, ezin uka biziki polita dela. Egun hartatik beretik filosofoen arduradun berria izendatzen dute aita Gutiérrez del Olmo-ren ordeztu: aita Armisen nafarra, aurrera ere

(4)

Ontzi dohatsua, Kristoren
 gazte garbiok lizunen samaldatik
 ostutzen dituzuna! Zoaz
 arin-arin ur-bazter gozoetara.
 Etxe-kutxara bildurik
 uso xuri-otxanak irri dagio uholdeari,
 zuhaitzen gaindi igo
 eta sarraski pilotik ihesi, adaxka
 berdea eramanik.
 Halaber zuk, ontzi segurorrek, gida, otoi,
 ene lagunok itsasoan barna!...
 Milatan dohatsu! Itsasoak ematu du
 uhinen burrunba, ezagutuz
 gordailu sakratua. Araka, ai, Ozeanoa
 ur geldietan zehar
 sartaldeko haizearen ufaz zein xixtuz.

Orixeren pertsona eta bizitzarekin topo egingo duena. Urteroko gogojardunak 21ean hasi zituzten aita Pérez Goyena nafarrak emanik. Egun haietan anai Estefanía Salamankan da, uste dudanez Deustun hasiak zituen Unibertsitateko ikaskuntzen azterketak burutzeraz joana. Urriaren leian ohizko "lectio brevis" izan zuten eta biharamonean eskolei ekin. Akademiei 16an eta zirkulu, errepikapen eta gainerakoei 17an eman zieten hasiera. "Kristau arte"-ko eskolak aipatzen zaizkigu hurrengo egun batean, hirugarren urteko filosofoek egiten ari omen ziren ikastaro batekoak. Abenduaren 8an, Birjina Sortzez Garbiaren egunean, Orixek paratu zuen gaztelerazko beste olerki bat ere heldu zaigu. "Oña 1913, 8 Dic." dio gainean eta izenburu hau du: "Regina sine labe concepta". Luzea da, Erromantizismo ondoko oda dirudi. Hona:

Entre triste y sublime escucha un grito
que, aunque en su timbre entremezclar parece
recuerdos de un delito,
también gloriosos triunfos enaltece;
que si el vencido canta,
contigo el grito vencedor levanta.

Habrá en mi canto un dejo de tristeza,
porque formado en sombras de malicia
me avisa tu pureza
de la perdida original justicia;
mas venza la alegría,
que tu victoria fue victoria mía.

Gima la hollada sierpe en los zarzales,
la que venciendo la mortal flaqueza
dejó en ella sus males;
que nunca derrocó tu fortaleza,
ni en tí cebó su diente,
Virgen más linda que el marfil de Oriente.

Y aunque al ganar al hombre dejó impresa
en él la huella que al pecado inclina,
por tu virtud la presa
abandonó; y a tí, Madre divina,
por singular manera
te preservó la Redención primera.

Fuera mi canto digno de tu gloria,
si nunca como a ti dragón maligno
me cantara victoria;
mas... perdona si juzgo ser más digno;
que algo sublime expresa
el canto vencedor de quien fue presa.

Hoy cesa de los vicios el tumulto
y aun el erial se torna en fértil prado
para rendirte culto.
Interrumpe el lenguaje de pecado
el humano linaje
y ensaya en tu loor nuevo lenguaje.

Lirio, huerto, paloma, cuantos nombres
os impuso el Espíritu divino
y os repiten los hombres,
yo os entono también; pero imagino
el más bello el de "huerto",
cerrado al vicio, a la pureza abierto.

¡Ay, que me siento en otro muy florido
cerrado al aquilón de las pasiones,
donde el fuerte latido
oigo de estos ardientes corazones
que te aman con delirio
y cual flores se rinden ante el Lirio!

De este huerto de paz que el mundo ignora
y semeja el Edén de la inocencia,
oye una voz sonora,
pura, de tu pureza rica herencia,
que clama enardecida:
Salve, Madre, sin mancha concebida!

Bedelaren Egunkariak ez du jaialdi horren berri ematen, bai ordea Urte zaharrez izan omen zenarena, parte hartzaileen izenik ez aipatu arren. Bai eta ikasturtea hasi zenetik Urte Berri egun arte bospasei filosofo hirugarren urtekok —Leturia, Laburu, Goicoechea, Maguregui, Zabalza eta Murugarrenek, iguztiak euskaldunak!— egin zituzten predikuen berri. Orixe ez da, haatik, inondik ageri. Estefanía bai geroxeago, Urtarrilaren 18an.

Sartu gara horrenbestez 1914eko Urte berrian, Orixeren aurreragoko nahigabe eta zoritxarren abiapuntu, ene ustez, izango den urtean. Ba ote zuen artean gauzak okertuz zihoazkiolako edota Lagundiko agintariek bere jokabidea begi txarrez ikusten zutelako susmorik edo bihozkadarik? Ez, ene ustez. Ezerk ez digu garai horretan heldulekurik eskaintzen horrelakorik susmatzen zuenik pentsatzeko, ez eta ere, hark ez susmatu arren, zerbait bazela uste izateko. Burgosko "me quoque vince ferum" hura bizi osoan aitortu zuen bere aiurri zakarraren keixua izan zitekeen, eta ez gehiago. Arestian irakurri dugun olerkian horrelako edozein susmo desegin dezaketen esaldiak aurkitzen ditugu gainera: "Ay, que me siento en otro (huerto) muy florido, cerrado al aquilón de las pasiones..."

eta gero “De este huerto de paz que el mundo ignora y semeja el Edén de la inocencia...”. Bake baratzean bizi uste du artean Orixek, eta ez dugu guk arrazoirik besterik pentsatzeko.

Elurte ikaragarri batez agurtu zituen Urte berriak Oñako biztanleak: Urtarrilaren 2an laurogeitabat zentimetroko elurra metatu zen herrian. Biharamonean berriz ere zinitzak berrizteko hiru-urrena hasi zuten eta Errege egunez berritu. Hona egun haietan ondu zuen olerkia, ezagutzen ditugun Orixeren latinezkoetatik azkena. Orain artekoek ez bezalako argudioa du kantagai, “Epistola ad musicum” tituluaren pean. Lehengoetan Virgilioren oihartzuna nabaria bazen, hemen Horaziorena ezin eta gehiago, honen “Epistola ad Pisones” ezagutzen duen nornahirentzat. Hortik hartu ere ditu bi azken bertsoak. Ez dirudi, damurik, osorik heldu zaigunik; hasierako bertso batzu, beharbada asko, falta dituela salatzen du lehen bertsoaren lehen juntagailu aurkariak. Eliz kanta nahiz eliz poesiak nolakoa izan behar duen ematen du aditzera hexometro izeneko bertsoz. Hona:

Sed neque saltandos componas more theatri
 Seu cantes numeros Templi gradiendus ad aulas,
 Tristia nec tardis imiteris funera signis.
 Sunt quibus et sancta est demissum ducere vita
 Collum; tu numeris quatias si tristibus aures
 Insipidisque premas vulgus, ne crede canorem
 Exhibuisse sacrum, nec gustus iura negaris
 Vulgo; nam cunctis, ut docte fabula narrat,
 Queis non est nulla, infandum!, dementia nata,
 Sensus est quidam cantusque sacraeque poesis;
 Cuique suum tribues sapienti atque arte carenti;
 Non *proprio motu* ducaris pangere cantus,
 Sed motu proprio: graves at multicolores.
 Musica sit compar Biblis (en optima norma):
 Tempore Paschali resonet sublimia Regis
 Barbytos; adventusque prophetam concine grandem;
 Hebdomada querulum sancta, tum luce carentum
 Funera Job patiens comitetur. Nonne colores
 Multos ac varios praebent sacra Biblia, amice?
 At “motum proprium servo”. Tu solus haberes
 Interpres? Reliqui cupiunt servare Parentis
 Iussa, sed artificum pangunt modulamine cantus.
 Ridiculus non sis miscendo tristia laetis.
 “Est modus in rebus, sunt certi denique fines,
 Quos ultra citraque nequit consistere rectum”.

Laburturik euskarara iraultzea zilegi bazait, haxe dio eliz kanten edo eliz doinuen gainean: Izan bitez ez dantzarako bezain biziak, ez

geldiegiak, ez eta hiletetakoak bezain tristeak; eliz kanta izateak ez baitu esan nahi geldoak eta gatzgabeak izan behar dutenik. Herri gustokoak behar dute izan, herri ezjakinak ere bai baitu eliz kanta eta eliz poesi sena. Ikasiari eta ez ikasiari, nori berea eman. Ez bedi esan *zeure gisako* kantuak egiten dituzula, baizik kantu gisakoak: serioak, baina nabarrak. Hona eredurik onena: eliz-aro bakoitzeko Liburu Santuetako irakurgaiak. Bazkoan Dabiden lira entzun bedi, Abenduan Isaiasen hitz pisuak, Aste santuan Jeremiasen mingulinar, hilen mezatan Joben sofrikariak. Ez al da aukera ederra eta nabarra, adiskide? Bai, “baina nik neure gisara nahi”. Zu zara interprete bakarra, ala? Besteek Aita (San Inazio?)-ren esanak maite dituzte, baina kantak artez nahasirik. Farregarri da alaiak eta tristeak nahastea.

Eta, esan bezala, Horazioren beraren bi bertso ezagunez amaitzen du. Pasadizu txiki bat, Orixerekin neuri gertatua eta bi bertso horiei dihoakiena, kontatu behar dut hemen. 1959garren urtea zen eta Innsbruck-en ari nintzen teologia ikasten. Eguberrietarako zorionak emanez idatzi nion Añorgara, ez nuen ordea erantzunik jaso. Errege egun bezperan nere lagun aita Migel Etxeberría Aramako semeari —Araman igaro zituen urteak Orixek—, zorionak emanez nik bezala idatzi zionari, erantzun zion Orixek eta beste gehiagoren artean honako hau kontatu:

“A. Altunak ere egin zidan Egubefiz, baiñan etzidan *Innsbruck* beste aztafenik ematen, idatzi nai ba’nio ere. Zuk egingo ba’zenio, bialduko al zenioke gibelean dijoan nota ori?”.

Eta nota, hain zuzen, Horazioren bi azkeneko bertso horien itzulpe-na zen, nik —auskalo zergatik!— neure gutunean eskatzen niona. Hona haren nota osoa:

“Est modus in rebus, sunt certi denique fines, quos ultra citraque nequit consistere rectum. Gauzek tamaña dute, beren mugarekin; andik pasa ezker, gauzarik ez da zuzenik.”

Eta gero beste hau:

“In medio consistit virtus = *zintzo ere, neuriz.*”

Gero zioena, bego; baina Orixeren eta kaxkar honen artean baze-goen leizea adinako tartea.

Itzul gaitezen oster a Oñara, hilabete gutxi gelditzen baitzaio hango txanda burutzeko. Beste lau hitzaldiren berri ematen digu egunkariak; ez da ordea Orixerenik horien artean —eta, berririo diot, beste askorenik ere ez, ez dezan inork pentsa izkutuko arrazoiren bat dagoenik isiltasun

horretan, nahiz arrazoia zein den ez dakidan; beharbada ez zuelako luzarora ikusten bere burua misiolari edo herriko sermolari izateko tre-bea—. Filosofo guztien eta hauen irakasleen aurrean egin ohi ziren “mensual” izeneko bi defentsa publikoren berri ere badugu, ez ordea defentsaileen ez eta erasotzaileen izenik. Apirilaren 4ean Astronomia eta Geologia ikastaroen azterketa izan omen zuten hirugarrengok. Astronomia, bai, ez dut oker esan; aita Gutiérrez del Olmo-k irakatsi zien.

Orain dator azkena edo azkenaren atarikoa, baten baino gehiagoren loa aztoratu ohi zuen gertaria: hiru urteetako ardailen eta gatazken frogalarria izan ohi zen “De universa Philosophia”, rebalida gisako, azterketaren programa eskuratzea. Apirilaren 11an banatu zieten eta laurogei tesi hartzen zituen gutxi gorabehera, hiru urteetan ikasitako sei ikasgai nâgusietatik —Logika, Metafisika, Sikologia, Kosmologia, Teodizea eta Etikatik— hautatuak. Bi hilabete ematen zitzaien haiak lantzeko. Ez dakigu zein egunetan aztertu zuten Orixe; zinitzak 29an berritu zituela, bai, eta Uztailaren 3an aita Probintziala eta bere kontseilariak, aurreko urtean bezalaxe, Oñara bildu zirela ere bai. Edozein filosofori zilegi zitzaion haietakoren batengana hitz egitera eta keixuak agertzera joatea: “licet omnibus petere eorum cubicula”. Joan ote zen Orixe? Ba ote zuen keixurik? Egun berean hasi zituzten hirugarrengok zortzi egunetako gogojardunak aita Gómez de la Torrerekin. Hilaren 12an egin zieten azken agurra Oñan gelditu behar zutenek, aita Estefaniak ere bai: “post coenam *te et academia ad valedicendum FF. 3ⁱ anni*; eta 14ean “han salido en el Daimler los HH. Ariztimuño (La Habana), Pérez (Santiago), Azpiazu (Colombia) y *Orechea* (sic!) (Comillas)”.

Orechea delako hori gure Nikolas Ormaechea da. Comillas-a destina-tu dute “magisterio” zeritzan txanda burutzera; “maisú txiki” deitu ohi zituzten hartan aritzen zirenak. Esan dut zergatik igorri zuten hara, ene ustez; aski da berriz gogoratzea anai Páramo eta Olondriz ere, gerkerazko sermoigileak, haraxe igorri zituztela. Beraz ez da zuzen pentsatzea Euskal-leritik urruntzearren bidali zutela hara, zigorra ezarriz edo. Beste batzu, zigorrik merezi ez zutenak, Txinara igorri zituzten betiko, edo La Habana-ra edo Santiagora edo Colombiara hiru urtetarako.

Zergatik ezarri behar zioten, gainera, artean zigorrik? Lagundian eginak dituen zazpi urte haietan euskarari itsuki emana zegoen ustea edo susmoa indartzeko argudiorik ez dugu inon aurkitu. Orduko olerki bat baino gehiago euskaraz ondua zuela? Nik hala uste dut, egunkariak esan baitigute euskarazko olerkiak ere irakurri izan zirela literatur jaialdi batean eta bestean, nahiz nork eginak ziren inoiz esaten ez diguten —beste hizkuntzetakoen egileak nor ziren ere ez— eta nahiz ale bakarrik guganai-no heldu ez den. Baina, bai, inork egitekotan hark. Eta horregatik zigortu? Hori ez zegoen inola ere debekatua; are publikoki irakurtzen ziren

euskarazko olerkiak. Eta zigortzekotan Orixe bakarrik zigortu horregatik? Ez baitzituen eskuarki hark bakarrik tolestatu euskal olerkiak urte haie-tan. Beraz ez dut uste Comillas-a igortzeko latin-gerkerak ongi mendera-tzeaz beste arrazoirik izan zitekeenik.

Eta notak, zer? Azkenerako utzi dut apropos puntu hau. Gauzak —bai ote da esan beharrik?— diren bezala kontatuko ditut, inori min emateko edo sasiak piztu eta eztabaidak sortzeko, are gutxiago Orixeren merezimenduak eta gure artean —bere garaikoen artean batez ere— beti izan zuen gizaseme argi, azkar eta adimendu bizkorreko fama ona zipi-tzik ere gutxitzeko asmorik gabe. Utikan! Baina, “amicus Plato, sed magis amica veritas”, esan ohi den bezala. Hona, bada, lehen urteko notak: bi “superavit” eta bi “attigit” —“gainditu du” eta “heldu da” esan nahi dute, eta gaurko “ongi” eta “aski” edo lirateke, apika—. Aldera itzazue orain anai Estefaniak, esate baterako, atera zituenekin: lau “supe-ravit” eta horietako bat gainera “cum excellentia”. Bigarren ikasturtean hauek: hiru “superavit” eta bat “attigit”; anai Estefaniak, aldiz, lau “supe-ravit” eta horietako bat berriz ere “cum excellentia”. Hirugarren ikastur-tekoak, Rebalida antzekoa izan ohi zen “De universa Philosophia”-koak, bi “aegre (hots, doi-doi) superavit” eta hiru “attigit”; Estefaniak, aldiz, bost “superavit” eta horietako bi “cum laude”.

Ezin esan daiteke azterketa gainditu ez zuenik, ez eta nota distiraga-riak atera zituenik ere. Horrenbestez Orixeren lagun mina eta miresle kartsua zen aita Felix Areitio jesuitaren honako hitz hauek, behin aita Juanito Goikoetxeari Loiolan esanak, aldeaz egia dira eta aldeaz ez: “Orixe nunca fue suspendido en sus estudios; él mismo decía que los asimilaba bien y que los aprobaba en los exámenes ampliamente y que aún le quedaba tiempo para otras actividades marginales”. Honi oso ongi lotzen zaio behin neuri aita Daniel Gaston-ek, Xabierren 1919-1920ko ikastur-tean Orixe ezagutu zuenak eta hau bezala poeta —aita Estefaniak oso istimatua, gainera— izanak, kontatu zidana: “Quizás llevado de su gran capacidad y afición a las letras vascas hurtó no poco tiempo al estudio de la Filosofía, sin olvidar además que desde siempre sufrió muy fuertes dolores de cabeza”. Horiek zirela eta, paper-liburuak irakurtzen ere ia uzten ez ziotelako, Pedro Leturiarekin batera, honek irakurri eta Orixek entzuna gogoan hartuz, prestatu zuela azterketa hura esan izan da gure artean.

Lehen esan dut eta orain berriro diot: ikasleak ez zuen jakiten nolako notak atera zituen, harik eta “maisu txiki” aldiko urteak burutu eta berriz teologia ikastera Oñaratzean esaten zitzaion arte zer egin behar zuen: “cursus maior” zeritzan goi mailako ikasbidetik burutu bere ikaski-zunak ala “cursus minor” zeritzanera jatsi. Utz dezagun horretan auzia eta goazen Orixerekin Comillasera.

5. ORIXE “MAISU TXIKI” (1914-1920)

Gero eta argibide gutxiago dugu Orixeren bizimoduaz eta egunoroko egitateez. Ez dakigu noiz heldu zen Comillas-era, zer egin zuen uda hartan, zer harrera egin zioten hango bizilagunek. Eta zer axola zaigu, egia esan, horiek ez jakitea, huskeriak direlarik urte haietan haren buru gainean gatzatuko zen hodei beltzaren eta jasan beharko zituen gertari latz eta mingarrien ondoan? Errepara ditzagun hauek, beraz, gainerakoez ahazturik.

Burgosko eta Oñako bizigiroa euskarari, euskaltzaletasunari eta Euskalerriri zihoakienez hotza zela esan ahal badezakegu, jesuita gazteek debekatua baitzeukaten segurki gai horiek ahotan hartzea ere, Comillas-koa izotzaren pare jarri behar nahitaez. Irudimenari bortxa handirik eragin gabe nornahik asma lezake horiekiko erdeinua zela, baldin gehixeago eta okerrago ez baten, etxe hartan nagusi eta gailen. Berrogeitazazpi jesuita bizi ziren han, baina horietatik hamasei anai laguntzaile edo lego ohi deriztenak ziren —bereiz eta apart bere bizimodua egiten zutenak, gainerakoekin ia ezertan nahastu gabe— eta sei bakarrik “maisutxiki”, apaiz ez zirelarik ikaslerik gazteenen maisu alegia, gainerako hogeitabost apaiz jesuitez ongi zainduak eta hobeki zelatatu eta barrandatuak.

Hauen artean baziren haatik euskaldun batzu eta ez nolanahikoak. Andoaingo seme aita Manuel Arin erretoreagandik hasi eta etxeko “ministro” deitzen duguna, aita Bizente Alcorta tolosarra, eta gogo-arduraduna, aita Evaristo Ipiñazar Zeanuriko semea, hirurak ziren euskaldunak. Ez ziren gainera bakarrik. Han zeuden aita Larrarte eta aita Zurutuza —biak teologiako irakasle ospatsuak— eta aita Nemesio Otaño, azkoitiarra, musikari ezaguna ere. Euskaldun ez zirenak gehiago ziren, halere, alde batera uzten baditugu batez ere lego edo anai laguntzaile direlakoak, hauetan hamaseititik bederatzi bederen euskaldunak baitziren.

Gauza jakina da han herriko apaiz izateko seminarista edo apaizgaiak bizi zirela eta hauek, teologia nahiz filosofia ikasle izanik, “nagusiak” deitzen zirela eta besteak, latin eta gerkerak ikasleak, “txiki” edo “gazte-txoak”. Urte hartantxe hasi zuen han Aitzolek filosofia, apaizgai txikitako bost urte burutu ondoren. Azken hauek ziren Orixeren eta gainerako bost “maisutxiki”-en ardurapean zeudenak. Bost hauetatik bi bederen ongi ezagunak zituen aspaldidanik Orixek: anai Páramo eta Olondriz, alegia, Oñan gerkerazko predikulari izanak. Lehena, Severiano (del) Páramo delakoa, Escripturista famatua izatera heldu zen urteen joan-etorrian. Orduko nabarmentzen hasia zela esan behar bere kideen artean, Katalo-goak beste bost lagunei baino eginkizun gehiago eta axola handiagokoak egotzen baitizkio: apaizgai txiki edo gaztetxo zirelakoei Retorika irakasteaz gainera, “tonuen” arduradun zen, urteroko albisteak Erromara bidal-

tzeko gertari nagusiak biltzen zituen, etxeko “Scriptor historiae”, liburu-zainaren laguntzaile, eta azkenik apaizgai gazte horien Begirale nagusiaren kide. Ez zuen lan makala bere gain.

Olondrizek “humanitate” direlakoak irakasten zituen eta gerkerazko akademiaren arduradun zen; horrez gain, Páramo bezalaxe, Begirale nagusiaren kide edo laguntzaile. Beste biak, Hidalgo eta Munarriz ere, batak behe-mailako gramatika eta besteak goi mailakoa eta historia irakasteaz gainera, Begirale nagusiaren kide ziren, Páramo eta Olondriz bezalaxe. Eta nor zen, bada, apaizgai txiki edo gaztetxo haien Begirale nagusia, zeinen laguntzaile baitziren beste laurak? Gure Orixe, hain zuzen. “Praefectus morum” izendatzen du Katalogoak, gainerakoetan bakoitza “Socius praefecti morum” deitzen duenari. Beraz hark zuen mutiko haiek zaintzeko eta begiratzeko erantzukizun nagusia, eskolak hartzen ez zeuden ordu guztietan: alegia, ikasten nahiz jolasten, bazkaltzen nahiz afaltzen, meza entzuten nahiz errosarioa erreztatzen ari zirenetan, beste maisu txikiek laguntzen ziotelarik berak bakarrik ezin zuenean. Bazuen, ordea, beste egitekorik ere; ikasle sail baten “tonuen” arduradun ere bazen eta irakasle ere bai; geografia irakatsi zuen urte hartan.

Hurrengoan, 1915-1916an, eginbehar berberak izan zituen, “tonuen” arduradun izatea salbu; hori kendu egin zioten eta Begirale nagusi izaten eta geografia irakasten jarraitu zen. Laguntzaile bat gehiago eman zioten, gainera: Páramo Comillastik atera eta beste bi berri igorri baitzituzten haren ordeiz, Olondrizek bere gain hartzen zituelarik lehen Páramok burutzen zituen lan batzu; hala nola, etxeko historia idaztea eta Erromarako albisteak prestatzea. “Tonuen” arduradun Orixeren ordeiz anai Lecumberri, berria, izandatu zuten.

Baina aldakuntzarik handiena beste jokabide batean somatu zuen Orixe dudarik gabe; ikasturte hartan ere bai zerbait, baina hurrengoan batez ere. Hots, etxean gero eta urriago ziren jesuita irakasle euskaldunak eta gero eta gehiago erdaldunak. Irakasleak diot, anai laguntzaile euskaldunen kopurua gehituz joan baitzen, hurrengo urtean hamairu izatera iristeraino. Irakasle euskaldunen urritzeak bazuen, bestalde, zergatikoz ezaguna eta nabaria, 1918ko gertari sonatu batek guztiz argituko diguna. Hori horrela delarik, ezin uka etxe hartako euskal giroa lehendik ere melarra eta urria baldin bazen, horrek are gehiago kutsatu zuela. Orixeren birikiek arnasa lasai hartzeko behar zuten aidea egunean baino egunean urriagotuz doa.

Aita Bizente Alcorta izkutatu zen ikasturte hartan Comillastik, gainerakoak han jarraitu zirelarik, baina 1916-1917ko ikasturtean aita Ipiñazar eta Zurutuza atera ziren handik. Orduarte erretore izan zen aita Manuel Arin ere bai, baina haren ordeiz izendatu zuten berria ere euskalduna

zen, aita Pedro Bianchi, lehen Probintzial izana eta horrenbestez Orixe oso ongi ezagutzen zuena. Ezagutzeaz gainera haren aldeko zen eta haren alde kopeta erakusteko prest zegoen ala ez, horixe ez dakigu. Guztien beharra izango zuen aurki asko Orixek!

Aurreko bi ikasturteetan baino lantegi gutxiago du. Pixka bana baztertzen, zokoratzen ari direla eta inguruko hesia ertsitzen ari zaizkiola esan behar. Ez da gehiago Begirale nagusia; hara destinatu berria den anai Nemesio Ariztimuño, Xabierko urteetatik hasita Orixek kidea duen Inazioaren eta Aitzolen anaiak, kendu dio kargu hori; haren laguntzaile izatera pasa da, beste sei maisu txikiak bezalaxe. Hauen artean badu lagun berririk: Ariztimuñoz gain, Páramo itzuli da hara berriro eta beste euskaldun bat joan da lehen aldiz: anai Victoriano Larrañaga azkoitiarra. Begirale nagusiaren laguntzaile izateaz gainera eginbide bakarra du Orixek ikasturte hartan: betiko geografia irakastea.

Ez zuen denbora alferrik galdu horratio. Urte hartantxe sortu zuten Bilbon *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkaria euskaraz. Urtarrilean atera zen lehen zenbakia eta Orixe izan zen lehen orduko lankideetako bat ez ezik, zintzoenetakoa eta hoberenetakoa, idazlanen maiztasunari bakarrik behaturik ere. Lehen zenbakian haren olerki bat agertu zen, “Igesi” izenburua zuena; bigarrenean bi; hirugarrenean beste bi, eta abar, zenbaki batean ere huts egin gabe, eta boskarrenean lau lantxo —ia alearen erdia— bereak zituelarik. Ez dugu zer sines lan guzti haiek urte hartan eginak zituela; batzu agian Oñan edo are Burgosen onduak izan zitzakeen.

Ez ote zen hori izan Orixeren hondamendiaren iturburua? Baina horregatik hondamendia zer dela eta?, galdegingo du batek baino gehiagok. *Deya*-ko zuzendariak ez zukeen noski Orixek hainbat idazlan igortzearen damurik ez penarik; Lagundiko agintari aita Probintzialak ondotxo zekien, bestalde, lan haiek bururatzen zituela, argitara ateratzen baitziren; ez da sinesgarri azkenik hartan aritzea debekatu ziotenik, debekatzekotan argitara bederen ezin eman baitzitzakeen, Probintzialak *Deya*-ko Zuzendariari hitz erdi bat esatea aski zuenez gero. Zergatik hortaz hondamendia?

“Reinaba entonces en Comillas un ambiente de exacerbado patriotismo” esan zidan behin batek; eta “abertzaletasun” hori zein aberriarekiko zen ez dago esan beharrik. “Los dos Padres Mostaza, tío y sobrino, Miguel y José respectivamente, la emprendieron duramente con él, le enfilaron”, aitortu zidan beste behin garai eta gertari haien lekuko aukurakoa izan zen beste batek. Bi horietatik ilobak gainera lehendik ezagutzen zuen Orixe, are ikasle izana zuen Oñan; ez dakidana da ea lehenago ere begitan hartua zuen. Osabak, berriz, teologia gaietan gorengo eta itzal handiko zelarik, Lagundiko Agintarien aurrean eta are Erromakoen aurrean begiramen eta burupe izugarria zuen. “Era además un exaltado españolista”, gaineratu zidan bi lekuko horietan lehenak.

Ez dugu, damurik, Orixek bere “maisu txiki” aldi horretako azken hilabeteetan bere Agintariekin izan zituen harremanen eta tirabiren berri-rik. Geroago aipatuko dugun latinezko eskutitz bateko hitzak ere ez dakigu uda hartako kenka larriari dagozkion ala geroagoko larriagoari; agian biei. Honela galdegingo du Orixek eskutitz horretan: “An quaestio est rursus de nationalismo?”, alegia, “abertzaletasuna al dugu berriz ere auzitan?”; eta horko “berriz ere” —*rursus*— horri bospasei urte lehenago trapu zaharren usaia, are kiratsa dario.

Dena den, guk gauza bat dakigu garbi: Orixeri teologia ikasten hastera Oñara joaten utzi ordez, bete urtebetez “maisu txiki” gisa ari zedin agindu ziotela. Egia osoa aitortu behar badugu, ordea —eta ez nuke inola ere nahi ez aitortuaren errurik neuregana—, laugarren urtez maisu txikitan aritzea ez zen beti, ez eta hurrik eman ere, zigorra izaten garai hartan. Askori eginerazten zitzaien laugarren urte hori, zigorrik ez merezi izan arren. Hortxe dugu, esate baterako, anai Páramo dontsua bera, Oñatik Orixek baino urtebete lehenago Comillas-era atera eta 1916-1917ko ikasturtean Orixerekin batean laugarren magisterio urtea egin zuena. Areago, Orixek berak aurrerago Erromara igorriko duen gutun batean ez du laugarren urte hori zigortzat joko; ondoko beste biak, bai.

Santandertik Palenziara, Comillastik Carrión de los Condesko mortura igorri zuten Orixek, han begitan hartu omen zutenengandik urrun. Ez dakigu hemen ere begitan hartu zuen norbaitek; ez dakigu ikasturte hartako ia batere konturik. Bere gain zituen zeregin apurren berri bai. Apurra diot, lau maisu txikietatik berak baitzuen eginkizunik txikiena: bost nobiziori behe mailako gramatika irakatsi, Erromarako albisteak bildu eta etxeko gorabeheren historia idatzi. Maisu txikietatik bat anai Juan Jose Goikoetxea Zeanuritarra zen, gero herri misiolari famatua izan zena bere anaia Felipekin batean. Etxeko erretore eta nobizioen Zuzendari aita Antonio M. Arregui moralista ospatsua zen, nafarra eta euskaldunekiko gogor samarra, diotenez. Ikasturte hartan, 1918ko Martxoaren 12an, gertatu zen lehen iragaitean aipatu dugun eta Orixeri seguru aski poz txikia eman ez zion gertari sonatua. Honela kontatzen digu aita Leon Lopetegi historiariak pasadisur hori bere egunkarian: “...aquel año, el 12 de Marzo, se había dividido la provincia religiosa de Castilla de la Compañía de Jesús, y el país vasco pasaba a ser la base y más de las cuatro quintas partes de la nueva provincia de Castilla que quedaba, y de la que se había desglosado la de León con toda la parte noroccidental de España, incluida Santander, para contar con los estudios filosófico-teológicos de Comillas, que nosotros ya teníamos en Oña (Burgos)”.

Orixeri poz eman zergatik? Artean ez zitzaion burutik pasa ere apika, beste urtebete luzatuko ziotenik magisterio aldia. Beraz gauzak erabat okertzen ez baziren, Oñara bilduko zen hurrengo udan teologia ikastera, eta ez zen gehiago euskararen eta euskaltzaletasunaren hain

etsai, edo kontrako bederen, giroan biziko. Ala auzokoak bezain etsaitzat ote zeuzkan etxeokak, etxeko batzu behintzat, euskaldunak esan nahi dut? Eta euskarari hain atxikia izanak bakarrik sortzen ote zizkion etsaiak? Badakigu urte hartan ere etengabe aritu zela euskal lanetan eta *Jesusen Biotzaren Deya*-ra idazlanak bidaltzen. Urtarrileko alean hogeitamaika orrial-detatik hamaika bereak dira, Martxokoan ere bai, Abuztukoan hamar, eta gainerakoetan ere, Otsailekoan izan ezik, hutsik egin gabe agertu ziren haren olerkiak, latinetik itzuliak nahiz bere baitakoak, eta idazlanak. Hori egia; baina egia berebat Felix Areitiok, Joaquin Azpiazuk eta gehiagok, artean Orixe bezalaxe Probantza aldian zirenek, argitara zituztela aldizkari berean beren lantxoak; eta hauei ez zieten zigorrik ezarri. Beste eginkizunei ostutzen al zien Orixe denbora eta horregatik —edo hori aitzakiatzat harturik— jazartzen al zuten, besteak ez bezala, gaizki nahi ziotenek? Ez ahantz Orixe berak Areitiori esan omen ziona: “...y que aún le quedaba tiempo para otras actividades marginales”. Eta hori ertsiki debekatua zegoen ikastaldietako urteetan.

Badaiteke arrazoa edo aitzakia hori izatea. Halako zerbait uste izateko bide ematen digu honako gertari harrigarri xamar honek. *Deya*-ren ondoko bi urteetako aleetatik ia osoro izkutatu zen Orixeren izena. 1919koetan “Cor arca” eliz kanta aurkitzen dugu Urrian euskarara itzulia, Orixeren sinadura daramalarik, eta Abenduan orobat Nemesio Otañoren musikaren letra, *Artzayak* titulua duena, Orixeren izenez ageri da. Eta kito! Urte osoan ez da besterik, haren izena duenik bederen, nahiz izenik gabeko eliz kanta batzuren itzulpena, hala nola “Adoro te devoto”-rena, harena den ia segurki. Eta are harrigarriago dena, 1920ko hamabi aleetan ez dago Orixeren lanik bat ere. Beraz galtzeko arrisku handirik gabe egin genezake apustu Agintariak debekatu ziotela hartan jarraitzea, edota onbeharrez eskatu isil zedin eta lantegi hartatik geldí.

Carrionen ikasturte hura amaitu eta berriz ere Oñako bidea itxi zioten Agintariak: beste urtebete izan behar zuela maisu txiki. Orixeren haserrea eta amorrazioa! Probintzia Martxoan zatitu zenez gero, ez zuten gehiago han geldierazi, ez eta Gaztelauko beste etxeren batera bidali, baizik Tuterakora. Han berrogeitasei jesuitetatik ez zen ia bat ere euskalduna ez zenik. Lehengo etxeetan baino hobeki hartu ote zuten horregatik eta euskal giro beroagoa aurkitu ote zuen? Urte txarrak ziren, egia esan, jesuiten inongo etxetan —eta jesuita ez ziren gainerako fraileenetan ere hala moduan, noski, edo are okerrago— euskal giro berorik aurkitzeko. Horrez gain mundu guztiak zekien Orixe jipoitua zetorrela, jipoiazen arrazoa jakingo ez bazuten ere; bekokian zekarren zigorraren seinalea. Halere, etxeko euskal giroa gorabehera, hark Abendu arte segitu zuen *Jesusen Biotzaren Deyara* lanak igortzen, lehen esan bezala; Urteberriz aldatu zuen, edo aldarazi zioten, bere jokabidea. Aita Joaquin Echenique donostiarra zen erretore eta Pedro Ongay Lizarragakoa gogo-zuzendari.

Baziren gainera beste bi apaiz gutxienez, Pedro Echevarria eta Bernardo Egaña, gero euskal sermolari izango zirenak. Tuteran egotzi zioten lana haxe izan zen: literatur jenero edo motak irakatsi hango mutikoei eta horrez gain literatur historia. Urte hartan haren ikasle izan zen gazte baten lekukotasuna jaso zuen aita Juanito Goikoetxeak paper mutur batean. Honela dio: “Deusto, 1966 inguruan galdetu” (Han eta orduan galdetu ziola, alegia, eta hark haxe erantzun): “Tutelan euki nuan irakasle urtebete. Literatura irakatsi zigun. Datoak eta datoak eman orde, literatura bizia eman nai zigun, zuzenean jaso. Ala, adibidez, Homero-kin. Homerokin asten zanean, etzekien non zegoan. —Joana?, diot nik—. Joana, baina extasian joana. (“Aquello no era absorto, aquello era éxtasis”). Gogoan dut lasterka-apustua irakurri zigun aldia, Ajax eta gainerako. Berrogei-bat ikasle izango giñan. Gutxi batzuk eskolan itxura egiteko geratuta, beste danak aldegiten genion. —Bera ez al zan konturatzen?— “Y él en la luna”. Ura Homerorekin asten zanean, arentzako ez zegoan beste ezer: mundu guziak aldegiten zion (Hau erdaraz esan dit...). Nosotro le veíamos en éxtasis y nos marchábamos de clase: volvíamos un poco antes de terminar la clase”.

Eta Tuterarekin zer ikusirik ez duen beste hau erantsi omen zion ondoren: “Bein, barkaziotan nengoela, ta neu Markiñatik Elgoibar aldera (bizikletan?), gizon bat topa nuan andik onera oñez. Orixe iruditu zitzaidan, baño ezin sinisturik gelditu nintzan. Etxeratzean aitari esan nion nere topoa ta susmoa, ta aitak baietz, uraxe zala ta berakin itzegitera zetorrela. Bizkaierakin ari zen nonbait Orixe, ta nere aitak “ao eder” edo itzlari onaren fama bait-zeukan, arengandik “giros vizcainos”-eta jasotzera zetorren agian”.

Aita Juanito Goikoetxeak jaso ere da Tuteran Orixerekin bizi izan zen anai laguntzaile edo lego baten honako beste lekukotasun hau: “éste destaca sus aficiones literarias euskéricas y lo mal visto que era por ese motivo por muchos: amorru aundia zeukakioten Tudelan bere euskaltasunagatik, baiña ura etzan bildurtzen”. Eta beste baten honako hau ere bai: “Etxenike le tenía enfilado”. Echenique delako hori erretorea zen. Honekin ez zen, dirudienez, ongi konpontzen. Behin mokokaldi zakarren bat izana izan behar zuten, eta Orixe ez zen, ongi dakizuenez, isilik egotekoa: zerbaitegatik aitortu ohi zuen bere buruaz “zitala” eta are “basurde” xamarra zela (“me quoque vince ferum”). Ez dakigu nork nori egin zion mokoka gehiago eta handiago, baina Orixe sutan atera zen nonbait eztabaida hartatik. Gero lagun batekin topo egin eta —“relata refero”— “cuentan que Orixe le comentó: Yo a ése le sacaría las entrañas y me las comería”. Berririo diot: ez dut fede ematen, baina hala kontatu omen ziotenak kontatu zidan neri, eta hau bai esan dezaket: horrek biziki maite zuen eta maite du Orixe. “Y tú sabes”, gaineratu zidan gero, “que decir eso de un Superior era cosa muy grave en aquel entonces”.

Berriro galdegiten dut: euskaltzale eta euskal idazle zelako *bakarrik* luzatu al zioten maisu txiki aldia? Laugarren urtea agian horregatik ez, ikusi baitugu eta ikusiko berak ere ez zuela hura zigortzat hartu. Boskarrena eta seigarrena bai? Ala izan zen beste arrazoirik ere? Ez baitzuen apaiz ez zirenetatik hark bakarrik *Deya*-n euskaraz idazten; gehiena bai, alde handiaz gainera; ez baitzuen, ordea, ia batere idatzi 1919garren urteko aleetan, eta halaz ere urte hartako udan berriz ere Oñako atearik ertsi baitzizkioten eta seigarren maisu txiki urtea eginerazi. Euskal idazle zelako bakarrik? Ez dut baieztatzen ez ukatzen; nik galdegiten dut soil soilik, hiru urte geroagoko eskutitzek zerbait argituko digutelako esperantzan.

Seigarren urtea burutzeraz Xabierra igorri zuten, hamabi urte lehenago jesuita izaten hasteko atera zen lekura. Zenbat gauza ikasi duen, eta ez latina eta gerquera bakarrik, urte gazi-gozo haietan! Bat ez zuen apika artean ikasi, jesuitak ofizio horretan maisu goren omen diren arren: diplomazia, zurikeria, azpijoko pixka bat, edo nahiago bada, zeharka ibiliz helburura iristen. Agian ez zuen hori ikasi nahi ere, bai baitakigu edozer gauza edozeini berak uste bezalaxe esan nahiago zuela estalkirik eta hitz gozagarrikerik gabe. Zernahi dela ere, hor dugu berriz Xabierren, aita Modesto Armisén nafarra erretore duelarik, eta maisu txikiaren artean anai Jose Antonio Belderrain, Oiartzuarra, Orixeren oso lagun on eta zintzoa gero ere. Erdi mailako gramatika eta gerquera irakatsi zien mutikoei: horrez gain Erromarako albisteak bildu zituen eta etxeko historia koxkorra idatzi. Bizi dira oraindik urte hartan Orixeren ikasle izanak: aita Gaston, aita Jose Goenaga eta abar. Haietako batek, lehen ere aipatu dugun Leon Lopetegi zenak, honela gogoratzen zituen duela urte batzu orduko gertaerak:

“Con los cambios que trajo la división de provincias religiosas, en cuanto al personal docente de Javier, se notó en seguida una mayor benevolencia a todo lo euskérico, a pesar de que el nuevo Superior, el P. Modesto Armisén (de Cáseda, Navarra, no lejos de Javier), superior desde el 16 de Septiembre de 1918, no tuviera ningún interés por la lengua vernácula anterior de su comarca. Pero tanto el nuevo P. Provincial, Vicente Leza de Pamplona, como su Socio o Secretario el P. Gabriel Vilallonga Ibarra, de Bilbao, que había sido diputado provincial por Vizcaya antes de entrar en la Compañía de Jesús, nos animaban mucho a no olvidar nuestra lengua en las visitas que hicieron pronto a Javier. Tanto que nos llamaba la atención ese interés, pues ninguno de los dos la conocía.” [...]

“Por lo que hace a Javier, tuvimos durante nuestro último año o curso, 1919-1920, a un joven profesor, que llamábamos P. Ormaechea (el luego conocido como gran escritor y poeta vasco ‘Orixé’), que tuvo una clase de griego y latín, viniendo del colegio de Tudela, donde enseñaba preceptiva literaria e historia de la literatura. Cumplía entonces el sexto

año de magisterio, es decir, los años de docencia en un colegio, que la Compañía de Jesús solía hacer colocar entre los estudios de teología y filosofía. Entonces ya se había comenzado la regla de que fueran tres años por norma ordinaria, pero no eran aún raros casos de cuatro o cinco años, pero rara vez seis, como en este caso, y que no sé a qué se debería. El hecho es que para nosotros constituyó pronto una fuente de información sobre cuestiones de lengua o literatura euskérica, lo mismo que sobre los actos principales que tenían lugar entonces, desde el Congreso de Oñate y la creación de la Sociedad de Estudios Vascos, con la Academia de la Lengua Vasca, cosas novísimas para nosotros, y que no acabábamos de comprender bien, aunque atisbábamos su importancia en el renacimiento lingüístico que parecía percibirse.”

“Es indudable que las pocas veces que le oí a Ormaechea, especialmente durante algunos paseos, en los que coincidíamos, ya que no era nuestro inspector ni profesor, y luego por lo que decía a sus alumnos, de lo que también nos enterábamos pronto, me impresionó. Lo que de todo ello se veía claro era que se trataba de un cambio de posturas y posiciones, cuyo final era difícil de calcular, pues dependía de muchas circunstancias. De todos modos, yo seguí después, mientras me fue posible, la trayectoria de Ormaechea, tanto aquellos tres años en que aún fue jesuita, como después cuando empezó ya sus publicaciones y se destacó como el mejor poeta, y siempre un gran escritor vasco.”

“Ormaechea fue a estudiar Teología en Oña en el curso de 1920-1921, mientras yo hacía mi noviciado en Loyola...”. Baina eten dezagun hemen Xabierko urte hartako lekukotasun aukerako hau eta ondoko hitzak geroko utzi, hurrengo hiru urteei baitihoaizkie. Gauza bat ahaztu zaigu esatea: Xabier bezain laster ikasi zuen Orixek bere lagun min Estefanía, maisu txiki gisa hiru urte soilik burutu eta Oñara bildua zela teología ikastera. Orduarte Orixe zebilkion bi urte aurrerago eta orain urtebete atzerago! Beraz ezin zitekeen Estefaniarekin batera ere apaiz egin.

Ikasturtea aurrera doa. Orixeren lumak ihartua dirudi, ez baita 1920an haren lanik batere ageri *Deya*-n, esan bezala; iharrerazi egin dute, dudarik gabe, eta Orixek onbeharrez amore eman du. Erretore berriarekin ere lehengoarekin baino hobeki konpondu zela dirudi, bai baitakigu Orixeren alde atera zela eta teología ikastera joaten utzi behar zitzaiolako iritzia agertu zuela. Uda hartan aita Probintzialak Oñara joan zitekeela gaztigatu zionean, Orixek “Nunc dimittis” kantatu zukeen agidanean bihotz bihotzetik.

6. TEOLOGIA IKASLE (1920-1922)

Burua makur eta begiak laino sartu zen segurki Orixe Oñako etxe kankailuko ate handian barrena. Haren izena askoren ahotan ibilia zela

bazekien. Sei urtetako magisterioa, alajaina! Ez zioten, halere, muzin egingo gehienek; aitzitik, esango nuke gehienak alde jarri zitzaizkiola eta lotsa erakutsi ziotela. Hala egin ohi dugu ia beti sufritu duenarekin eta mendekoek batikpat Agintarien aurka elkar hartu ohi dute horrelakoetan: “zerbait egingo zian baina, ez zioate egur xamurra eman”. Estefaniak batez ere ongi etorri alaia eta bozkariozkoa egingo zion, batere dudarik gabe, eta “Izan bihotz, Nikolas”, esango, “negua iadanik igaro da eta uda laster helduko; nekez, baina iritsi zara portura. Gogoratzen al zara? Hementxe agurtu genuen elkar azkeneko aldiz duela sei urte. Gauzak aldatzen hasi dira gainera. Orain gure probintzian ia guztiok euskaldunak gara”. “Bai, baina”, erantzungo zion Orixek, “ni erabat jota nator. Ez dakizu nolako urteak igaro ditudan. Bihotza zauritua dut eta odola borbor darit”.

Ez dakit ezer, baina ez zen oso bestelakoa izango Irailaren lehen egun hartan bien arteko elkarriketa, Oñako harresi barneko baratzen zehar eta aldapan gorako mendi kaxkora Santo Toribio ermitaruntz zihoa-zela. Bezperan iritsi zen Orixe Oñara: “Agosto, 31, martes. Llegan en auto los HH. Ormaechea Nicolás y López Jesús a estudiar Teología”, dio etxeko egunkariak.

Egin dezagun pausaldi txiki bat aurrera baino lehen, teologia ikastera joateak zer esan nahi zuen jakin gabe ezin adi baitaitezke geroko gerta-riak. Teologia ikastera inori joaten uzteak esan nahi zuen hark kitatu zituela lehen zituzkeen zorrak eta xahutu egin zituzkeen hutsegiteak eta “bekatutxoak”. Orduarteko agiria urratua gelditzen zen, nolazpait esateko, eta fitxa zaharra deuseztatua lehen izan zitzakeen salakuntzak ezin berriz aidera atera zitezkeelarik. Oker eta bekatu berririk, ez arinik noski, baizik astun eta larririk egiten ez bazuen, apaiz izatera heldu behar zuen eskuarki. Gero berriz aipatu beharko dugun Erromako gutun garrantzitsu bateko hitzez esateko, “*elapso studiorum theologicorum curriculo, Superiores prohibentur negare Ordines nisi de causa vere canonica*”; esan nahi baita: teologiazko ikaskizunak igaroz gero, Agintari edo Nagusiek debekaturik daukate, arrazoi egiazki kanonikoagatik izan ezik, Apaizgoa ukatzea.

Honek gauza bat ipintzen digu agerian: baldin euskara izan bazen Orixeren orduarteko zigorren arrazoa, ezin zitekeen inola ere hura bera izan geroztikoena; are gutxiago, baldin orduz gero euskal lanetan nabarmentzen ez bazen, argitara emanik bereziki. Eman al zituen? 1920ko *Deya*-ko aleetan ez zen haren lanik batere agertu: 1921ekoetan ere ez Abendukoa arte; Abendukoan hasi zitzaizkion “Jesukristoren Berri Ona S. Joanek idatzi bezela” argitaratzen eta 1922koetan zatika ematen jarraitu; horrez gain Urtarrileko alean “Eguerritarako” eta “Herodes eta Magoak” izeneko olerkitxoak aurkitzen ditugu, eta kito. Eta hori gainera urte eta

erdi zeramalarik orduko, Euskal Akademia sortu berriaren Zuzendari izaten.

Horren sorreraren berri ona zehazkiago eman aurretik, ordea, ikasurtearen hastean berean Orixek jasan zuen beste albiste mingarri bat kontatu behar dut. Badakizue, lehen esan baitut, nolako notak ateratzen Filofofiako hiru ikasturteen amaierako “De universa Philosophia” zeritzan azterketan: bi “aegre (doi-doi, alegia) superavit” eta hiru “attigit”. Esan dezagun garbi, suspensorik ez, baina *Superavit* garbitik urruntxoko notak, eta —Orixek agian ez zekien, nik ere ez, harik eta duela ia hogeitamar urte neure irakasle izan zenagana horren argitasun eske jo dudan arte— azterketa hura gairidituztat emateko *Superavit* garbia beharrezko zen. Hori dela eta, urteroko gogojardunak aita Sautu herri misiolari famatuarekin egin eta ikasturteari ekitean, horra non gaztigatzen dion Erretoreak, aita Bianchik, “cursus maior”—eko ikaskizunak ez baizik “cursus minor”—ekoak egin behar dituela, nota eskaxak ateratziuelako. Albiste honek lehengo makiladez gain gihian ukitu zuen eta aurrerago Erromara idatzi zuen eskutitz batean zartada horren asperenak entzungo ditugu. “Cursus minor”—era jaisteak berekin zekarren, gero azken zinitzak egiterakoan, lau zinitz sonatuak ez baina hiru egitea; bestela esan, lau botutako Profeso ezin izana.

Irentsi zuen, haatik, beherapen hori ere eta Urriaren lean “lectio brevis” ohizkoaz ekin zion teologiari. Ehun eta sei teologo ikasle ziren guztira eta bedelaren egunkariak aditzera ematen digu 24 Leondarrak zirela, 3 Toledokoak, 8 Portugesak, 2 Mexikarrak, 3 Missourikoak, 9 Californiakoak, 1 aragoitarra, beste bat alemana eta gainerako 55ak Castilla probintziakoak, ia denak euskaldunak.

Egun gutxiren buruan izan zuen, haatik, albiste pozgarri bat ere, bere eta beste lagun gehiagoren ardailen eta gatazken fruitua, nahiz berandu samar heldua. Hona nola ematen duen horren berri etxeko Kontsulten Liburuak: “3 de Octubre de 1920. A la proposición del P. Rector, si convenía poner una Academia de lengua vascongada solamente para los que ya saben hablar vascuence y con el único fin de que se hagan aptos para oír confesiones y dirigir la palabra al pueblo sencillo, todos los Consultores contestaron afirmativamente, haciendo la observación de que no se hiciera en la clase mención alguna sobre la cuestión nacionalista”.

Muga mugaren gainean eta baldintzak baldintzen gainean, baina itxura ona du auziak: azkenik euskara ikastea zilegi izango dute Oñako gazteek. Gezurra dirudi —ez hain gezur, orduko berri dakienarentzat— hainbeste urte behar izanak euskal akademia sortzeko. Baziren, izan ere, orduko han bertan hainbat hizkuntzen akademiak: frantses, ingelera,

gerkera, hebreo, aleman, txino ikastekoak eta nahi zuenak nahi zuena ikasten zuen; txinoa Txinara destinaturik zirenek, noski. “Euskara azkena, beti bezala” pentsa dezake norbaitek, baina juzku txarra egingo luke. Berrogei urte lehenago ere bazen junior gazteen artean euskal akademia; Frantziako Poyanne-n jesuitak erbesteraturik bizi izan zirenean sortu zen iadanik eta aita Jose Ignazio Arana azkoitiarra izan zen haren eragile, eta beste askoren artean Urraburu haundia ikasle eta idazle eta euskal bertsoen egile. Gero, ordea, nazionalismoak fraile etxeetan ere piztu zituen iskanbilak eta kalapitak zirela bide, desegin zen eta galdu.

Entzun dezagun, ordea, Kontsulten Liburuak aurrerago dioena: “1 de Noviembre, 1920. Rezadas las preces acostumbradas y aprobado el Acta de la consulta anterior el P. Rector dio cuenta de que en vista de la unanimidad de pareceres de los Consultores, había establecido la Academia de la lengua vascongada entre los HH. estudiantes, pero someténdola a ciertas bases. En primer lugar, habían de tenerla por separado teólogos y filósofos. Además se habían de sujetar a las siguientes reglas. 1.^a El fin de la Academia no es formar literatos de la lengua vascongada, sino preparar operarios apostólicos de la Compañía, que el día de mañana puedan con fruto ejercitar los ministerios de confesar y predicar en los pueblos vascongados. 2.^a Conforme a este fin, los académicos se perfeccionarán en el vascuence popular teniendo ante todo la mira puesta en hacerse fácilmente inteligibles a la gente sencilla de los pueblos y caseríos, procurando toda la corrección y pureza de lenguaje compatible con esa inteligibilidad. 3.^a Para conseguir estos fines con más eficacia, los Académicos se reclutarán entre aquellos HH. Estudiantes que habiendo hablado vascuence en su niñez lo conservan en tal grado, que con la labor de la Academia puedan ponerse en disposición de llegar a conseguir el fin de esta Academia. 4.^a En la preparación no se empleará más que el tiempo señalado para las Academias de la lengua. Estas reglas antes de imponerlas a las Academias las consultó con varios de los nuestros más peritos en la lengua vascongada y a todos les parecieron bien y muy prácticas”.

Sortu da euskal akademia; berorren bizi-indarrak eta dinamikak urraziko ditu gero muga eta baldintza horiek. Izan ere, norbaitek idatzi beharko zuen, bada, *Deya*-n! Arau horiek ezarriz, ordea, bere burua zuritutzat ematen zuten Agintariek eta hor konpon gero, nolako euskara ikasten zuten gazteek! Hori beren gain geldituko zen eta batez ere Akademiaren buru izendatzen zutenaren gain. Eta badakizue nor izendatu zuten, Orixe, lehen nazionalista zelako salakuntza sartu ziotena. Katalogoak hala dio: “Ormaechea Nicolaus, praefectus academiae linguae vasconicae”. Eta gogoz ekin zioten lanari, dirudienez, Azaroaren 2lean hau irakurtzen baitugu bedelaren egunkarian: “Vespere omittuntur toni et academiae, praeter euskaram, quae habetur hora 6.^a”; alegia egun

hartan gainerako tonu eta akademiak ez zirela izan, biharamonean Santa Cecilia eguna zelako edo; euskarakoa bai, ordea.

Ez dugu pentsatu behar zizak bezala sortu zenik batbatean euskal akademia hori; urteetako garraxi eta eskabide iraunkorren ondorioa izan zen. Iadanik 1918an Castellako probintzia erdibitu zenean, Leondarrak aldendurik, aita Ledochowsky jeneralak hori gaztigaturik idatzi zuen gutunean aipatzen zuen hizkuntza auzia. Honela kontatzen du aita Lopetegik pasadizu hori bere Egunkarian: “Con esta ocasión dirigió el P. General, Wlodimiro Ledóchowsky, una carta a los integrantes de las dos provincias, en que *por primera vez* aparecía este tema en el asunto de separaciones de provincias en España. Al hablar de los que habían de pertenecer a ambas provincias, se estatuye que pertenezcan a la nueva de León tanto los nacidos en su territorio o que vivían en él al entrar en la Compañía, como los que hicieron el noviciado en Carrión de los Condes. Y aquí viene el inciso: “menos los vascos, tanto Padres como Hermanos Coadjutores, porque serán más útiles en su tierra natal por su lengua patria”. Y ahí se comprendía los escolares nacidos en las cuatro provincias civiles vasconavaras, aunque no supieran vascuence”.

Euskararekiko jarrera berria eta haize fresko bolada bortitza gure etxeetako leihoetan barrena iragazi zen batez ere Erroman jabetu zirenean hemengo jesuiten arteko iskanbilak eta tirabirak ezin ezti eta bare zitezkeela, baldin Erromako Jeneralak berak esku hartzen ez bazuen. Egoera lekuan berean ikertzeko bere ordezkari bat igorri zuen aginpide osoarekin. Aita Lopetegiri ematen diot berriz ere hitza: “El P. Boetto, que fue después cardenal y luego Arzobispo de Génova, por una intervención personal de Pio XI ante Mussolini por medio del P. Tacchi Venturi para aligerar los trámites, había venido como Visitador de la Provincia jesuítica de Aragón entre 1919-1920, y al año siguiente, fines de 1919 hasta el verano de 1921, giró una detenida visita a la de Castilla [...] Ya veíamos que nos animaba a conservar y estudiar la lengua vasca, pero a mi me llamó la atención el énfasis que puso en este tema en su informe y en sus mandamientos y consejos a toda la Provincia, aconsejando la formación de Academias, en el sentido que tenía entonces entre nosotros de clases especiales y facilidades de biblioteca, con algún que otro acto público en dicha lengua para los que quisieran acudir a ellos [...] Este cambio oficial de actitud, corroborado con la forma que tomó la provincia de Castilla en 1918, convirtiéndose casi en provincia vasca sin el nombre, pero con una inmensa mayoría de cuatro quintos del total, supuso también un cambio de mentalidad en jóvenes y viejos. Muchos lo atribuían a política, pero poco a poco se fue imponiendo el buen sentido y no hubo choques ni incidentes especiales ni en Oña ni en Loyola, aunque aún hubiera cierta rigidez de criterio para permitir la lectura de determinados libros... [Dicha visita del P. Boetto] era la consa-

gración oficial definitiva en esta dirección, cosa difícil de sospechar unos años antes. Eso apareció en el Memorial de la Visita del P. Boetto (1921, p. 18), donde habla de cómo el euskera es lengua vernácula en nuestro País”.

Abenduaren 7an heldu zen Oñara aita Boetto eta biharamonean honela dio etxeko egunkariak: “Inmaculada. Se leyó en el comedor al mediodía la patente del P. General, en la cual nombraba al P. Boetto Visitador de la Provincia de Castilla”. Bi hilabete eta erdi luzatu zuen bisita, harekin hitzegitera joan nahi zuten guztiak bere gelan soseguz hartu eta haien arrenkurak eta keixuak, usteak eta nahikundeak astiro eta erne entzuten zituelarik. Teologoei bere txanda Urtarrilaren 3an heldu zitzairen, apaizen eta irakasleen ondoren: “Hodie inceperunt theologi agere privatim de suis rebus cum R.P. Visitatore”; egun hartan hasi zirela teologoak, alegia, haren gelatik txandaka pasatzen beren arazoen berri emanez. Hamaika gertari eta ixtorio larri, berari gertatu eta berak jasandako, jalki zion agidanean Orixek! Geroxeago entzungo dugu Orixeren beraren ahotik zer erantzun zion aita Boettok. Otsailaren 18an etxeko bizilagun guztiak kapila zabalean bilarazi eta azken mintzaldia egin zien.

Ondoko hilabeteetako gertariak arinki jalkitzera lehiatuko naiz, Orixeren Lagundiko bizialdiaren azken ateka gaiztora lehen bait lehen iristearren. Ikasturtea burutu eta hamabost egunetako opor handiak Oñan berean eman bezain laster, Estefanía Holandako Valkenburg-era doa Pedro Leturiarekin batean teologiako hirugarren eta laugarren kurtsoak ikastera. Orixek berriz ere bere lagunik minena gabe gelditu da, haren laguntzaren eta aholkuaren beharrik handiena izango duen kenkan. Ala elkarrengandik bereizi baino lehen kontatu ote zion zer asmo bihurri zerabilen buruan? Ez dut uste. Irailaren 3an egunkariak dioskunez “en el auto de línea salen el P. Gil para Madrid y el H. Ormaechea para Durango para leer dos trabajos que presenta en las Fiestas Vascas”. Astebete geroago, 10ean, itzuli omen zen.

Ikasturte berriari hasiera eman eta katalogoan berriz ere “Praefectus academiae linguae vasconicae” kargudun agertzen da. Aita Bianchi du erretore eta aita Manuel Arín andoaindarra, Comillasen bi urtez erretore izan zuena, gogo-zuzendari eta irakaslerik gehienak ere euskaldunak dira: Zameza, Zapelena, Ogara, Laburu eta abar. Otsailaren 12an “tuvo lugar una sesión pública a cargo de los teólogos pertenecientes a la Academia de Oratoria Sagrada; versó sobre S. Juan Crisóstomo” eta Orixek txosten bat irakurri omen zuen: “El Predicador, delegado de Jesucristo”. Martxoaren 5ean On Mateo Mugicak apaiz ordenak ematen dizkie teologia ikastaldia osoro amaitu duten laugarrengoei eta arratsaldean literatur jaialdia eskaintzen diote. Biharamonean “el Sr. Obispo y con él algunos Padres fueron al refectorio de los teólogos para oír un sermón en vascuence que un Hermano teólogo predicaba”. Bedelaren —anai Jose

Agirrececiagaren— egunkariak sermolariaren izena ere gorde digu: anai Juan Migel Izagirre, azkoitiarra, izan omen zen eta oso gogoko izan omen zuten predikua (“multum placuit”). Izagirre horixe izango zen hurrengo ikasturtean, Orixek Oñatik aldegitan, euskal akademiaren buru.

Maiatzaren 21ean Erromatik iristen da baimena aurrerantzean teologoak hirugarren ikasturtea burutzean apaiz egin ahal daitezen, eta ez orduarte bezala laugarrena amaitzerakoan. Hori dela eta, Uztailaren 7an Estefania Holandatik Oñara dator atzera eta 30ean bere ikasturteko lagunekin batean apaiz egiten da. Orixeren zirrara eta ikara! Jose Agirrececia-ga bedelak hona zer dioskun bere egunkarian: “Hora 5,30 ‘ezpatadantzaris’ in viridario philosophorum a pueris oniensibus”; Oñako haurren ezpata dantza, alegia, festa handi hura ospatzeko. Nork irakatsi dizkie euskal dantzak, baizik teologoren batek? Ez dira gutxi aldatu gauzak Burgosko bazter hartan.

Eta Orixe bitartean zer? 1923ko katalogoan —1922-1923ko ikasturtea hasi eta lauzpabost hilabetera argitaratuan— ez da gehiago Orixeren izena Oñan ageri, baizik Xabierren. Gerkerazko eta frantsesezko eskolak ematea omen zuen hango bere ogibidea, baina laster ikasiko dugu hori ere kendu egin ziotela azkenean. Etxeko egunkariak bitan aipatzen du Orixeren izena: batean aita Belderrain eta aita Basaberekin Zangozara joan zela esateko, ez dio zertara; bestean Eguberri egunez beste hiru jesuitekin palaz jokatu zuela jakinerazteko.

Zer gertatu da Oñatik aldegitiko? Noiz eta zergatik hegatu da Xabierra! Estefania Holandatik apaiz egitera Oñaratu baino lehen? Ondoko orrialdeek irakatsiko digute ezetz, artean Oñan zegoela. Zenbat hitzaspertu elkarrekin! Kontatu al zion Orixek nolako karta-borroka ari zuen Eguberri gero Batikanoko eta batez ere Erromako jesuiten aita Jeneralarekin eta bere Probintzialarekin? Ez dakigu. Urriaren 17an, teologiako hirugarren ikasturtearen hastean, oraindik Oñan zela bai, badakigu. Geroxeago joana izan behar zuen handik Xabierra. Zazpi urtetako Gurutzbidea izan omen zuen ibilaldi luze bezain lazgarri haren gailurra harrapatu du ia-ia.

7. LAGUNDITIK KANPORA (1923)

Ondotxo dakizue marmar asko eta iritzi ezberdin ez gutxi ibili izan dela gure artean Orixeren Lagundia uztea edota utzaraztea zela medio. Aita Onaindiari berak esan omen zizkion hitzak ez ditut hemen errepikatuko; Andima Ibiñagabeitiak esanak ere ezagunak dira eta beude hartan. Batare ezagunak ez diren aita Lopetegirenak, bere Egunkarian idatzi zituenak, aldatuko ditut hona. Barka luzexkoak baldin badira: “Ormae-

chea fue a estudiar Teología a Oña en el curso de 1920-1921, mientras yo hacía mi noviciado en Loyola, y desde su llegada a aquel centro de estudios eclesiásticos inicia una nueva actividad docente allí: es el primer prefecto o presidente de la Academia vasca, que ese año empieza a funcionar en el teologado de Oña, figurando en el catálogo de las actividades de la provincia religiosa de Castilla. Siguió en esa función los dos años que cursó teología, pues en el curso de 1922-1923 vuelve a Javier como profesor de griego y francés y al poco tiempo deja la Compañía de Jesús. No he podido saber la causa. He oído alguna vez, y aún lo he visto en algún periódico, que él decía que ignoraba esa causa. Me llama la atención, pues al tomarse una medida de éstas, si no es uno mismo el que toma la iniciativa, los superiores llaman la atención al interesado sobre las cosas que no encajan bien en su proceder con el espíritu de la vida religiosa concreta y dejan cierto tiempo de experiencia antes del paso definitivo. Tal vez se referiría a que él no viera que aquellas observaciones no tenían (sic! ‘no tenían’ ez, ‘tuvieran’ behar du izan) tal gravedad o importancia. No lo sé, pues esas cosas no se solían decir más que en forma vaga a los demás. De todos modos, el hecho de que cuando yo le conocí, hiciera el sexto año de magisterio antes de ir a teología, era ya llamativo e indicaba que los Superiores veían algo que no les parecía bien. No sé si algo relacionado con sus aficiones a la lengua vasca pudiera influir en esto, pero los dos provinciales que tuvimos por aquellos años, los Padres Vicente Leza y su sucesor y antes secretario P. Gabriel Vilallonga, se nos manifestaron siempre favorables a la lengua y a su cultivo, y en su tiempo comenzaron a fundarse y multiplicarse las academias de la lengua euskérica en nuestros centros de estudio de Oña y Loyola. Por eso es preferible no insistir en esos motivos, de no contar con documentos auténticos y concretos que los expliquen”.

Ea nik gaur dakarzkizuedan agiriek zerbait argitzen duten. Baina galdera bat aurrera baino lehen: egia ote da Orixek ez zekiela zergatik atera zen edo, nahiago bada, zergatik aterarazi zuten? Gauza bat da guztiz nabaria: Zekiena, asko edo gutxi, isilik gorde zuela beti, ez zuela hartaz inoiz garbiro mintzatu nahi izan, ez batere argibiderik eman. *Quito-n arrebarekin* liburuan arrebak geldegiten dionean [“gero beste lagunarte artan”], Lagundian alegia, “Zer gertatu zitzaian?”, haren erantzuna hauxe da: “Bego, bego...”. Guk dakigunez ez zion inoiz inori kontatu —Estefaniari bai ote?— zer egin zuen Oñan 1922ko Eguberri jaiak inguruan eta, jakina, hori egin zuela bazekien. Zergatik ez hori bederen kontatu? Eskubide oso-osoa zuen, noski, isilik gordetzeko, baina kontatu izan balu, geroko susmoak, esamesak eta marmarrak —ustezkoak, eta ez seguruak— hein handi batean gutxituko ziratekeen.

Nik gaur dakarzkizuedan ixtorioak Loiolako artxibo izkutuan gorde-rik dauden paper-agirietan xurgatu ditut. Agiri horiek orduko eskutitzak

dira; guztira hamazazpi, latinez idatziak, damurik; batzu aski luzeak. Orixerenik ez da horien artean, Orixerenak Erroman egongo dira gordeak. Orixek Erromara idatzi zituenek han sortu zuten burrundaren oihartzunak entzuten ditugu hauetan eta haren eskutitzen zati osoak irakurtzen tartean-tartean Erromatik hona igorrietan. Izan ere, aita Jeneralak hemengo probintzialari eta honek hari eginak dira guztiak. Osorik eta zehazki ezin iraul ditzaket hemen, ongi ulertzen duzuen bezala, eta saiatuko naiz funtsa eta mamia “deus edequi ez eratchequi” gabe —Leizarragak liokeenez— zuei jakinerazten.

Aita Jeneral Ledochowsky-k Erroman 1922ko Urtarrilaren 24ean eginitako karta bat hartzen du aita Leza hemengo probintzialak. Honela diotsa gutxi gorabehera: Nicolas Ormaechea horko teologoak Batikanoko Erlijiosoan Kongregazio Sakratu delakoari gutun bat igorri dio, eskatuz eman dakion baimena teologiako bigarren urtea bukatzean apaiz egiteko, —beste bi urte itxoin gabe, alegia; ez ahanztu artean laugarren ikasturtea bukatzean egiten zirela eta geroxeago iritsi zela eskua hirugarrena bukatzean apaizteko. Ez dakigu noiz idatzi zuen gutuna Orixek, baina Eguberrietan edo izango zen, beste horren datari bagagozkio—. Bere eskabidearen alde arrazoi hauek ematen omen zituen. Magisterioko lau urte burutuak zituelarik, beste biez geldierazi zutela ikastetxeetan. Horrek *Derecho Canónico* delakoa aldarrikatuz gero, noraezean Apaizgoaren bi urtetako luzamendu edo atzerapena zeramala berekin —eta hemen datoz lehen aipatu ditudan hitzak—, “siquidem elapso studiorum theologorum curriculo, Superiores prohibentur negare Ordines nisi de causa vere canonica”, esan nahi baita, teologiako ikaskizunak igaroz gero, Agintariak debekaturik baitaukat, arrazoi egiazki kanonikoa izan ezik, Apaizgoa ukatzea. Bidegabek jokatu omen zutela Agintariak horretan, gainera; bada bosgarren urtea eginerazi ziotenean ez zutela entzun nahi izan, eta ertsatuki arrazoiak eskatu ziotenean, Probintzialak hau erantzun ziola: “erlijioso oso ona zara, baina zeure lurraldearen maitaleegi dirudizu” (“nimium amator regionis suae”). Seigarrena eginerazi ziotenean, aldiz, ez zetozela bat Probintziala eta Tuterako erretorea, honek adierazi omen baitzion ez zela jokabide edo ohitura kontua, baizik Lagundirako gai ez izatea; hark, berriz, gutunez gaztigatu (1919ko Abuztuaren 10ean) “te male gubernare linguam cum agiteris animo” esan nahi baita, “ez zara zeure mihiaren jabe, zeure onetik ateratzen zarenean” (“cuando está Vd. de mal temple”). Gutunez zuritu zuela bere burua eta erantzun hau hartu (1919ko Abuztuaren 25ean): “me esse gallum gallinaceum (gallo de pelea) in mea defensione”, hots, joko oilarraren pare nintzela, neure buruaren alde aritzean. Tuterako erretoreak salatu zuela makur honezaz Probintzialaren baitan eta hori egiteko apika hura baliatu izan zela berak, Orixek, idatziz hari eman omen zion “kontzientziako kontu” zeritzanak (alegia, urtean behin edo bitan mendeko bakoitzak bere Nagusiari eman ohi zionaz eta ‘berezko sekretu’ pean Nagusiak gorde behar zuenaz), ezen etxeko kon-

tseilari bati itzuri omen zitzaiola behin beste batekin ari zelarik eta berak, Orixek, Erretoreari egin karta aipatu zuela. Orain bada, “nola nik”, dio, “ez nuen horrezaz ezer esan, ez eta Nagusiri beste inoiz kartarik idatzi, hortik atzeratzen da hark larriki urratu zuela bai Derecho Canonicoa bai Lagundiko Legedia”.

Aita Boettok, honekin urte hartan mintzatu zenean, esan ziola Nagusiak kontent zirela bere jokabide erlijiosoarekin, baina lehengo iraina xahutzeko ez ziola ordainik eman. Horiek horrela izanik, 971garren kanona begiztaturik eta Probintzia osoko erlijiosoen baitan jasan zuen iraina eta bere bokazioan horrek eragin zion bake galera kontuan harturik, Kongregazio Sakratuari 976garren kanonak 2garren atalean eslekitzen zuenaren dispentsa eskatzen ziola teologiako bigarren ikasturtea amaitzean apaiztu ahal izateko. “Kongregazio Sakratuak guzti hori aditzera eman digu”, diotsa Ledockowsky-k Probintzialari, “Ormaechearen berri emateaz gain geure iritzia ere ager diezaiogun, eta nik zuri sekretu ertsipean gaztigatzen dizut. Horrek ez dizu galeraetzen, noski, zerorrek derizkiozun apaiz jesuitei iritzia eskatzea Ormaecheak kontatzen dituen puntu horien gainean, bai eta haren dohain, bizitza eta jokabidearen gainean, argibide ahalik zehatzenak eta gehienak eskuratzeko. Guzti horiek zuk bezalaxe sekretua gorde behar dute eta ez zaie zilegi horrezaz inorekin mintzatzea, ez eta deus ere esatea, nondik Ormaecheak susma dezan Kongregazio Sakratuak haren eskabidearen jakitun egin gaituela”. Aita jeneral Ledochowsky-ren sinadura du gutunak azpian.

Akzio bipila egin du gure Orixek, arranoak ez baditu! Ez zekien asko nolako trumoa eta hodei marraka sorreraziko zuen eskutitz hark. Bestalde, berriz, pentsatu behar zuen, bada, Kongregazioak informeak eskatuko zituela. Ez baitzen txantxetakoa gutunean zioena. Salakuntza latzak ziren egiten zituenak: Agintarien bidegabea, batetik, eta kontzientziako kontu delakoaren sekretu haustea bestetik. Eskea bera ere agian sekulan inork egin ez zuena: Apaizgoa bi urte aurreratzea. Lehen emana zioten zigorraren ordaina, pentsatuko du norbaitek. Bai, baina Nemesio Ariztimuñori ere sei urtetako Magisterioa eginerazi zioten eta ez dakigu Erromara halako gutunik egin zuenik. Erreta, are xigortuta zegoen Orixe eta ez zituen ondorioak neurtu, agian. Bere bizi osoan ohartu ere ez, eskutitz haren ondorioa izan zela Lagunditik ateraraztea? Ala ohartu bai eta bizi osoan isilik gorde? Ez dakit zer erantzun.

Gainerako eskutitzak lehenbiziko horren doinuari ari dira dantzari. Aita Lezak Otsailaren 10ean honela erantzuten dio Jeneralari: Ormaechearen esanetan zati bat egia da, bestea isildu egiten du, ordea: gauza batzu jakinaran gainean, beste batzu ezjakinean. Magisterioa luzatzeko arrazoi nagusia ez zitzaion esan, ez komeni ere esatea: eri zen, buru eri, eta eritasun horren ezaugarriak Comillasen nahiz Carrionen agertu ziren, aita Bianchik eta aita Arregik, haren erretore izanek, diotenez. Eritasun

horrek batbateko suminaldiak eragiten zizkion; horien jatorria, ordea, haren borondatea ez baina eritasuna zela Agintariak zekitelarik, erlijioso ona zela esaten zioten. Hala igorri zuten Tuterara bosgarren urtea egitera. Gauza ezdeusagorik eta desegokiagorik haurrak hazi eta hezitzeak! Behin baino gehiagotan hartu ziren haurren arrenkurak eta keixuak haiekin zuen portaeragatik eta esaten zizkien hitzegatik. Hori zela eta, neronekin egin nion eskutitza esanez Lagundiko eginbideetarako ezgai ikusten nuela. Arras umilki erantzun zidan: anai laguntzaile izateko eta zernahi jasateko prest zegoela Lagunditik ez ateratzeagatik. Atseguenez entzun nuen hori, baina hara non egiten didan beste eskutitz bat egun gutxiren buruan guztiz bestelakoa, agian inork burua berotu ziolako, behiala onduak zituen literatur lanak, bere lagunek txalotuak, aipatuz eta harrokeria pixka batekin aditza emanez ez zela hain traketsa Lagundian ikaskizunak egiten segitzeko. Bigarren gutuna baino lehena atseginago izan zitzaidala erantzun nion, bigarrenean “joko oilarra” (“gallus gallinaceus”) —hau hark eginiko itzulpena da, nik “gallo de peleas” esaten nion— zirudielako. Bide batez hurrei esaten zizkien hitz itsusiez ohartxo bat egiten nion.

Probintziala eta erretorea bat ez zetozeela: nondik daki hori Ormaecheak? Batak bata, besteak bestea esan ziola; ez biek guztia; baina hori ez da bat ez etortzea. Kontzientziako kontuaren sekretua hautsi zuela erretoreak? Nondik atera du hori, esan nion guztia ikastetxeko bizilagun guztiek ahotan baitzerabilten?

Beraz, lehen ere izan ditut zalantzak eta orain berrirori ditut: ez dakit Lagundian bizitzeko gai den. Erlujioso den aldetik ez du esankizunik, suminaldi gori eta batbateko horiek izan ezik; bere onetik irtetera eta burua galtzera isuri samarra dirudi. Seigarren urtearen ondoren erabaki nuen joan zedila teologia ikastera, Xabierko kontseilarietatik biek bederen ez baitzuten deus haren kontra. Egia esan, bi horietatik batek bizpahiru hilabete geroago iritzia aldatu zuen, baina ez nuen gehiago arazoa nahastu nahi izan.

Beste gauza bat: Oñara iristean “cursus minor” —era eratsi zutela jakinik bere lagun bati keixatu zitzaion esanez “De universa Philosophia” azterketako notak guk aldatu genituela eta gutxitu, ziur omen zegoelako ongi burutu zuela azterketa, egia oso besterik delarik, bi “superavit” baizik —bat “aegre” gainera— ez baitzuen irabazi eta beste hirurak “attigit”. Horrek berorrek ez al du aski erakusten —ez baitzuen baieztatzeko frogarik eta halere segurantzaz osoaz baieztatu baitzuen, entzun zionak berak kontatu zigunez— adimendua okertuxea duela?

Egun gutxiren buruan, Otsailaren 22an, Ledochowsky-ren erantzuna aita Lezari: Ez zenuten igorri behar teologiako ikaskizunak egitera; beste bizimodu bat proposatu behar zenioten. Orain bada, oso arrisku handia bailitzateke, Ormaechearen aiurria eta izaera ikusirik, hori Lagundian

apaiz izatera iristea eta erlijioso den aldetik ez baitu esankizun larririk Lagunditik gogoz kontra jaurtitzeko, argi eta garbi eman behar zaio aholku anai laguntzaile izatera pasa edota bere oldez Lagunditik irten dadin. Irteteko agiriak idatziz eskatzen baditu, bertantxetik ematen dizut esku kanpora dezazun.

Probintzialak ez zuen nonbait garbi ikusten hori nola egin zitekeen eta Jeneralari karta egin zion bere kezka azalduz. Honek Martxoaren 18ko beste batean lasaitzen du honela idatziz: Lagundian apaiz izatea ez zaio galerazten hoben edo erruren bategatik, baizik bere aiurri eta izaeraren berezko makurragatik, ezen Lagundian apaiz izatea lagunarteko bakearen eta ongiaren kaltegarri litzateke, bai eta bere buruaren etengabeko ezinegon eta artegatasun iturri. Nork daki, aldiz, Lagunditik kanpo eta mendetasun lotura gutxiagorekin ez den herri apaiz bipila izango?

Ekaingaren 4ean aita Gabriel Vilallonga bilbotarra izendatu zuten Probintzial aita Lezaren ordeiz eta hark honako karta hau Ledochowsky-k sinaturik hartu zuen Erromatik Uztailaren 30eko dataz: Ormaechearen gutuna hartu berria dut. Honela dio: "Aita Probintzialak eskatu dit zuri eskriba diezazudan. Ez diot ongi aditu, ez dakit berak ere ongi aditzen duen, zergatik proposatzen zaidan Lagunditik irtetea. Ikastetxe honetako erretoreak ez behin, baina birritan oso ongi portatzen naizela; Probintzialak ere berriki gauza bera... 'Ezdeus al naiz, ala?', galdegin nion, aita Lezaren gutunak halako zerbait susmarazten baitzidan, eta hark: 'Inondik ez, eta ez dut ere uste aita Lezak hori esan nahi zizunik. Ez da dudarik Lagundirako gai zarela'. -'Zer, bada? Abertzaletasuna al dugu berriz ere auzitan?' -'Sines nazazu: ez eta hurrik eman ere'. -'Hortaz zer?' -'Agian aita Jeneralak baduke zure Magisterio garaiko zenbait argitasun eta heldur dateke lagunarteko bizitzarako ez ote zaren gozakaitz samarra'. Hala dio berak; egia den ala ez, zuk ikus; nik jakinaren gainean jartzen zaitut. Horrez gain aita Lezak Otsailaren 10ean egin zidan eskutitza ezagutzen dukezu, noski, bai eta nik hil beraren 22an eta Martxoaren 18an idatzi nizkionak. Han duzu garbiro nere burubidea; lehia zaitez han esana burutan ematera. Ormaecheak ez duela bata ez bestea onartzen? Ez utzi teologiako ikaskizunetan aurreratzen; atera lehen bait lehen Oñatik eta igor haurren ikastetxe batera. Egiten dukezun guztiaren berri eman neri".

Urriaren 8an aita Ledochowsky-k Orixeri eginiko eskutitzaren aldakia igortzen dio aita Lezari, hau Probintzial-orde izendatu baitute aita Vilallonga gaixotu delako, eta aita Lezak Loiolatik honela erantzuten dio Urriaren 17an: 'Hartu nuen aldakia. Ormaecheak otoitu baitzidan ez nezan Xabiererra igor, harik eta zure erantzuna har zezan arte, hala egin nuen, baina orain berriro idatzi diot esanez joan dadila hara luza gabe. Ez doala esaten badit, eta kapaz da, mendetasun santuaren pean aginduko diot eta jakineraziko Lagunditik kanporatzeko arriskuan jartzen dela; hala ere obeditzen ez badit, hiru egunen buruan berriro aginduko diot.

Esadazu zer egin behar dudan bitan esana betetzen ez badu: Lagunditik irteteko agiriak sinarazi? Oso buru-iritzi dela iruditzen zait, berak erabaki behar balu bezala Lagundian zein mailakoa izan behar duen”.

Barka, baina ez du merezi, nik uste, honen xeheki Orixeren atze-aurreak kontatzen jarraitzeak, nekagarri baitira maiz fraileen arteko ikamikak. Puntu nagusiak gainera agertuak daude oraino jalki ditudanetan. Gero gertatuak laburkiago adieraziko ditut. Beste bi gutun igorri zituen Orixek Batikanoko Erlijiosoen Kongregazio Sakratura, Lagundiko Agintariek urte haietan izan zituen jardunaldien berri emanez, eta aita Ledochowsky-k horien kopiak igorri zizkion aita Probintzialari, haietan Orixek kontatzen zituenen garbitasuna eman ziezaion. Horretarako aita Bianchi eta aita Armisengana jo zuen eta Orixeri buruzko zenbait agiri eta txosten zahar igorri zion Jeneralari, ez kopiak atereaz, baizik egin zirenean egin ziren berberak, Batikanon sinesgarriago izan zitezen. Horiekin batera idatzi zion gutunean badira hitz batzu hemen agertzea merezi dutenak. Honela dio aita Vilallongak, bere gaitzetik sendatu eta berriz Probintzial lanetan hasi berria zenak: Denbora gutxi daramat Probintzial karguan eta behin bakarrik mintzatua nintzen Ormaechearekin. Ez nekien segurki zergatik eman zitzaion Apirilean aukera hura: edo anai laguntzaile edo kanpora. Banuen, ordea, susmoa biotako bategatik emana zitzaio-la: eri zelako edo bestela ezgai nolazpait, “ez noski Lagundiko eginbide guztietarako ezgai, ene ustez, zeren aski adimendu nabari baitu, geureetako askok aitortzen dutenez, bai eta erdi mailako jakitatea baino goragokoa latinean, gerkeran eta bereziki euskaran”.

Erlijiosoen Kongregazio Sakratuko Idazkaritzak eskuratu zitzaizkion agiri eta txosten guztiak ongi ikertu ondoren, honako hitz hauek gehiagoren artean egin zizkion Batikanoaren eta Lagundiaren arteko arazoen Arartekoari: “...questa Sacra Congregazione tutto considerato non crede di intervenire ad obligare i Superiori a ritirare la fatta ingiunzione...”; ez du uste, alegia, sartu behar duenik Lagundiko Agintariei gibeleraztera Ormaecheari ezarri dioten agindua; eta geroxeago, egin behar luketela “invitarlo (Ormaechea, alegia) a considerare se non gli venga meglio accettare il consiglio del Preposito Generale di lasciare cioè la Compagnia”; esan nahi baita, gomita egin, pentsa dezan ez ote duen hobe Jeneralak ematen dion Lagundia uzteko burubidea onartzea.

Batikanoko hizkuntza dugu hemen: “...ez du uste sartu behar duenik Agintariei gibeleraztera...” eta “...gomita egin pentsa dezan ez ote duen hobe...”. Aditzera eman zion hori Arartekoak Orixeri eta honek Apirilaren 6an erantzun Lagundian iraun nahi zuela, apaiztuko ez bazen ere; ez ordea anai laguntzaile izatera aldatuz, baizik betiko eskolario izaten jarraituz eta bizi osoan gramatika irakatsiz. Jeneralaren erantzuna: “Kongregazio Sakratuak erabakia egin behar duzu: edo anai laguntzaile bilakatu edo Lagunditik ateratzea eskatu, betiko eskolario izatea ezina

baita Lagundian. Hobe duzu ez gehiago gogor egin Agintarien erabakiri eta Lagunditik ateratzea eskatu. Jainkoak emango dizu kanpoan ere grazia zeure arimaz arduratzeko eta haren aintzari zerbitzatzeko". Aldi berean aita Probintzialari erantzun hori jakinerazi zion eta eskatu ez ziezaion Orixeren nahiari amore eman; ken zezala irakaskuntza lanetatik eta anai laguntzaileen etxeko lanak eginerazi ziezazkiola, Lagunditik irteea eskatzen ez bazuen.

Probintzialak orduan Erromara: Aspaldixko utzi erazi zizkiola eskolak; harrez gero Ebanjelioa euskaratzen ari zela Xabierren. Orixeri beste eskutitz batean galdegiten ziola ea eskatu behar zizkion ala ez irteteko agiriak. Ezezkoan Ameriketara destinatuko zuela Ekainean, han anai laguntzaileen lanetan ari zedin.

Jeneralak bere aldetik: Irten nahi ez badu eta bai anai laguntzaile izaten hasi, esaiozu Lagundia prest dagola horretarako, non eta froga bat egin eta erakusten duen anai laguntzaile izateko balio duela. Espainatik alde eragiteko asmoari ongi deritzat.

Handik egun batzu geroagoko beste eskutitzean: Ormaecheak egin dizun gutun berria irakurri dut; ezagun du burua nahastuxea duela. Ez eman amore eta ari dadila bakarrik anai laguntzaileen lanetan.

Hona buruenik Erromako azken eskutitza aita Vilallongari: Hartu dut Uztailaren 14eko zure gutuna, non adierazten baitidazu erabaki duela Ormaecheak Lagundia uztea eta denbora pixka bat eskatu irteera prestatzeko. Zuk ikus zenbat luzatzen duzun; gehiegi ez. Egin itzazu nolanahi ere ahalak Jaunaren bakean eta bozkarioan atera dadin. Gomendiorik edo laguntzarik eman ahal badakio, eman pozik, ez baitago bere borondatearen gain bakarrik irtenerazteko arrazoia.

Aho txarra, badakit, are mingotsa eta garratza egin digu guztioi, zuei eta neri, ixtorio triste honek. Nahiago nuke, egia esan, bestek kontatu balu. Ez da inor atera irabazle, bai guztiak galtzaile, ene ustez: Orixe, erreminak eraginik, ausarta izan zelako Batikanora jotzen; Lagundia, kupidagabea izan zelako, Orixe aldegin zezan bide guztiak erabiltzen. Badakit ere ez dudala betiko galdera garbitu: atera egin zen ala aterarazi egin zuten? Biak esan daitezke eta aurrera ere biak esango dira. Gaurdanik badugu, ordea, lehen ez genuen zenbait argitasun eta xehetasun. Ez diot nik galdera horri erantzungo; nik adina dakizue oraidanik eta ni bezain gai zarete erantzuteko. Hirugarrenik eta azkenik, badakit ere Orixe Lagunditik atera zela nahiz aterarazi zutela eta, izan direla gure artean poztuak eta tristatuak. Ni, egian esan, azken hauetarikoa nauzue eta, beste arrazoiak beste, Orixe bera ere tristatu zelako. Lazki eta minki tristatu ere! Poztu izan direnen arrazoiak ezagutzen dut: ez zukeela Lagundian burutuko kanpoan egin zuen euskal lan itzala. Hauei ez ote lieke, ordea, Orixe hain minki eta lazki tristatu izanak pentsarazi behar, Orixe berak edo

euskal idazle izatea baino hobesten zuela jesuita izaten jarraitzea, edo —hau agian seguruago— ez zuela uste Lagundian irauteak euskal idazle izatea galeraziko zionik? 1923ko Irailaren 29an sinatu zituen irteteko agiriak Xabierren eta jesuita izatea utzi zuen.

Hemen amaitzen da nere lana, ez ordea erabat Orixeren eta Lagundiaren arteko lotura eta harremanak. Gogoz eta bizimoduz jesuita izaten jarraitu zela esan behar. Ez zuen inoiz Lagundiaz ukatu; ez zioten ere inoiz —ez genion— jesuita askok geure atxikitasuna ukatu. Estefania, Arcitio, Olabide, Leturia, Belderrain, Argarate eta ehunka gehiagoren —euskara maite ez ezik landu ere egin dugun— jesuita guztion bihotzean txoko berezia izan zuen, du eta izango du beti Nikolas Ormaechea Orixe handiak. Hemen duzue, diodanaren lekuko xume, Orixe 1933ko Orrilaren —hala dio berak— Sean Oxeatik “Argarate, Zaitegi et reliquis” egini-ko eskutitz bat Belgikara.

Baina nik beste eskutitz batez emango diot azkena txosten honi, Jose Mari Aranaldek Añorgatik 1973ko Azaroaren 5ean Orixeren lehen-gusu txiki Juan Dorronsoro jesuitari egin zionaz. Honela zioen:

“Agur, biotzeko Joan:

Atzo jaso nuen zurea ta or dijoakizu nere erantzuna. Osaba zanak, biali zuten egunetik, ez zuen berriro jesuitetara jo atea beste asmorik izan. Ortik bota zutelako, Jainkoak ere gaitzetsia izan zitekelakoaren kezka urtetako inpernu gorria erakutsi zion. Kezka ori noizbait bota zuen, eta bein pakeatu zanean, amets bakarra gelditu zitzaion: bota zuteneko etxe artan berriro ate aunditik sartu, au da, apaiz izatekotan, ortarako izan nai baizuen jesuita, batez ere.

Arek gogo ori bazeukan, eta jesuita batzuk sarrera eskeintzera etorri ere egin zitzaizkion; baina azkenerako ez sartzea erabaki zuen, ez berez, nik uste, lagunaren esanera baizik. Eta jesuitetako alde batera utzi ta apaiz izateko baimena eskatu zion gotzaiari. Ori da guzia”.

Nerea ere bai, haxe da guztia. Jainkoak arratsalde on dizuela.

EUSKALDUNAK: ORIXE BERE BERRI EMATEN, EDO EGILEA PROTAGONISTA

Uitzi, 1988-XI-27

Joxe Mari Aranalde ()*

Agur, entzuleok, euskaltzain eta beste, uitziar nahiz kanpoko. Zatozte guztiok nerekin. Goazemazue "Erralde" baserrira.

Negua dugu. Hotz da kanpoan. Ilundu zuen aspaldi. Isildu ziren arratsaldeko ingurutxoek tuntunak eta dantzak dibertitu den gaztejendearen iji-ajak. Hontzen txanda da orain. Tabernazalaren batzu ez beteak beren etxeetan dira.

Baina ez danak. Uitzin agertzen da igandeetan herri horretan etxerik ez duen zenbait gizaseme. "Basagizonak" (VII 49) dira. Astegunez ez ditu inork ikusten herrian. Artzain dabilenak bakarrik egiten ditu topo mendian, beren txondar inguruetan. Hauek ez daukate etxerik Uitzin. Basoko txabola dute beren etxe gizaseme zaildu hauek denak. Han daukate zain beren "kamaina" (VII 609) lotarako. Baina ez dirudi presa haundiegirik daukatenik beren etzauntza horietara biltzeko.

"Jai egin eta, goiko ostatuan oi baino obeki afalduz/basora baino len, an genituen adiskidengana agertuz" (VII, 49). Ez doaz zuzenean txabolara. Errekaldera datoz, gaur gu bezalaxe. Sukalde bero hartan bukatzen dute beren igandea.

Ez zekiten asko "Iriondo Ataun'go seme prestuak" eta "Beltxa" bertsolariak eta "Irupe Donamartikoak" eta "Kosko" "epotxak" eta "Zarauz-ko Letek" eta "Bustintza Mañari'koak" eta "Oiertzun'go Mitxelenak" (VII, 89-145), berriz esanda ere, ez zekiten asko beren izenak betirako josiak geldituko zirela norbaiten buru-bihotzetan, eta norbait horrek bertorik ederrenetan kantatuko zituela eta goretsiko sekulako. Ahaztuak

(*) Oharra: *Euskaldunak* aitatzen den guztietan, eta besterik esan ezean, lehen argitalpena da (Itxaropena Argitaldaria-Zarautzen-1950), eta xifrek, kapitulua edo kantua eta beraren bertsoetako bat adierazten dituzte.

dira gizon haiek Uitziko mendietan botatako izerdiak, eta itzaliak beren oihuak eta zerra nahiz haizkora hotsak. Izenak hor daude, orde, euskarak diraueno. Nolako begiak jartzen ote zituen gure lekuko honek, gizon haiek sukaldean sartzen ikustean “igande gauez ta neguz” (Vii, 49). Entzun dezagun bera, “igande gauez ta neguz” basagizonez betetzen den sukalde horren berri ematen.

Kantu bat osoa eskaintzen dio sukalde honi eta gaualdi honi gure lekukoak. “Denok bat” du izena. Hona lehen bertsoak:

“Negu luzean bost ipui eder / egun ta ardazleetan.
ikasi nitun, artazuritze, / garbari ta ardazleetan.
Gaualdi bat dut ezin-utzia / istori labur onetan,
ua baitago ezarrienik / euskaldunen biotzetan.

Ortakoz, aipa-bearra dizut / azi ninduten sukalde:
ain zuzen, etxe aren izena / len dakizun “Errekalde”.
Nere lenengo euskal-eskola, / nere sortetxeko alde.
Euskalerriko biotza dut nik, / artaz nai baduzu galde.

“Elbarren” zaion auzoan dago / errian dan aundiena;
goiko auzoan balego, buruz / ager liteke gaillena.
Errekatxo bat ondoan: ikus / egoki dun ez, izena;
larraña goien, iru sukalde, / berria irugarrena.

Aur nintzalarik, bi ama-alaba / banetan ziraden bizi.
Txikienen alaba unidek / arretaz ninduan azi.
“Beste sukalde” zitzaionera / zenbat aldiz nun igesi.
amonordeak —zeruan bedi— / al du gaurgeroz ikasi.

Artzai bazera, badakizu zer / dan arkume gaitzetsia”;
—praile bizardun batek jarria / ori nun izengoitia—.
Ainak(arek), ama bat, bi ere ez aski / gose-erasana guzia;
beti erkitu geldibearra / ama geigoren isia(gutizia).

Ama gisoak, aurraldi batez, / titi baiñon au geiago:
ez nindun gaiztoz goseak utzi. Gaurgero zeruan dago.
Azken jaioa nintzalako, ni / besteak baiñon aulago;
bi iñude ta ama baiño / amona ez nun gorrotoago”.
(VIII, 1-41).

Horra Orixe bere berri ematen *Euskaldunak* poeman. Eta irakurri dugun zati horretan, bere bizitzako berririk garrantzitsuena ematen digu. Entzun berriro bertsoa: “Ama gaisoak, aurraldi batez, / titi baiñon aur geiago”. Horra hor zoragarriro esanik Orixe Uitziko Errekaldeko sukaldean egotearen arrazoia. Beste bi seniderekin sortu zen mundura, eta titi bila etxetik kanpora joan behar, hura argira agertzerako amaren biak hartuak bait zeuden. Eta nora eramango gure Nikolas txikia, eta Uitziko

Errekalde baserrira. Arroxa Arixtimuño izango du hemen inude, eta honek emango dio beraren amak ezinez ukatu zion titia.

Orixek ez dauka saltzeko ama-ordeko andre hau. Egokiera duen aldi oroz aitatzen du bere olerkietan, eta *Quito-n arrebarekin* liburuan. Eta ez ama Arroxa bakarrik. Familia osoa aitatzen du eta aupatzen Orixek. Entzun betirako idatzirik geldituko den aitorten biribil hau: “Azkenean iñudeari gaztiratu (Orixek Orexan ezin zuela etsi ikusita), eta an etorri omen amandre Mari-Axuntxi, ni bizkarrean eramatera. Lau orduko bidean mendiz. Oso maite nindutenan yende aiek, batez ere amonak, gerta oi dana. Askotan entzun nitenan guraso neuzkan aieri: Guri etzaigu beñipein iduritzen ere, gure ez dugunik. Geron lenbiziko aurra il zitzaigunean ekarri genun bularrera. Berak ere ez du etxera griña aundirik gizagaixoak.

Lekunberrira edo Leitzako Erasoteko Bordetara yuaten nintzanero, beti lelo bera zunan Etxarri zaparariak: Mutiko au zerea duzu?; ta ordun berritzen zunan gertakari guzia: iru yaio giñala ta azitzera ekarri nindutela; i Aresora eraman indutela, ta etxean azi zutena il egin zitzaieiela. Nik, berriz, alako naigabe bat banenunan, yende on aiek guraso ez nitulako, edo ez nitula esaten zidatelako. Egiatzko gurasoak guraso nitunik ez siñestu nai. Esanago ta gutxiago. Ez dinat oben aundirik, nere ustez”. (*Q.A.*, 40 orrialdea). Eta 44 orrialdearen haseran beste aitorten biribil hau: “Halako yende onik ez nenunan arkituko billa ibillirik ere”.

Merezi zutela uste dut uitziarrek aitorten eskertsu hori entzutea. Eta merezi, batez ere, orduko errekaldearrek. Bihoakie euskaltzale guztion eskerrona eta txaloa.

Baina sukalde hari eta jende haiei egiten zaien omen honetan, badugu norbait denen artetik bereiz hartu beharrekoa. Seinalatu du Orixek berak, lehen irakurri ditugun bertsoetan. “bi iñude ta ama baiño amona ez nuan gorrotoago” entzun diogu Orixeri. Hor ez du ematen amona honen izenik. Ez digu esaten ere ama-ordekoaren edo aita-ordekoaren ama duen. “Mari-Axuntxi” du izena eta aita-ordekoaren ama da, “aita zapatariaren ama”, berak dioen bezala (*Quito-n arrebarekin*, 44 or.). Orixek zergatik zuen bereziki maite —“ez nuan gorrotoago” hori da— amona hau jakiteko, sukalde horretatik atera beharra daukagu. Baina oraindik ez gaitezke atera. Biler a eta gaualdi horiek poema egilerentzat zer izan diren esan baino lehen ez behgintzat. “Pestaburu” lehen kantuko bigarren bertsoak erakusten duela ederki esango nuke gauza hori. Hona zer dion:

“Lapurtarrek erakus belar-sega-lanen;
Bizkaitik etor ziren txondarrak egosten;
giputz iaioak ere baziran zur-lantzen...
Bost ipui eder orok emen erein zuten”.

Euskal Herri osotik etorritako jende horiek ditu Orixek bere inspirazio-iturri poeman. Horien ahoetatik jalkitako “arnasa” da berak “manitu” diguna. Ohore, beraz, gizon haueri, Errekaldeko sukalde hartan gure “erritasuna”ren (IX, 222) ederra erein zutelako mutiko haren bihotzean. Eta horrenbestez atera gaitezke sukalde horretatik, amona-ilobekin mendira joateko. Ilobak amonari dion atxikimendua zergatik den, mendian dugu jakitekoa.

“Letari” izeneko kantuan ematen zaigu geretakariaren berri. Mikel Eledar da kontatzailea, eta Garazi Gerrieder entzulea. Hona:

“Lenengoz atera nun kabitik mokoa;
(artean soil nekian erriko zokoa)
larranbillutan giñan: “Zanbat da mundua?”
esan nion; eta arek: “Aaundi...Jaungoikoa.”
Bein ere etzait aztuko ango zirrakoa”.
(IX, 181)

“Entzelai” deritza amona-ilobak “larranbillutan” dabiltzan leku hori, kopiatu dugun honen aurreko bertsoan esaten zaigunez. Orixek irakurri duen edozeinek, neke haundirik gabe, asma zezakeen, noski, amona-iloben arteko gertakaria idazlearen beraren eta Errekaldeko amonaren artekoa behar zuela izan. Baina ez dauka inork asmaketan ibili beharrik. Aski du *Quito-n arrebarekin* liburua hartzea eta 51 orrialdea irakurtzea. Hona nola ari zaion bere arrebari “Bolibi’ko zabaldua” dekrizatzean: “Amona Mari Axuntxiz oroitu nintxinan”. Eta arrebak: “Zergatik hartaz”? Eta Orixek: “Uitziko Entzelaira mutiko lenbiziko arekin larranbillu biltzera atera nintzanean, an ikusi nitunan, Uitziko kabi txiki artatik aterarik, alderdi batean Aralarko malloa, ta bestean Berueteko, Ezkurra-ko, Leitzako, Goizueta aldeko mendiak. Ordun esan nionan: “Zein aundi ote da mundua”?, ta, “aundiago Yaungoikoa” esan zidan. (Q.A., 51 or.).

Hona ziur ikasi orain poemako gertakari hartako pertsonaiak egiazki zeintzu diren. Ez dira Mikel eta bere amona. “Mikolas” eta Mari Axuntxi dira. Jainkoak bestek ez daki amona-iloba hauen artekoa zer izan zen, eta amandre hark haur harengan nolako eragina izan zuen. Ez da dudarik, Orixeren izaera gehien markatzen eta erabakitzen duen pertsona, amonordeko hau dela. Horregatik bereizten du Errekaldeko guztienartetik eta bere bizitzako beste guztienartetik. Hau ere komeni zela ueste dut uitziarrek jakin zezaten.

Ez dira hor bukatzen Orixek bere buruaz poeman ematen dizkigun berriak. “Amonaren illetak” kantuan, “Apezen pilota jokua” deitu zatian, honako hau irakur dezakegu:

“Xaldi gainean Baraibar’koa / -aurrera baitzoan urtez-
etxera asi da. Esku zabala, / dirurik ark ezerten ez.
Meza ari denek lagundu nai ta / genbiltzan ito-bearrez:
amar sos eman zizkidan bein, ta, / ez ni etxera negarrez.

Etxean, berriz, atsekabea, / dirua ostu nuela.
 Orduan negar. Emanan nunik / ez adirazi berela.
 Luzaro bage sinetsi zuten / ark emana zitekela.
 Oinbeste gabe itzuliko zen / Baraibarra aren sakela".
 (XV, 617-625).

Nolako pena hartu oten zuen amona Mari Axuntxiren "mutiko txintxo, mutikoa ernea" omen zen hark, etxean lapurtzat hartu zute-nean! Eta nolako malkoak lertu oten ziren haren begi bietan!

Eta guztia zergatik, eta Baribarko apez eskuzabalarengatik. Zeinen ederki pintatzen digun Orixek "xaldi gaiñean" apez zaharra. Azken urte-tan itsutu egin zela? Bagabiltza hura baino itsuagorik bi begietan argiare-kin. Baina utz dezagun apeza eta segiogun poemari.

Nik esan behar banu, Orixek ez da ageri poeman negarrez, etxean lapurtzat hartu zuten hartan bakarrik. Neri Nikolas dela iruditzen zait "Inauteriak" kantuan, "Emakunde" deitu zatian, negarrez dagoen hura ere. Emaztekieen eguna da. Eta haurrek etxez-etxe puskak biltzekoa. Bildu ahala burruntzia-aren puntan sartu behar dituzte xixtor eta bastelako puskak. Baina horretarako burruntzia behar. Hona haur baten arazoa:

"Aur bat exean negarti,
 ez dula burni-burruntzi;
 aita-ek dio lizar zuzenez,
 aitzor koska, burniz gori gori.
 Erdi-lotsaz ba doa auzora;
 negarra doi-doi du geldi.

Lenen atean asi da
 bildurrez "ziztor-miztor"ka.
 Andre xaloak ekarri dio
 jan-aldi on bat lukainka.
 Goxoagorik izketan dio:
 "Ori burruntzia apaiña!"

Beste atetan berori.
 Poztu diote belarri.
 Etxeratzean, barna zabalduz,
 adierazi aitari.
 Ark: "Tutulu, ez nin esaten?
 Urrena siñesta neri".
 (VI, 193-205).

Badut gauza politik irakurririk; baina haxe baino politagorik! Zein da etxe-ko-nde horien jendetasun errukibera eta diplomazi fina ederkia-go adieraz ditzakenik? Zain, haur horren hiru momentuak ederkia-go eta laisterkia-go adieraz ditzakenik? Eta aita hori? Eta zeinek ez du haur

izengabe horrengan Nikolas irakurtzen eta ikusten? Nik bai behintzat. Familia behartsu hartako mutiko behartsu hori Nikolas da dudarik gabe.

Nikolas den bezala, nik uste, maiteari gaztainadian kantuz ari zaion mutila. Dena irakurtzeak luze joko liguke, eta bi bertso bakarrik. Honako hauetxek:

“Labainak ditu maekak, baina / saskitoa tinkatzeko
naiko nabari. Nekez ikusi / ditiot beso ta zango.
Uretan inoiz luze, biriril, / oiala bai; o zurigo;
zenbaitez ere belarrekoan / larrak odoluduta gero.

Gerria berriz... artatik dizu / Gerrieder izenondo.
Aren mintzoa zein biguin ote? / Oso bakan zaigu mintzo.
Olloai deika goizean goizik / noiz baiño noiz nik entzungo;
ta nere saiets igarotzean / agur doi doi bat esango”.

Bi bertso hauen aurrekoak eta ondokoak ez ditugu irakurri, baina zazpi badira maite-kantu horren bertsoak. Nik bi hauetan ikusten dut, hala ere bereziki, Orixe bera dela Uitziko neskatxaren bati kantari ari dena.

Emakumezkoak arropaz orain baino jantziagoak ibiltzen ziren garai haietan, ikus nolako egokieraz baliatzen den gure gizona nexkaren gorputzaren berri ikasteko. Eta ikus nola dauzkan gogoan! Eta mintzoaren hori? Maitearen zantzen egarririk egon behar da benetan eta maitemindurik, goizean ordu horietan oiloak gobernatzen ari denaren purra-purra ere entzuteko. Eta ez ahazteko? Horiek ere eragin egiten nonbait bihotzeko suari. Xehetasun zoragarri horiek denak, nik uste, maiteminduaren bihotzak bakarrik gorde ditzake eta gogora erazi maiteari esateko, maitasunaren haundia agertuz. “Gaztainaro” kantuko Mikel hori, nik esan behar banu, Nikolas ber-bera da.

Eta Orixe bera dugu “Eztaiondo” kantuko “Estropadak” zatian ezkonberriei norgehiagoka horren berriak zoragarriro ematen ari zaiena. Behin baino gehiagotan entzun izan genion, berak puntu horietatik guztietatik ikusi zituela estropadak kantua egin baino lehen.

Bera dugun bezala Orixe, txerria hiltzerakoan hiltzailearen hankapatik ateratzen ez dena, eta gero amonaren esanera eta arrebarekin sesioan odolkiak partitzera doana. Zeinek bestek, protagonista izan gabe, jaso eta gorde zitzakeen detaile horiek guztiak? Eta bera ere da, tximista hasten duenean, bere ondoan daraman nexkak bezala aitaren egiten ez duena, gizonago agertu beharrez. Eta non ez da Orixe bera protagonista *Euskaldunak* poeman?

Honetan bukatzen dut, entzuleak, nere hitzaldia. Barka bekita hala ere eraskin txiki bat hitz bi esateko. Hauetxek: Orixeri omen egitean,

Uitziri eta uitziar guztioi egiten dizuegula omen, eta bereziki errakaldetareiei, eta baitipat amona Mari Axuntxiri.

Bihoazkizue denoi gure eskerrik beroenak, Nikolas Ormaetxea haurra hain goxoki hartu zenutelako eta hain maiteki hazi eta hezi zenutelako. Milesker!

IZAERA ETA OFIZIO BEREZIKO PERTSONAIEN ERRETAULA “EUSKALDUNAK” POEMAN

Uitzi, 1988-XI-27

Juan Mari Lekuona

Zer giza mailako pertsonaiez hornituko dugun gaurko erretaula zehazteko, bidezkoa derizkiot zein giza sailez ari gaituzun aipatzeari. Oso mugatua eta berezia da hemen adieraziko dugun giza klasea: poemako mundu itsian agertzen diren kasta, ofizio eta talde berezietan kideko diren gizon eta emakumeak.

Argigarri eta ulerbide har dezagun J. Caro Barojak bere *Ensayo sobre la literatura de cordel* liburuan, gizarte maila eta estratoei buruz eginiko sailkapenean dioena. Lau estrato bereizten ditu: 1) aristokrazia, 2) klase ertaina, burgesa ere izenda litekeena, 3) klase herrikoia edo “baxua” eta azpikoa deiturikoa, 4) kasta eta talde bereziena (1). Eta esan dezagun hasteko, hirugarren eta laugarren mailez ariko gaituzula eskuarki, baina laugarrengoak ditugula bereziki gogoan eta egitasmoan.

Horregatik, nahiz eta poemako pertsonai gehienak hirugarren estratokoak izan, guk hemen izaera eta ofizio berezia dutenak bakarrik hartuko ditugu kontuan. Ez ditugu eskainiko protagonista nagusiak, ez nekazal eta beste ofizio herritarturikoa duten gizon eta emakumeak, ez erakundetako buruzagiak, ez gainerako “status” jakinetako pertsonaiak.

Gure ikus-helburu dira eskaleak eta ijitoak, ikazkinak eta mantenu-trukeko langileak, danbolitero eta bertsolariak, kirolari eta apostulariak, ardosaltzaile eta harakinak, garbari eta sorginak, talogile eta zamarginak, beor-zun eta moxkor, autorearen gogoko andre zabala eta Baraibarko Apaiza... Lana eta festaren inguru mugitzen diren kristau klaseak, tradizioaren eusle, jaien suspertzaile, ogibidearen esklabu, herriko sentimentu bizienei su ematen dieten protagonista bero, pasiodun, gatz eta piperra. Guzti hau litzateke guk gogoan hartuko dugun giza multzo arretagarria.

(1) J. CARO BAROJA: *Ensayo sobre la literatura de cordel*. “Círculo de Lectores”. Barcelona, 1988, 33 or.

Bestalde, pertsonaien *erretaula* esatean, zera bakarrik kontatu nahi dizuet: lauki, iduri eta kuadro modura Orixek ziriborrotu dizkigun aipatu pertsonaien traza. Erretaula estatikoa duzue, kondairarik eta elkarriketarik gabea. Baina esanahi haundiko irudigintza dugu Oixerena, ipuin-kondaira asko bururatzen diguna.

Lauki bikainok Orixek berak irudikatu eta pintatu dizkigun eran emango ditugu, beraren hitzak erabiliz pertsonaien aurkezpena egiterakoan: berarenak bertsoak, berarenak ikuspuntuak, berarenak barne eta kanpoko antzirudiak. Gehienak historikoak izango dira, noski, nahiz eta pentsa daitekeen asmatuturiko xehetasunik ere egon litekeela, batez ere zenbait izenek euskal kulturako egileren bat gogora ekartzen digutenean.

Gure egitekoa izan da, pertsonaien zerrenda osatzea, bakoitza bere kantuaren barruan kokatzea eta guztietin erretaula bat osatzea, Orixeren piezekin kontaktizun berri bat irakurleari usma-arazten diogula. Dena dela gure idazki honen ekarria, idek dezagun laukien atea, ager dezagun trozuka-trozuka ikusgaiaren figurazio sendo eta koloretia, eta has gaitzen hitzez azaltzen izaera eta ofizio bereziko pertsonaia herrikoei buruz *Euskaldunak* poeman Orixek esaten diguna.

I

PERTSONAIAK LAUKIETAN KOKATURIK

Urtearen buru egutegiak dagien ibilpideak markatzen ditu eremu eta sail bereziak, poemaren kantuak bereiziz. Personai bakoitza urtegiroak bere dituen lantegi, festa, ohitura eta sinesteetan partehartzaile gertatzen da. Eta urtearen aroiak damaio bakoitzari behar duen tornua.

I. PESTABURU

Honela hasten zaigu kontaktizun nagusia: “Naparroa zârrean Larraun’en Uitzî”. “Ain zuzen pestaburu dute Samigelez” (17 or.) (2). Kasta eta ofizio bereziko pertsonaiak kantu honetan aipatzen zaizkigu ugarienik. Orduan datoz eskaleak, kirolariak, apostulariak, eta orduan du lanetik aski danbolinak. Beraz, festaburuan aintzindari diren pertsonaien aurkezpena egin dezagun.

(2) N. ORMAECHEA “ORIXE”: *Euskaldunak*. Facsimil de la Edición Príncipe, con prólogo, enmiendas y glosario de Justo Mocerua. “Editorial La Gran Enciclopedia Vasca”. Bilbao, 1980. Geure idazkian aipatzen ditugun poemako testu guztiak, Mokoroia Jaunaren argitaraldi honetatik hartzen ditugu.

1. ESKALEAK

“Eskaleak ba datoz pestân usaiera
beleak sarraskira doazen antzera.
Erri artara dute bereizki joera,
an aurkitzen baitute iñon ainbat txera” (19 or.).

2. IJITOAK

“Etxe igesi dabiltzan esku-kakoairi
ukatzen ditiete zintzur eta biri;
atean ez daroite esan ‘Agur Mari’;
garorik, sutillorik ez dute merezi” (19 or.).

3. ZUBIETAKO PONTXO

“Danbolin-soiñua da Amazkar'en bêra
—Zubieta'ko Pontxo urteroz errira—;
kabia aizatzen diten txorien antzera
etxe-barna garbituz aurrak atarira” (18 or.)

4. SALDITSEKO BELTXA

“An dute bertsolari Salditse'ko Beltxa,
ziri-bertsoak sartzen ez guztiz aketsa.
Artan ari izan balitz, ua bai Apeza!
makurrik sor baledi, usu zuzen leza.
Beñola gazteño bi bata besterena;
mutillak bidegabez eman etsipena;
Beltxak zorroztu zuen bere mî-eztena,
mutilla aizatu zizun Irati'n barrena” (21 or.).

5. GOLDARAZKO OTXANA

“Zaldabean ari da Goldaraz'ko Otxana,
Uharte'koan noizpait ikazkin izana;
bertsotarako ez du txarra gogoana;
bizkai-dantzaz ba daki jakiteko dana” (55 or.).

6. APOSTUAK

6.1. Epanelari: ZALDIBIKO OKERRA

“An Zaldibi'ko Okerra —agoten belarri,
(dindil aundiak) eta sudurra are larri—,
apustu guzietan au dute epailari;
auziak onek ditu ebakitzen garbi” (21-22 or.).

6.2. Balankariak: EZKURRAKO MAKIL

“Ezin-egonez an da Ezkurra’ko Makil
 —eskuetan beti du balanka biribil—;
 biâmon-âtsaldean ba du norekin bil:
 Antso’rengan ba duke arerio bipil” (22 or.).

ANTXO LABAINDARRA

Satai edo balanka Ezkurako “Makil”-ek eta Antxo Labaindarrak apostua jokatu ondoren, labaindarra gertatu zen irabazle. Ondoren “oitu-raz ario”, gorazarre hau eskaintzen dio Saldiseko Beltxa bertsolariak.

“Labain’go seme bizkor
 Gurutz Ansorena:
 ire goraipatzeko
 aski duk izena.
 Aiten aiten aritik
 zuzen atorrena,
 ez duk ik lotsatuko
 balankari izena” (49 or.).

ERATSUNGO KOXKO

“An da talogilea, Eatsun’go Koxko,
 kana t’erdi luze eskas, goiez-beiaz sendo
 —arbi-eraitekoan nonbait aziak jo—...
 talogiteko behintzat ba duke balio” (22 or.).

6.3. Pilotariak: ERRAZKINGO ZAMARGIN

“Errazkin’go Zamargin ez daukat âzturik,
 naiz esku-uska, naiz larruz ez baitu kiderik” (22 or.).

TARTIKO

“Betelu’tik Tartiko —pilotari maisu—” (22 or.).

6.4. Aizkolariak: URTXUPE BERUETEDO eta

GORRITIKO GASTESI

“Beruete’tik dugu Urtxupe aizkolari
 —enborraren gaiñean txori bat txantxari—;
 Gorriti’ko Gastesi or dugu begirari;
 egurgiten asteen, au duzu nabari” (23 or.).

Eta jokoen gora-beherak eta apostuen nondik-norakoak ematen zaizkigu aditzera.

6.5. Apostuak: BERUETEKO TXORTXI

“Batak urde ernaria, besteak artantxu,
 âl dunak âl duena bero du jokatu.
 Beruetetik Txortxik marka dizu urratu:
 artalde ta âria gal —loregei-bar buru— (50 or.).

PERU ETA ANKAMAKUR

“Beste zokoan dira Peru ta Ankamakur...
 Elkarrekin ba dute zenbait mintzo zuur;
 bat azeria bada, bestea da zakur;
 bata ankaz luze, baina bestê ez buruz labur.” (30 or.).

“Pestaburu” deritzan kantuan kanpotar jendeak du lehentasuna eta protagonismoa. Danbolina, bertsolariak, kirolariak, apostulariak eta abar. Jende xehea baina alaia, indartsua, beroa. Eta hauekin batera, festa-zurri, beleak sarraskira bezala, datozen eskale eta ijitoak, errealismo jakin baten lekuko. Eta jendaki hauek dira tradizioaren suari eusten diotenak, hauek usarioa bizi-arazten duten festa-jartzaileak, urterik urte.

II. ARTAZURIKETA

“Arta-zuriketa zuten gauez Errekalde’n...” (62 or.). “Literatur beila”. baten itxura zuen hartzen lanerako zen bilgura honek, eta bertan ahoz-aho hel-arazten eta transmititzen zenez gure herri-literatura. Herrikoak bertakoak edo dira kantuarien han-hemenka agertzen diren izaera bereziko beilariak.

1. Komedigile, zahar eta berri: DANBOLIN ZARRAREN EMAZTEA

“Aien artean, Danbolin zârraren emazte;
 mihiz arrotuko ditu ango zâr ta gazte,
 komeri zâr baten bidez emanik ikaste;
 naiz beste bat asmatzen, zâr ta berri, nâste” (81 or.).

2. Ehiztariak gezur kontari: JOANES EIZTARIA

“Jo-ta-ke ari ziraden: Joanes eiztari
 erdi-bearrean dago egin zûn einkari:”
 “Onako buru au —dio— basurde-ortzari
 nik kendua ditek... aurten il nunari” (63 or.).

BEKAIN EIZTARIA

“Ba du Bekain’ek, ark ez dun eiztari-adoia;
 begiak nora ditun, an du zizta doi-doia;

—eper, oillagor, naiz erbi— danean aldia,
etxean badu sarri mokadu guria” (66 or.).

3. Aipamen berezia, hala egokituta: MIKELA OTSANBELAKO

“Mikela Otsanbelako bai Andre zabala!
—bete dezakenik ez da ark utzi zun itzala—.
Maisuari agin zion erakus nindezala...
Jaunak oinbestegatik zeruan dezala” (86-87 or.).

4. Artuburuén lardaskatzaila: ZIMURRIO

“Zimurrio bat ba ginun goizero landetan
artaburuak urratuz oraindik esnetan;
—lasarik uzten zituen beti beazketan;
agerian beste iñoiz txorien pozetan— (63 or.).

Lana, dibertsioa eta eskola, hiruok bateginik artazuriketan. Egin behar-
raren egin beharrez lorturiko bizitz eta kultur batasuna. Poeman zehar
leku gehiagotan azalduko den naturaltasuna, arte konposatua, heziketa
globala. Etxeak berak familia barruko zeregin guztiak bere gain hartzen
zituen garaietako kultur adierazpen etxetiarrak.

III. GAZTAIÑARO

Bikote gaztearen historia aipatzen da, eta gaztain biltzean gertatu
bait litzan aipatu ere. Besteren aholkuz sartua omen kantu hau poema-
ren barruan (3). Orixerentzat kontagai honetako pertsonai nagusia izenik
gabeko herria bera da. Baina Gaztaiñaro kantuan leku gehiago dute
protagonistek, herri-mailako pertsonaiek baino. Hala ere, badago aipamen
bat, Orixek maisuki marrazten diguna, eta gaurko erretaula honetan lauki
bipila eskaintzen diguna.

1. Erruki-okelaren bila dabilen neskazaharra: MIKELA BORDA

“Ortzak zorrotzik, su-atzean da
Mikela-Borda baldana.

(3) “Si bien en estilo de epopeya no debe representar papel primario ninguna pareja enamorada —testigos Homero y Virgilio— condescendiendo con el público moderno he accedido a la petición de dos amigos, uno de los cuales me ha proporcionado hasta los nombres de esta pareja secundaria, pero que resulta importante. El personaje primario y principal es el mismo pueblo innominado”. ID., *ibid.*, Colección “Auñamendi”, 100 z., Zarauz, 1976, 69 or.

Amaika baba ta artopil bero
ango sukaldean jana...

Okotzaundia, begi-ezkela,
galbaia aiñeko ezpaiña;
ortzez ederra, agoz betea,
gaiñez dario mingaiña.
Oĩnak igesi, besoak zintzil,
koloka du bizkar-gaiña;
ipurdĩ, aldiz, galdu-eiñean:
orra neskazar liraiña..." (128-129 or.).

Gero *Eztaietan* agertuko zaigu pertsonai hau bera, dantzan ari zaigula.

IV. IRULEAK

Lihogintzaren nekeak eta penak ditugu kantagai: lanaren astuna eta aringarriak. Herri-literaturazko beila dugu berriro. Eta gorago *Artazurike-tan* esan dugunez, uztarturik datoz hemen ere lana, dibertsioa eta eskola. Gauza berezia bezala, kantu alaien eta kantu mingarrien aukera eskaintzen da. Eta ez da ahaztekoa bertan datorren kontapoesiaren ikuspegia eta antologia. Badu honetan kidetasun bat Jaurgainen eta Guerraren irizpideekin (4), gaur baladak deituriko piezetan.

Irri kantuetan badirudi bertako tradizioak agintzen ote duen, denen artean kantatzen direnez, bereizkuntzarik gabe. Baina kanpotarrek ekarritako piezak ere aipatzen dira, hauei ikasiak bait litzan. Ez dira kultur maila eta eskola haundiko artistak. Herri xehea dugu aintzindari berriro ere.

Pertsonaiei buruz esan dezakegu, herritarrak eta auzoerrikoak direla agertzen zaizkigunak. Eta hauetan bat, dirudienez, Orixeri gogoko egiten zaiona, hemen bezala *Eztaietan* kantuan berriro tartekatzen duenez.

1. Langile behartsuak: AZPIROZKO MARTTOLO

MIKELA BORDA

"Ondarrak xêatzeko ba dizu jotzaille:
Azpirozko Marttolo, maiz an dan eskale.

(4) J. JAURGAIN: *Quelques Légendes Poétiques du Pays de Soule*. In "La Tradition au Pays Basque", "Bureaux de la Tradition Nationale". Paris, 1899, 359-409 or. J. C. GUERRA: *Los Cantares antiguos del Euskera*. "Martín y Mena". Donostia, 1924.

Mikela Bordaren bat sortuko da ardazle.
Neska bera da, bere lana egingale” (138 or.).

Azpirozko Marttolo hau, kantu honekin zerikusia duen gaiean, “Arreoa erakustean”, han agertuko da berriro ere, zurtasunaren horniduraz ari denean:

“Naiko zurtasuna berak orni baitu,
Azpiroz’ko Mattoloz (sic) ezin iñola âztu.
Eskale gaixo onek bost illaun iretsi du
lio-jotzen! Garazi’k oge bat agindu.

Aren ezkon-ornian zenbat da arek joa!
Erruki-okelaz bat lan-galdezka doa.
Etxekal ibil, ez du galdu lan-gogoa;
gai da âl duna atxitzeko Mattolo zintzoa” (477 or.).

2. Emakume langileen suspertzaile: MAIÑAZI

Erdi-irrintzika asten da Mañazi gaillena,
ukondoa jasorik berotuz barrena.
Milla aldiz jasoko du jotzean armena.
Lio-xorta bukatzen ez dabil azkena” (137 or.).

Agerian dago Azpirozko Marttolorentzat duen abegi ona: ezin ahaztuzkoa zaio, maitasunez egiten dio aipamena, langile estimagarritzat jotzen du, eta Garaziren eta honen etxekoan errukia ezezik guztizko begirunea jaso du.

V. OLENTZARO

Guk aukeratutako pertsonaia izendun gutxi aurki daiteke kantu honetan.

1. Txerri-hiltzearen gaibarruan: ARAKIN POTXOLO

“Biâmonez dei dute arakin Potxolo;
beste arakiñik ez da auzo guzirako;
urtaroaz jan oi du amaika âmen goxo!
galtzen ertzetik sabel-zorroa dario” (179-180).

VI. IÑAUTERI

Festeak bere bidea darama, pertsonaia, ekintza eta ospakizunetan.

Baina tarteka-marketa hor ateratzen zaizkigu herri-maila xeheko pertsonaiak. Erliche haundirik gabeak, baina arretagarriak, ihauterietako umoreari atxekiak.

1. Urteroko bisitaria: MARI ANTONI OIARTZUNGO

“Mari Antoni Oiartzungo,
ez egun artan paltako.
Ark ere ba zun mugaren berri;
ta an izua artu zulako,
beti usmoka gain-ezpain arroz
sudur-zuloak gordeko” (212 or.).

2. Ardoketaria: ANTON KOKO

“Anton Koko’k mandoka dakar
beltza, barna berotzeko” (210 or.).

3. Txirula jotzen duena: IÑAZIO DANBOLIN

“Inazio Danbolin,
txirula garbitu ezin;
aiza ta ziztu, noizbait uxa du
tarteaz zedukan zikin.
Mortxil ordeaz arratzeaz du
urre gorritzko txin-txin.

Obeki zegola, agian,
andrearen belarrian,
Josepe Xipo’k esaten dio
ikusten duen guzian.
—Nik ez nian ijotorik artu
ezkondu nintzan goizean” (212 or.).

4. Zaldabai-jolea: MARIMIL DANBOLINENA

“Marimil Danbolin’ena,
zaldabai-jotzen onena.
Amalau txintxil, lau kana girgil,
txirrikaz jantzi du dena.
Igandero joz, larruak ez du
lizun-usai apurrena” (221 or.).

5. Dantzan gogotik: KASKAZURIREN OTXANDA

ANIZKO GANIX

“Kaskazuri’ren Otxanda:
ark eginen dio txanda;
eskuak bezain zangoak arin
ditula ager-naiean da.

Emakunde, ta, dantzatu bage
ua bein ere egon al-da? (223 or.).

“Janaldia bukatzean,
ezin-egona lurrean.
Aniz’ko Ganix dantzan asten da
oin batekin erpiñean.
Berak dantza, berak kanta,
almute baten gaiñean” (224 or.).

6. Jokoen estualdiak: XURIO larri aulkien dantzan.

“Estu da gure Xurio,
gerrikoa baitario;
an oztopatuz erori, eta
pagatzea dagokio.
Denen aurrean lotsa-bearrak
min aundîgo eman dio” (218 or.).

MARIENEO ILLARGI, antzarajokoan zilipurdika

“Mariene’ko Illargi
baten gaiñean da jarri.
Ezle ona arren, zilipurdika
larratza-barna du jaurti.
Bestên batek —azkena dedi!—
joko du lurrez ipurdi” (239 or.).

AIZARRENEKO MUXU antzarajokoan

“Aizarrene’ko Muxu
an dago, begiak irtu.
Beorra apaintzen ari delarik,
isatsez du milikatu;
ez, aurrena bestêk bezala,
isatsa tontortu balu” (239 or.).

DOMITXI IRURTEKO

“Igaz, Domitxi Irurte’ko,
arturik beor-ostiko,
ez zan agertu plaza agerira;
aurten or da bigarrenago...
Urkabe aldera doazi
agiñik âl duten lerro” (239 or.).

7. Aserreak: PERU ETA MATXIN

“Gure Peru eta Matxin,
mingaiña gelditu ezin.

Ardandegitik atera dira
 nor geldi txapelarekin.
 Burrukan eldu baiño lénago
 itzez luzaro dute ekin” (226 or.).

Aipatu gizakumeok festaren su-biztaile eta eusgarri ditugu. Jende alai, beroa, osasuntsua. Bisitariz, ardosaltzailez, artiestez eta parte-hartzaile suharrez honituriko ospakizuna “jainko txikiaren” oroipengarri.

VII. DENOK BAT

Oraingoan herritar ez diren pertsonaiak ditugu aintzindari. Ikazkinak, zerbait idealizatuz, noski, irudikatuak, gure kantutegiko abeslari bikain eginik. Neguko igande gauetan sukaldean zituzten mendigizonok, “bizi giñanen belarri, biotz,/pozten ipuiez ta kantuz” (255 or.).

1. Basagizonen andana: IRIONDO ATAUNGOA

“Guzien buru Iriondo da,
 Ataun’go seme prestua” (256 or.).

BELTXA

“Urrena Beltxa, Euskalerriko
 jakingai denen gordairu;
 buruan ipui ainbat ez, baiña
 sakelan ere bai diru.
 “Ikazkin beltzak sakela zuri”
 esana betetzen digu:
 aren andreak azi detzake
 izan dituen amairu” (257 or.).

IRUBE DONAMARTIKO

“Urrena Irube Donamarti’ko,
 Amerikati itzulia;
 ezkon-urtean il andrea an ta
 senti zun ezin-etsia.
 Geldi zitzaion diruaz, doi-doi
 pagatu zuen ontzia.
 Zeribait eldu bear, ta artu zun
 basagizonen bizia” (257-258 or.).

KOSKO

“Urrena Kosko, lén esandako
 epotx, arbiazi-joa.

Esaten baita ziza larrean
 bein nork ikusitakoa
 ez dala azitzen? norbaitek begiz
 geldierazi zun borroa.
 Lepoa lodi, burua txiki,
 ziza are eguterakoa” (258 or.).

ZARAUZKO LETE

“Aren urrena Zarauz’ko Lete,
 gain-zerran naiko egiña;
 beti agotan erabiltzen zun
 bere erriko txakoliña:
 —Bakio’koak zer balio-omen?
 Ixo Getari’ko miña—.
 Alâre, napar-ardoagana
 zun ezin-gordezko griña” (258 or.).

BUSTINZA MAÑARIKOA

“Gero Bustintza Mañari’koa,
 itz laburreko gizona,
 bere bizian baso-nagusi
 baten mendean egona.
 Mi-motelari bezala, kantan
 mingaiña aska zitzaiona.
 Saillean denek maitêna zuten,
 ain baitzizun oial ona” (258-259 or.).

OIARTZUNGO MITXELENA

“Gero, Oiartzun’go Mitxelena, lèn
 burni-olan ari izana,
 deabru gorri, gizabeltz, lana
 azala aiña alda zuana.
 Kontrabandoan erori ta, asto
 beltzarenak eramana;
 muga-lagunen isilla, apezak
 bezain gorde zedukana” (259 or.).

MATXIN LEKUONA

“Txokoan ixil, ba zan beste bat
 ere, kanta-zai zegona;
 goierritarra, buru-zuria
 azkeneko Ola-gizona;

aitona, bañan oraindik lerdén;
 bera, Matxin Lekuona.
 Kantuz asteko zorutzen zegon;
 entzungo duzu ziona" (282 or.).

Eta poeman bertan ematen zaigu gizakumeon egitekoa eta betekizuna:

"Atsaldea alai eman, afaldu,
 basorakoan gurera,
 bata bestêren urrena sartuz
 osatzen dute bilera.
 Berri ta kontu, ipui ta kanta,
 kolkoka dute beteak:
 bakarrago da txondarrak zaitzen
 basoan talogilea" (256 or.).

"Eleder an zan, belarri-erne,
 upiu ta bertsu jakin nai;
 sukalde artan laratzak aiña
 zekienik etzan nor-nai.
 Ango kontu ta kanta alaietan
 bat zan guzietan alai:
 Euskalerrria guzien Ama,
 elkar ezagutuz anai" (259 or.).

Euskaltasunaren zabalkundea, ikazkinen ahotik eta sentipenetatik. Nongoak diren ikazkinak, hango jendeei eta tradizioei dagokien kanturen bat jartzen die Orixeek ahotan. Zarauzko Letek P.M. Otañoren *Zazpiak bat* kantatzen du, Bustintza Mañarikoak Arrese-Beitiaren *Arbola bat*, Irube Donamartikoak Ademaren *Agur eta ohore Eskual-Herriari*, Oiarzungo Mitxelenak itsas gizonen bizitzaren berri kantuz ematen du. Bertako Mikel Elederrekin Iru bigaen zerga kontatzen du. Eta azkenik, Matxin Lekuona goierritarrak *Azkeneko ola-gizona* kantua. Eta Uhitzi euskal bazter txikia izanik ere, ikaskinek dakarte bertara euskaltzeletasuna eta beste bizibideen berri zehatza eta minbera.

VIII. AXURTARO

Zozo-mikoteak igaro ondoren, axurtaroko kontakizunak datoz poeman: Garazi Dohatsuaren ermitara ikusaldia, laisterka-apostua eta Anton Kokoren salerosketak.

Gure aukeraren araberako personaia berri gutxi egonik ere, bada bar aipamen berezia ongi merezi duena: Anton Koko, Erriberatik salerosketara datorrena. Azken batean, merkatal mailako harremanek gizarte mailan ekartzen dituzten ezagueren eta tratuen adierazgarri da.

1. Apostulariak: URRUTILMITXO KOSKO

Bata apostuaren galdezka are dena. Eta bestea, zelatan egon zena, Lekunberriko laisterkariaren markak ezagutzeko, segurutik jokatu asmoz.

2. Salerosketan: ANTON KOKO

“Atsalde-erdian etorri zaie
axurketari kokoa;
etzalekua Errekalde’n du,
amaika jendên zokoa.
Bi mandorekin —baten gainean—
zorroan dula zâtoa,
zuri ta neri, gogoz eskaintzen
bidean etor daroa” (317 or.).

“Orizu, kartzu, gariak eder”
euskera lardaskatzen du;
sudurra luze, okotza zorrotz,
odolik ezin uka du.
Koko geienak diran bezala,
ez da betazal gorrizu;
besoa bai beltz, kaizua labur,
esku eta lepo zaintsu” (317-318 or.).

3. Erriberako ibilerak gogoratzen: ZIMURRIO

“Sudurra igurtzi, begiak ertsi,
goibeldu bekoki latza;
aren bekaiñek iduri dute
eultzi biltzaillên arratza.
Ardo eraiaz gorritzen dizu
bakar-bakar daukan ortza;
oskarbitzen da, begiak izar,
aitu dularik arnasa” (319 or.).

Maisutasuna ezin ukatuko diogu Orixeri, zahatetik ardoa edaten ari den honen lauki hau ikusita: zeruraturik, begiak ñir-ñir, atsigenezko gainezkaldian arnasa ere galtzen duela.

IX. LETARI

Ez du aipatzekorik kantu honek, gure helburuetatik begiratuta.

X. ARTAJORRA

San Juan suaren eta sorginkeriaren ingurunetik pertsonaia bat dugu hemen aipatzekoa:

1. Sorginkeria: KATALIN SUTEGI

“Saillean ari zaie Katalin Sutegi:
sorgin biur ote-dan norbait bildurregi.
Agopetik esana gerta balaite egî,
Doniane-goizean galduko du begi” (365 or.).

Eultzia kantuan berriro egingo da honen aipamena.

XI. BELARREKOAN

Kontaeren barruan aipaturiko pertsonai arretagarriak badaude kantu honetan: apostulariak batik bat. Baina guz hemen poemaren garaian eta lekuan bizi diren haiek aipatzen ditugu, kondairetakoak utziz.

1. Lenean lagun: KASKAZURI

“Lanean lagun ‘Kaskazuri’ du,
larogeitsuko aitona...
Bere pausoan aitona ari da
arturik zelaigunea.
Zabal -ondoan atsedengune:
atsegin dan itzalera...
Zârrakin dauden ordûn, jakiña
gazte guztien joera;
ziri ta koipe, beartzen dute
ipuinen bat jalkitzero...
Arren, diote jalki dezala
Manex'en sega-apustua... (399-400 or.).

XII. EULTZIA

1. Songinkeria: KATALIN SUTEGI

“Erri-begian an dakusate
Mezara doan Katalin,
artajorretan esan baikenun
ote-zan ez ote sorgin.

Iruria'ko errekan, ausaz,
orduko lana du egin:
elkar orraztu, mintza ta asmatu
sorgin zârrago batekin" (442-443 or.).

DONAMARTIKO ATSOA

"Ola zeudela, Donamarti'ko
atsoa arri-jasa-billa:
Eiheramendi'n Etxegarai'ek
bai omen andre abilla.
Aren mendeko sorgintto bati
autsi baitio orkatilla,
ostu naiean joan zaiola
seaskan zeukan mutilla" (499 or.).

XIII. EZTAITEN

Lehen aipaturiko pertsonaiak ditugu berriro, noski.

XIV. EZTAIONDO

Ez dator, noski, gauza berririk guri dagokigun arlorako.

XV. AMONAREN HILETAK

Pare bat protagonista jakingarri badugu oraindik aipatzeko:

1. Begirale kritikoa: JOSEPE MOTZ

Ateratzean Josepe Motz'ek
—sakristau izana baitzen—
begi-zearka *Pater*-zaleai
gaiztoz die begiratzen.
—"Or ari dituk, dio kanpoan,
Pater noster lardaskatzen.
Olako otoitzik ez diat uste
Jainkoak dunik onartzen" (557-558 or.).

2. Behartsuen apaiza: BARAIBARKO APAIZA

"Aren xaldiak topa baleza
gizaki xarpil-jantzirik,

eskale zala oartu eta,
 aren parean geldirik.
 Ala zedukan gizagaisoak
 aspaldi erakutsirik.
 Apeza, azkenik, itsutu zan. Bai
 âl du zeruan argirik!” (566 or.).

Oker haundirik gabe, esan daiteke, Orixek erretaula honetan bi pertsonai dituela lehentasun bereziz marrazten dituenak: Azpirozko Martolo eta Baraibarko Apaiza. Hizkerabiderik goxoenak darabilzki hauen aipamena egiten duenean.

II

ERRETAULARI BURUZKO LITERATUR IKUSPEGIA

Erretaula honetan, hamabost hormairudi paratu ditugu, personaien andana luze bat aurkeztuz. Kondaira baten haririk gabe agertu ditugu, irudiok era estatikoan emanik.

Hala ere, hemen Uitziko entzuleentzat, bertako historiaren zati bat dira laukiok, hemen bizitutako jendeak. Eta, beraz, horitutako argazki zaharrak begien aurrera ekartzea bezala izan da erretaula hau gaurko uitziarrentzat; gogoangarri bat, berauei dagokien kondaira bizia uitzia-
 rrek berek jartzen dutela.

Gainerakoentzat, ordea, besterik da. Argazkion kondaira bizia ezagutzen ez dugunez eskuarki, poemaren izaerari amore emanez, erretaula estatiko honi literatur ikuspegitik begirada bat ematea izango da gure eginkizuna, datu ertenak batzu azpimarratuz.

1. ONDORIO XEHEAK ETA ZENBAIT DATU

1.1. Guk espreski izaera eta ofizio bereziko pertsonaiak aukeratu ditugu aukezpengai. Arruntak izateaz gainera, badute beste ezaugarriak ere. Gizartearen laugarren estratoaz arreta hartzeak, literatur mailan ere aukera bat eta gutizia bat suposatzen badu, Orixeren kasuan ongi nabarmentzen da hemen, laugarren mailako pertsonaiei dien txera berezia, eta beraz, kasta eta ofizio bereziei egiten dien aitorpena poemaren barruan.

1.2. Gure aukerari eutsiz, bildu eta sailkatu ditugun pertsonaiak 70 dira gisa honetakoak. Kopuru ondrosoa eta erretaula aberatsa.

1.3. Herriko zenbait ekintzetan protagonistak ditugu:

— apostuetan berak ditugu aintzindari: herri-kirolariak dira, batzuren batzuk ospea eta izen ona zutenak, batez ere bailara mailan.

— Lanordutako dibertigarri ziren teatro eta kantuak eskaintzerakoan berauek artista ezin hobeak ziren antzerki eta kantuen zahar-berritzean: errando, balada, kopla, irri nahiz negar kantu zela.

— Musika tresnak jotzen, eta dantza mota ugari dantzaten eta erakusten ere bai, hala behar bazen.

1.4. Izaera eta kasta berezikoak: eskekoak, etxeetan “erruki-aragiaren eta lanaren eske” agertzen direnak, etxearen goraipu eta alabantzetan, noski.

2. HERRITAR HAUEI BURUZKO LITERATUR ETA KULTUR IKUSPEGIA

Lehenago ere gai honen antzekoa erabili zuen Jokin Zaitegik *Euzko-Gogoa*-n, nahiz eta pertsonaien aukera ez zen gurearen berdina. Hark “Orixe”ren gizakume izengabeak” aipatu zituen, gizarte estratoak bereizten ibili gabe. Guretzat, ordea, helburu jakina zuen gizarteko azpimailetakoa gogoan hartzeak, gorago esan dugunez.

Bestalde, gizakumeon mintzaera eta jatorria dira bereziki arrasatearraren ikuspuntu. Euskaldun jatorria dute, on eta gaizto dituzu, muin eta mamizale gaietan eta modetan, baikor eta osasuntsu eta guztion gainetik fededun. Gure ikuspuntua, berriz, Zaitegik azpimarratutako balio horiek ukatu gabe, literaturaren bidetik daramagu.

2.1. Ez daude bi poesigintza *Euskaldunak* poeman: bata autorearena, kultura eta ikasia, behar bezalakoa; eta bestea jende xehearena, ezjakintasunez josia, traketsa. Orixek, ez ditu farregarri uzten izaera eta ofizio bereziko pertsonaiok zerbait kantatzen edo esaten dutenean.

Arlotekeriarik ez da nabari horien ahotan. Aitzitik, berauen ahotik sortzen dira bitxirik finenak askotan, tradizio jantzienaren eusle bait liran.

2.2. Orixe ez de erromantiko burges edo aristokratiko bat, *pathos* indartsu baten bila herrira datorrena. Bertakoa da Orixe: aiputan dabilen (5) eta modan dagoen gaia, euskal folklorea, hurbiletik ezagutzen duena, eta mundu etnografikoaren lekuko eta kontzientzia dena. Hala ere, berak ezagutzen du inork bezain ongi gaiaren bizitasuna, eta gizartean eredugarri ez direnen *pathos* eta indarra.

(5) “Folklore edo erri-jakintzazko poema egitea gogoak eman dit, folklore au baitago gaur aiputan”, “Facsimil de la Edición Príncipe”, 8 or.

2.3. Pertsonaion ahotan jartzen ditu Orixek poeman azaltzen diren herri-literaturako pieza asko eta asko. Txistulariek, bertsolariek, ikazkinak, artazuzitzaileak, iruleak, mutikoeak, artajorratzaileak, langile xaharrek jalkitzen dituzte hainbat bertso. Eta hauetan izaera eta ofizio berezikoak dira kantaririk aipagarrienak. Berauen ahotan dabiltzan kantu eta esaldiak dira piezarik bitxienak herriak gordetako altxorrean. Eta ateraldietan ere eremu horretan lantzen dira sakerik finenak eta bizienak.

Eta ez hori bakarrik: gure pertsonaiotako askori buruz esan daiteke ikazkinetaz Orixek esaten duena: "Berri ta kontu, ipui ta kanta, kolkoa dute bete" (256 or.); edota Beltxa ikazkileaz dioena: "...Euskalerriko / jakingai denen gordairu" (257 or.). Liburu biziak ikusten ditu Orixek herriko jendeetan, bereziki guk begiz jotako hauetan.

2.4. Lana, festa eta eskola elkaturik zihoazen garaietan, gure giza-kumeak eginkizun berezia bete ohi zuten gizartean: lanordutako dibertsioaren bizkorgarri, festa eta ospakizunetan protagonista eta animatzaile, tradizioaren zenbait alderdi alai eta arin erakusteko orduan maisu-maistra "gutxi pagatuak".

2.5. Azken batean, gure herri-mailan askotan gertatzen dena da, laugarren estratoko pertsonaiak direla gure bertsolaririk finenak, eta sekulan ez dugula eskertuko behar adinbat, herriz-herri dabiltzan eskale, langile ebentual, minero, ikazkin eta abarrek egin duten herri-literaturaren zabalkundea, kontsumo kolektiboa eta zabaldu duten prezeptiba ezin hobe (6).

Hau litzateke gure gaurko ikuspegia, izaera eta ofizio berezia dutenei buruz Uhitzirako taxutu duguna. Hau da guk Orixeren jendaki berezi hauei poemabarruan aurkitzen diegun literatur funtzionalatasuna.

Azkena: hala zioen J. Zaitegik bere aipatu lana amaitzerakoan: "Orra gizabarrok gizon gordin, euskaldun zintzo ta fededun zindo. Onelako zenitun gure arbasoak. Oien antzeko izango al dira oraingo ta geroko euskaldun xeiak!" (7). Poemako izangabe gizakumeak dituzten balio horiek ukatu gabe, eta gaurko geure helburuari eutsiz, apalagoa izango da, edota mugatuagoa behintzat, nik gaur Uitzin, mintzaldi honen bukaera, agertuko dudana apeta eta gogoa: "Egungo euskaldungoak estima dezala Orixeren literatur eredu, eta erabili ere bai, batez ere ikasien artean. Azal latzeko baina mami gozoko janari honetaz balia dadila gure idazlegoa. Harrobi ederra bait dugu beti Uitziko mezu bizi eta herrikoia zabaldu zigun Orixe idazlea, tradiziorik onena jaso nahi luketenentzat".

(6) Nire mintzaldi hau bakatutakoan, J. Haritschelahr eta J. San Martinek gogorarazi zidaten, nola R. M. Azkuek ospitale eta zaharren egoitzetan, hau da, laugarren giza mailako jendartean, eskuarki biltzen zituen bere kantuak eta herri-jakintzari buruzko gaiak.

(7) J. ZAITEGI: *Orixeren gizakume zengabeak*, in "Euzko-Gogoa", 1 (1950), 14 or.

FERMIN IXURKO ASTIZEN *PREDIKUA*

Uitzi, 1988-XI-27

Senideok: ez dugu ukatzen Nikolas Orixen-Orexan-jaio zenik, ez eta ere bataioa Orixeko bataiarrian hartu zuenik. Egia da, halaber, haritza ezkurreen gordea dagoela, eta zerua bataioan. Ordea, haritz bihurtzeko, denbora eta lur aproposak eskatzen ditu ezkurrak, eta orobat bataioak zeru bihurtzeko. Orain bada, Uitzin aurkitu zituen Nikolasek fedean, gorputz eta euskal-giroan hazteko behar zituen lur gizen eta haizeak.

Orixen lo egingo dute Nikolasen errautsek, baina hezur horiek hemen, Uitzin, izan ziren hezeen, bizkor eta zaluen. Gainera —esan dut— haren fede zein euskararen hazkuntz eta hezkuntzak Uitzikoak dira. Eskola, zer esanik ez; Uitzin ematen zen eskolarik ez baitzen bestetan ematen. Eta hemen, oharkizun bat heriko agintariei, errespetu haundirekin.

Eskolak eraiki eta abiarazi zituen Don Mariano Iriarte ta Otsanbelari, eskerronez, Uitzik jasotako marmolarria kendu beharrik ba al zen, Orixere-na ipintzeko?

Bi marmolarriak etzeudekeen txit ongi elkarren ondoan, Don Maria-no ongilearena lekutzen zelarik ere, hala nahi izan ezkeren, Orixerenak zentrua har zezan? Oker badiot, kristauak, barkatu. Oraintxe utziriko harira bihurtuz: behin esan: Nikolasen haurtzaro-gaztaroak hemen ziren garatu, eta edozeinek daki bizitzaldi horrek giza-bizitzean eduki ohi duen inportantzi izugarria. Goraki, ozenki esan: Nikolasen lehen hamazazpi urteak gureak dira.

Hau esanik, natorren Abendura, natorren Elizak, aterrunerik gabe, aldi honetan darabilen erasiara: “Zatoz Jesus Jauna, ez berandutu”. Erasia honek, Orixeren erregu baten gainean bi hitz esatera narama. Honela idatzi baitu Orixek *Jainkoaren Billa* deritzan liburuan, hots, bere Amandre-orde Mari-Axuntxi uitziarriari eskainian: “Bitartean, (hau da, Amandre Mari-Axuntxiri eskaini liburua zegieino), zenbat adiskidek eta lagunak eutsiazi diote nere biziari, bai beren otoitzekin, bai lurreko laguntzarekin. Eskerrik asko guziei, eta egin dezatela berriro otoitz, len-

bailen zerura nadin". (Iraizean bezala esan: Uitziko eliza liburutetan Orixeren Amandre-ordearen izena bestela heldu da. Bataioan Maria Ascencia paratu zioten. Geroago Ascensia irakurtzen da, eta, azkenik, Ascension. Behin ere ez, ordea, Maria-Asunción.

Jaio Maria Ascencia, mila zortziehun hogeitaz bederatziko Maiatzaren hogeitaz zortzian jaio zen, hots, urte horretako Igokunde jaiaz. Gure amak Mari-Axintxi esan ohi zuen). Amaiturik iraizean bezala esana, diot, ez dugula motiborik Orixeren eskakizuna, —lehenbailehen zerura zedin egin genezan otoitz, alegia—, literatur hutstzat hartzeko. Egia da frankotan bi mihiz mintzo ohi garela: lumarenaz eta bihotzarenaz. Bossuet bera, nahiz eta haren otoiz-liburuak zeruratzeko intziriz josirik egon, berak uste zuen baino itsasiago bide zegoen munduari. Bestek esana. Hola da. Halaz eta guztiz, ez dugu uste gezurretan ari denik, beste hau ere idatzi zuena hitzez-hitzez: "'bizi naiz, ez nigan biziz'. Ori esan duna Jesukristok bizi du; Jesukristorekin bat egiña dago. Eta ez badago gezur haundi da, olerkarien beste ainbeste bezala".

Niri gehiago eragiten dit Orixeren zeruratzeko lehia honek, berrehun orrialde mistikuk baino. Maizegi entzunik bainago, betiraundea, hor dagoe-la beti guri begira, eta, beraz, orainari heldu behar zaiola, orainari. *Quito-n Arrebarekin* deritzan liburuko azken hitzekin, eta, itxuraz, bihotzetikakoekin amaitzen dut prediku laster hau: "zatoz Iesus Iauna".

ORIXE OROITUZ (1)

Uitzi, 1988-XI-27

Luis Mari Mujika

Erdi giputz, erdi nafar,
maite izan duzu gure herri,
bertso sendoen egile
(hitzez soil, arimaz eri)
lelo gozoen andanan
kantatu eme Euskal Herri,
mistika eta fedea
“Barne-Muinetan” miretsi
(ah, aintzina egungoaz
etentzea ezin etsi),
amona Mariaxintxi-k
zinduan euskaran hezi,
hau onartu, bestea utzi,
hangoa, berriz, ezetsi
berrikeriei, batzutan,
mila arbuio zuk ta gezi,

Uitzi-n ta Orexaldean
ondu zenuen poesi,
hutsa, argia, sinismena
mintzo izkutueta senti,
euskara damaren zale
—herria ere maitemin—
beste guztiak utziaz
osatu ezkontza berri,
San Joan Gurutzekoa,
Teresa, Frai Luis (besterik?)
zure mintzagai garaien
neurri ta lagunkide egin,
joan zinen euskal hatsa
itzaltzea ikustezin,
oraina eta geroa
beude betiro zurekin!

(1) Uitziko pagadi batean, Orixe-ren omenaldi *egun berean*, eginiko poema.

BATZAR TXOSTENAK

EUSKAL LEXIKO ETNOGRAFIKOA-REN IKUSPEGI TXIKI-LABUR BAT

Donostia, 1988-X-28

Juan Garmendia Larrañaga

Arratsalde on denoi.

Gerorako utzi gabe esango dut, nere mintzalditxo honetan, ez dudala egingo, inola ere, nere ekintza baten gorespenik, inoiz entzun ohi den bezala; ez arranoak ere!

Euskal Lexiko Etnografikoarekin nere aspaldiko nahi bati erantzun txiki bat eman nahi izan diot.

Ekintza mota honetan nerea ez da aurrenekoa, ez dut neure zaletasunik; baina nere urratsen laguntzaile neronen ikerketa lanaren zati bat izan da. Behar bada ibilaldi motza, ez dut neure zaletasunik, baina nere makulukin betea.

* * *

Nere lan hau ezin liteke esan oportunismoaz kutsatua dela, ez alajaina!, baizik hitzaldi eta idatzietan behin da berriz agertua.

Adibidez, burdina gai nuela eta, honela mintzatu nintzen orain dela urte batzuk:

“Olak eskutatzea, gauregun gerta oi den beste antzeko gertakizun bat da noski, ta zergatikako berdintsuagatik. Baiñan lantegi aiek kondairara igaro baziren ere, bai beraiekin batera itz ugari aaztu eta bereala galdu, betiko bearbada. Eta gertakizun onek dakar, kezkarik gabe, izkuntza txirotzea, zoritxarrezko egi garratzean.”

* * *

Gizona, orokor ikusita, ez da bakartia, basamortuan ere —hau bereziki ibilbide antzera ikusi behar dugula ohartuz—, nortasuna elkarrearen barnean agertzen du. Elkarreak berarekin dakar *elkarritzeta hitza*.

Hau idaztean, bat-batean oroitzen naiz Julian Marias-en liburuetako baten irakurria, *La felicidad humana* izena daramana, hain zuzen: *Ni* hitza ezin da ulertu *zu* hitzik gabe, dio Mariasek. Eta nik esango dut, *zu* eta *ni* izateak elkarte berarekin dakarrela, txikia edo aberatsa, baina *elkartea*.

Gizona gizartea da. Beronen izateak elkarte darama. Azken finean ermitau bakartia ere lege honen baitan aurkitzen da.

Hau ikusirik esan dezagun gizonak bere garaiari erantzun egin behar diola. Garaiak beste garaia dakar berarekin, eten gabeko giro aldakorrean, hots, elkarrizketa aldakorrean. Ahaztu ezin dugun *elkarrizketa*, berriro ere.

Gure lan-ospakizunak, gure bizimodua, hitz baten esateko, ez dira gure arbasoen antzekoak, eta ez guk geuk atzo bizitutakoen berdinak ere, eta aldaketa honen mugimenduko gurpil barnean aurkitzen da hizkuntza, gizartearen elkarrizketa aldatzea, berritzea, bizitzaren eboluzioari erantzuna emanez.

Baina berritze hau *beti* —eta beti hau azpimarratu egiten dut— aberastasuna al dugu? Behin baino gehiagotan, baztertutako hitzen zuloa betetzea besterik ez ote dugu? Galderak dira.

Gauza orokorki ikusita, kreatibitateak, hizkuntza zabalduz, sorketa dakar; eboluzioak berriz, hizkuntza zaharra, berritzea.

* * *

Euskal Lexiko Etnografikoa, hiztegia al da? *Lexiko* aldetik begiratuta baietz esango dut; baina, hori bai, hiztegi berezi bat, etnografi/etnologi alor jakin batzuetan tinkatzen dena. Zabalean baino sakonean gehiago duen lana.

Hitzak berezko gogortasuna du, bakarkiak dakarkion gogortasuna, eta beharrezkoa du kateatzea testu bat lortzeko. Nolako gaia eta nahia, halako idatzia.

Adibidez, Artxiboko txartel edo fitxa baten ezinezkoa dugu Frantziako Iraultza nola eta zer izan zen adieraztea.

Honekin esan nahi dugu *Lexiko* honetan aurkitzen diren hitzak ez direla han-hemenka, bakarka eta bere esanahi zabalaren ezjakinean aurkitutakoak.

Jarrai dezagun.

Euskal Lexiko Etnografikoa zazpinatua doa, aurrerako bidearen argigarri. Hitzaurreak, sarrerak eta zazpi zatiek osatzen dute, eta hauen

izenburuak hauxek dira: Iñauteria; Baserria; Artzantza; Otarregintza, ihizkoa eta zumezkoa; Burdingintza; Ardazketa eta ehungintza; Zurgintza eta Heriotzea.

* * *

Nere ekintza honetan, igarotako mundu baten inguruan erabili ziren hitzak biltzen dira, batik bat.

Horrela ba, gaurkotasunean baino gehiago kondairan oinarritzen da. Ahaztutakoa jasoz, eta jasoz gogoratu edo ezagutu, gal ez daitezen. Eta behar bada, behin edo behin, berpiztu egikuntza aldetik.

Hau izan da nere helburua oraingo honetan. Galdu edo baztertu xamar aurkitzen diren hitz batzuk geureganatzea, birjasotzea.

Jarraian ohar gaitezen, atzo, egun eta bihar, gizona etorkizunari begira bizitu dela. Eta oroitu, ez ahaztu, gaur kondaira bezala begiratzen ditugun gizonak eta beraien gertakizun gehienak aurrera begira eginak direla.

Atzoko egunari ezarrita jaiotzen gara, igarotakoaren mundu baten zama dugula, eta ikuspegi honetatik, jakintza arloan, gaztetzen joan beharrean aurkitzen gara, nahita-nahi-ez. Eta biziaren aldaketan era berean aldatzen da hizkuntza.

* * *

Esaten nuen bezala da, mundu honetan ezerk ez dio ihes egiten aldaketari, eboluzioari, etorkizunak mugiarazten du gizakia.

“Todo se mueve, fluye, discurre, corre o gira.

Cambian la mar y el monte, y el ojo que las mira”, Machadok dioenez.

Hitzari, testuari eta bere testu inguruari buruzko ohar labur batzuk burutu nahi izan ditut.

Baina ni ez izan filologoa, ordea; gehienez jota ere gramatikalarari xume eta ez oso aurreratua izango nintzateke, eta hortaz jabetuta, zuhurtasunak ematen digun eskertu ezinezko laguntzaz baliatu naiz nere interpretazio ekintza arloaren barnean.

Eta zenbaitetan horren garesti ordaintzen den zuhurtasun hau, jendetasunaren adierazpen bezala erabiltzen dudana ezkerro, gogora datorkit zuelako askok ezagutuko duzuen eta zeremoniatako maixu ikasi zen Eliz gizon batek ematen zuen kontseilua. Kontseilu hau hiru arau hauetan bil zitekeen:

Aldaretikan ez irten; meza emailearen hankarik ez zapaldu eta zalan-zarik txikienarekin, belaunikatu.

Jarrai dezagun.

Arauaren/tematikaren barruan, irizpide etnografi/etnologiko bati jarraituz, hitzen ordenamendu alfabetikoa zaindu egin dut. Ez dut jarraitu Scarlattiren katu trebe lotsagabearen konportamendu axolagabea, diotenez teklatu gainean paseatuz osatzen bai zuen musika entzun atsegina.

* * *

Nere lanean arreta bereziz aztertu ditudan gizartearen ezaugarriak nabarmenetako bat, bizitzaren alorrik desberdinetan elkar laguntzeko presutasuna da eta izan da. Har dezagun kontutan, denbora-epe luz batean, bere izaera beretik sortutako instituzio batzuren inguruan bizi izan dela gizadia.

Elkartasuna, biziaren arau eredugarria da. Aintzinako denboretatik honantz, gizarte-bizitza gizadiaren konstantetako bat izan da. Gizarteak batasuna berarekin dakar eta baita ere gizakien arteko laguntza.

Guy Rocher-ek bere *Introducción a la sociología general* izeneko liburuan dioenez: “nortasun kolektiboak ematen dizkio gizarte bati bere ezaugarri berezkoak”.

* * *

Euskal Lexiko Etnografikoa liburura itzuliz: *Galafaixa* (Eskoriatza) eta *galapaixa* (Bergarako Elosua auzoan) alkartasun-frogak dira; honela ezagutzen bai ziren soroan, ez baratzean, egindako ereinketa-lanen ondorengo afariak.

* * *

Nere ekintza barnean esanahi garbiko hitzak aurkitzen dira. Beste batzuk, ordea, bere omonimia edo antzarengatik nahasgarriak izan edo gerta daitezke, eta azalpen bat eskatzen dute.

Argitasun hauen beharra, gaurregun erabiltzen ez diren hitzen kasuan haunditu egiten da, eta horietakoak dira *Lexikoa* osatzen duten hitz asko.

* * *

Euskal Lexiko Etnografikoa-n “*uztargilea*” hitz honela aipatzen da: “Abereak lotzeko erabiltzen diren uztarriak egiten dituen esku-langilea”. Hau behin eta berriz errepikatzen da. Baina *uztargilea* dugu ere kanpandorrerako uztarria egiten duen esku-langilea.

Eta hemen adieraziko dut ere *uztargile* bezala ezagutua izan dela ezkongilea —casamentero—, gaur egun esango genukeen bezala, bitartekaria, “intermediario”.

Arotz burdina gorritzea arotz/errementarien entretenimentua izan da. Denborapasa honetan burdina zati txiki bat hotzean hartu eta txingure gainean mailukatuz ea zeinek denbora gutxiagotan gorritu eta zigarroa berarekin piztu, jokatzeko zen.

Arotz burdina gorritzea joku azkarra eta laburra izan ohi zen; Baigorri entzutea izan nuenez, minutu batekoa, gutxi gora behera.

Arotz mailu jokoa, leku berean jasotako berrien arabera, arotz/errementarien jolasa zen hau ere. Jokalaria tente jarrita, heldulekutik heltzen zuen mailu pixua eta altxatzen saiatzen zen mailuaren buruarekin sudurra ikutu arte.

Zorroztura hitzak, besterik gabe, ez digu bere esan nahi aberatsa adierazten.

Nafarroako Arriben *zorrozture*, “Urrekategia” etxeko errementariarekin baserritarrek egiten zuten urteroko tratua izaten zen. Lanabesak zorroztu, gari, babarrun, belar, etabarren truke.

Belar-onak. Honekin bakarrik ez dut gauza haundirik adierazten nere *Lexikorako*. Han-hemenka, San Joan goizean bedeinkatzen diren lore-belarrak izen honekin ezagutuak bai dira.

Herri askotan sendagai bezala erabiltzen dira, ekaitzaren aurkako indarra ere badute eta San Joanugarretan amaitzen dute, sua bedeinkatuz.

* * *

Oharterazi nahi dut *Euskal Lexiko Etnografikoa*n badirela atal baten baino gehiagoetan azaltzen diren hitzak, dagokien izen buruari erantzunez.

Adibide bezala *zintzarri* hitza. Hitz hau *Iñauterian*, *Baserria*. *Artzantza* eta *Burdingintzan* aurki liteke. Baita ere Eguberrietako ospakizunetan eta mitologi arloan; alargunen baten ezkontzaren berri emaile ziren txantxa kutsuko zintzarri jotzeak edo zenzerradak, ahaztu gabe. Azkeneko gogorapen hauek *Lexikoan* aurkitzen denaren aberasgarri dira.

“(…) el cencerro, un artista del bronce (…). El son de la esquila había de variar en cada rebaño, y su martillo, al modelar el cencerro,

sabía encontrar el matiz con la seguridad de gnomo”. Felix Urabayenek egoki asko jasotzen du azalpen hau bere *El Barrio Maldito* liburuan.

* * *

Euskal Lexiko Etnografikoa nere ikerpen lan zati garbi baten ondorioa da bere osotasunean, salbuespenik gabe, eta ikerpen hitza hemen, hitz honek duen benetako esanahiarekin ulertu behar da.

Lekukoei entzuna, neronek jaso, neronek bizitua. Hirukote honek hornitu eta osatzen du nere lana. Biharkoari begira ere, hau da nere nahia; bide zahar eta era berean beti berria den ikerketa bideari jarraitzea, orain arteko lanaren aberasgarri.

Besterik ez. Mila esker denoi.

ALTUNAREN TXOSTENARI SARRERA

Donostia, 1988-XII-30

Fr. Luis Villasante

Euskaltzain adiskideok:

Joan den Maiatzaren 20an Argitalpen batzordeko bilera bat izan genuen, ohiz kanpoko, eta ene ustez aski gogoangarria izan zena. Gaia zen **Euskera** aldizkariaren birmoldaketaz. Probetxuzkoa izan zen batzarre hura batez ere gure egoeraren azterketa izan zelako. Bertan esan zen **Euskera** aldizkaria maila-beheititze bat jasaiten ari dela, bertan agertzen diren lanak askotan hala-holakoak direlako, noski. Gero galdetu zen ea non egon zitekeen gaitz horren erroa, eta erantzuna hau izan zen: hilereoko gure batzarreetan aurkezten diren gure txostenak ere ahulezia berberaz joak egotea.

Eta erremedio bezala proposatu zen euskaltzain osoei, abezeko ordena segituz, gure batzarreetarako txosten bana eskatzea.

Egia esan, Urriko batzarrean Joxe Miel Barandiaranen txostenarekin pentsatzen genuen txosten-erronda berri honi hasiera ematea, baina ustegabeen huts egin zigun, eta Abendurako utzi behar izan da errondaren hastea.

Alde batetik hobe, zeren abezeko ordenan lehenago baita A, B baino, Altuna Barandiaran baino.

Beraz, zerorrek, Altuna, duzu hitza. Eta eskerrik asko.

EUSKAL FILOLOGIAZKOAK, NAHAS-MAHAS

Donostia, 1988-XII-30

Patxi Altuna

1. Hamabi urte igaro dira iadanik Euskal Filologia ikaskuntzak sortu eta lehen ikasleei inoiz ikasi gabe genituen —sistematikoki bederen— ikasgaiak zabu-zabuka irakasten hasi ginenetik. Balekite zenbat estuasun eta larridura pasa genuen! Aurreneko labealdi haietako ikasleek gauza handirik ikasi zuten gugandik ez dakit; guk haien bizkarretik eta haien pazientziari eskerrak artean ez genekien hamaika gauza ikasi genuela, bai. Oraindik ere ateratzen zaigu han-hemenka puntu ilunik aski eta, argibide bila nora jo ez dakigularik, ikasleen izkutuan gordetzen ditugu, haien aurrean farregarri ez gelditzearren. Nori bere azturak erakusten dio ondorena eta neri, autore zaharren liburu artean ibiltzen bainaiz gehienbat, ondotoxo erakutsi dit beste gauza gehiagoren artean bat: behin eta berriz irakurria eta alde guztietatik ustez ongi miatua eta barrendua dudan testua, hurrengo ikasturtean berriro eskolan azaltzeko prestatzerakoan, erbia sastraka artetik bezala ateratzen zaidala ustekabea adizki zahar bat, esapide lehen ongi ulertu uste nuen bat, esaldi nahasi eta luze baten balio izkutu bat, edo beste zerbait, aurreko irakurraldi guztietan erreparatu ez nuena. Besteren hizkera, izan ere —eta hemen “besteren” izateak norberaren hizkuntza bera baizik ez du esan nahi, baina beste garaikoa, beste euskalkikoa— osin bat da, zeinen hondora ez baikara sekula iristen, hizkera delako pertsonaren barrenengo izatearen eta pentsabidearen errainua. Alde honetatik umilki aitortu behar dugu idazle zaharren liburuen azterlanean oraindik pix-oihaletan edo troxatan aurkitzen garela, gehien edizio kritiko zehatzak falta baititugu ikasleentzat eta irakasleentzat. Eta nahi duenak nahi duena esango du, auzoan eta Euskaltzaindiaren baitan, baina ni honetan Mitxelenaren iritzi bereko naiz: “*fac-simileak* nahiz berez eta bere arloan probetxugarriak izan, ez direla sekula izan ez izango edizio kritiko onaren ordain zuzen” (1).

(1) *Mitxelenaren euskal idazlan guztiak* (MEIG), IV, 113. or.

Hori gainera ez da gure artean filologiaren kaltetan bakarrik gertatzen, hizkuntzalaritzarenean ere bai, egungo eguneko hizkera, ahozkoa eta idatzia, bakarrik ikerturik nekez —hain nekez ere— aurkituko baititugu beste esapide ezezagun eta forma inoiz entzungabe haiek eta horrenbestez euskal hizkuntzalaritzak esplikatu ez ezik, planteatu ere egin ez dituenak. Eta aitortu behar da horrelakoak han-hemenka agertzen direla liburu zaharretan. Lafonek, esate baterako, XVI. mendeko testuetako euskal aditza ikertu zuelarik eta ez XVII. mendekoetakoa, ez dauka jasorik bere “Système”-an Ziburuko Etxeberriren zenbait adizki, aurreko mendeko autoreetan agertzen ez denik.

Nik gaur urte hauetan bidera atera zaizkidan bitxi politetatik hiruzpalau eskainiko dizkizuet, beste batzu beste baterako utzirik, mintzaldi hau luzea ez ezik arras aspergarria gerta ez dakizuen, horrelako gaiak ez baitira inor lilura dezaketena izaten eta eskolarako aproposagoak baitira hitzaldi baterako baino.

2. Tartasen pasarte bat oker irakurtzen ez badut —eta mila bider neure gogoan irauli ondoren iritxi naiz irakurketa honetara, gainerakoek pasarte hori guztiz ulerkaitz bihurtzen baitzidaten—, OEH-k Pierre d’Urteren hiztegian, 1725ean, lehen aldiz agertzen dela dioen hitz bati 59 urte —gutxienez— gehiagoko eta lehenagoko bizitza aitortu beharrean gaude. Honela dio Tartasek bere *Onsa hilceco bidia-n Gomendiosco lettra* deritzan hasierako atalean:

“Ezta hil Tristand d’Urtubie eta Clemant de Moneins çuré aita eta aita handien memoria.”

Neretzat ez da dudarik horko “aita eta aita” hori OEH-k *aitaita* formaz, eta bestez noski, dakarren berbera dela. Ezin daiteke beste inola perpaus hori ongi itzul, ez adi. Tristand eta Clemant dira aitaita handiak. Horrenbestez hitz hori osoagorik eta 59 urtez zaharragoturik ez ezik, Zuberoako hizkeraz ere testifikaturik dugu. Eta, gainera, forma horrezaz hor bakarrik, nik dakidala, euskal literatura osoan. *Hapax* genuke, alegia.

3. Euskal literatura osoan *hapax* zela bere ustez esan ohi zuen Mitxelenak San Inazioaren martxako “*naiz betor Luzifer deabrua...*” delako hura ere, kontzesiboa noski, *na(h)iz* batetik eta agintezko adizki soil-garbia bestetik, ia ezkon ezinak diruditenak, elkarrekin uztartzen dituenak. Ernaniko Iturriagak egina da martxa horren letra, dakizuenez, eta harritzekoa zen nola asma zezakeen eta non ikas hemeretzigarren mendeko idazle batek lehen sekulan agertzen ez zen esapide hori. Orain badakigu ez dela erabat *hapax*, kidea aurkitu uste baitiogu. Eta kidea aurkitu nik neronek eta, zer esanik ez, Mitxelenak eta zuetako anitzek behin baino gehiagotan irakurria —nola ezik!— genuen autorean eta liburuan: Ziburuko Etxeberriren *Manual*-ean. Honela dio 1406garren bertsoan:

*"Nahiz biz hala licela erran duquen guztia
Escribuen borratceco nigar bat duc asquia,
Ecen hain duc Iaincoaren mansotasun handia."*

Biz hori *izan* aditzaren agintezko 3. pertsona, Iturriagaren *betor*-en gisakoa, dela ez da dudarik. Bada haatik dudarik zein datekeen *biz* horren eta *licela*-ren arteko sintaxizko lotura. Puntu honetan gehiegi luzatu gabe, bi gauza esango dut: bat, Etxeberrik bestetan erabiltzen du *licela* ere balio kontzesiboarekin (ikus vv. 1238, 1243), gure *datorrela* ere-ren arras antzeko, eta gehienetan *balitz* ere esan ohi dugunaren baliokide, eta badirudi lapurteraz aski zabaldua zela —ez dakit gaur ere hala den—, Haranederrek ere bai baitarabil ("...hura gucia emanen darotçut, *licela* ere ene erresumaren erdia", Marc. VI, 23) eta gauza bera da apika Egiategi zuberotarrak beherago aipatuko dudan hamalaukoan dioen *lissan* ere. Hori bat. Bestea, *biz*-en eta *licela*-ren arteko loturari dihoakionez, eta gezurra dirudikeen arren *izan* aditzak bere mendeen konpletiborik eramatea, nik ez dut argibide hoberik aurkitzen eta bizkitartean daukat konpletiboa dela. Hori neretzat gaztelerazko "Aún siendo que (= aún dado que, aún supuesto que) así fuera" da hitzez hitz. Baina guzti honezaz zernahi ere den, *naiz betor*-ek badu gaurdanik bixkirik.

4. "Iritzi" aditza *nor-nori-nork* erakoa dela irakatsi izan da beti gure gramatiketan eta *iritzi* dut bezalako formak nekez jasan ditzakete gure belarriek, dirudienez. Beste testigantza bila ibili orde, eskuartearen ditudan Mitxelenaren paper zaharretatik jasoko ditut hor irakurtzen ditudan hitzok: "*deitzan, deitzot, deitxot*, etc., están por *deri*:- lo característico en vizc. es *-tx-*, mejor que *-tz-*. El part. vizc. ant. era siempre *eretxi*, frente a *eritzi* en otras zonas. Tenga en cuenta, aunque lo habrá visto ya, que es verbo trans. que lleva siempre obj. ind. (normalmente *-o-* de 3.^a pers.) y que significa tanto 'tener por (lat. *putare*, etc.)' como 'llamarse'..."

Hala al da, ordea, beti eta nahitaez? Irakurriko dizuedan euskal testua Mitxelenarena berarena da eta honek irakasten digu —irakatsi behar liguke— gure teoria-usteak bat direla maiz eta gure praktika-azturak bi. Begira zer idatzi zuen 1955ean eginiko film baten kritikan: "Besten aburuak beste, goazen gauzei apur batez geure begiz, betaurrekorik gabe, begiratzera. Egunean eguneango kritikak, nork nahi daki hori, *ez du zuzen irizten* askotan, ez gehienetan ere beharbada" (2).

Erantzuna edo arrazoia, nahi duzuen, erraza da eta nornahiri bururatuko zaio: "hor *iritzi*-k ez du ez 'tener por' ez eta 'llamarse' esan nahi". Noski, baina zergatik irakatsi izan dugu beti, hortaz, *nor-nori-nork* motakoa dela beti eta ez bereizketa egin: *A* esan nahi duenean, bai eta *B* esan

(2) MEIG, I, 135. or.

nahi duenean, ez? Gainera *ez du irizten* perifrasiak da eta ezin zitekeen, horren ordez forma sintetikoa erabil, hau nahitaez *nor-nori-nork* erakoa baita.

5. *Nor-nori-nork* erako adizkiak direla eta, Haranederren esaldi bitxi batzu datozkit gogora. Iparraldekoek dute hitza, ea bere euskalkian bitxi diren ala ez, gurean bai segurki. Entzun itzazue honako hauek, haren *Itun Berritik* hartuak:

“Eguiaz eguiaz darotçuet erraten: ecin daguique Semeac deussere bere ganic; ez du eguiten Aitari eguiten icusten dioena baicen” (Jo. V, 19).

“...aspalditic hura icussi nahia cen, ceren hainitz gauça aditu baitcituen hartaz erraten eta esperantça baitçuen icussico cioela cembait miracuillu eguiten” (Lk. XXIII, 8).

Horko “Aitari eguiten icusten dio-” eta “icussico cioe(n) eguiten” horiek azpi egituran honako bi perpaus hauek dituzte dudarik gabe:

[norbaitek egin] + [norbait ikusi]

eta ez da inondik nabari nola ager daitekeen azaleko egituran *nori* sintagmarik, Haranederrek ez baitu inoiz esaten “Aitari ikusi diot” edo antzekorik, gaurko zenbait euskaldun hitz totelek bezala.

Beste esaldi hau ere, mendebaldekoen belarriei eskuarki “zuri aditu dizut” esaten dugulako hain mingarri ez zaien arren, goiko bi horien sail berean sartu beharrekoa da lapurtar baten lumatik jalkia delarik, hauek “zu aditu zaitut” esaten baitute, eta Haranederrek ere bai, noski. Ikus, beraz:

“Jauna, norc sinhetxi içan du guri erraten aditu darocutena? (Jo XII, 38) (Errom. X, 16).

Hemen ere azpi egiturako bi perpausak hauek dira:

[guk erran] + [gu aditu]

eta ez, noski, [guri erran], ez baitu esan nahi “guri erran” digutela: guk erran dugu eta haiek aditu. Nondik ageri da, beraz, *nori* sintagma azaleko egituran? Gaskoinaren edo eragina ote?

Ikus nola itzuli zituen, aldiz, hiru pasarte horiek Leizarragak eta nola diren latinez:

“Eguiaz eguiaz erraiten drauçuet, ecin daidi Semeac bere buruz deus, *erran nahi da*, baldin ikussi ezpadu Aitá obratzen” (Jo. V, 19) (“...quidquam, nisi quod viderit Patrem facientem”).

“...ecen aspaldi çuela, haren ikusteco desira çuen, ceren anhitz gauça ençuten baitzuen harçaz: eta sperança çuen cembeit signo ikussiren çuela harçaz eguiten” (Lk. XXIII, 8) (“et sperabat signum aliquod videre ab eo fieri”).

“Jauna, norc sinhetsi vkan du gure hitza, eta...?” (Jo, XII, 38) (“Domine, quis credidit auditui nostro”?).

Bistan da Leizarragak latinezko —eta gerkerazko— testua ez duela justuki eta hitzez hitz eman, aldaturik baizik, nahiz zentzu orokorra ongi gorderik, lehenean eta hirugarrenean; eta “harçaz eguiten” pasibo gisa erabilirik bigarrenean.

Horien datibo bitxi hori agertzen ere zaigu, beste arrazoi bategatik noski, badaezpadako pasarte hauetan:

“Eadem quippe mensura, qua mensi fueritis, remetietur vobis” (Lk. VI, 38).

Haranederrek: “...ecen cebonec neurthuco duçuen neurri beraz neurthuco çaitçue”.

Leizarragak: “...ecen neurtzen duçuen neurri beraz, neurthuren çaitçue çuey-ere aldiz”.

“In qua mensura mensi fueritis, remetietur vobis” (Mk. IV, 24).

Haranederrek: “...cer ere neurriz neurthu baidiequeçue bertcei, eta neurri beraz neurthuco çaitçue cebei ere”.

Leizarragak: “...cer neurriz neurturen baituçue, neurturen çaitçue”.

Hemen latinak eragin die biei, dirudienez, datibo hori —*zuei neurtu*— erabiltzera, “vobis remetietur” haren guztiz antzera: bigarren testuan, halere, Markosenean, Leizarragaren “neurturen baituçue”-ri Haranederren “neurthu baidiequeçue bertcei”-ri baino hobe irizten diogu, hau esatera ez baitu latinak bortxatu.

6. Zenbait sintagma inesiboren balio kontzesiboa ez dakit inongo gramatikatan jasoa dagoen, Euskaltzaindiaren beraren orainengoan ere ez, oso oker ez banago. Han irakurtzen dugu: “Biziki produktiboa gertatu zaio hizkuntzari kasu inesiboaren -n atzizki hau” (3). Eta aipatzen da lekua, denbora, iharduera, modua adieraz ditzakeela. Halere beste hau itzuri zitzaigun. Mitxelenak hain usu erabiltzen zituen “bere txikian”, “bere exkaxean”, “bere laburrean”, “bere nagian eta ustelean” eta abar ditut gogoan. Ia beti *bere* dute lehen osagaia eta bigarrena, berriz, konnotazio txarra eta gutxigarria berekin duen adjetibo bat, hau inesiboan joaten delarik, noski. Agian bigarren hau horrelakoa izatea ez da beha-

(3) *Euskal Gramatika. Lehen urratsak-I*, 358. or.

rrezko, “bere handikerian ez da lorea bezain ederki jazten” ere esan baitaiteke, baina *handikeria* ere ez ote da konnotazio txarrekoa, *-keria* atzizkiak erakusten duenez? Balio kontzesiboa dutela diot, “bere txikitasuna gorabehera” eta abar parafrasea baitaitezke. Gaztelerazko “en (medio de) su pequeñez” (= “pese a su..”) eta antzekoen kutsua dutela? Eta zer?

7. CiriQuiain Gaiztarro jaunak 1961ean *Los vascos en la pesca de la ballena* argitaratu zuen eta Mitxelenak urte bereko EGANen (4) liburu horren iritzia eman. Liburu egileak ezin isil zitzakeen, gaia zena zelarik, Ziburuko Etxeberri bere *Manual Devotionezcoaren* bigarren zatiaren “Itsas-soco biayetaco othoitcen araldea” delakoan arrantzaleentzat eta konkretuki “Balea çaleençat” paratu zituen bertsoak. Mitxelenak iritzia ematera-koan hortik hizpidea harturik, agerian ipintzen du nola Ziburuko Etxeberri ezin hobeki berezten dituen itsasontziko hiru kargu hauek: “burjesa” edo ontzi jabea, “buruzagia” edo patroia eta azkenik “pilotua”; eta gero honela dio: “Eta Etxeberri ziburutarra aipatu dudanez gero, egileak 20gn. orrialdean dakartzan bi bertso aldatuko ditut hona “Balea hill ondoco esquerrac” deritzan zatitik hartuak:

Ecen çure baithan tturroñ batec etsaja (sic!)

Vrrutic ici deçan nahiz dela hangaja.

Zer esan nahi ote dute?”, galdegiten zuen ondoren Mitxelenak. “CiriQuiain jaunak galdatu zidanean, ez nuen jakin zer esan eta orain ere lehengoan nago. Inork garbituko ote lituzke?”.

Inork ez zituen nonbait garbitu —saiatu bai, garbitu ez, gero esango digunez—, bada hamasei urte geroago “Euskal literaturaren kondairarako oinarriak” deritzan artikuluan (5) berriz ere bertso horietara itzultzen da, bestek eskaini ez zion argitasuna berak aurkitu nahirik; alferrik ordea, ia lehengo egoeran utzi baitzuen auzia. Honela zioen bigarren artikulua honetan: “Etxeberri Ziburukoaren *Manual*-ak badu zatitxo bat, balearen arrantza dela eta nahikoa eta gehiegi nahasia... Cfr. *Manual Devotionez-coa*, Bordelen 1969, 156, bertso pare hau, batez ere, “Balea hill ondoco eskuerra deritzan otoitzean” —eta berriz aldatzen ditu bi bertsoak, puntu txiki batean lehen ez bezala, ordea—:

Ecen çure baithan tturroñ batec etsajac (sic!)

Vrrutic ici deçan nahiz dela hangaja.

“Ez da hitz kontu soila”, dio gero, “bestetan ageri ez den *hangaja*-rena batez ere. Bertsoa bera makur dabil. Lehen lerroan bi silabako hitza falta du, *ecen* eta *çure baithan*-en bitartean zihoakeena. Bigarrenaren

(4) MEIG, III, 58. or.

(5) MEIG, IV, 77. or.

hutsa aisekiago senda daiteke, *vrutic*-en ordez *vrutitic* irakurtzearekin. Hain arrunta den haplografia genuke beste hainbestetan bezala, errudun bakar. Badakit Don Manuel Lekuona eta Justo Garate saiatu direla, nor bere aldetik, okerrak zuzentzen, baina saio horiek ez naute asebetetzen, kontentagaitzegia naizelako agian. Ez genuke, noski, horrela ibili beharrik *Manual*-aren beste edizioaren bat ezagun bagenu, nik behintzat ezagutzen ez dudana. Lehenbizikoak Axular eta Guillentena izan zituen “*examinataille*” 1626an”. Honaino Mitxelenak dioena.

Entzun dezagun otoitz osoa:

Iauna, ditutçula esquer eta laudorioa
 Million eta million baño guehiagoac,
 Ceren eguin darocuçun liberalqui gratia
 Idequitceco handien arrañari bicia.
 Gure indarrac etciren deus hunenen aldean,
 çure fauorea dugu sentitu combatean,
Ecen çure baiathan tturroñ batec etsajac
Vrrutic ici deçan nahiz dela hangaja.
 Hala guri ere eguin darocuçu dohaña
 Ventçutceco itsassoan den sendoen arraña.
 Leorrera dakharquegu eguinic sarraquía
 Bici cela aztaparraz cebillan ihicia.
 Hala dugu naturaren miraculluz bazterra
 Ohoratcen, longoicoa, çuc ducula esquerra.

Aurrera baino lehen galde diezaiogun geure buruari zerk galerazten zion Mitxelenari bi bertso horien zentzua atzematea, aski sineskaitza baita, hitz bat izan ezik gainerako guziak aditzen zituenez gero. Lehen lerroak falta duen bi silabako hitza gorabehera, aise aditzen da zer esan nahi duen: “Pues en tu presencia un ratoncito a los enemigos...”. Bigarrenaren lehen hitza *vrutitic* baldin bada, azkena bakarrik du ezezaguna; eta ezin itzul, halere, horko *nahiz* horrek hasera ematen dion kontzesiboraino bederen? Gezurra dirudi, baina hala da. Erraza dirudi itzultzen, baina ez da eta zailtasuna, ene ustez, *ici deçan* horretan datza Mitxelenarentzat. Bai ote? Ondo garbi dago zer den *ici deçan*! Bai, baina ez.

Gatozen lehenera. Justo Garateren saioa ezin aurkitu izan dut eta zuetakoren batek ezagutzen badu eta non dagoen esaten badit, bihotzez eskertuko diot. Don Manuel Lekuonaren proposamena (6), Mitxelenak

(6) LEKUONA'tar Manuel: *Idazlan guztiak*, 8. *Euskeralojia*, 452. or. Ene deia entzun eta Patxi Urkizu adiskideak ekarri dit —eskerrik asko— Justo Garaterena (BRSVAP, 1963, 281-282. or). Honen iritzia jakinerazteko aski da proposatzen duen itzulpena hemen ezartzea:

“Pues en tu casa un turón al enemigo,
 desde lejos lo atemoriza, deseando sea comestible”.

Mitxelenaren sinezkaiztasunak bazuen zergatik!

gogoko izan ez zuena, hau da: a) lehen lerroak bi silabako hitza falta du —hau Lekuonak idatzi zuen lehenik— eta hitz hori *nola* juntagailu konparatiboa da; beraz bertsoaren lehen hemistikioa “Ecen nola çure baithan...” zen, Lekuonaren ustez. b) Bigarren lerroak ere silaba bat eskas du eta *hal* falta du; hots “*ici hal deçan*” behar luke izan. c) *Vrrutic* dioen lekuan *urruric* behar luke, hots “*gratuitamente, sin motivo*”. d) Azkenik *hangaja* zer den ez daki, “a cuya averiguación habremos de renunciar por hoy”.

Mitxelenak ez diosku damurik zerk ez duen lau puntu hauetatik asebetetzen eta zerk bai, baina garbi dago Lekuonaren *nola* lehen lerroan ez duela maite, ez baitu aipatzen ere, baizik soilik idazten “lehen lerroan bi silabako hitza falta da, *ecen* eta *çure baithan*-en bitartean zihoakeena”, *nola* aintzakotzat hartu ere gabe. Gero ikusiko dugu ezin har zezakeela. Bigarren lerroak falta omen duen *hal* ere ez du Mitxelenak gogoko, hori esaten ez duen arren *vrrutitic* proposatzen baitu *vrrutic*-en ordezt, *hal*-entzat lekurik utzi gabe, ez eta ez du ere, beraz, Lekuonak nahi lukeen *urruric* maite. Azkenik *hangaja*-rentzat ez dute argibiderik bata ez besteak.

Nik gaur dakarkizuedan bi bertso horien irakurketa berria beranduxko dator Mitxelenari atsegin izango zitzaion ala ez jakiteko, baina kontent izango naiz baldin zuei hala bazaizue. Hona hemen.

Lehen lerroak bi silabako hitza falta duela eta *ecen*-en eta *çure baithan*-en artean falta, hain zuzen, hori garbi dago bientzat. Neretzat ere bai. Hitz hori Mitxelenaren ustez, ez eta nerez, ez da *nola*. *Nola* izango da, bada? Ohar zaitezte ondoko adizkia —Lekuonak *ici hal deçan* suposatzen duena— juntagailu horren mende gelditzen dela. Orain bada, zer da euskaraz *Ecen nola... ici hal deçan*. Eta ez bakarrik *hal* gabe Etxeberrik *ahal* esango zukeelako, baizik gainera eta batez ere *nola* konparatiboa eta *deçan* subjuntiboa —“*Así como... puede espantar*” itzultzen du Lekuonak berak— ezina delako. Hor falta den bi silabako hitza zein den garbi dago, ene ustez, eta otoitzak berak erakusten du. Ohartzen bagara *çure baithan* dioela eta otoitz guztia hasierako *Iauna*-tik dagoela dindilika eta hari zuzendua, ez dirudi desegokikeria hiru lehen distikoen ondoren berriro *Iauna* errepikatzea, ondoko beste hiruren ondoren ere *Iauna* ez baina *longoicoa* baitio berriro azken distikoan. Hori batetik. Bestetik otoitz horren aurreko eta ondoko ehun bertsoan bila ibili eta lau aurkitu ditut honela hasten direnak: “Hala, Iauna,...”, “Bañan, Iauna...” —azken hau bi bider— eta honako beste hau gurearen txit antzekoa: “Çure baithan dugu, Iauna,...”. Beraz ez deritzat desegoki “Ecen, Iauna, çure baithan...” dela suposatzeari lehen lerroaren lehen hemistikioa.

Eta bigarrenarena? Lekuonaren *Vrruric ici hal deçan* ez nahi eta *vrrutitic* proposatu du Mitxelenak, adizkia zein izan daitekeen esan gabe, ordezt, eta isiltzeaz beraz *ici deçan* gogoko ez duela aski garbi adieraziz.

Diodan lehenik, nahiz hau txikieria den, izatekotan *vrruititit* beharko lukeela izan, ez *vrutitit*, Ziburuko Etxeberriek darabiltzanak *urrun* eta *urruti* baitira —*vrruitian*, *vrruitira*, *vrruiticotara* eta *vruiti* bera soila aurkitu ditut han-hemen—. Baina hori, esan bezala, huskeria da eta *vrruititit* onartzeko debekurik ez luke Mitxelenak. Nik bai, ordea. Izan al daiteke, izan ere, horrela? Adizkia zein den erabaki behar dugu lehenik eta adizkiaz Mitxelenak ez digu zipitzik esaten. Horrez gain, ez digu —berriro diot— lerro eta erdi horren itzulpenik eman, adizkia makur eta eri ikusten duelako, ene ustez.

Eta badu zergatik. Nola izan daiteke *ici deçan* zuzen, izan ere, osagarri zuzena edo objetua *etsajac* delarik, eta ez *etsaja*, Lekuonak azken hau eman zigun arren, eta Mitxelenak berak ere bai hamasei urte lehenago, testua “züzendu” nahirik eta objetua adizkiaren moldera berri- turik adizkia objetuaren moldera berri- turik eta zuzendu beharrean? *Etsajac* baitzegoen zuzen eta *deçan* oker, eta ez atzekoz aurrera; *deçan* behar zen zuzendu eta *etsajac* bere hartan utzi, bigarren artikuluan Mitxelenak egin zuen gisan. Bi lerro horietan ezer garbi badago, hauxe baitago: makurrak, txikiak edo handiak, bertsoen lehen hemistikioan daudela, ez bigarre- nean. *Etsajac* ongi dago, beraz, eta *deçan* gaizki; *deçan* behar du gutxie- nez Etxeberriren hizkeran.

Baina horrenbestez gutxi irabazi dugu. Zer da, izan ere, *ecen ...ici deçan*? Lehen bezain subjuntibo da *deçan* eta lehen *nola*-rekin bezain gaizki ezkontzen da orain *ecen*-ekin. Juntagailu hau, guztiok dakigunez, konpletiboa izan daiteke, nahiz kontsekutiboa (*hain...*, *ezen...*), nahiz kon- paratiboa (*...ederrago ecen ez...*), nahiz kausal-esplikatiboa, baina zeinnahi balio duelarik nekez aurkituko dugu adizkia subjuntiboan duelarik, are gutxiago baldin bere balioa, pasarte honetan bezala, kausal-esplikatiboa bada. Horiek horrela direla *deçan* ez baina *deçaque* zor zaio, ene ustez, bertso horri eta, Lekuonak *hal* eskatzen zuela oroiturik —eta “puede espantar” itzultzen—, aitortu behar ez zebilela guztiz oker. Horrenbestez bertsoak lehen hemistikioan exkax zuen silaba irabazi baitugu *deçan*-en lekuan *deçaque* onarturik, ez dut gehiago Mitxelenaren *vrruititit* beha- rrezkotzat jotzen eta Lekuonaren *vruric*-en aldeko naiz; eta hala nintzen, egia esan, Lekuonaren artikulua duela egun batzu ezagutu baino lehen ere.

Hona, beraz, nola atera ziren bi lerro horiek Etxeberriren lumatik, ene ustez:

*Ecen, Iauna, çure baithan tturroñ batec etsajac
Vrruric ici deçaque, nahiz dela hangaja.*

Eta zer esan nahi dute? Edozeini egingo zaio harrigarri, neri ere bai hasieran, zer arraio egiten duen hor, itsasoan eta baleen artean, *tturroñ* batek, arratoin txiki batek, alegia. Ez da hori segurki arratoinen bizitokia.

Gero ohartu nintzen bi lerro horiek inondik ere metafora bat edo, nahiago baduzue, aipamen izkutu bat zirela, antzinateko —Greziako nahiz Erromako— idazleek maiz goratu izan zuten arratoinen edozer gauza desegiteko eta edozein jende ikaratzeko ahalmen galgarriaren oihartzuna. Hona zer dioen Pliniok, adibidez: “Plurimi (mures) ita ad Troada prove-niunt et iam inde fugaverunt incolas”(7). Eta beste pasarte batean, Teo-frastok lehenago kontatua bere eginik: “Theophrastus auctor est in Gyra insula, cum incolas fugaverint, ferrum quoque rosisse eos (mures)”(8). Ezagunagoa da, noski, Biblian ere agertzen den Senakerib erregeaz Hero-dotok kontatzen duena: nola eraso omen zuen Egiptoko erregea eta honek Vulkano jainkoari laguntza eskatu; nola gau berean arratoin samal-da bat oldartu zen asiriarren etzalekuetara eta hauen erredolen hedeak eta gezien sokak marruskatu zituzten, eta nola biharamon goizean izki-luez ezin baliaturik ihesari eman zioten.

Hortaz zer? Zer esan nahi dute bi lerro horiek? Hitz bat gelditzen da oraindik itzulpena pixka bat, ez asko, galerazten duena eta Mitxelenak ez Lekuonak argitu ez digutena: *hangaja*. Ez da zer pentsa gaizki idatzia dagoenik, bi lerro horien hutsak eta okerrak, esan bezala, hasieran bai-taude, ez bukaeran. Bestalde, bai Mitxelenak lehen aldian eta bai Lekuonak gero, aldatu zuten bezala testuak lehen lerroan *etsaja* balio, ezin jakin genezakeen segurantz osoaz nori zegokion *hangaja* izatea, tturroi-nari ala etsaiari. *Etsajac* dio, ordea, pluralean, eta hainbestez badakigu tturroina dela *hangaja*. Diodan bidenabar *etsajac* / *hangaja* bertsoaren bukaeran, *-jac* eta *-ja* puntuan ditugularik, guztiz ohizkoa dela Etxeberrigan —eta Oihenart kendurik gainerako guztiengan—, hor bertako *laudo-rioa* / *guehiagoac* bikoteak berak irakasten digunez. Zer da, beraz, *hanga-ja*? Lhandek ez dakar hitz hori, itxura horretan berean ez behinik behin; bai ordea *handigai*, *handigei* eta neure buruari galdegiten diot, fonetikako legeren bat gorabehera, gure *hangai* ez ote den beste horren laburdura. *Handigai*-ri Lhandek ematen dion esannahia ezin hobeki datorkio gureari pasarte honetan: “de belle venu” esan nahi omen du, hots, xotila, polita, itxura ederrekoa.

Hona azkenik zer esan nahi duten bi lerro horiek ene ustez. “Balea atzemateko gure indarrak ez ziren deus, harenak handiagoak ziren, zure mesedea somatu dugu, Jauna, harekin borrokatzean” kantatu baitu poe-tak aurreko sei bertsoetan, orain konparazio baten bidez hori horrela dela agertu nahi du: “bada zure baitan, Jauna, arratoin txiki batek, xotila izanik ere, aise (dohainik) ikara ditzake etsaiak. Guk bezala; txikiak izanik, arrainik sendoena azpiratu dugu, Zuri eskerrak”.

(7) *Historia Naturalis*, l. X; LXV.

(8) Hor berean, l. VIII, LXXXII.

8. Bigarren artikulua horretan berean dioenez, Mitxelenak ez du ongi aditzen Eztebe Hirigoitik “In laudem authoris” eginiko latinezko zenbait bertsoen zentzu zehatza. Bost distiko dira guztira

IN LAVDEM AVTHORIS

Nuper eras viridi redimitus tempora lauro,
 Sed cedro laurus te veniente fugit.
 Nobilis est laurus, sed quantum sydera vincunt
 Terras, tam cedro laurus et ipsa minor.
 Aequora qui sulcant debent tibi plurima, naues
 Quod tua fecit eis ingeniosa manus.
 Quas furor ingentis Neptuni, saevius et quid
 In gremiis foveant terra fretumque simul
 Non hominum livor mordax abolebit: at ipsae
 Etcheuerri cum nomine semper erunt.

eta hiru lehen distikoak bere paperera aldatu ondoan honela dio Mitxelenak: “Eta honaino, ustez, esan-nahia ongi jaso dut; ez dut, haatik, garbiro ikusten zer zor zioten ontziek Etxeberriri eta honen esku abilari (jaioari, trebeari, nahi duzenari). Ontzigile zelarik, ontzigintzan partaide izanik, egin zituelako? Ala, horrezaz landa, ontzigintza nolazpait ere hobetu zuelako?”. Baina goazen aurrerantz esan eta azken bi distikoak kopiatuz gero, honela bukatzen ditu Etxeberriri dihoazkionak: “Besteak beste (eta besteei ez die inork erantzunik eman galdera nik duela hogeit urte egina dudalarik), zergatik eraman behar dute ontziek (*ipsae* ontziak dira, noski) Etxeberriren izena? Hau zutelako jabe eta kito?”.

Nekez aurki dezakegu Etxeberriren bizitza hobeki ezagutu gabe Mitxelenak egiten dituen galderen erantzuna. Guk Hirigoitik dioskuna dakigu soilik. Mitxelenaren galderak berak, ordea, ez dira taxu eta molde berekoak. Lehenik dio: “ez dut, haatik, garbiro ikusten zer zor zioten ontziek Etxeberriri eta honen esku abilari”. Ez dira ontziak Etxeberriri ezer zor diotenak, itsas gizonak baizik: “Aequora *qui* sulcant...”, eta zor diotena ere —“plurima” Hirigoitiren ustez— zergatik zor dioten poliki ematen du poetak aditzera: “naues quod tua fecit eis ingeniosa manus”; zure esku trebeak, alegia, ontziak egin dizkielako. Mitxelenak gehiago jakin nahi luke, guk ere bai, baina nork erantzun beste galdera horiei? Hirigoitik ez diosku besterik: Etxeberririk ontziak egin dizkie eta itsastariak zordun zaizkio.

Gero beste galdera bat egin du Mitxelenak azkenean: “... zergatik eraman behar dute ontziek (*ipsae* ontziak dira, noski) Etxeberriren izena?”. Zer da Etxeberriren izena eramatea?, galdetzen dut nik neure aldetik, ez baitakit zer galdegin nahiko zuen Mitxelenak, baina Hirigoitik ez dio hori justuki; honek dio soilik harrez gero itsas ontziak Etxeberriri-

ren izenarekin batean izango direla: “at ipsae Etcheberri cum nomine semper erunt”; alegia, lapurtarren gogoangarrian ontzigintza beti Etcheberriren izenari lotua geldituko dela, ontzi (berriak?) egin dizkienez gero hango arrantzaleei.

9. Etcheberrik ez zigun, nik dakidala, hamalauko edo sonetorik utzi damurik. Ezagutzen dugun zaharrena Oihenartena da, Zalgizen goratzarretan ondua. Hamalaukoak jatorriz euskarazkoak ez direla esan beharrik ez dago; Italian sortu ziren dirudienez, Berpizkunde garaian. Haiek eta gaztelera-zkoak ezagutzen zituen gutxienez Oihenartek, haien erara berea egin zuenean.

Horren goresmenik ez dut hemen egingo, ez baita hori hitz hauen xedea. Hori entzun nahi duenak irakur bitza Mitxelenak idatzi zituen lerro haiek: “Poesia landu honetan Oihenartek utzi zigun alerik bikainena aukeratu behar banu, [...] hamalauko hau bereziko nuke”. Eta beheraxeago: “Ongi merezi du beronen egileak adiskide zenari opa dion ‘erramu-boneta’”.

Ni bestetara noa. Hamalauko horren egitura ezinbestean (?) honelakoa da: lau bertsotako bi ahapaldi eta hiru bertsotako beste bi. Puntua, zer esanik ez, Oihenarten neurtitz guztiena bezalakoa, silaba eta erditakoa. Eskema berriz honelakoa: ABBA / ABBA / CCD / EDE. Hona osorik:

Nabusi lehenek lan berri guzietan
Anhitz elhesari iardiresten dute,
Hatsarrea zeren emaiten baitute,
Zein erdia baita gauza gehienetan.
Ban' are dutenek beteginzarretan
Ezartzen lan hura gehiago bute
Ezen ez eskasik utziten balute,
Ed' urhent-peiturik zenbait eretzetan.
Halakotz hik, Zalgiz, Eskaldun Poeta,
Burura behar duk erramu-boneta,
Zeren, nola baihaiz Parnason gainean
Bederatziz ahizpez maiteki hazia,
Heiek erakatsiz hik, gur' adinean,
Burutar' eman duk bertzek doi-hasia (9).

Zenbat silaba du bertso bakoitzak? Gaztelera, ongi dakizuenez, hamaika behar dute izan noraezean. Oihenarten hauek, aldiz, hamabi dituzte, zenbait bertsok ikusi batera beste kopuru bat dutela diruditen

(9) MITXELENAK (MEIG, V, 56. or.) dakarren eran aldatu dut.

arren; kontutan eduki behar baitira poeta hark beharrezkotzat ezarri zituen sinalefa eta elisio legeak; ezarri eta berak bete, noski. Hala lehen ahapaldian *guzietan* hiru silabatakoa da eta *gehienetan* lautakoa, bietan bokal aurreko *-i- yod* bilakatzen delarik, seigarren bertsoko *gehiago*-an ez bezala; eta berebat hamabigarren bertsoan *-i a-* silaba bakarraz ebaki behar dira. Horrez gain hamalau bertsoek zesura dute erdi-erdian, seigarren silabaren ondoan, alegia.

Hala al dira, ordea, nahitaez euskarazko hamalaudunak? Halakoak izan behar al dute? Geroztik egin direnak halakoak izan al dira? Nik hemen garai eta euskalki desberdinetako bospaseiren berri emango dizuet soilik, euskal hamalaukoari zerbait ebakuntza edo sendakuntza komeni ez ote zaion zeurok ikus dezazuen. Eta har dezagun hasteko Larramendiren *Amalaudún* delako hura —hala izendatu zuen berak—, “Españarren anciñaco hizcuntzan” egina omen dena:

Nor, goi Lenén, izán da, garr-orí
Piztú devaná? ausartzí, edó onesgún?
Ausartzi; ordeá fiñ: onets, indardún.
Amodió ausárt zan, ta onésle-ausartzí.
Etzeván aberéc usté egotzi
Zeuré ausartzián cerbait icigún:
Cégocan gustú batí (etzán mindún)
Zuré onesgún chingártzen zanari.
Auxé, escutagái zeuré Esposarén,
Garturíc irtén zan ain biciró,
Non arraió batí da berdindú.
Ta chimistá ain beró oní, ceñarén
Polvorác, mirets dánean luzaró,
Balarén indarrá ción fidatú. (10)

Diodan lehenik eskema Oihenartenetik pixka bat aldentzen dela, honena ABBA / ABBA / CDE / CDE baita. Puntua ere bai, Larramendik aski baitu azken bokala (*-í, -ro, -ú*) edota bokala gehi kontsonantea (*-ún, -rén*) hoscide baldin badira. Hori bai, puntua beti azentuduna.

Eta silaben kopurua? Larramendik ez zigun utzi, nik dakidala, bertsoaren silabak kontatzeko legerik; haren bertsoetan gertatzen diren fenomenuetatik atera behar ditugu, hortaz, hark praktikan betetzen zituenak, eta lan hau ez du inork egin, nik dakidala. Konkretuki elisio eta sinalefak beti egiten al zituen, Oihenartek bezala, ala Etxeparek eta bertsolariek bezala batzutan bai eta bestetan ez?

(10) Hau ere MITXELENAgandik (MEIG, I, 216. or.) hartu dut.

Hamalau bertsoak ongi begiratzuz gero, ohartzen gara hamar silabatakoak direla hiru, eta hamar baizik ezin izan ditzaketenak, gainera, ez baitago lekuri elisio nahiz sinalefarako. Hauek dira: lehena, hamargarrena eta hamaikagarrena. Horrenbestez pentsatu behar dugu gainerakoek ere, besterik dirudien arren, hamar silaba dituztela, hartarako beharrezko diren elisio-sinalefak eginik; eta aitortu beharrean nauzue horiek eginez gero, guztiak hamar silabatako gertatzen direla. Gauza batek harritzen gaitu: herri poetek ez bezala, egin daitezkeen elisio-sinalefa guztiak egiten dituela Larramendik, egitea edo ez egitea poetaren gogara utzi gabe. Beraz Oihenarten legea betetzen du. Ezagutzen al zuen Oihenarten legea ala biak heldu ziren, nor bere aldetik, lege horren ezagutzera eta betetzera, eta hizkuntza erromanikoetan bezala euskal poesia ikasian ere lege bera ezartzera? Ez dakit zer erantzun.

Horrela ikusten dugu bigarren bertsoan *-ná au-* eta *-tzi e-* eta *-dó o-* silaba bakarrean urtzen dituela. Orobat hirugarrenean *-tzi or-*; eta horrez gain *-deá* ere silaba batez ahoskatutik. Laugarrenean berriz *Amodió ausárt* lau silaba baizik ez dira; *-dioau-* batean ahoskatzen du, beraz; *ta -o* eta *-le au-* ere batean. Gauza bera egiten du gainerakoetan, bi azkenekoetan *dánean* bi silabaz eta *ción* silaba batez ebakirik. Fenomeno hau Oihenartengan ere gertatzen da, *joan* eta *zuen*, esate baterako, inoiz bi silabatako eta inoiz bakarreko baitira Mauleongo poetaren neurtitzetan.

Hamar silabatakoak direla esan dut bertso guziak. Esan dut ere ordea, azken silaba azentuduna dutela guziek, guziei ezarri baitie Larramendik berak gainean arrasto txikia. Horrenbestez azken silabak bi balio zituela eta, hamaika silabatakoak egin ote zituen bere ustez? Ez litzateke harritzeko; euskarazko honekin batean utzi zigun gaztelerazkoak hala ditu, noski, eta biek eskema bera dute gainera.

Orain arte esanak gatz-pikor batekin hartu behar dira eta ez erabateko sineskizunak balira bezala. Hamalauko horietan gertatzen dira horiek, baina hamalauko horiek bi baizik ez dira eta ezin ditzakegu horko legeak noranahi zabaldu. Besterik egin izan balute edo guri besterik heldu izan balitzaigu, izan zitezkeen agian bestelako egitura ez, baina bai bestelako eskema, bestelako silaben kopurua eta bestelako —Larramendirenak bederen— silaben konta legez paratuak. Izan zitezkeen, bai, baina guk ezagutzen ditugun bi bakar horiek esan bezalakoak dira. Bi hamalauko eta nork bere eskema, nork bere silaben kopurua!

Har dezagun orain Egiategirena, “huscaldun Etchéco andériari” eskainia. Eskema ezagutzean inork pentsa ez dezan nik deitu dudala hamalaukoa, baina izatez ez dela, esan behar dizuet berak deritzala “hamalaórduna”. Hamalau bertso ditu, bai, baina zuek esan zinez hamalaukoa —sonettoa, alegia— dei dezakegun. Ikus:

Margaita Laïdoré hotzés dut assetzen
 dudano Zouri haren obra eskentzen,
 bere jakinas nahis zu eré jakintu
 bihotzécoac déréitzu heben eskentu.
 Etchen dussula dio, soure sorthu hona
 berséric beré sorthiac eman esteiona
 bihotza diano gorago essiés sorthia
 nontic gutic liroan behardunen athia
 nola eskélégoa lissatekian necaturic
 Lissan eré Lurra hen ppressias arhinturic
 ari da, nahis celia essarri Lurrian,
 gussiac diradian aberatz goure herrian
 Gor deno berari bérser bethi oro beharri
 honki Eguinéztas datéké hil artio Egarri.

Begi bistan dago distikoz osatu duela hamalaukoa, lehengo beste bien eskema arras aldatuz. Hamalaukotzat jo behar al dugu? Olerkiak hamalau bertso izatea aski bada, bai. Baina aski al da?

Silaben kopuruari nagokiola, badakizue zein maiz gertatzen diren zubereraz bokal erditzeak; *etxia*, *mendia* eta horien antzekoetan, bokal bat beste baten aurrean gertatzen denean, hitzak dirudien baino silaba bat gutxiago izatea, edo bederen izan ahal izatea. Horrek biziki eragozten du edo galerazten silaben kopurua zein den asmatzea. Hamalaurdun honetan gauza bera gertatzen da. Bi lehenbiziko bertsoak, halere, garbi-garbiak dira, esan nahi baita elisio-sinalefarik, ez bokal erditzerik, jasaten ez dutenak. Hobeki esan, bigarrenean *-bra es-* elkar zitezkeen eta batean urtu, baina lehena hamabi silabatakoa baita noraezean, badirudi bigarrena ere kopuru berekotzat jo behar dugula, sinalefa hori bazterturik. Hirugarrena eta laugarrena ere bortxarik gabe ekar daitezke kopuru horretara, aski baita *zwere* eta *bihotzecwac* bi eta lau silabaz ebakitzea. Ondoko zortzietan bortxa handiagoa eragin behar bazaie ere, malgutzen dira nola-hala kopuru horretara. Ez, ordea, bi azkenak, moraleja gisa emanak eta gutxienez hamairu silaba dituztenak.

Bi azkenok herriak egunoroko hizkeran zerabiltzan esaerak edo alegi antzeko beste olerki batetik hartuak dirudite. Bi arrazoigatik: lerro bakoi-tzak bi zati dituzke, lehen zatia —*Gor deno berari* eta *Honki Eguinéztas*— sei silabatakoak direlarik eta danera hamabi aise gainditzin dituztelarik.

Mitxelenak EGANen (11) argitara zuen transkripzioaz baliatu naiz eta hutsegiteren bat somatu uste bainuen, Diputazioko Liburutegira jo

(11) MEIG, I, 231. or.

nuen fotokopia eske, Mitxelenaren hitz hauetaz fidaturik: “Gipuzkoako Diputazioko Liburutegiak erosi berria du esku izkribu bat, Eguiateguy delako horrena”. Baina nolakoa ez zen izango nere nahigabea, handik erantzun zidatenean zoko guziak ongi miatu zituztela eta han ez zela halako esku izkriburik. Hor aldatu dudan testu horretan bi dira ene dudak, hemen dauden zuberotarrek argi liezazkidaten nahi nituzkeenak: bat, seigarren bertsoko *berséric* hori ez ote da *berséri*; eta bi, zortzigarren bertsoko *gutic* ez ote da *guti*. Hor berean *athia* delakoa ez dakit ez ote den *axia* edo.

Zernahi ere den, ikusten duzue eskema bederen erabat berria dela eta silaben kopurua, bertsorik gehienetan behintzat, Oihenarten hamalau-kokoa bera den arren, ez dugu Egiategirenean zesurarik aurkitzen beti silaba jakin baten ondoan.

Gatozen mende honetako poetetara. Hiruren hamalauko bana hautatu dut, aski delakoan. Gauza bat aitortuko dizuet, sinetsiko didazuela-koan: hautatu ditudan hirurok ezagutzen nituen lehendik, bai, baina ez nituen inoiz elkarrekin berdindu eta ez ditut neure xederako ongi zetoze-lako hautatu. Ez. Neure xederako ongi zetoze-la orain ohartu naiz, artiku-lu honetarako abespeluan edo iritzira hautatu eta gero, xeheki aztertu ditudanean.

Lizardiren “Yaun errukiorra” deritzana da aurrena. Eskema Larra-mendirenaren berbera du: hots, ABBA / ABBA / CDE / CDE. Hona:

Txerrenek lardaskatuzko loidi iguingarrian
narras dut gogo: zere iduriz sorturiko
anima garbia; zere eskuek yantziriko
soiñeko zuria... Yauna, ogen egin nuan!

Lor-atsekabe larriak sortu zitun nigan
ogenak; miñago baita eztizkoa baiño.
Beldurrez ninduzun, Yauna, banekialako
tximist-ortzirien yabe zu zeundela goian.

Ta, zure zigorbidezko oiñaztarri larria
usterik, yo dizut begiz ortzia, izu-izuan...
Etzenidan, Yaingo on orrek, eguzkia yaurti!
Etxenidan uka ere berorren argia!
Errukizko izpia zeneriodan, artean,
ezin-agortuzko Maitasun-Iturri bizi!... (12)

Puntua ere Larramendirenaren antzekoa du, aski pobrea. Elisio-sinalefak egiteko edo ez egiteko Sabino Aranaren legeei lotzen zaie: hitz

(12) LIZARDI: *Olerkiak*, Erein, 1983, 17. or.

baten azken bokala eta ondokoaren lehena bokal berbera bada edota, desberdina izanik, euskal diptongoa osatzen badute, elisio-sinalefa nahi-taez egin behar da; ostera ezin egin daiteke. Hartara hamalau bertsoak neurri bereko gertatzen dira. Zenbat silabatako? Ez hamabiko, ez hamai-kako, orain arte ikusiak bezala —Egiategi gorabehera—, baizik hamalauko; beraz hamalau bertso olerkiak eta hamalau silaba bertsoak.

Bide batez ohartu zarete ere agian bi hemistikio dituela bertso bakoitzak, zesurak zortzigarren silabaren ondano zatitzen baititu guziak. Oker esan dut, guziak ez, gezurra badirudi ere; bi azkenetan ez da hori gertatzen. Hauetan seigarren silabaren ondano dugu pausaldia. Izan al daiteke hori horrela, Lizardi zen bezain forma gordetzaille zintzo baten-gan? Bada halaxe da. Azkenik diodan hiru bertsoan —2., 3. eta 9garre-nean— zesuraren lekuan berean gertatzen dela elisio nahiz sinalefa.

Hurrengoa Miranderena da. Mitxelenak oso gogoko zuen eta duela bi urte Deustuko Errebalidan ipini zien Euskal Filologia bukatzera zihoa-zen ikasleei aztertzeko. *Eresi* du titulua. Aski ezaguna da, baina ezaguna-goa izatea merezi luke. *Aineza gal bizia...* hatsbeherapen eginez hasten da lehen ahapaldia. *Ainendi hil...*, oihu sarkorrez jarraitzen da bigarrena. Eta *ainitza gal...*, ikarazko deihadarrez luzatzen hirugarrena. Forma aldetik arreta handiz landua da, eskema lehengo guzietetik aski urrundua duen arren. Hona:

Aineza gal bizia goiz batez
Iskiludun, ixil eta zutik
Gudian, lur zahar hunen maitez,
Mendietan etsaien eskutik.
Ainendi hil gazterikan, nihaur
Ikurrinik et' ikurrik gabe,
Ezpainetan othoitzik ez, burhau
Itzalik ez, baikor, ez herabe.
Ainitza gal hats, arima, odol
Hiretako, ene jainko-eidol
Zaharra, Lur!, mendi-gudu baten,
Iguzkiek inguruz inguru
Nire soin haur, berriz sor haiduru
Hiretan lo, garrez jo lezaten. (13)

Beraz, eskema orain arte beste inorena ez bezalakoa da: ABAB / CDCD / EEF / GGF. Besteak —Egiategi salbu— bost puntuz baliatu dira; Mirandek zazpi erabili ditu, lehen eta bigarren ahapaldian ez baititu

(13) Yon MIRANDE: *Poemak 1950-1966*, Erein, 81. or.

puntu berberak —bi— gorde, besteek bezala. Horrez gain bertso bakoitzak hamar silaba baizik ez du eta halere zesura dute beti laugarren silabaren ondoan. Elisio-sinalefa hiru lekutan bakarrik egin zezakeen —beste inoiz ez baitira bi bokal elkarren buruz-buru aurkitzen— eta halere ez du hiruretarik behinere egin: ikus 9. bertsoan *-a o-*, eta 10. *-o e-* eta *-o e-* berriz ere. Olerki gehiago aztertutik ikusi beharko litzateke baduen ala ez Mirandek legerik elisio-sinalefen gainean.

Azkenik, eta ezinbestean beste asko utzirik, Alfonso Irigoyenen bat dakart, liburua edozein orrialdetan zabaltu eta suertatu zitzaidana (14). *Urratsik urrats* du izena. Hamabi silaba du bertso bakoitzak eta zesura gainera zazpigarren silabaren ondoan. Entzun:

Gogo gurea dago iratzarririk,
haizetara begira gose ta ernai,
izan garen segida izateko zai,
etorkizun sendoa erakarririk.

Europako herri hau ez dago lasai,
ez da nahi ulertu, atsegin ezta,
asaldaturik daude mutil da neska,
andar jotzea noizko galduko da, ai!

Zati bitan mozturik garratza kezka,
Frantziak du erdi bat, Espainiak beste,
egin artean libro zoririk ezta.

Guduaren errotan egun da aste
urratsik urrats goaz luze laburrez,
Euskal Herria beti daukagun gazte.

Bi lehen ahapaldiak elkarrekin erka baditzagu, ohartuko gara aurreko poeta guztien moldea urratzen duela horietan, lehen ahapaldiko puntu bat bigarrenean gorde eta bestea berritu egiten baitu, eskema honen arabera: ABBA/BCCB. Hiru bertsoetako beste bi ahapaldietan silaben kopurua eta zesuraren lekua lehen esanak dira: hamabi eta 7/5, baina puntuari nagokiola ezin diot igerri zer egin nahi izan duen Alfonsok eta nahiago nuke berak gero esango baligu. Hona nondik datozen ene zalantzak: sei bertso horien azken hitzetatik zein dira hoshide? Bat eta hiru —kezka eta ezta— bai, noski; baina beste lauetatik zein da zeinen kide? Konkretuki zein da *laburrez*-en kide? Seguruenik *beste*, eta orduan eskema DED/FEF litzateke.

(14) IRIGOYEN Alfonso: *Herrian gara bizi*, 75. or.

Begi kolpean ikus ditzazuen sei hamalauko horien elkarren antzeko puntuak eta antzeko ez direnak, hona eskema batean bilduak guztien bereizgarri nagusiak:

	<u>Oihenart</u>	<u>Larramendi</u>	<u>Egiategi</u>	<u>Lizardi</u>	<u>Mirande</u>	<u>Irigoyen</u>
Eskema	ABBA ABBA CCD EDE	ABBA ABBA CDE CDE	Distikoak	ABBA ABBA CDE CDE	ABAB CDCD EEF GGF	ABBA BCCB DED? FEF?
Silaben	12	11(?)	12(?)	14	10	12
kopurua:	(6-6)			(8-6?)	(4-6)	(7-5)

Ez al da “demasa” honenbesteko anabasa? Zer esan behar dute noizbaiteko euskal Literatur Prezeptiba edo direlakoek euskal hamalaukoaz, nahasketa horren aurrean? Hamalau bertso dituztela eta hortik aurrera nahi duenak nahi duen eran egin ditzakeela, nori gogoak ematen dion gisa? Hobe genuke arau eta lege eta molde jakin batzu onartu, eta batere onartzekotan molderik zaharrenen aldeko nintzateke ni, Oihenartenen eta Larramendirenen, italierazko eta gaztelerazko jatorritik hurbil-^ten daudelako, besteak beste.

BESTELAKO TXOSTENAK

GAZTELERAREN *COMO* JUNTAGAILU POLISEMIKOAK EUSKARAREN BAITAN IZAN DITZAKEEN ORDEZKOEN PROBLEMATIKA: 1. SUBORDINAZIOAREN ESPARRUA

*Igone Zabala Unzalu
Juan Carlos Odriozola Pereira*

Hizkera/idazkera teknikoaren inguruko zenbait gogoeta

10. Sarrera orokorra
11. Gaztelerari buruzko bibliografia
12. Euskarari buruzko bibliografia eta zenbait ekarpen berri
 - 12.01. Adizki jokatua + *-(e)n* atzizkia + *bezala*
 - 12.0.1.1. Berrikustapen bibliografikoa
 - 12.0.1.2. Sorrera-mekanismoa
 - 12.02. Izen-sintagma + *bezala*
 - 12.03. Partizipioa + *bezala*
 - 12.04. Aditz-izena + kasu-marka + *bezala*
 - 12.05. *X + ez + bezala*
 - 12.06. Laburpena
 - 12.07. Adizki hipotetikoa + *bezala*
 - 12.08. *Bezalako* duten perpaus konparatiboak
 - 12.09. *(en)n + modu/era/gisa + adlatibo*, *inesibo* edo *instrumental-marka*
 - 12.10. Izen-sintagma + *genitiboa + modu/era/gisa + adlatibo* marka
 - 12.11. *Bezain/beste, bezainbeste*
 - 12.13. *(e)nez* atzizkia duten perpaus modalak
 - 12.14. Perpaus kausaletango *-(e)nez* atzizkiaren erabilera
 - 12.15. Gazteleraz *modo, manera, medio + como* egitura duen subordinazio adjektibala
13. Gure *corpus* teknikoaren azterketa
 - 13.0. Laginaren datuak
 - 13.1. Adibideen sailkapena
 - 13.1.1. *Bezala*
 - 13.1.1.1. *Corpusa*
 - 13.1.1.2. Iruzkina
 - 13.1.2. Konparaketa modala gauzatzeko bestelako baliabideak

- 13.1.2.1. *Corpusa*
- 13.1.2.2. Iruzkinak
- 13.1.3. *Bezalako(a)*
 - 13.1.3.1. *Corpusa*
 - 13.1.3.2. Iruzkinak
- 13.1.4. Konparaketa adjektibala gauzatzeko bestelako baliabideak
 - 13.1.4.1. *Corpusa*
 - 13.1.4.2. Iruzkinak
- 13.1.5. Konparaketa ez-orokorra
 - 13.1.5.1. *Corpusa*
 - 13.1.5.2. Iruzkinak
- 14. Laburpen orokorra

GAZTELERAREN *COMO* JUNTAGAILU POLISEMIKOAK EUSKARA TEKNIKOAREN BAITAN IZAN DITZAKEEN ORDEZKOEN PROBLEMATIKA:

1. SUBORDINAZIOAREN ESPARRUA

Hizkera/idazkera teknikoaren inguruko zenbait gogoeta.

Lan honetan, eta baita beraren atzetik datozkeenak, azken urteotan argitaratu diren testu teknikoetan nabari izan ditugun zenbait arazo morfosintaktikoz arituko gara: Arazook, hizkuntz maila honekiko espezifikoak bide direlarik, gaur eguneko euskal hizkuntzaren diasistema-egoeran, oso proiektzio kaltegarriak izan ditzakete kontestu honetan helburu nagusi bide den informazio-zehaztasunaren ikuspegitik.

Zer esanik ez, gertaera linguistiko bakoitzaren aurrean, jarrera desberdinak har daitezke eta hartzen dira gaur egun, normalkuntz prozesu honetan ari garen guztiok egoera ezagun hori arrunt edo “osasuntsu” ez delakoaz bat etorri eta gero ere. Edonola izanik gure ikuspegitik, a *posteriori* hizkuntza bakoitzari antzeman dakiokkeen logika linguistikoari, sendo eutsi behar zaio, elebidunongan gertatzen den nahitaezko egoera diglosikoaren baitan, ohitura morfosintaktiko onargarriak, eta (beldurrez esango badugu ere), ez-onargarriak bereizteko. Logika linguistiko delako hori, jakina, arazoaren gunean dago, baina ez da honelako sarrera orokorrean hamar lerrotan gauzatzekoa: Kasuz kasu joan behar dateke, gure aburuz, posibilitate guztiak aztertuz. Zenbait esparrutan euskararen potentzialitate gramatikala azken muturreraino eraman denean, logika horrek porrot egin du nonbait, ez baitago hizkuntzaren egoera prehistoriko edo historiko, erreal edo irrealera itzultzerik, gaur egun horren zantzurik geratu ez deneko kasuetan behintzat Bestalde ere, ordea, ezin hel dakio-

ke *de facto* diren gaur eguneko zenbait ohiturari: Berorietatiko batzu, gaztelerarekiko edo frantzesarekiko ukipenak ezarri dituen kalkoak direlako, ez du inork eztabaidatuko, baina kalko guzti horien artean, nola-baiteko bereizkuntza egin beharko da: Euskararen eredu logiko orokorren aurka joan gabe soilik zenbait puntutango intzidentzia izango dutenak batetik, eta bestetik hizkuntza honen “arima” bera bide den (eta pausoka ikusi nahi genukeen) logika hori ikuturik, endakapen-prozesu berri baten sorterazle izango direnak.

Guzti hau, noski, soilik ezaguera-arlo bakoitzari dagozkion espezialitate-mailetako testuak gauzaterakoan defenditu nahi dugu: Hizkuntzaren maila teknikokoak.

Badakigu, teknikoaz gain gutxienez “asma” daitezkeen maila kolokiala eta literarioa, geu arituko gareneko esparrutik urrun samar geratuko direla. Maila kolokialean, zehaztasuna edozein mailatan bezala garrantzitsua bada ere, baliabide estralinguistikoak hala nola munduaren ezaguera edo semiotikak aztertzeke dituen bestelako zeinu estralinguistikoak, laguntzaile onak dira aipaturiko interferentzia interlinguistikoek sorteraziriko anbiguiteak deuseztatzeke eta horrela ez balitz ere, maila hori izango litzateke egoera aktuala banaturik lasaitasun handiagoaz onar litezkeeneke esparrua.

Maila literarioa, bestalde, hildo desberdinetatik joango datekeela eta badoala, garbi dago eta maila guztien hizkuntz normalizaziotik soilik abantailak jasoko diren arren, ez da hau estetika linguistikoaren inguruko gogoetak borobiltzeko lekua.

Gure maila tekniko honetan, azkenik, transmititzeko dagoen informazioa zehaztasun osoaz transmititzea dugu helburu nagusia, edozein mailatako baliabide estralinguistikoak nekez lagun dezakeelarik, edo behintzat horrelakoetan “fidatzea” (hots, hizkuntzaren funtzio denotatibotik at funtzio konnotatiboan oinaritzea), gure eritziz arriskutsu samarra delarik.

Gure maila tekniko honetan, azkenik, transmititzeko dagoen informazioa zehaztasun osoaz transmititzea dugu helburu nagusia, edozein mailatako baliabide extralinguistikoak nekez lagun dezakeelarik, edo behintzat horrelakoetan “fidatzea” (hots, hizkuntzaren funtzio denotatibotik at funtzio konnotatiboan oinaritzea), gure eritziz arriskutsu samarra delarik.

Bestaldetik ere, hiztun/idazleok edukin zientifiko/teknikoa izateko den testua gauzatu behar duguneko unean, eragin interlinguistikoak, areagotu egiten dira nonbait, zeren gure arrazonamendua burutzeko erabiltzen ditugun ezagumenduei dagozkien egitura linguistikoak, beharbada bestelako mailetan baino areago, euskara ez den hizkuntzenak baitira.

Azkenik, itzulpenaren ikuspegia defenditu nahi dugu, hain zuzen aurreko ideietatik abiatutik: Batetik, ezaguera praktikoa/pedagogikoa gehien

edo guztietan behar den beste bibliografia, maila teknikoan (edo bestelakoetan ere) oso finkaturik dauden hizkuntzetatik jasoko dugula, eta bestetik elebidunongan geureak ditugun bi hizkuntzen arteko parekaketa automatikoak ezinbesteko dirudiela kontutan harturik, maila pedagogikoan, bederen, parekaketa automatiko hori lagun eta bidera lezakeen itzulpen esplizituari, egoki eritzi diogu gure eguneroko zereginetan.

Sarrera honen atzetik dagoen lantxo, bada, proposatua dugun logika linguistikoko delako horren pausoz pauso eramango den bilaren lehenengo urratsa dugu.

10. SARRERA OROKORRA

Dakigunez, munduan zeharreko informabide audiobisual eta argitarapenei legezkiekeen eraginak alde batera utzirik, euskararekiko ukipen fisikoan diharduten gaztelera eta frantzeseraren sistema konjuntiboak eta baita preposizionalak ere, oso polisemikoak dira, juntagailu eta preposizio gehienak (edo guztiak) anitz kontestu semantiko/sintaktikotan erabil daitezkeelarik: Ezaguna da hizkuntza erromantzeotan garatu izan diren bi sistema horiek, nonbait, latinerak zuen deklinabide-ereduaren endakapen-prozesuaren eta geroago burutu zen erabateko desagerpenaren ondorio zuzenak direla, baina edozein modutan izanik ere, familia erromaniakoan gertaturikoak intzidentzia garrantzitsua izan du euskarak oso berea duen deklinabidearen egitura semantiko/morfologikoan, eta seguraski maila sintaktikoaren zenbait gertaeratan ere.

Gaztelaren *como* (Eta frantzeseraren *comme*) juntagailua, aurreko kontsiderazioen lerroko kasurik inportanteenetarikoa dugu nonbait.

Lehenik, eta perpaus konposatuaren arloaren baitan, konparazioaren esparru morfosintaktikoan erabiltzen da gehienetan, modu esplizituan edo ez, bi konparazio-termino azaltzen delarik: *Los animales de este grupo obtienen el alimento como el molusco ancestral / Animalia hauek, molusku-arbasoak bezala lortzen dute elikagaia* (hots, *animalia hauek eta molusku arbasoa, modu berean lortzen dute elikagaia*)

Bigarrenik, eta perpaus bakunaren kontestuan, nolabaiteko atribuzioa adierazteko erabiltzen da, perpausaren elementuren batek mundu errealean dituen ikuspegi, funtzio edo ezaugarrietariko bat adierazirik: *Lo estudiaremos como parte de la cadena trófica / Katea trofikoaren parte modura aztertuko dugu* (hots, *katea trofikoaren parte izateari dagozkion ezaugarriak aztertuko ditugu*).

Hirugarrenik, eta berezko eredu atributiboan sarturik, batez ere maila kolokial eta literarioan erabilirik geurean ere nolabaiteko erabilpena jaso dezakeena: *Está de profesor en la Facultad de Ciencias / Irakasle*

dago Zientzi Fakultatean (eta zer esanik ez, bada irakaslea). Ikus daitekeen, hemengo izenak ez du inolako kasu-markarik hartu edo, bestela esanda, absolutibo mugagabearen marka hartu du. Murritzuta samarra izan arren, eta oraingoz azterketa sakona gerorako utzirik, honelakoek maila teknikoan ere nolabaiteko txokoa dutela esan daiteke: Titulu edo antzekoetan egin ohi den modura: *El agua como regulador / Ura, erregulatzailerik*.

Aurrerapen modura hiru *como* horietarako euskal ordezeko desberdina eskaini baditugu ere, frogatzeko dugu jokamolderik egokiena horixe ote den. Igorri ere, euskal hiztun askok hiruretan *bezala* igorriko luke, nahiz eta izen-sintagma bigarren eta hirugarren kasuetan deklinatu gabe utzi, berrikustapen bibliografikoan laster ikusiko dugunez.

Hemen eskainiko zaizuen zatian, horretaz, soilik lehenengo arloaz airtuko gara, hots, konparazioaren esparruaz.

11. GAZTELERARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA AURKITUERIKOA

Nondik abiatu behar dugun jakin ahal izateko, gaztelerarako Akademiak argitaraturiko *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española* (1984) delakora zuzendu gara, *como* partikula gazteleraren arloan erabil daitekeeneko kontestua ezagutzeko asmoaz, zenbait kapitulu desberdinetan aipatua dela behatu dugularik.

Lehendabiziz (1.5.4.a 6.º paragrafoan) *como* partikula adberbio koerlatibo edo juntagailu subordinatzaile izan daitekeela irakur daiteke, *cómo* tonikoa den adberbio interrogatibo edo eskamatibo delakotik bereizteko: *Lo harás tal como te hemos dicho / ¿Cómo harás ese trabajo?*

Hala *como*, nola beste adberbio batzu ager daitezkeeneko kontestuei dagokien, hurrengo irakur dezakegu 3.20.10 paragrafoan: Izenorde erlatibo diren *que* eta *el cual* ordezkari ditzakete, hau da, subordinatu adjektibo sarrera eman diezaiekete; adberbio edo izenorde erlatibo modura betetetzen duten funtzio horrek, bada, beraiek txertaturiko menpeko perpausak subordinatu adjektibo eta zirkunstantzialen arteko eremuan lekurtzen ditu.

Eta aurrerago, *como* juntagailuari buruz, espreski, beraren jatorri modalari dagokion esangura duela esateaz gain, *modo*, *manera*, *medio*, *procedimiento*, *arte* eta bestelako izen substantibo aitzindariekin batera erabiltzen direla gaineratu da: *Estaban de acuerdo sobre la manera como habría de establecerse la demanda*.

Berori, subordinazio adjektibaleren esparruari dagozkionez, baina subordinazio zirkunstantzialaren arloan ere azal daitekeela esan zaigu liburu berean. Hasteko, esaldi subordinatu zirkunstantzialen sailaren ohar oro-

korren puntuan, sailkapenerako erizpide semantikoak erabili dituztenez, haien artean zalantzazko mugapena duten zona batzu gauzatu direla aipatu dute.

Baina *como* juntagailua, ez da perpaus zirkunstantzialen mota guztiei lotuta agertuko, soilik zenbait bereziri baizik. Hona hemen, perpaus-mota horiek:

a) Zenbait perpaus modaletan. *Se portó noblemente, como convenía a su condición.*

b) Perpaus konparatiboetan: Talde honen barnean, bi azpisail desberdinetan aipatu da.

b1) Konparatibo modalak: *Como los cuerpos crecen poco a poco y presto se acaban bien así caemos fácilmente y apenas en largo tiempo nos levantamos.*

b2) Konparatibo kuantitatiboak. Sail honen barnean, soilik berdintasun edo baliokidetasuna adierazten dutenak kontsidera daitezke, desberdintasunekoak gure oraingo zereginetatik kanpo daudelarik: *Quedó tan preso de mis amores como lo dieron a entender sus demostraciones.*

c) Zenbait perpaus kausaletan: *Como fuesen muy pocos tuvieron que rendirse.*

GILik (1961), ez du sailkapen bera burutu; esaldi kausalak, subordinatu substantiboak direlakoek osoturiko taldearen perpaus konplementario zirkunstantzial izeneko alorrean sailkatu ditu, goian eta *Esbozo* delakoaren arauera aipaturiko beste zirkunstantzial guztiak perpaus adberbial izeneko taldean bildu dituelarik.

Bereizketa hau egiteko erabili duen erizpidea, hurrengoa da: Aditz nagusiaren zirkunstantziak adierazten dituzteneko neurrian, subordinatu adberbialetatik hurbil daude. Hala ere, erizpide formalista erabili nahi izanez gero, konplementario substantibo direla pentsa dezakegu, aditz nagusiari preposizio baten bidez loturik daudelarik, substantibo morfologikoen baliokide baitira.

Euskarari dagokionez, ez dugu uste horrelako bereizketarik egitea beharrezkoa denik, esaldi menperatuen artean izen, izenlagun edo adizlagunaren funtzioa dutenak bereiztea nahikoa izan daitekeelarik.

Bestalde, eta *Esbozo*aren perpaus zirkunstantzialen sarreran mugapen zalantzarria zutenen artean aipatuak ditugun esaldi modalen taldean, konparatibo modalak ere, sartu ditu GILik, horren arrazoi modura konparaketaren gradu-eza defenditu duelarik.

Perpaus adberbial modal modura izendatu dituenen kapituluan, beste mota batzutako interferentziak ere, aipatu ditu autore honek, hala nola

aditz subordinatzaile eta subordinatua erreferentzikideak direneko kasuan gerta daitezkeen elipsiak aztertu dituenean agertu duena. Hasteko, adibide hau eskaini du: *Has hablado como [habla] un necio*. Eta modu honetara segitu du bere azalpena: Artikulua ezabatu egiten bada eta *has hablado como necio* igortzen bada, perpausaren substantibo bati predikatu nominal bat esleitzen dion nexo izatera aldatuko da *como* partikula.

Ikusi berria dugun adiera horren eta aditzaren errepikapenaren artean dagoen graduazioa, soilik kontestuaeren arauera finka daiteke, eta sarritan hiztunaren gogoan perpaus bakuna edo subordinatu adberbiala egon ote den finkatzea zail gertatzen da.

Beraz, GILik esan duenaren arauera, perpaus bakunekiko interferentziak ere, gerta daitezke batzutan. *Como* juntagailuaren erabilera espleti-boaren (hots, erabilera gramatikal hutsaren) aurrean gaudela esan deza-kegu kasu horietan.

Autore beraren gramatikan, *como*, kondizional eta modalaren arteko esangura duten perpausak eratzeko, *si* + *subjuntiboa* sekuentziaren aurrean kokatzen dela irakur daiteke zenbait lerroz aurrerago.

Gure uste apalean, mota horretako perpausetan, baldintzazko eta moduzko esaldien arteko intersekzioa ezezik, konparatiboekikoa ere, ikus daiteke. Izan ere, hipotesi batekiko konparaketa direla esan daiteke horiei buruz.

Puntu hau amaitzeko, gure hizkuntz sistemaren finkapen-eza eta inguruko hizkuntzekiko interferentzia nabariak direla eta, oso interesgarri deritzogu *como* juntagailuaren banaketa-eremu semantikoak eta beraien arteko interferentziak ahalik eta garbien azaltzeari, euskararen sisteman izan duketen eragina posible den zehaztasun handienaz detektatu ahal izateko.

Horrela ba, aurreko lerroetan azaldu dugunaren arauera, 11. koadroko eskema eraiki dezakegu, profilatu ditugun eremuei dagokien eredu morfologikoa ere burutzen saiatuz.


Koadro horren azkeneko berdintasunezko konparatibo horiek azaltzeko erabiltzen diren izenorde koerlatiboei buruz, *como* juntagailu pronominalak bai eta hizkuntza literarioan ere ia osoki ordezkatu dituela irakur dezakegu *Esbozoan*.

Laburtzeko, eskemaren sailkapena kontutan harturik, gutxienez gazteleraren esparruan bi eremu nagusi bereiz ditzakegula ikusi dugu: Lehenik, subordinazioaren eremua eta bigarrenik, atribuzioarena.

Bi eremuok bereizteko erizpidea, hurrengo hau izan daiteke: *Como* juntagailuari loturikoa artikulurik gabeko izen-sintagma denean atribu-

zioaren arloan sartuak garela pentsatuko dugu, beste edozein motatako elementu denean ordea, *como* juntagailua sobordinatua txertatzeko baliabide gramatikal modura erabili delakoan utziko dugularik.

Bi eremuen arteko bereizketa hori, gazteleraz zein euskaraz ere, bistakoa dela pentsa dezeko gramatikari buruzko oinarritzko ezagupena



1.1.- koadroa: Galteleraren *como* juntagailuak dituen erabilerak.

duen edozeinek, baina dena dela, euskaldun askok (dialekto edo idiolektoen gorabehera), lasai ordezkatzuko luke edozein kontestutan agerturiko *como* juntagailua *bezala* partikularen bidez; hori bai, bigarren taldeari dagozkion adibideetan, *bezala*, deklinatu gabeko izenari lotuta eta lehengo taldeari dagozkionetan, beharko lukeen elementuari loturik; hots, gazteleraren *como* + *artikulu determinatua* + *izena* / *como* + *izena* oposaketan *bezala* hain zuzen ere.

12. EUSKARARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA ETA ZENBAIT EKARPEN BERRI

12.01 Adizki jokatua + (e)n atzizkia + *bezala*

12.01.1. *Berrikustapen bibliografikoa*

Has gaitezen euskarari buruzko bibliografian, *bezala* partikulari buruz esan dena aztertzen.

AZKUEk (1925), bai *zelan* eta *nola*, bai *honela*, *horrela*, *hala*, *bestela* eta *bezala* direlakoek, modua adierazten dutela idatzi zuen. LAFFITEk (1944) ere, berdintasun-konparatiboen taldean aipatu zuen *bezala* partikula, moduzkoen artean hain zuzen ere. Bestalde, ondokoa gehitu zuen: Perpaus konplementuak (=menperatuak) adizki jokatua duenean, *bezala* delakoaren aurrean jartzeaz gain, *-(e)n* atzizkia hartzen du: *Bizi den bezala hilen da*. Hau da, beste modu batera esanez, *adizki jokatua* + *-(e)n* atzizkia + *bezala* sekuentzia apurtezina dugu, *bezala* nonbait adizkiarekiko enklitikoa delarik. Modu berean, adizki jokatu horren elisioa gerta daitekeela azaldu du: *Bizi bezala hilen da*.

ITHURRYk (1979) ere, bere gramatikan, halaber, berdintasun-konparatiboen taldearen barnean sailkatu, eta modu- eta antzekotasun-adberbio konparatibo modura definitu du. Adberbio horren sorrerari dagokionez, eta bezain eta bezainbat juntagailuei dagokien modu berean, *bezala*, *bezain* eta *bezainbat* direlakoak, hurrenez hurren, *hala*, *hain* eta *hainbat* partikuletatik sortu direla esan du.

Bestalde, LAFONEk ere (1980), *bezalak* konparazioa adierazten duela eman du aditzera. VILLASANTEk (1976) ordea, perpaus modalen taldearen barnean aipatu du *bezala*, modu-adberbiotzat harturik, baina gai honetan inolako konparaziorik eskaini gabe. Izan ere, gaztelerazko akademiari jarraitu zaio perpaus konpasatuen sintaxia sailkatzeko orduan, aurretiko Axularren testutik ateratako kasuei buruz hurrengo esan duelarik: *-(e)n* atzizkiaren bidez eratzen dira eta beraz, funtzio adjektibaleko erlatiboen aldakietariko bat osotzen dute; gazteleraz ez *bezala*, baina, euskararen kasuan ez dago aitzindari espliziturik ez ezkaturik. Lan berberaren

hurrengo kapituluan, “konparatibo modalak” izeneko kapituluan hain zuzen ere, beste baliabide batzu plazaratu ditu, idazle lapurtarrak konparatibo modalak itxuratzeko erabili zituen hurrengook hain zuzen: *Nola + bait- / (e)n, nola + bait- + hala, nola + halatan, nola + bait- + ezen*.

LAFITTEk ere, aipatua du galdekari eta erakusleen arteko koerlazioaren bidez adieraz daitekeen berdintasun-konparazioaren mota hau: *Nola bizi, hala hil*.

Hala ere, LAFITTEk berak formula proberbial modura sailkatu ditu mota honetakoak, aurrerago adizki jokatuari dagokionez *bait-* aurrizkia erantsi behar zaiola gehitu duelarik.

ALTUNAK (1980) argitaratutako artikuluan Etxepareren *nola* eta *zeren* partikulen erabilera aztertutakoan, *hanbat/hain/hala + nola* egiturak erabiliz eraikitako perpausak azaldu ditu eta Axularrek maiz erabili zituen *bezanbat, bezain* eta *bezala* juntagailuekin parekatu ditu.

Halaber, lehenago LAFONEk eginiko baieztapena, errepikatu egin du, hots, hizkuntza erromanikoen arauera, Axularrek zein beste idazle batzuk “bat bitan banaturik” ematen duela.

Bestalde, bi partikulen bidez osoturiko esaldiak hizkuntza erromani-koen kutsua dutela esan duen bitartean, hitz bakarrekoei euskal formaren kalifikazioa esleitu die, Axularrek eta beste idazleek bata zein bestea noiz erabili zuten azaldu ez duelarik.

ALTUNAK (1979) berak, sailkatu egin ditu Etxepareren idazlanetan agerturiko adberbio konparatiboak, *bezala* modu-adberbiotzat harturik konparatibo eraltiboen sailean, hau da, konparazio termino espliziturik behar dutenen artean sartu duelarik. Edozein modutan ere, *erakuslea + galdekaria* binomioan oinarrituriko egitura horiek, gaur egun soilik oso esaldi adierazkorretan erabiltzen direlakoan gaude, eta ez dirudi maila tekniko-rako oso egokiak direnik. Beraien ordez, normatibo bide den *-(e)n bezala* horretaz gain, *-(e)neko modu + inesibo edo adlatibo-marka* moduko egiturak erabil daitezke, nonbait maila teknikoari espezifikoki dagozkiolarik. Orain arte berrikusitako bibliografiaren arauera, beraz, *bezala* juntagailuak, modu-adberbioa izanik, berdintasun-konparaketa adierazten duela ondoriozta dezakegu. Horrela, *como* juntagailuaren hedapena adierazi dugunean, soilik moduzko eta berdintasunezko konparatiboen arteko intersekzioan dagoen eremu semantikoan erabili beharko genuke bibliografia horren (eta baita gure eritziaren) arauera.

Bestalde, esaldi menperatuaren aditza jokaturik dagoeneko kasuetan erlatiboak lotzeko erabiltzen den *-(e)n* atzizki konjuntiboa tartekatu behar da adizki hori eta *bezala* adberbioaren artean. Halaber, errepikaturiko zenbait elementu elidi daitezkeela aipatu da bibliografian zehar.

12.01.2. *Sorrera-mekanismoa*

Aipaturiko posibilitate horien kausa aztertzen hasi baino lehenago, ikus dezagun GOENAGAk(1980) bere gramatikan *perpaus erlatiboa + bezala* motako egituretarako proposatu duen sorrera-mekanismoa: Geuk igortzen ditugun perpaus konparatiboak, erlatibo arruntak eratzeko erabili ohi dugun atzizki kontjuntiboaz lotzen direla eta, beroriek eratzeko orduan erlatiboari dagokionean jokatzan deneko modu berean egin behar dela ondorioztatu du.

Bide horretatik abiaturik, gramatika sortzailearen baitan kontsideratzen den egitura sakonean, errepikaturiko izen-sintagma bat amankomunean izango duten bi perpaus bilatu behar dugu (hots, izen-sintagma erreferentzikideren bat izango dutenak). Geroago, perpaus matrizeko izen-sintagmarekiko erreferentzikidea izanik, perpaus txertatuan dagoen izen-sintagma ezabatuko da. Prozesuaren amaieran azalerako egituren geratuko zaigun sintagma *bezala* modu-adberbioa dela jakinik, sakonerako egituren erreferentzikideak izango diren izen-sintagmak ere, modu-adberbioak izango dira halabeharrez.

ALTUNAk (1979) buruturiko adberbio konparatiboen sailkapena kontutan hartzea, besterik ez dugu behar *bezala* adberbio erlatiboen artean sailkatua duela gogoratzeko, horrek konparaketa-termino esplizitua behar duela adieraziko duelarik. Izan ere, *bezala* konparaketa-terminoa den elementu horrekiko enklitikoa agertzen da. Halaber, egitura sakonerako proposa daitezkeen perpausai dagokienez, autore honek “adberbio absolutu” eritzi dienetarikoa izango da izen-sintagma korreferentea eratuko duen adberbioa, konparaketa-termino espliziturik behar ez dutenetarikoa alegia. Hala ere, ALTUNArek koadroa begiraturik, hurrengoaz konturatuko gara: Kualitatezko eta kantitatezko adberbio erlatiboei, hau da, *bezain / bai eta bezanbat* adberbioei erakusleekin morfologikoki zuzen erlazonaturiko adberbio absolutuak (*honein, horrein, hain eta hainbat*) esleitu dizkien bitartean, moduzko adberbioari (*bezala*) ez dio absolututzat jo daitezkeen *honela, horrela* eta *hala* adberbioetatik bat ere egokitu.

Horren arrazoia, berak aztertutako *corpusean* horrelakoen ausentzian bide datza. Seguraski, arrazoi berberagatik, aipatua du kantitatezko adberbio absolutu bakarra, kualitatezkoei dagokienez, ordea, hiru maila desberdinetako erakusleetan oinarrituriko hirurak azaldu dituen bitartean. Hala ere, ALTUNAk agertu dituen erlatibo “klasikoaren” *hain/hanbat /hala + nola* formak kontutan harturik, ez da zaila, analogiaz *bezala* erlatiboaren parean *honela, horrela, hala* moduzko adberbio absolutuak koka daitezkeela ondorioztatzea.

Izan ere, GOENAGAk(1980) aurreko kontsiderazio horiek aipatu gabe, *honela* adberbioaz adierazi du egitura sakonean errepikaturiko sintagma. Horrela ba,

(1) Zuk, aitak egin duen bezala egin behar duzu.

azalerako egitura lortzearen, hurrengo bi esaldiak proposatu ditu egitura sakonerako:

(1a) *Zuk, honela egin behar duzu.*

(1b) *Aitak, honela egin du.*

Ondoren, transformazio erlatiboaren bidez, bietariko bat, adizlagun modura txertatu du bestean:

→ [**Zuk [aitak honela egin duen] honela egin behar duzu*].

Eta *honela* erreferentzikidea ezabatuz:

→ **Zuk aitak egin duen honela egin behar duzu.*

Baina GOENAGAK berak adiera eman duenez, hori ez da euskara. Horren zioa, ALTUNAREN sailkapenean dagoela pentsa dezakegu. Esan ere, ondokoa esan daiteke: Perpaus bat bestean txertatutakoan perpaus matrizearen konparaketa-terminoa, esplizitua dugu eta beraz, geure aberez, konparaketa-adberbio erlatiboaz ordezkatu beharko dugu adberbio absolutua:

→ (1) *Zuk, aitak egin duen bezala egin behar duzu.*

Azkeneko transformazio hori, geroago ikusiko dugunez, berdintasunezko konparatibo guztien sorrera azaltzeko beharrezkoa izango da, eta horretaz, orokorra.

Baina aurrera segitu baino lehen, azter dezagun GOENAGAK kapi-tulu berean aipatua duen fenomeno. Bere hitzak zehazki errepikatu ditugu hemen: “*Bezala* harek berdintasuna adierazten digu, baina ez digu esaten zeri buruzko berdintasuna dugun. Nik esaten badut, aitak bezala egin behar duzu, *bezala* horrek zer adierazten digun ez dakigu: Ongi, txukun, alai”.

BIRAUDek (1982) grekeraren egitura konparatiboari buruz erabili duen terminologia geureganatuz, ondokoa esan dezakegu: Perpaus nagusiak adierazten duen ekintzaren “zirkunstantzia modalaren” adierazpena, perpaus txertatuan datza, berorrek, era berean, bere interpretazio semantiko kontestu situazional edo testualean duelarik.

Hori horrela izanik, eta oraindik era BIRAUDI jarraiturik, koerlazio-natu diren sintagmek beraien semantismoa erreferentzia hutsaz hartzen dutelarik, lexikalizatze orduan espezifikitate baxuko forma semantikoak erabiliko direnez, kategoria batetako (modu-adberbio edo kualitate, kanti-tate edo neurrizko adjektiboetako) ordezkari eta erreferentzialak direla adieraziko dute soilik.

Berdintasunezko konparatiboen artean, lexikalizazio-graduaren arauerako nolabaiteko graduazioa dagoela onartzekotan, *bezala* adverbio erlatiboaren bidez eraikitakoak, gradurik baxuenean kokatu behar genituzke, ***bezain* + adjektiboa / adverbioa** edo ***bezainbat* + izena** lexikalizazio-gradu altuagoa dutela onartu behar genukeen bitartean.

Adibide bat ematearren, konpara ditzagun hurrengo bi perpausak:

- (2) *Artropodoak, narraztiak bezala moldatu ziren lehorrera.*
- (3) *Artropodoak, narraztiak bezain ondo moldatu ziren lehorrera.*

(2) perpausetik atera ditzakegun ondorioak, honelaxe labur daitezke: Perpaus nagusiaren subjektuak, ekintzaren bat burutu du eta perpaus menperatuaren bidez, ekintza hori gertatuko deneko denbora, lekua edo beste zirkunstantziarik gabe, *modua* adierazi da. Baina modu hori, bestelako subjektu batek beste ekintzaren bat edo ekintza bera burutzeko erabili duen modu bera dela baino gehiago jakiterik ez dugu. Informazio handiago eskuratzeko, kontestura jo behar genuke.

(3) adibidean ordea, (2) perpausak eman digun informazioari, *ondo* adverbioa gehitu zaio, maila kuantitatiboan izan gabe kualitatiboan mintzatuko garela adierazteko *bezain* adverbio erlatiboari loturik. Eta beraz, badakigu esaldi menperatuaren subjektuak ekintza burutu dueneko moduari kalitateaz ari garela eta ez, adibidez, azkartasunaz edo edertasunaz.

Horrelako erreferentziarik egin gabe, zirkunstantzia modala adierazteko, lexikalizazio-gradurik altuena aukera genezake, esate baterako:

- (4) *Artropodoak, guztiz ondo moldatu ziren lehorrera* (moldatzeko modurik onena irakurleak ezagun duela suposatuz, noski).

Lexikalizazio-gradurik baxuena, hau da ***-(e)n + bezala*** motako esaldiek jasotzen duten lexikalizazio-gradua duten esaldi konparatiboak, bibliografian modu zehatzean ebaki ez badira ere, “konparaketa orokorra” delako izena esleituko diegu, “konparaketa ez-orokor” eritziko diegunetatik bereiztearren.

12.02. **Izen-sintagma + *bezala***

Honaino heldu garelarik, joan gaitezen urrunagora, oinarritzko berdintasun-konparaketa modalaren mekanismoa izanik, autoreek elipsien bidez azalduak dituzten beste perpausen sorrera-mekanismoak ere, deskribatzen saia baikaitzke. Lehenengo eta behin ***izen-sintagma + bezala + aditza*** motako perpausen sorrera-mekanismoaz ariuko gara.

Horretarako, GOENAGAk egin duen modu berean, ***-(e)n + bezala*** egitura duen perpausari, ezabaketa-transformazioa aplikatzea besterik ez dugu behar. Esate baterako, (1) perpausa harturik:

(1) *Zuk, aitak egin duen bezala egin behar duzu.*

→ (1') *Zuk, aitak $\emptyset$ bezala egin behar duzu.*

Baina perpaus menperatuaren izen-sintagma izen substantiboa ezez-
zik, izen substantiboa + izen adjektiboa, izenordea, erakuslea, adberbio
eta abar izan daitekeela ikusi dugu; bestalde, beraren deklinabide-marka
ergatiboarena ezezik, beste gehienena ere izan daitekeela diruci. Adibidez:

(2) *Moluskuek, anelidoek lortu duten bezala lortu dute moldapen
hori.*

→ (2') *Moluskuek, anelidoek $\emptyset\emptyset$ bezala lortu dute moldapen hori.*

(3) *Hauek, beste horiek lortu duten bezala lortu dute moldapen hori.*

→ (3') *Hauek, beste horiek $\emptyset\emptyset$ bezala lortu dute moldapen hori.*

(4) *Sintesi hori, gaur egun gertatzen den bezala gertatu zatekeen garai
haietan.*

→ (4') *Sintesi hori, gaur egun $\emptyset\emptyset$ bezala gertatu zatekeen garai
haietan.*

(5) *Beste kasuetan arazo etikoak agertu zaizkigun bezala, arazo eti-
koak agertu zaizkigu oraingoan ere.*

→ (5') *Beste kasuetan $\emptyset\emptyset\emptyset$ bezala arazo etikoak agertu zaizkigu
oraingoan ere.*

Bestalde, kontsidera dezagun mugagabeen deklinaturiko *IS* + **bezala**
egitura; berau, klasikoek (Axularrek bai behintzat) erabili zuten arren,
gaur egun oso landuak ez diren hizkeretan azaltzen dela esan liteke. Egia
esan, hurrengo lan batetan, ikustekoa dugu, erreduzitzaile izaerari dagoz-
kion ezaugarriak aztertuko direla adierazi nahi izanez gero, *erreduzitzaile*
modura / *gisara* / *erara* igortzea egokiagoa bide dela, 10 sarrera oroko-
rrean aurreratu dugunaren arauera. Edonola ere, zein edukin semantiko
duen edo eta esleki dakioken alde batera utzirik, azaleko egitura hau,
nekez lor liteke profilatua dugun egitura sakonetik eta bibliografia sortzai-
lean deskribatu zaigun prozedimenduaren bidez. Berau frogatzeko, horre-
lako adibide batetatik abiatuko gara erabilera egokiak duen egitura sako-
neraino iritsi nahirik:

(6) *Molekula hori erreduzitzaile bezala aztertu dugu.*

Hemen, zer esanik ez, alderantzizko bidea egin behar genuke, erre-
pikaturik dagokeen aditza berragertazteko asmotan:

(6')* *Molekula hori, erreduzitzaile aztertzen dugun bezala aztertu dugu.*

Honetatik, *erreduzitzaile* izenak galdu izan duen kasu-marka asmatu
behar genuke aurrerantz joateko. Izan ere, orain arte mekanismo hau

azalpen baliogarri gertatu deneko kasuetan, ez da kasu-markarik galdu eta hemengo honetan, edozein kasu gaineratzea ere, arbitrario gerta liteke beti gramatika sortzailearen usadioaren barnean. Soilik benetan igortzen diren perpausetan ezabatu den aditza atributibo deneko kasuetan hel gaitzke lehenago deskribatu dugun egitura sakon horretera, bertan bi perpaus atributibo izango ditugunez, zentzu zabaleko atributu hori “zuzen” egon baitaiteke absolutibo mugagabea:

(7) *Burdina erreduzitzaile gertatu den bezala, oxidatzaile gertatu da sufrea.*

→ (7') *Burdina erreduzitzaile ϕ bezala, oxidatzaile gertatu da sufrea.*

Ikus daitekeenez, perpaus hau, gramatikala da, baina edozein modutan ere, absolutibo mugagabea deklinaturiko IS horretaz gain, kopula-aditza intransitibo deneko kasuetan, absolutibo mugatua deklinaturiko subjektua agertuko da. Dena dela, eta jadanik subordinazioaren esparrutik urrun samar, absolutibo mugagaberako zeharo egokitzen jo daitezkeen agerpenak, beste nonbait aztertu behar ditugu zehazkiago beraiek ere *como* juntagailuari dagozkiola esan bailiteke: Ikus berriro ere 10 sarrera orokorraren sailkapen hirukoitza.

12.03. Partizipioa + *bezala*

Saia gaitzen *partizipioa* + *bezala* motako perpausak azaltzen. Oraingo kasuan, nabaria da adizki perifrastiko osoa ezabatu beharrean soilik laguntzailea ezabatu dugula, eta bertatik, laguntzaileak dituen ezaugarri morfologikoak (pertsona, aldia eta nolabaiteko moduari dagozkion ezaugarri horiek) errepikatuta egonik ere, partizipioaren baitan hau da, ezaugarri aspektualetan eta sarrera lexikal modura duen edukin semantikoan bertan nolabaiteko ezberdintasunik dagoela ondoriozta daiteke, bera izan baita eliditu gabe geratu dena.

Kasu honetan bada, egitura sakoneko bi perpausetan aditzarekiko komunztaduran daudekeen IS guztiak, bai eta aldia eta modua ere, errepikaturik egongo dira, partizipazioa bera desberdina izanik:

(8a) *Narrazti horiek, ingurunera, horrela moldatu ziren.*

(8b) *Narrazti horiek, horrela zuntsitu ziren.*

→ (8ⁱ) $_{P_0}[*Narrazti\ horiek]_{IS}[_{P_1}[narrazti\ horiek\ ingurunera\ horrela\ moldatu\ ziren]_{P_1}\ horrela]_{IS}\ zuntsitu\ ziren]_{P_0}$

Horrela sintagma erreferentzikidea ezabatuz:

→ (8ⁱⁱ) *Narrazti horiek, narrazti horiek ingurunera ϕ moldatu ziren horrela zuntsitu ziren.*

Erlatibozko perpausak adberbioa absolutua eskatu gabe adberbio erlatiboa eskatzen duenez,

→ (8ⁱⁱⁱ) *Narrazti horiek, narrazti horiek ingurunera moldatu ziren bezala suntsitu ziren.*

Errepikaturiko izen-sintagma ezabaturik:

→ (8^{iv}) *Narrazti horiek, øø ingurunera moldatu ziren bezala suntsitu ziren.*

Bestalde, perpaus nagusiaren laguntzailea eta menperatuarena bera izanik, elidi dezakegunez:

→ (8) *Narrazti horiek, ingurunera moldatu ø bezala suntsitu ziren.*

Beraz, azaleran, *partizipioa* + **bezala** egitura dugu.

Horrela ba, nabari da batetik elipsia adizki perifrastiko horren laguntzaileak amankomunak izateak baimendu duela, baina bestetik ere, maila pragmatiko/estilistikoan honek duen isladapen garrantzitsua, azpimarraztekoa dugu: Neurri handiz adizki perifrastikoz osoturik dagoen paradig-mako hizkuntza honetan, besterik ez bada ere, kakofoni arazoak gertatu ohi dira, adizki laguntzailea berdin edo morfologikoki antzeko direnen hurbilketa fisikoa dela kausa. Deskribatua dugun elipsia, konponbide estilistikoetariko bat dugu.

12.04. Aditz-izena + kasu-marka + **bezala**

Mota honetako egiturak, gaur egun nekez erabiltzen badira ere, ugari samarrak dira gutxienez Axularren testuan. Ikus ditzagun beraz, bertan hautaturiko bi adibide:

– *Asko baita aditzera emaiteko bizitzen bezala hiltzen ere dela* (Ax.144.23).

– *Aitzitik haserretzeaz bezala ez haserretzeaz ere egin daiteke bekhatu* (Ax.183.10).

Egiturak erraztearren, perpaus konparatibo hutsa hartuko dugu, gaurko hizkerara moldatu eta gero:

(9) *Bizitzen bezala hiltzen da.*

(10) *Haserretzeaz bezala, ez haserretzeaz ere, egin daiteke bekatu.*

(9) Perpauserako proposa daitekeen egitura sakona, hurrengoa da:

(9a) *Horrela bizitzen da.*

(9b) *Horrela hiltzen da.*

Eta bi perpausak erlazionatuz:

→ (9ⁱ) $_{Po}[*]_{IS}[P_1[horrela bizitzen den]_{P_1} horrela]_{JS} hiltzen da]_P$

Errepikaturiko sintagmak ezabatuz,

→ (9ⁱⁱ) * $\emptyset$ *bizitzen den horrela hiltzen da.*

Eta adberbio absolutua erlatiboaz ordezkatzuz.

→ (9ⁱⁱⁱ) *Bizitzen den bezala hiltzen da.*

Orain, errepikaturiko laguntzailea ezabatuz,

→ (9) *Bizitzen $\emptyset$ bezala hiltzen da.*

(10) perpausari dagokionez, hona hemen proposa daitekeen sako-
nerako egitura:

→ (10a) *Haserretzeaz horrela egin daiteke bekatu.*

→ (10b) *Ez haserretzeaz ere, horrela egin daiteke bekatu.*

→ (10ⁱ) $_{Po}[*]_{IS}[P_1[haserretzeaz bekatu horrela egin daitekeen]_{P_1} horrela]_{JS}$
ez haserretzeaz ere egin daiteke bekatu]_P

Eta beste kasuetan bezala jokatzuz,

→ (10ⁱⁱ) **Haserretzeaz $\emptyset$ bekatu egin daitekeen horrela ez haserretzeaz ere egin daiteke bekatu.*

→ (10ⁱⁱⁱ) *Haserretzeaz bekatu egin daitekeen bezala, ez haserretzeaz ere, egin daiteke bekatu.*

→ (10) *Haserretzeaz $\emptyset\emptyset\emptyset$ bezala, ez haserretzeaz ere, egin daiteke bekatu.*

12.05. X + ez + **bezala**

Puntu honetara heldu garelarik, *X + ez + bezala* motako egiturak azal-
tzen saiatzea baino ez zaigu geratu. Adibidez, igorritako perpausa hurren-
goa izanik:

(11) *Bigarren erreakzioak, lehenengoak ez bezala funtzionatu du.*

hurrengo egitura sakona proposa dezakegu:

(11a) *Lehenengoak, ez du horrela funtzionatu.*

(11b) *Bigarren erreakzioak, horrela funtzionatu du.*

Ezezko perpausa erlatibizatu ahal izateko, horretarako tresneria gene-
ratibistak sakon lezakeena alde batera utzirik, amaierako kokapena izan
behar du laguntzaileak, erlazio-atzizkia hartu behar baitu:

→ (11ⁱ) $_{P0}[*\text{Bigarren erreakzioak}]_{IS}[_{P1}[\text{lehenengoak horrela funtzionatu ez duen}]]_{P1} \text{ horrela}]_{IS} \text{ funtzionatu du}]_P$

→ (11ⁱⁱ) **Bigarren erreakzioak, lehenengoak funtzionatu ez duen horrela funtzionatu du.*

→ (11ⁱⁱⁱ) *Bigarren erreakzioak, lehenengoak funtzionatu ez duen bezala funtzionatu du.*

Eta errepikaturiko aditza ezaba dezakegunez,

→ (11) *Bigarren erreakzioak, lehenengoak $\emptyset$ ez $\emptyset$ bezala funtzionatu du.*

Laburtuz, X + bezala egitura orokorrari, ez adberbioa tartekatu zaio, sakoneko bi perpausek adierazteko dituzten ezaugarrien arteko desberdintasunak eraginik.

12.06. Orain arte esandakoaren laburpena

Horrela ba, honelaxe labur genezake orain arte *bezala* honen inguruan esandakoa:

Bezala adberbioa edo eta baliabide gramatikala, izen-sintagma, *-(e)n* atzizkidun adizki jokatu eta partizipioarekiko enklitikoa agertzen da hizkuntzaren maila orokorrean.

Hiztun arruntaren kontzientzia linguistikoan, bi terminotako konparaketa egiteko delako ezaguera garbi samar egoteaz gain, tresneria sortzaileak ere, sakonean elementu bat edo gehiago amankomunean duten bi perpausetan ezartzen den elementu amankomun erreferentzikidearen elipsien bidez “atera” daitezkeela adierazia du.

Era horretara ere, *aditz-izen deklinatua + bezala* moduko egitura uler liteke, nahiz eta gaur egun gure hizkeretan arraro samar gerta daitekeen. Azkenik, *absolutibo mugagabea deklinaturiko izena + bezala* egiturak, maila guztietan dokumentaturik egon arren, ezin jaso dezake maila horretako azalpenik eta, bestelako lan batetan ikusiko dugunez, egoki zein ez-egoki eritzirik ere, konparazioak adierazteko erabili gabe, nolabaiteko atribuzioa gauzatzeko hautatzen da.

12.07. Adizki hipotetikoa + bezala

Esbozo... delakoak aztertutako moduzko perpausai buruz aritu garenean, baldintza, modua eta konparazioaren intersektiotzat hartu ditugu *como + si + adizki subjuntiboa* motako egiturak gazteleraz.

Euskaraz, besteak beste, eremu semantiko hau estalia duten egiturak, bai motatakoak dira: *Adizki hipotetikoa + bezala* eta *bai(t) - + adizki hipotetikoa + -(e)n*.

Bibliografian, maiz aipatu dira bi mota horietako egiturak. Esate baterako, LAFITTEk (1944), konparatibo kondizional delako izena esleitu die *bez-* formaren aurrean “supositibo ebentuala” duten perpausai: *Hura balitz bezala*.

Halaber, kasu horietan ere elipsia gerta daitekeela esan du:

Egizu zureztat balitz bezala = egizu zureztat bezala (ikus 12.02).

AZKUEk (1925), “supositibo konparatua” delako izena esleitu die, baldintzazko adizkiei aplikaturiko *bai(t)*- aurrizkia eta *-(e)n* atzizkia eramaten dituzten perpausai: *Bailetorren*.

VILLASANTEk (1976), Axularrek mota horretako perpausak gauzatzeko erabili zuen egitura azaldu digu, idazle horrek kasu hauetarako hautatu ohi zuen lotura *-(e)n* atzizki konjuntiboa izan barik, *bait-* aurrizkia zela gogoratu duenari: *Obran baitzina bezala* (Ax.242). Aurrerago, bestalde, gaur egun mota horretako perpausak baldintzazko perpaus arruntak bezala gauzatzen direla eman du aditzera: *Axular sekula irakurri ez banu bezalaxe*.

AZKUEk (1925), *banentor bezala* modukoak (hots, *adizki hipotetikoa + bezala* motako egiturak), beste hizkuntzetatik kalkaturiko lokuziotzat hartu ditu bere *Morfologian*, beraren ustez formarik jatorrena bestea delarik.

Gaur egun, gutxienez maila idatzian forma biak erabiltzen badira ere, bigarrenekoak lehenengoak baino kutsu kultu eta literarioagoa du gure eritziz.

GOENAGAk (1980), hauxe adierazi du perpaus hauei buruz, *bezala* moduzko adberbio erlatiboa eramateagatik, modua eta konparazioa adierazten dutela esan ondoren: “Horrelako egitura simple bat (axalean hain ximple agertzen zaiguna) agertzen bazaigu, moduzkoa dela esan genezake, baina baita baldintzazkoa ere, noski”.

Ondoren, mota horretako perpausak sakonago aztertzeke asmoaz, ondoko adibidea emango dugu, GOENAGAk ez bezala, hizkuntz maila teknikoaren adibidea aukeratu dugularik:

(12) *Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz bezala jokatuko dugu*.

Autore honen ustez, mota honetako perpausen azpian, hurrengo hau legoke:

(12bis) *Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz jokatu-ko genukeen bezala jokatu du.*

Aurreko perpausetan segitu dugun arrazonamendu bera erabilirik, hurrengo perpausak proposa genitzake egitura sakonerako:

(12a) *Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz, horrela jokatu-ko genuke.*

(12b) *Horrela jokatu du.*

Ikus daitekeenez, aurreko kasuetan gertatu zaigun bezala, moduzko adizlagun funtzioa duten bi izen-sintagma errepikatu dira, ezberdintasun bakarra perpaus matrizean txertatu nahi dugun perpausaren baldintzazko izaeran datzalarik. Beraz, erlatibizazio-transformazioa beti bezala ezaririk:

→ (12ⁱ) $_{Po}[*]_{IS}[P_1[Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz horrela jokatu-ko genukeen]_{P_1} horrela]_{IS} jokatu du]_P.$

→ (12ⁱⁱ) $* Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz \emptyset jokatu-ko genukeen horrela jokatu du.$

→ (12ⁱⁱⁱ) *Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz jokatu-ko genukeen bezala jokatu du.*

Amaitzeko, errepikaturiko aditza ezabatuz:

→ (12) *Informazio osoa kromosoma bakarrean egongo balitz $\emptyset\emptyset$ bezala jokatu du.*

Aurreko adibide horretan, ez dago aurrerago joaterik, baina beste kasu batzutan, posible da adizki hipotetikoa ezabatzea. Ikus ondoko adibidea:

(13) *Teleobjektibo batez begiratu-ko bagenu bezala ikusten du.*

Kasu horretan, posible da adizki hipotetikoaren elipsia:

→ (13ⁱ) *Teleobjektibo batez bezala ikusten du.*

Nabaria da (13) adibidean *teleobjektibo batez* ISak dituen ezaugarri semantikoek batetik eta bestetik *ikusi/begiratu* aditzek kasu instrumentalekin izan lezaketen nolabaiteko subkategorizazioa, istilu honetan (eta gutxienez perpaus honetan) kontutan hartzeko faktoreak direla.

Lerro berean, baina, Axularrek dituen zenbait *absolutibo mugagabeen deklinaturiko izen-sintagma + bezala* egitura duten zenbait perpaus, honelako elipsien bidez azal daitezke:

Bekhatua beretakotzen, eta natural bezala errendatzen du (AX.070.31).

Perpaus honen azpian hurrengo hau dagoela pentsa dezakegu:

..., *eta natural balitz bezala errendatzen du.*

Aurreko hori, kontutan hartu behar dugu *absolutibo mugagabeen deklinaturiko izen-sintagma* + **bezala** egiturarako esan duguna nonbait aldatzeko: Bestelako lan batetan ikusteko dugun atribuzio eta *bezala / modura* direlakoan arteko harremana alde batera utzirik (ikus 10 sarrera orokorra), egitura hori zenbait kasutan adizki hipotetiko baten elipsiaz sortu dela onar daiteke, horrela izanik azken finean konparaziotzat jo litekeelarik.

Hala ere, beste kasu batzutan, ezinezkoa da Axularren perpausak mekanismo horren bidez azaltzea:

Zeren non da giristinorik, giristino bezala bizitzen denik (AX.093.12).

Adibide honetarako, nekez asma genezake aurrekoan gauzaturiko parafrasia: Perpausaren lehenengo zatian giristinoei buruz mintzatu delarik, bigarren partean *giristino balitz bezala* egitura sakona, anormala izango litzateke maila semantikoan. Nolabaiteko parafrasia edo eta egitura sakona egokitzekotan, *giristinoek bizi behar duten bezala* edo antzekoa behar litzateke. Geroago prozedimendu sortzailea ezartzeko, ordea, arazoak leudeke, soilik arbitrarioki ken baikenezake ergatibo-marka.

Adibide soila aurkeztu badugu ere (adibide berezi samarra: giristinoaren izaera / giristinoaren bizitza), ez dugu uste kontu marginala denik, eta behin baino gehiagotan esan ere, mota honetako edukin semantikoa *mugagabeen deklinaturiko izen-sintagma* + **modura** eta abarreko egituren bidez modu garbiagoan adieraz daitekeela esan behar dugu.

Edonola, eta laburtuz, euskararen *adizki hipotetikoa* + *-(e)n* + **bezala** eta bestelako hizkuntzen pareko egiturak ere, maila semantiko/pragmatikoan behintzat, konparatiboak direla esan daiteke. Prozedimendu sortzaileak, beste *bezala* guztien antzera lor daitezkeela iradoki digu, zenbait kasutan errepikaturiko elementu batzu elidi daitezkeelarik.

12.08. **Bezalako duten perpaus konparatiboak**

Autore guztiak, bat etorri dira *bezalako* juntagailua sailkatzeko orduan, berari buruz soilik aipu laburrak egin badituzte ere. Hona hemen aipu horietariko batzu:

ALTUNAK (1979), izena laguntzen duenean *bezala* adberbioak hartzen duen forma adjektibaltzat jo du *bezalako* juntagailua. ITHURRYK (1979) ere, berdintasunezko konparatiboak eratzen dituzten adjektibo erlatiboan artean sailkatu du *bezalakoa*, *bezanbatekoarekin* batera. GOENA-

GAK (1980), halaber, agian zehazkien, ondokoa azaldu du *bezalako* junta-gailuaz: “*Bezala* daraman perpausa aditzlaguntzat eman dugu eta aditzlagun guztiek bezala, *-ko* atzizkia har dezake. Orduan, dakigunez, izenlagun bihurtzen zaigu”.

Ikuspegi morfologikotik hain erraza den azalpena (Alg + *-ko* = Ilg), zailago gertatuko zaigu sorrera-mekanismoaz arituko garenean. Izan ere, *bezala* erabiltzean modua konparatzen dugun bitartean, *bezalakoaren* kasuan, itxuraren eta agian izaeraren berdintasuna adieraziko dugu. Hori dela eta, egitura sakonetik bertatik guztiz ezberdinak diren perpausak izango dira *bezala* eta *bezalako* dutenak, eta ez *bezala* adberbioa dukeen perpaus baten azalerako egituran buruturiko zenbait transformazioen emaitza.

Bezalako juntagailua erabili ahal izateko, egitura sakoneko subjektu-funtzioa duten bi absolutibo-sintagmez gain, atributu-funtzioko beste bi sintagma (adjektibal) erreferentzikide behar izango dira, sakoneko bi perpausak eredu atributibo arruntekoak izanik:

Esate baterako, (14) adibidearen azpian, ondoko bi perpausak leudeke:

(14) *Artropodo hauen kutikula*, beste artropodoena bezalakoa da.

(14a) *Artropodo hauen kutikula*, horrelakoa da.

(14b) *Beste artropodoena*, horrelakoa da.

Eta beti bezala, erlatibizazio-transformazioa erabiliz:

→ (14ⁱ) p_0 [**Artropodo hauen kutikula*]_{IS}[p_1 [*beste artropodoena horrelakoa den*]_P, *horrelakoa*]_{IS} *da*]_P.

Ondoren, errepikaturiko izen-sintagma ezabatuz:

→ (14ⁱⁱ) *Artropodo hauen kutikula*, *beste artropodoena* $\emptyset$ *den horrelakoa da*.

Amaitzeko, forma adjektibal absolutua erlatiboaz ordezkatzuz,

→ (14ⁱⁱⁱ) *Artropodo hauen kutikula*, *beste artropodoena den bezalakoa da*.

Aurreko perpauseren atzizkia errepikaturik egonik txertatuarena eza-
ba dezakegunez, jatorrizko perpausa lortuko dugu.

→ (14) *Artropodo hauen kutikula*, *beste artropodoena* $\emptyset$ *bezalakoa da*.

Puntu honi bukaera emateko, *bezala* juntagailuaz esan duguna errepikatzea besterik ez zaigu falta, *bezalakoa* juntagailua konparaketa orokorra adierazten dutenetarikoa izanik esparru semantiko murriztuagoaz aritu nahi dugunean *bezain* + *adjektiboa* egitura erabili beharko dugula alegia.

Gaztelerari dagokionez, hizkuntza horri buruz mintzatu garenean profilatu ditugun eremu semantikoen artean, berdintasunezko konparati-boetan eta zehazkiago, kualitatezkoetan sailkatu direnei, hau da, *tal como* edo *como* juntagailuen bidez eratzen direnei dagokiekeela esan dezakegu.

12.09. *-(e)n + modu / era / gisa + adlatibo, inesibo edo instrumental-marka*

GOENAGAk (1980) *perpau* erlatiboa + *bezala* delako egitura azaltzeko erabiliriko mekanismoaren antzeko bat erabili du *erlatiboa + erara* delako egituraren sorrera aztertu duenean. Baina zehazki behatuz gero, azkeneko mekanismo hori zeharo berdina ez dela antzemango dugu.

Hasteko, egitura sakonean errepikaturik dagoen adizlaguna, adberbio konparatibo absolutua izan beharrean, izen-sintagma arrunta izango da eta izen arrunta izanik erlatibizazioa berez onartzen duenez, ez dugu aurreko perpausetan burutu behar izan dugun adberbio absolututik adberbio erlatiborako transformazioaren beharrik izango.

(15) *Guk, ikertzaile-talde horrek aztertu duen erara aztertuko dugu fenomeno.*

Azalerako perpauserako, hurrengo egitura sakona proposa dezakegu:

(15a) *Ikertzaile-talde horrek, fenomeno era batetara aztertu du.*

(15b) *Guk, era horretara aztertu dugu fenomeno.*

Erlatibizazio-transformazioa aplikatuz:

→ (15ⁱ) $_{Po}[*Guk]_{IS}[Ikertzaile-talde horrek fenomeno era batetara aztertu duen]_{Pi} era horretara]_{IS} aztertu dugu fenomeno]_{P}.$

→ (15ⁱⁱ) *Guk, ikertzaile-talde horrek fenomeno $\emptyset$ aztertu duen erara aztertu dugu fenomeno.*

Eta *fenomeno* izena errepikaturik egonik ezaba dezakegunez:

→ (15ⁱⁱⁱ) *Guk, ikertzaile-talde horrek $\emptyset$ aztertu duen erara aztertu dugu fenomeno.*

Modu berean azal daiteke, jakina, *modu* eta *gisa* izenen kasua, eta baita eramango dituzten adlatibo, inesibo edo instrumental-markak: Oro-korki, berdintasunezko konparaketa modalaren esparrua, noski.

Arlo honi bukaera emateko, hauxe gaineratu behar diogu: Ezaguna denez, euskal erlatibo murriztailea ordenaren inguruko gogoetak alde batera utzirik, adizki jokatuari azken finean genitibo-markatzat jo litekeen *-(e)n* atzizkia lotuz gauzatzen da. Edozein erregistrotan, baina, badakigunez, *-(e)neko* atzizkia jarri ohi da zenbait kontestu morfosintaktiko ezaguetan, horrelako kontestuak gertatzen direneko guztietan ez bada ere.

Lehenengo atzizkia, perpaus menperatuaren izen-sintagma erreferentzikide ezabatu baino lehen zuen kasu-marka absolutibo, ergatibo edo datiboari dagokionean erabiltzen da (autore guztien arauera problemarik gabe erlatibiza daitezkeen ISak GOENAGA (1980)), izen-sintagma hori ezabatzeagatik galduko den marka hori, aditzean errepikatuta egonik berreskuragarria baita:

(16) *Etologia deritzon Biologiaren atalak, animalien jokaera aztertzen du* (datibo-marka galdu da).

Perpaus menperatuaren izen-sintagma erreferentzikideak zuen kasu-marka inesibo, adlatibo, elatibo edo instrumentalari dagokionean, zenbaitetan menperatuaren adizkiaren arauera ondoriozta badaiteke ere, anbiguitate-kasuak gertatzen dira sarri askotan: OYHARÇABALEk (1986) bere artikulatu batetan jaso duen GOENAGA eta DE RIJKen eritzia kontutan hartuz, hizkera hertsian behintzat ezin erlatiba daitezkeen ISak dira aipaturiko kasu-markak eramaten dituztenak. Badago hizkera arruntetan baina, honelako egoera morfosintaktikoetan *-(e)n* jarri barik *-(e)neko* jartzeko nolabaiteko usadio, orokorra ez bada ere. Aipaturiko desanbigrazioak ekiditeko, usadio hori, gutxienez maila teknikoan norma bihurtzea komenigarria dela dirudi ETXEBARRIAk (1978) esandakoaren arauera.

(17) *Mota horretako intsektuak infekta dezaketeneko lekua murriztua izaten da* (inesibo-marka galdu da).

Aurreko adibidean hain zuzen ere, *-(e)n* / *-(e)neko* oposaketa beste kasu batzutan baino ere garrantzitsuago gertatu da, *infekta dezaketen aldia* igorritz gero infektatzen dena bizidun bat izan gabe lekua dela pentsa bailezake irakurleak gaiaren inguruko aurrezaguerarik izan gabe behintzat.

Bestalde, ALVAREZek (1974) adieraziriko lau deklinabide-kasuen taldeetatik bigarrenekoak kontsideratuz (asoziatibo, destinatibo, kausatibo eta noski, genitiboa), ezin erlatiba daitezkeela ikus daiteke OYHARÇABAL (1986) D.RIJKen eritzia berrikusiz, galduriko kasu-marka zeharo berreskuragaitza baita.

-(e)n + modu / era / gisa + adlatibo, inesibo edo instrumental-marka motako egiturakoei dagokienez, garbi dago ezabatzen den izen-sintagmak adlatibo, inesibo edo zenbait kasutan instrumentalari dagozkien kasu-markak eramango dituela, eta beraz, erlatiboa eratzeke *-(e)neko* atzizkia eskatuko duela.

Hala ere, hurrengoak hartu behar ditugu kontutan, nonbait kasu konkretu honetan *-(e)neko* atzizkiak eskaini lezakeen desanbigrazioa horren beharrezkoa ez dela antzemateko: Alde batetik, errepikaturiko izen-sintagma kasu berean egonik, perpaus menperatuarena ezabatu ondoren ere, kasu-marka perpaus nagusian mantendu egingo da eta berorrek,

eragin nabaria izango duke informazioaren deskodifikazioan besterik ez bada ere; bestalde ere, beraien esangura semantikoaren zati handia galdua izanik, nolabaiteko klitxe bihurtu direnez, zentzu bakarreko deskodifikazioa dute, *-(e)neko* atzizkiaren agerpenarekiko independentea hain zuzen eta izen modura “sentitzen” ez deneko neurrian, gogor samar gerta daiteke *-(e)neko* atzizki osoa. Horrela ba, eta iskanbila honen adierazle modura, *-(e)n(eko)* notazioa erabil liteke kasu hauetarako.

(18) *Argi-energia, pigmentuek eskuratzen dute, absortzio espektruen frogatzen duten modura.*

Edozein kasutan ere, aurretik aipatu den erregela orokorra onartu nahi izatekotan, hau da, galduriko kasu-marka aditzarekiko komunztaduraren hiruretarikoa ez denean, *-(e)n* erabili gabe beti *-(e)neko* erabiltzeko erabakia, egokia izan liteke: Deskribatu izan ditugun azken kasu hauetan izen horiek oso edukin semantiko ahula izanik eta beraz ia baliabide gramatikal hutsa izanik anbiguitate-arazorik ez duten arren, askoz ere ugariagoak dira konparaburu horiek edukin semantiko osoa duteneko kasuak eta hauetan *-(e)neko* atzizkiaren funtzio desanbiguatzailerak frogaturik dagoelakoan gaudelarik, errazago bide da kasu guztietarako *-(e)neko* atzizkia hautatzea. Ikus bedi, dena dela, 12.15 saila.

Edonola, ez da ahanzi behar *-(e)n* / *-(e)neko* oposaketarekiko paralelismoan, nonbait, konparazioa / ez-konparazioa dugula esan genezakeenik.

(18ⁱ) *Argi-energia, pigmentuek eskuratzen dute absortzio-espektruen frogatzen duteneko moduan.*

12.10. Izen-sintagma + genitiboa + *modura* / *erara* / *gisara*

12.01 puntua itzulirik, *-(e)n* + *bezala* motako perpausai dagokienez, errepikaturiko elementuak ezaba daitezkeela esan eta areago, aztertu dugula gogoratuko dugu. 12.09an azterturiko perpaus-mota horiei dagokienez, ez ditugu inoiz *erara* eta antzeko segmentuak izen-sintagma, partizipio, adberbio edo aditz-izenari zuzenki loturik aurkituko. Horren arrazoiak, partikulen beraien izaeran datza, *bezala* nolabaiteko juntagailu erlatiboa izanik, gainerakoak perpaus erlatiboari betiko moduan loturiko izen-sintagmak baitira: Izen-sintagma izanik, soilik izenlagunari lot dakizkioke; hori dela eta, genitiboan (edo delimitatiboan) deklinaturiko izenari lotzeaz gain, nonbait izenlagun berbaltzat jo genezakeen *adizki jakatua* + *-(e)n* egiturarekiko enklitiko modura ager daitezke, baina ez aditz-izen edo partizipioarekikoa:

(18) *Zooideoak, kalkareoak eta tubiziformeak izango dira trepostomatuenen modura.*

Izan ere, GOENAGAk (1980) proposaturiko formula kontutan hartuz,

$$\text{Ilg} \rightarrow \begin{vmatrix} \text{IS} + \text{-(e)n} \\ \text{Alg} + \text{-ko} \\ \text{P} + \text{-(e)n} \end{vmatrix}$$

erlatiboaz zein genitiboaz eraikitako bi esaldi mota horien artean dagoen ezberdintasun bakarra izenlaguna gauzatzeko erabili den bidean datza.

Puntu hau amaitu baino lehenago, 12.08 puntuan azaldu dugunaren analogiaz, ondokoa emango dugu aditzera: *Erara*, *gisara* edo *modura* duten perpausak, adizlagun funtzioa dutelarik, koerlazio konparatiboa gauzatu baino lehenago egitura sakonean ditugun perpausak atributiboak direnean, partikula horiei esleai dakizkiekeen izenlagunak erabili beharko ditugu, hau da, *erako*, *gisako* eta *moduko* hurrenez hurren:

(20) *Gasteropodoetako arraultzeen garapenaren hasiera, beste moluskuaren modukoa izaten da.*

(21) *Arren hormona sexuales eragiten dituzten antzerako ekintzak dauzkate talde honetakoek.*

(22) *Horren gisako arrazoi batzurengatik sortu zen.*

Azkenik, azpimarratzekoa dugu izenlaguna + *erara* / *modura* / *gisara* egitura hau, eta bestelako lan batetan aztertzeko dugun *absolutibo mugagabearen deklinaturiko izen-sintagma* + *erara* / *modura* / *gisara* funtzio bereko egiturak inola ere ez direla.

12.11. *Bezain* / *beste*, *bezainbeste*

Bezala eta *bezalako* juntagailu konparatiboak aurkeztu ditugunean, gazteleraren *Esbozo...* delakoan profilaturiko eremu semantikoetatik euskal *bezala* eta *bezalako* direlakoek zeintzu bete dezaketen ikusi dugu: Modua eta kualitatea adierazteko direla behatu dugu, alegia. Berdintasun-konparaketaren esparruko beste perpausak eraikitzeko, hala *bezain*, *bezainbat*, adina eta *beste* konparatibo erlatiboak, nola *honen*, *horren*, *hain* eta *honenbeste*, *horrenbeste*, *hainbeste* eta *hainbait* serieetako juntagailu absolutuak erabil daitezke.

Puntu honi dagokionez, euskal autoreak, bat etorri dira nolabaiteko sailkapena egiteko unean. Esate baterako, ALTUNAK (1979), aurretik aipatu dugunez, adberbio konparatiboen artean, absolutuak eta erlatiboak bereiztu ditu: Lehenengoen, konparaketa-terminorik behar ez dutenez sintagma baten hasieran agertzeko posibilitatea izanik, bigarrenak konparaketa-terminoa behar dute eta ezin ager daitezke inola ere sintagma-

-hasieran. Beste modu batetara esanez, *bezain(bat)* esta *beste*, konparazio-terminoarekiko enklitikoak dira.

Gaztelerarekiko baliokidetasunaz mintzatu denean, bestalde, absolutuak, gazteleraren *tan* partikularekin parekatu ditu, erlatiboak *tan como* edo *tanto como* egiturei egokitu dizkielarik. Halaber, ager daitezkeeneko kontestuen arauera, kuantitatibo izena esleitu dizkie *bezain / honein, horrein, hain* seriekoei eta kuantitatibo *bezainbat / hanbat* seriekoei, lehenengo atzean adjektibo edo adberbioa aurkituko dugun bitartean, bigarrenen atzean soilik esplizitaturiko edo esplizitatu gabeko izena ager daitekeelarik.

Sailkapen hori eta *Ezbozo...* lanean gaztelerazko konparatiboei buruz egindakoa, ezberdin samarrak direla esan dezakegu, bertan kualitatearen konparazioan *tal cual (como)* partikulaz eraturikoak soilik, hots euskaraz *bezalakoa* partikula hartzen dutenak sailkatu baitituzte, beste konparaketa guztiak (*tanto cuanto, tanto como, tan como*) kantitatearen arloan sartu dituztelarik.

Edozein modutan ere, euskal bibliografia ALTUNAREN sailkapenarekin bat etorri dela eta, berorren terminologiari jarraituko gatzazkio gu ere. GOENAGAK (1980), ALTUNAK egindako modu berean sailkatu ditu egitura horiek, zenbait zehaztasun gehiago emanez.

Azken autore honek adierazi duenez, adjektiboaren graduatzailearen lekua betetzen duen perpaus txertatua litzateke *-(e)n + bezain* motakoa, *-(e)n + adina, beste edo bezainbeste* motakoa, ordea, zenbatzaileen lekua beteko duelarik.

Perpaus konparatibo horien sorrera-mekanismoari dagokionez, egitura sakonean leudekeen bi perpausetan, graduatzaile bera duten adjektibo-funtzioko bi sintagma izango dira errepikaturikoak, egitura ere bera izango delarik. Adibidez: *IS + adjektibo-funtzioko IS + aditza*.

Dena dela, hala sintagma atributiboan dagoen adjektiboa, nola perpausen subjektua, ez dira zertan berdinak izan behar egitura sakonetan. Ikus dezagun, adibide gisa, ezberdintasun-gradurik altuena aurkez dezakeen perpausa, hau da, bai subjektua eta bai adjektiboa desberdinak direneko kasua:

(23a) *Itsasoa hain egonkorra da.*

(23b) *Lehorra hain aldakorra da.*

→ (23ⁱ) $P_0[{}^*Itsasoa]_{IS} [P_1 [Lehorra hain aldakorra den]_{P_1} hain aldakorra]_{IS} da]_P$.

Errepikaturiko graduatzailea ezabaturik eta juntagailu konparatibo absolutua erlatiboaz ordezkatzuz:

→ (23) *Itsasoa, lehorra ∅ aldakorra den bezain egonkorra da.*

Kasu horretan, aurrerago ezin joan badaiteke ere, adjektibo bera duten perpausen kasuan, posible gertatuko da zenbait elementuren eza-baketa ere. Adibidez, (23)aren ordeztu (24koa) izango bagenu:

(24) *Lehenengo metodoa, bigarrena zehatza den bezain zehatza da.*

Kasu horretan, errepikaturiko adjektiboa ezaba genezake:

→ (24ⁱ) *Lehenengo metodoa, bigarrena $\emptyset$ den bezain zehatza da.*

Eta baita errepikaturiko aditza ere ezabatuz,

→ (24ⁱⁱ) *Lehenengo metodoa, bigarrena $\emptyset$ bezain zehatza da.*

Bestalde, ALTUNAK (1979) adierazia duenaren arauera, *bezain* partikula adberbioari ere, lot dakioke. Funtzioari dagokionez, horrek ez digu arazorik planteiatuko, graduatzaileak adjektiboari zein adberbioari modu berean erants baitakizkieke (ez baita hau lekua zenbait euskal egiturak adberbioa/adjektiboa oposaketari azaldu dizkion arazoez aritzeko).

Hala ere, egitura sakoneango perpausari eskatu behar dizkiegun baldintzei dagokienez, ezberdintasunak azalduko dira: bide horretatik, *-(e)n* + *bezain* + *adberbioa* motako perpaus txertatuak atributuaren funtzioa bete gabe adizlagunarena beteko du, eta egitura sakoneko perpausak, atributiboak ezezik, beste edozein sailletakoak izan baitaitezke:

(25a) *Artropodoak hain ondo moldatu dira lehorrera.*

(25b) *Ugaztunak hain ondo moldatu dira lehorrera.*

→ (25ⁱ) p_0 [*Artropodoak]_{IS} [p_1 [Ugaztunak lehorrera hain ondo moldatu diren] _{p_1} hain ondo]_{IS} moldatu dira lehorrera]_P.

(Hain ondo delakoa, ISTzat jo dugu analisi honetan, lan honen gunetik urrun egingo gintuzketen kontsiderazioetan ez sartzearen).

→ (25ⁱⁱ) *Artropodoak, ugaztunak lehorrera $\emptyset \emptyset$ moldatu diren hain ondo moldatu dira lehorrera.

→ (25ⁱⁱⁱ) Artropodoak, ugaztunak lehorrera moldatu diren bezain ondo moldatu dira lehorrera.

→ (25) *Artropodoak, ugaztunak $\emptyset \emptyset \emptyset$ bezain ondo moldatu dira lehorrera.*

Lehenago, konparaketa orokorren kasuan adizlagun-funtzioa betetzen zuten perpausak, *bezala* moduzko adberbioaz lotuta egonik, modua besterik ezin adieraz bazezaketen ere, (25) sailako perpausak edozein motatako adberbioa eraman dezaketenez, gertaeraren edozein zirkunstantzia konpara dezakete. Ikus bitez hurrengo adibideak:

(27) *Lehenengo hipotesia, bigarrena bezain berandu formulatu zen.*

(28) *Ikertzaile horiek, gu bezain hurbil egon dira arazoaren ebazpenetik.*

Puntu honi amaiera emateko, zenbatzaile-funtzioa betetzen duten **-(e)n + bezain (beste) / adina** motako egiturez arituko gara. Esana dugunez, kasu honetan, izenari lotuko zaio erlatiboaren ondarra, lortuko den perpaus txertatua edozein ISren parekoa izango delarik: hots *zenbatzailea + izena* motakoa.

Eta sorrera-mekanismoari dagokionez, (29)aren motako perpausak izango genituzke egitura sakonean.

(29a) *Lehenengo laginean, horrenbeste ale bildu dugu.*

(29b) *Bigarrenean, horrenbeste ale bildu dugu.*

→ (29ⁱ) p_0 [**Lehenengo laginean*]_{IS} [p_1 [*bigarrenean horrenbeste ale bildu dugun*]_{P₁} *horrenbeste ale*]_{IS} *bildu dugu*]_{P₀}.

→ (29ⁱⁱ) **Lehenengo laginean, bigarrenean ø bildu dugun horrenbeste ale bildu dugu.*

Juntagailu absolutua erlatiboaz ordezkatzuz:

→ (29ⁱⁱⁱ) *Lehenengo laginean, bigarrenean bildu dugun beste ale bildu dugu.*

→ (29) *Lehenengo laginean, bigarrenean øø beste ale bildu dugu.*

Batzutan, *beste* zenbatzailea duen izen-sintagmaren izena, ezagun dugu kontestuagatik eta ezaba dezakegu. Horrela, laginez mintzatzen ari bagara, hurrengo esan dezakegu (29) perpausaren ordeztu:

→ (29bis) *Lehenengo laginean, bigarrenean beste ø bildu dugu.*

Amaitzeko, bezalaren kasuan gertatu deneko modu berean, *IS + -ko* → Ilg berridazketa-erregela erabiliz, egitura sakonean perpaus atributiboak ditugunean (*bezain*)*bestekoa* edo *adinakoa* jarri beharko dugu azalerrako egiturari. Hona hemen adibide batzu:

(30) *Lehenengo multzoak, bigarrenak bezainbeste unitate dauka.*

→ (30ⁱ) *Lehenengo multzoak, bigarrenak bezainbeste ø dauka (unitatez ari garela ezagun dugunean).*

Kontzeptu bera adieraz genezake egitura atributiboa erabiliz, baina izen-sintagmari atributu-funtzioa esleiturik:

(31) *Lehenengo multzoa, bigarrena bezainbeste unitatekoa da.*

→ (31ⁱ) *Lehenengo multzoa, bigarrena bezainbestekoa da.*

Ikus bitez, bukatzeko orain arte euskal konparaketaren esparruari buruz bibliografiaren baitan aurkituriko guztiak eta baita gure ekarpen txikiak osaturiko laburpena, 12 koadroa.

K O N P A R A K E T A	O R O K O R R A	Konparaketa modala	-Juntagailu absolutuak <i>Koneks, horreks, baks</i> -Juntagailu erlatiboak <i>Bestala</i> == $\left \begin{array}{l} -(e)n \\ ad. hipot. \\ IS \\ partisip. \\ adverbios \\ aditaisena \end{array} \right + \text{Bestala}$ $I + ex\text{-}bestala$ -Bestelako baliabide batzu $\left \begin{array}{l} -(e)n(eko) \\ Ilg. \end{array} \right + \left \begin{array}{l} modu \\ era \\ gisa \\ lape \\ molde \\ antas \end{array} \right + \left \begin{array}{l} ines. \\ adlat. \\ inst. \end{array} \right $
		Konparaketa adjektibala	-Juntagailu absolutuak <i>Konekako(a), horrekako(a), bakako(a)</i> -Juntagailu erlatiboak $\left \begin{array}{l} -(e)n \\ IS \\ adverbios \end{array} \right + \text{bestakako(a)}$ -Bestelako baliabide batzu $\left \begin{array}{l} -(e)n \\ Ilg. \end{array} \right + \left \begin{array}{l} moduko(a) \\ erako(a) \\ gisako(a) \\ antzeko(a) \end{array} \right $
	E N - O R O K O R R A	Konparaketa kualitatiboa	-Juntagailu absolutuak <i>Konen, horren, bain</i> + $\left \begin{array}{l} adjektibos \\ adverbios \end{array} \right$ -Juntagailu erlatiboak $\left \begin{array}{l} -(e)n \\ IS \\ partisip. \\ adverbios \end{array} \right + \text{bestan} + \left \begin{array}{l} adjektibos \\ adverbios \end{array} \right$
		Konparaketa kuantitatiboa	-Juntagailu absolutuak <i>Konenbeste, horrenbeste, bainbeste</i> + $\left \begin{array}{l} izens \\ \sigma \end{array} \right$ -Juntagailu erlatiboak $\left \begin{array}{l} -(e)n \\ IS \\ adverbios \end{array} \right + \left \begin{array}{l} bestainbeste \\ beste \\ adina \end{array} \right + \left \begin{array}{l} izens \\ \sigma \end{array} \right$

1.2.-koadroa: Euskal konparaketaren esparruko *bestala* eta zenbait baliabide

12.13. **-(E)nez atzizkia duten perpaus modalak**

13 sailean ikusteko dugun *corpusa* aztertzea baino ez dugu behar *bezala* juntagailua aurreko puntuetan aipatu diren kontestuetatik kanpo ere erabili dela ikusteko. Beha dezagun, esate baterako, hurrengoa:

(32) *A. Szent Gyorgyi-k dioen bezala...*

Mota honetako perpausetan moduzko kutsua antzeman badezakegu ere, ez dugu inondik konparaketarik aurkituko. AZKUE (1923) irakurtzea, *bezalaren* delako erabilera hori zalantzatan jartzeko beste izan daiteke: Beraren ustez, *como* orokorki *según* delakoaren zentzuan erabiltzen da eta *-(e)nez* atzizkiaren bidez itzuli behar genuke (*esan nuenez*), *bezala* eta beraren aldakiak, *de la misma manera que* adierazi nahi dugunerako utziko ditugularik: *Irakurtzen denez (sic) = Según y como se lee, neskati-leak dinoanaz (sic) = Según y como dice la muchacha.*

VILLASANTEk (1979) ere, *-(e)nez* atzizkia erabiliz itzuli du *como*, *según* direlakoan zentzuan: *Entzuten denez = Como se oye, Diotenez = Según dicen*. Beraz, 11 sailaren eskeman profilatu ditugun erremu semantikoei dagokienez, konparatiboetik intersektiotik kanpo geratu diren moduzko egituren arloan kokatu behar ditugu mota honetakoak: Gogora daitekeenez, *bezala* duten egiturek, ikuspegi semantikotik modua adierazten badute ere, azken finean modu horren konparaketa adierazten dute; *-(e)nez* honen kasuan, aldiz, gazteleraz *como* bera erabili arren, ez dago maila semantiko/sintaktikoan nolabaiteko konparaketari legozkiokkeen bi terminoak kontsideratzerik.

Halaber, *-(e)nez* atzizki konjuntiboaz eremu osoa estaliko ez dugula esateko beharra dago, gazteleraz *según y como* delakoa erabiltzen deneko kasuetan adibidez, euskaraz *genitibo-marka + arauera* erabiliko delarik.

Alderantziz ere, *-(e)nez* atzizki honek dituen zenbait erabilerak ez bide du *como* juntagailudun parekorik: *datibo-marka + dagokionez* (nonbait klitxetat jo daitekeena) eta askoz ere gutxiagotan erabiltzen diren *doakionez*, *datorkionez*, *datxekionez*... Edozein kasutan ere, ez dirudi azken mota hauetako egiturak *bezala* dutenekiko intersektzioan daudenik, eta lan honetarako planteiatu ditugun helburuetatik urrun samar geratu dirateke.

-(E)nez /-(e)n + bezala dialektika honi dagokionez, erregela zehatz bakarra AZKUErean (1925) aurkitu badugu ere, *bezala* juntagailuaren definizio eta ezaugarriak behin eta berriro azaldu direnez (ikus 121 saila), azpian konparaketarik ez duten perpausetan erabiltzea juntagailu horren izaera ahaztea dela ondoriozta daiteke erraz, eta beraz, *-(e)nez* juntagailua erabili beharko da *-(e)neko modu berean* delakoan oinarrituriko parafrasia onartuko ez duten kasu horietan.

Gure *corpusean* autore gehienek, *bezala* erabili dute gehien bat aipatua dugun konparaketarik gabeko modu-egitura horiek gauzatzeko orduan. Ikus zenbait adibide:

(33) *Irudian ikusten den bezala*,...

(34) *Geroago ikusiko dugun bezala*,...

(35) *Esan dugun bezala*,...

(36) *Hala ere, beste solutu batzuk, lehen esan dugun bezala, mintza ezin dute zeharkatu.*

Gure eritziz, beste modu honetara, itzuli behar izan ziratekeen perpaus horiek edo gutxienez, horrela zehatzago geratu ziratekeelakoan gaude.

(33ⁱ) *...ikusten denez*,... edo, gure ustez eukal aspektua hobeto errespetatuz, *...ikus daitekeenez*,...

(34ⁱ) *...ikusiko dugunez*,...

(35ⁱ) *...esan dugunez*,...

(36ⁱ) *...lehen esan dugunez*,...

Ikus daitekeenaren arauera, goiko perpaus horiek, nekez onar dezakete *-(e)neko modu berean* parafrasia, zeren inolako konparaziorik isladatu gabe, autore baten esanak edo behaketa baten ondorioak estilo zuzenean txertatzeko erabili baitira. Nolabaiteko ordezkaketa onartzekotan, *genitibo-marka* + *eritziz*, *ikuspuntutik arloan* eta antzekoak egokitu behar litzaizkieke *-(e)nez* juntagailua eskatuko duten egiturei.

12.14. Perpaus kausaletango *-(e)nez* atzizkiaren erabilera

Atzizki hau aurreko sailean azaldu dugun moduari dagokion arlo semantikotik at ere hedatua dela esan behar da, 11 sailaren eskeman kausal modura aipatu dugun esparru semantikoraino hain zuzen ere.

Gaztelaraz *como*, *como que* eta *como quiera que* direlakoak erabiliz gauzatzen diren egiturak, euskaraz, *-(e)nez* atzizki konjuntiboa erabiliz itxuratu ohi dira. Mota honetako perpausak *-(e)la eta* eta *-(e)la eta* parafraasiak onartzen dituztela esan behar dugu bukatzeko:

(37) *Elikadura-mota honek nitrogenoaren exkrezioari buruz planteiatzen dituen arazoak aurreko gaian aipaturik daudenez, hemen ezer gutxi gehituko dugu.*

12.15. **Gazteleraz *modo*, *manera*, *medio* + *como* itxura duen subordinazio adjektibala**

Como juntagailuaren subordinazioaren esparruango erabileraren puntuari bukaera emateko, *modo*, *manera*, *medio* edo antzeko sintagma erreferentziala izanik *como* juntagailuaz lotzen diren perpaus erlatiboei euskaraz parekoa bilatzea baino ez zaigu falta.

Mota honetako perpausen aitzindariak, gazteleraz *modo*, *manera*, *medio* taldeko izena bada, euskaraz *-(e)neko* atzizki konjunktiboari loturik joango den izena *modu*, *era*, *gisa* direlako ez osoturiko taldekoa izango dela ondoriozta dezakegu, beti ahortzi gabe kasu honetako substantibo horiek beren edukin semantiko osoa gorde dutela. Bestalde, badakigu erlatibozko perpausetik enklitiko den izenari edozein deklinabide-marka lot dakiokela. Ikus, horrela, ondoko adibideak:

(38) *Artropodoek lehorra kolonizatu zuteneko modua, harrigarria da.*

(39) *Artropodoek lehorra kolonizatu zuteneko moduak, zenbait ondorio berezi ekarri zuen.*

(40) *Mesodermoa eratzen deneko modu horri, teloblastia deritzo.*

Modu berean, bestelako kasu-markak ere aplikatu dakizkieke:

(41) *Lehenengo experimentua burutu deneko eran, zenbait akats detektatu dugu.*

(42) *Lehenengo experimentua burutu deneko eraz, mintzatuko gara orain.*

(43) *Lehenengo prozesua burutu deneko erara itzuliko gara oraingo sail honetan.*

Inesibo-, instrumental- eta adlatibo-marka hauek direla eta, beha bedi beste hauekiko ezberdintasuna:

(41bis) *Lehenengo experimentua burutu den(eneko) eran egingo dugu gure ikerketa.*

(42bis) *Lehenengo experimentua burutu den(eko) eraz burutuko dugu guk geuk ere, gurea.*

(43bis) *Lehenengo experimentua burutu den(eko) erara, bigarrena ere, aurrera eramango da.*

Nonbait ikus daitekeenez, lehenengo taldeko perpausetako erlatiboburuen inesibo-, instrumental- eta adlatibo markak direla bide, *non*, *zertaz* eta *nora* galderei erantzun bide zaie, *era* izenak edukin semantikoa bere osotasunean mantendu duelarik. Bigarren taldekootan, aldiz, *era*

izen horren edukin semantikoa ahuldua edo agian guztiz galdua delarik, 12.09 sailean azaldu dugunez, **-(e)n + bezala** egituratik, oso hurbil daude maila pragmatikoan bederen, eta hiruretan ere, soilik *nola* galderari erantzun zaio, kasu-markak ere deslexikalizatuta daudelarik. Horrela ba, lehenengo taldeko egitura sakonak, hauexek lirатеke:

(41a) *Lehenengo experimentua era horretara burutu da.*

(41b) *Era horre(n bai)tan, zenbait akats detektatu dugu.*

(42a) *Lehenengo experimentua, era horretara burutu da.*

(42b) *Era horretaz (era horri buruz) mintzatu gara orain (hain zuzen ere).*

(43a) *Lehenengo prozesua, era horretara burutu da.*

(43b) *Era horretara itzuliko gara oraingo honetan (zehazkiago aztertzeke).*

Kasu guztietan, a-koetan nonbait modua adierazteko konparatibo absolutua den erakusleak hartu duen kasu-marka, adlatiboarena da; b-koetan, galera semantikorik jaso ez duten inesibo-, instrumental- eta adlatibo-adizlagunak eratu dira. Ikus dezagun, bestalde, bigarren taldekoekiko desberdintasuna:

(41bis-a) *Lehenengo experimentua, era horretan burutu da.*

(41bis-b) *Gure ikerketa ere, era horretan egingo dugu.*

(42bis-a) *Lehenengo experimentua, era horretaz burutu da.*

(42bis-b) *Guk ere gurea, era horretaz burutuko dugu.*

(43bis-a) *Lehenengo experimentua, era horretara burutu da.*

(43bis-b) *Bigarrena ere, era horretara eramango da aurrera.*

Oraingo hauetan, ikus daitekeenez, egitura sakoneko bikote bakoitzean, kasu-marka bereko adizlaguna agertu da, baina erabiliriko hirurek ere, nolabaiteko modua adierazi bide dute, jadanik esana dugunaren arauera.

13. GURE CORPUS TEKNIKOAREN AZTERKETA

13.0 Laginaren datuak

Ondoko gaztelerak eskain dezakeen eredua eta baita esplizituki euskararen inguruan esan dena ikusi eta gero, lan honen muina bide den

arlor sartzeko gaude: Jadanik argitaratu diren testu teknikoetan gertatu diren ohitura finkatuak, joerak eta arazoak aztertzeke ditugu, aurreko sailkapen orokorrean (1.2 Eskema) dagoenarekin bat etorri ote diren zehazteko asmoaz, jakina. Bibliografiak eskainitakoan gauzatu dugun sailkapenetik azalduko diratekeenak ere, zer esanik ez, nonbait kokatzen saiatuko gara.

Hona hemen, nonbait interesgarri gerta daitekeelakoan *corpusa* bilzteko hustu diren lan teknikoek zerrenda:

ALTONAGA, K. (1982): *Arthropoda*. U.E.U.

ALTONAGA, K.; P. IGLESIAS, J. I. (1983): *Moluskuak*. U.E.U.

ARIZMENDI, J. M. (1982): *Phormidium laminosum zianobakterio termofiloaren nitrito erreduktasa ihardueraren karakterizazioa*. Tesina.

ASPIAZU, I. (1982): *Faktore batzuen eragina C zitokromo oxidatuek indusitutako lipidoen oxidazioan*. Tesina.

AYARZA, S. (1979): *Koltizinen efektuak triticales primarioen produzian*. Tesina.

BENITO, J. et al. (1982): *Anelidoak eta talde anelidianoak*. U.E.U.

FULDAIN, M.; ALTONAGA, K. (1985): *Lofoforatuak*. U.E.U.

GOIRIENA, I. (1980): *Ornogabeen zoologia: animalien ezaugarri orokorrak*. U.E.U.

GONZALEZ, E. (1985): *Bizkaiko jatorrizko populazioaren dermatoglofoak*. Tesina.

LEGORBURU, F. J. (1981): *Arraldian dagoen Arion ater (L.) bare arruntaren elikapenari buruzko ikerketak*. Tesina.

LEIOAKO BIOLOGO TALDEA (1979): *Biologia orokorra*. U.E.U.

MARTIN, I. (1982): *Bilboko Abrako zenbait populazio larbario zooplanktonikoren sakabankuntza espazialaren gaineko itsasadarren emariaren eta mareen eragina*. Tesina.

P. IGLESIAS, J. I. (1982): *Actinia equinaren arnas metabolismoa. Tenperatur eta sasoi-aklimatazioa*. Tesina.

P. IGLESIAS, J. I. (1986): *Carastoderma edule: Hazkuntza eta ugalkuntzaren energi oinarriak*. Tesi doktora.

RODRIGUEZ, A. (1981): *Erdiaroko nekropoliko giza hondarren ikerketa antropologikoa*. Tesina.

SALCEDO, I. (1984): *Bizkaiko Aphyllophorales ordenaren katalogorako ekarpena*. Tesina.

TXURRUKA, J. M. et al. (1985): *Eboluzioaren norabideak*. Elkar.

TXURRUKA, J. M. et al. (1986): *Eboluzioaren norabideak Unibertsitate-hedakuntzarako koadernoak*. E.H.U.ren argitarapen zerbitzua.

ZUBIAGA, A. M. (1982): *Jaki naturalaz elikaturiko Arion ater (L.) barearen liseri-guruinaren histologia eta histokimika sasoi desberdinetan*. Tesina.

13.1. Adibideen sailkapena

13.1.1. *Bezala*

13.1.1.1. *Corpusa*

(1) *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean gertatzen den bezala, iragazkaiztea da.*

(2) *Nahiz adar bitakoak izan (lehenengo kasuan bezala).*

(3) *Hauek, zentzumen-organo garatuak dituzte, lehen ikusitako harra-pakariak bezala.*

(4) *Hauen salbuespenak, Aelosomatidae familiakoak dira: Oligoke-toak bezala, hermafroditoak dira, baina poliketoen moduan,...*

(5) *Arraultzeen ardatz animal/begetala eta aurre/atze ardatza, elkar-tzutak dira, anelidoetan ez bezala.*

(6) *Egungo gasteropodoetan bezala, organo errenalen hornidura liki-doa, bihotzetiko odola zatekeen.*

(7) *Esofagoa urdailaren atalondora irekitzen da, heste itsua eta ondes-tea bezala.*

(8) *Michaelis-ek, entzima batez, erreakzio katalisatu baten abiadura handiena E/S konplexuaren sortzeagatik balitz bezala adierazi zuen.*

(9) *Lehen bezala konzentrazio altutik baxura egiten da garraio hau.*

(10) *Polisomak, lehen esan bezala, sareskaren mintzei erants dakizkieke.*

(11) *Termo bat (sic) bezala, bi mintz dituzte.*

(12) *Baina heltzen direnean gorri edo hori bihurtzen dira kolore dei-garriz jantziz, jan nazazue esanez bezala.*

(13) *...urte horietako filmea hamar unetan generatuko bagenu bezala, eta geldione horietan aurkitzen ditugun landareei nolakoak diren begira bageunde bezala.*

(14) *...baina, berauen endotermismoa, baldintza zerrepel egonkorretan soilik zen baliogarria, ugaztun eta hegaztiene ez bezala.*

(15) *Bakterioak eta zianofizeoak talde paraleloak dira, onddoak, ani-maliak eta landareak diren bezalatsu.*

(16) *Karbonoaren zikloan bezalaxe, oxigenoaren zikloaren azalpena oxigenoaren iturriei eta hobiei dagozkien atal nagusi bietan banatuko dugu.*

(17) *Narrastien enbrioiek anfibioenek ez bezala, hiru geruza dituzte: Amnio, corion eta alantoidea, alegia.*

(18) *Esan dugun bezala, hauek ez dira guruin endokrinoetan egiten soilik.*

13.1.1.2. Iruzkinak

A) Gure *corpusean* aurkitu ditugun *bezala* juntagailuaz eraturiko adibide hauei dagokienez, zenbaitetan, zail gertatuko zaigu konparaketaren bi terminoak detektatzea, *bezala* hartu duen perpausa, txertatu modura agertu beharrean (ikus 12.01), *IS + bezala* modukoak agertu dira askotan, baina ez zehazki 12.02 sailean ikusitakoaren arauera. Azter dezagun hasteko, hirugarren adibidea:

(3) *Hauek, zentzumen-organo garatuak dituzte, lehen ikusitako harrapakariak bezala.*

Perpauk honetarako, hurrengo egitura sakona proposa genezake:

(3a) *Hauek, zentzumen-organo garatuak dituzte.*

(3b) *Lehen ikusitako harrapakariak, zentzumen-organo garatuak dituzte.*

Egitura sakoneko bi perpauk horiek behatzen baditugu, biak subjektuak izan ezik elementu berdinez osaturik daudela antzeman dezakegu baina lehenengo hurbilketa batetan *zentzumen-organo garatuak* *IS* biak erreferentzikideak direla pentsa baliteke ere, zehazki horrela ez dela onartu behar bide dugu: Batetik, animali talde bietan zentzumen-organoak badaudela esan zaigu, baina bestetik (eta agian ezaguera estralinguistikoteknikoaren laguntzaz), bi puntu hauek ere baieztatu daitezke: Lehenik, eta logika hutsean, talde bakoitzak bere zentzumen-organo propioak ditu eta ez dituzte (absurdoa lizatekeena) zentzumen-organo berberak amankomunean. Bigarrenik, nahiz eta bi taldeek zentzumen-organo garatuak dituztela esan dugun, organoak ez dira zertan guztiz antza berdineko izan behar. Nolabaiteko erreferentzikidetasunik egotekotan, *IS* horri esleitu zaion ezaugarri atributiboak lizateke (*garatuak*), baina horrek, ez digu betiko mekanismoa hemen errepikatzen baimendu.

Ikus bitez, maila teknikitik kanpoko adibide hauek, gaia konplexu samarra izanik hasiera batetan gauzak erraztearren:

(44a) *Zuk, liburu hori irakurri duzu.*

(44b) *Nik (ere), liburu hori irakurri dut.*

Liburu hori biak erreferentzikideak dira eta agian horren islادapen morfosintaktiko gardenena, erakuslearen presentzia bikoitza da. Horrela

ba, erlatiboranzko mekanismo transformatzaile osoa gauza dezakegu, azalera hieldu arte:

(44) *Nik (ere), zuk irakurri duzun liburua irakurri dut.*

Orain, erka dezagun hurrengo kasuarekin:

(45a) *Zuk, liburu bat irakurri duzu.*

(45b) *Nik (ere), liburu bat irakurri dut.*

Kasu honetan, liburu bana irakurri dela adierazi nahi dugu: Beraz, gertaera bien kookurrentzia eta ez, orain arte ikusi dugun bi elementuen arteko korreferentzia, zeren eta norberak irakurri duen liburua, morfosintaktikoki ere modu indeterminatuan adierazi delarik, ez da zertan besteak irakurri duen berbera izan behar. Azken mota honetako sakoneko egiturak egonik, azalera igortzen den perpausa, hurrengo dela esan genezake:

(45) *Nik (ere), zuk bezala, liburu bat irakurri dut.*

Izen-sintagma erreferentzikiderik egon gabe, *bezala* delakoan oinarrituriko konparaketa guztiei bide dagokien egitura erlatiborako mekanismoa asmatzea, zaila da baina hala ere, edozein hiztunek erlazionatuko lituzke (45) eta hurrengo (45'):

(45') *Nik (ere), zuk (liburu bat) irakurri duzun bezala, liburu bat irakurri dut.*

Ikus bedi bestalde behin baino gehiagotan profilatu dugun mekanismoari legokiokeen egitura sakona:

(46a) *Zuk, horrela irakurri duzu liburua.*

(46b) *Nik, horrela irakurri dut liburua.*

16f (46ⁱⁱⁱ) *Nik, zuk irakurri duzun bezala irakurri dut liburua.*

→ (46) *Nik, zuk bezala irakurri dut liburua.*

(46) perpausa eta (45), itxura morfosintaktikoari dagokionez berdinak badira ere edukin, semantikoaren aldetik eta beraz baita hemen profilatu ditugun egitura sakonetan ere, ezberdinak direla antzeman daiteke: Batetik, azken honetan bakarra edo desberdinak izan daitezkeen liburuaren irakurketa-moduaz aritu gara, berdintasun-konparaketa osotasunean gauzaturik. (45)an, ordea, jada dinik aipatua den kookurrentzia bat dugu: Zehaztu gabeko liburu bakar edo biren irakurketarena hain zuzen. Ikuspegi morfosintaktikoari dagokionez, bestetik, honelako analisia gauza liteke lehenengorako.

[*nik*]_{ISerg} [*zuk bezala*]_{Alg} [*irakurri dut*]_A [*liburua*]_{ISabs}.

Bigarrenenako, baina, analisi bera irtengo bide litzaiguke, *zuk bezala* sintagma azken finean, kasu bietan baita perpaus modura berridatz daite-

keen adizlaguna. Maila prosodikoan, zer esanik ez, *zuk bezala irakurri dut* eta *zuk bezala / irakurri dut* igorriko lirateke eta berori, seguraski, bi perpaus hauek duten egitura errematiko desberdinei zor zaie, (45)aren esparruan, hots, konparaketa adierazi ez bide denekoan, perpaus modura berridaz daitekeen Alg hori errema (=galdegaia) ezin izan daitekeela dirudi.

Nik, zuk bezala, liburu bat irakurri dut (=kookurrentzia).

Nik, zuk bezala, irakurri dut liburu bat (= kookurrentzia)

baina *nik, zuk bezala irakurri dut liburu bat* delakoa (hots, maila prosodikoan *zuk bezala* eta aditzaren artean pausarik egin gabe), beti ulertuko litzateke konparaketa modal gisan. Beste modu batetara esanez, konparaketa deneko kasuaren Alg hori, elementu errematikoa da halabeharrez, eta konparaketa ez deneko kasuetan, ezin izan daiteke errema.

B) Azter ditzagun beste zenbait adibide:

(4) *Hauen salbuespenak, Aelosomatidae familiakoak dira: Oligoke-toak bezala, hermafroditoak, baina poliketoen modura, ugalketarako lakainak, asko dira.*

Adibide hau konplexua izanik, bi perpausatan desglosatuko dugu:

(4.1) *Aelosomatidae familiakoak, oligoketoak bezala, hermafroditoak dira.*

(4.2) *Aelosomatidae familiakoetan, poliketoen moduan, ugalketarako lakainak, asko dira.*

Dakusagun lehenago (4.1) *adibideak izan lezakeen egitura sakona:*

(4.1a) *A.familiakoak, hermafroditoak dira.*

(4.1b) *Oligoketoak, hermafroditoak dira.*

Aurreko adibide batetan esana denez, ez dugu (4.1a-b) hauetatik azalako egituraraino iristeko mekanismoa finkatzerik izan. Hona hemen, dena dela, soma daitekeen amaiera:

(4.1ⁱⁱⁱ) *A.familiakoak, oligoketoak hermafroditoak diren bezala, hermafroditoak dira.*

→ (4.1) *A. familiakoak, oligoketoak bezala, hermafroditoak dira.*

(4.2) perpausari dagokionez, hurrengo egitura sakona proposa genezake:

(4.2a) *A. familiakoetan, ugalketarako lakainak, asko dira.*

(4.2b) *Poliketoetan, ugalketarako lakainak, asko dira.*

Kasu honetan, ezaugarriaren jabetasuna, ergatibo-marka duen subjektuari *ukan* aditzaren bidez esleitu gabe, inesiko-marka duen elementuari egokitu zaio *izan* kopula duen egitura atributibo arruntaren bidez. Hau da, (4.2) perpausa, berdin itxuratu zatekeen beste honetara: *A.familiakoek, poliketoen modura, ugalketarako lakain asko dute.*

Bukatzeko, sorrera-mekanismoa alde batera utzirik, hurrengo perpausak lortuko genituzke:

→ (4.2ⁱⁱⁱ) *A.familiakoetan, laginketarako lakainak, poliketoetan asko diren moduan, asko dira.*

→ (4.2) *A.familiakoetan, laginketarako lakainak, poliketoen moduan, asko dira.*

Ikus daitekeenez, igorritako perpausean, *bezala* partikula agertu gabe, *moduan* agertu da. Horretaz, kookurrentzia adierazteko unean, azkeneko partikula hori ere, erabil dezakegula ondoriozta daiteke.

Puntu honetan aurrera eraman dugun analisiaren ondorio hau, **modu** + *inesiboa/adlatiboa* delakoa, kontestu batzutan edukin semantikoa guztiz galdua izanik, baliabide gramatikal huts bihurtu delako hipotesia berrindartzeko argudio sendoa da gure eritziz. Izan ere, kontestu honetan, konparaketa modalaren esparrutik kanpo egonik, aipaturiko partikulak, ez du zirkunstantzia modalekiko harremanik. Susmatzekoa da bestalde, serie bereko partikulek, *host, era, gisa...* modu berean jokatu dutela; hala ere, puntu hori, aurrerago aztertuko dugu, elementu hauei dagokien sailean hain zuzen ere.

C) Azter dezagun azkenik, sail honetako beste adibide bat, lehenengo alegia:

(1) *Akats honen irtenbidea, lur ingurunean gertatzen den bezala, iragazkaitzea da.*

Kasu honetan, kookurrentzia esleitu zaien bi elementuek, kasu-marka desberdina dute eta bestalde, komen (=pausen) artean txertatu den perpauseren aditza, ez da bat etorri perpaus nagusiarenarekin, azkeneko hau, aurretik aipaturiko adibideetan bezala, atributiboa delarik.

Korapilo honi heltzeko, NADALek (1975), nolabaiteko berrikuspen bibliografikoa eginez eskainiriko zenbait ideia erabil dezakegu. Izan ere, bere aburuz, perpaus guztiak, konpletibodun zein konpletiborik gabekoak, egitura sakonean konpletibodun perpaus konposatua dutela pentsa liteke; horretako aditz nagusia, performatiboa izango da potentzialki eta, perpaus bakuna agertu behar deneko kasuetan, eliditu egingo da. Ildo horretatik, gure oraingo adibidearen egitura sakonean, bi konpletibo dagoe-la onar dezakegu:

(1a) *Lur ingurunean, irtenbidea iragazkaitzea dela gertatzen da.*

(1b) *Akats horren irtenbidea, iragazkaiztea dela gertatzen da.*

→ *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean irtenbidea iragazkaiztea dela gertatzen den bezala, iraragazkaiztea dela gertatzen da.*

Errepikaturiko konpletiboa ezabatuz:

→ *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean $\emptyset$ gertatzen den bezala, iraragazkaiztea dela gertatzen da.*

Eta esana dugunaren arauera, nonbait bakar dugun performatiboa (hots, perpaus nagusiarena) ezabatzeko aukera dugu:

(1) *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean gertatzen den bezala, iragazkaiztea da.*

Transformazio hau gauzatu aurretik, lehenengo adizkia, errepikaturik dagoenez, beti bezala ezaba genezake:

(1bisⁱ) *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean $\emptyset$ bezala, iragazkaiztea dela gertatzen da.*

Eta honen atzetik, lehen azaldu dugun elisioa letorke:

(1bisⁱⁱ) *Akats horren irtenbidea, lur ingurunean $\emptyset$ bezala, iragazkaiztea da.*

Ikus daitekeenez, azken ondorio hau, A) eta B) sailetan deskribatu ditugun egituren antzekoa da eta beronek, hauxe iradoki lezake: A) saileko (3) adibidea, B)ko (4.1) eta (4.2) adibideak, eta beraien antzeko guztiak eta baita C) honetakoak ere, beharbada, mekanismo orokorrago honen bidez azal litezke: Egitura sakoneko bikoteetarako, aditz performatibo bana asmatu, bietatik lehenengoa, errepikaturik egoteagatik desgertuko litzateke eta bigarrena, performatibo guztietarako dagoen aukeraren arauera. Lehenengo ezabaketa gertatzen ez deneko kasuan, C) motako perpausak igortzen dira. Edozein kasutan ere, kasu guzti hauek, zentzu hertsiko konparaketak izan gabe nolabaiteko kookurrentzia adierazten dutela onar genezake, maila semantikoari dagokionez bederen. Edozein modutan, *-(e)n bezala* delakoa heltzeko mekanismoa, azaldu gabe geratuko litzateke.

D) Berrikustapenaren 12.13 sailean azaldu dugun *-(e)nez* atzizkidun egituraren erabilera dela eta, agian kookurrentzia delako honen kontestuan sar liteke eta arlo pragmatiko horretatik hasiera batetan baztertu dugun *-(e)n bezala* delakoaz oinarrituriko egitura, onargarri liteke konparaketa modala zehazki izan gabe kookurrentzia delako hori adierazteko. Hala ere, ez da aherentzia behar, kookurrentzia, nonbait, gertaera osoaren konparaketatzat jo litekeenik. Hona hemen, edozein kasutan, *-(e)nez* horren adibide tekniko bat:

(18) *Esan dugun bezala, hauek ez dira guruin endokrinoetan egiten soilik.*

(18a) *Hauek, guruin endokrinoetan soilik egiten ez direla esan dugu.*

(18b) *Hauek, guruin endokrinoetan soilik egiten ez direla gertatu da.*

Hemen, kookurrentzia esanaren eta gertatuaren artekoa dela onar liteke.

→ (18ⁱ) *Hauek guruin endokrinoetan soilik egiten ez direla esan dugun bezala, hauek guruin endokrinoetan soilik egiten ez direla gertatu da.*

Errepikaturiko konpletiboa ezabatuz:

→ (18ⁱⁱ) *∅ esan dugun bezala, hauek guruin endokrinoetan soilik egiten ez direla gertatu da.*

Aditz performatiboa ezabatuz eta ordena-transformazioa ere ezarriz:

→ (18ⁱⁱⁱ) *Esan dugun bezala, hauek ez dira ∅ soilik guruin endokrinoetan egiten.*

13.1.2. Konparaketa modala gauzatzeko bestelako baliabideak

13.1.2.1. Corpusa

(19) *...nahiz eta platelmintoetan gertatzen den legez gorputz-ormako muskulatura ondo garatuta egon.*

(20) *...Eskizozeliaren era aberrantetzat har omen daitekeenez, eskizozeliara orokorraren kasu arraro baten moduan tratatuko dugu.*

(21) *Metameroek hanka-pare bana dute; oraindik ez dira giltzatuak, tardigradoenen antzera.*

(22) *...tardigradoengan gertatzen den antzera.*

(23) *Beste araknidoengan gertatzen ez den erara, opilioak orojaleak dira.*

(24) *Malpighio tutuxkak daude; aparato exkretorearen modura funtzionatzen dute.*

(25) *Halaber, sabelidoek, beste poliketo sendentario batzuren modura, prostomioko begiak galdu egin dituzte.*

(26) *Oligoketoen muskulatura zirkularra oso garatuta eta indartuta dago, poliketo zukatzaileenaren moduan.*

(27) *Anelidoetan gertatzen den gisaz, sipunkulidoen zerebroak, nerbio-sistema motorearen beste elementuak inhibitu egiten dituela frogatu da.*

(28) *Ketak anelidoenen gisara eratzen dira Echiuridaen.*

(29) *Molusku-talde bakoitzak bere erara erabili du pareta.*

(30) *Anelido eta artropodoen gisa, moluskuak ere lakaindunak direla pentsatzen dute.*

(31) *...formari zegokiolarik, maskorrek aniztasun zabala bait zuten, egun gertatzen den moduan.*

(32) *...esofagoan dauden elikagaien muki-firuak narraz eramaten ditu, debileta batek eginen lukeen moduan.*

(33) *Halaber, odoleko tiramina adrenalinaren erara aritzen da kromatoforoaren hedapena eta berorren kolorazio ilunagoa sorterazirik.*

(34) *Eta sorrerago ikusiko duguneko modura, substantzien, garraio-abiaduran datza espezieek izan duten arrakasta.*

(35) *Goiko eskeman ikus daitekeeneko moduan, fase nuklearren txandaketa beha daiteke.*

(36) *... posible da...espazioan banatuta egotera jotzea, gaur egungo Stylites audicolan gertatzen denaren antzera.*

(37) *...lekuazaldatzean hankak presio hidrostatikoz luzatzeko eran (berorek arnas eta zirkulazio-fisiologian taldeen arteko desberdintasun handiak eskatzen ditu).*

(38) *Hondakin nitrogenatuzko partikulak aipaturiko eran egotz badaitzke ere, egun arte...*

(39) *Bestalde, pisu osorako burutu deneko modu berean, pisu somatiko eta maskorraren altueraren arteko erlazioaz baliatuz.*

(40) *Nektarra ordea tutu edo hodi luzeen barnean daukate, tximeleten tronpa luzez bakarrik lortzeko moduan.*

13.1.2.2. Iruzkina

Hemen ere, aurreko sailean bezala, zenbait adibidek, hala nola (20), (21), (24), (28), (29), (32) —hipotetiko—, (33), (38), (39), argi eta garbi isladatu dute moduzko konparaketa, beste batzutan berriro ere kookurrentzia kontsideratu behar den bitartean: (19), (22), (23), (25), (26), (27), (30), (31), (34), (35) eta (36).

Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, **modu**, **era gisa** + *inesibo-/adlatibo-/instrumental-marka* motako baliabideak zenbaitetan inola ere modua 13.1.1.2 sailean adierazia dugun bezala, berauek kontestu batzutan esangura semantikoa galdurik baliabide gramatikal huts modura funtzionatzen dutela esan dezakegu (ikus 12.09 eta 12.10 sailak).

Beste alde batetik, aipatzekoak dira (37) eta (40) adibideak, beraietan *moduan* eta *eran* partikulak, delimitatiboan deklinaturiko aditz-izenari loturik agertu dira, kasu hori sailkapen orokorraren kontutan hartu ez dugularik. Edozein kasutan ere, aditz-izen horrek duen deklinabide-marka dela eta, ikuspegi morfologikotik behintzat, izenlaguntzat har dezakegu, eta beraz, ezin apur diezaguke inola ere aurreko eskema. Dena dela, egitura honek bide duen edukin semantikoa, Axularrek, gutxienez *adizki potentziala* + *-(e)n* + **bezala** formularen bidez isladatu zuen, gaur egun *partizipazioa* + **ahal** + **izateko** + **modu** ere egin daitekeela dirudielarik:

Eta bizitzen garela, ez bekhatuz eta gaixtakeriaz, baina ontasunez eta obra onez, neurria betherik, azkenean zeruko loria erdiats dezakegun bezala (Ax., 083.35).

Gaur egun, *erdietsi ahal izateko moduan* esango genuke, edo eta *erdiesteko moduan*, gure corpuseko zenbait adibidetan bezala.

13.1.3. *Bezelako(a)*

13.1.3.1. *Corpusa*

(41) *Pseudozeloma bezalako gorputz-barrunbe baten agerpenak gorpuztaren higidurekin erlazionaturik dauden muskuluen jarreran eta efektibotasunean...*

(42) *Histidina bezalako produktu metabolikoak...*

(43) *Monomeroen sintesi bide horiek azeleratzeko modu desberdinak daude: Erreaktanteak kontzentratzea, ioi metabolikoak bezalako katalizazele eragina eta erreakzio-nahastea berotzea.*

(44) *Base purikoak erribosomekin eta magnesioa edo kaltzioa bezalako ioi dibalenteen aurrean fase lehorrean berotuz nukleosido purikoak lortu dira.*

(45) *Entzimak bezalako akoplatzaile eboluzionaturik ez zegoenean...*

(46) *Aipaturiko itzulpen-sistema bezalako bat operatiboa izan dadin,...*

(47) *Hidrogeno sulfuroa bezalako hidrogeno-iturri bat erabiltzeak duen arriskua nabaria, honako hau da:...*

(48) *Ura bezalako elektroio emaile ahulari elektroioak kentzea posible izan zedin, zelulak urak duen erredox-potentziala baino elektropositiboagoa duen substantzia bat aurkitu behar izan zen.*

(49) *Ura bezalako oso elektroio-emaile ahuletik NADPHa bezalako oso elektroio emaile indartsua sintetizatzea lortu zen.*

(50) *Estoma funtzionalak ez dira urpeko landarreetan agertzen ez eta normalean ur-geruza fin batez estalirik dauden goroldioak bezalako lehorreko landare ez-baskularretan.*

(51) *D erako sminoazido batzu, bakterioen ormetan eta gramizidina eta aktinomizina bezalako antibiotiko peptidikoetan ageri dira.*

(52) *Kutikula, beste artropodoena bezalakoa da esentzialki...*

(53) *Zelula hauek ornodunen gibela bezalakoak dira, funtzio berdina betetzen duelarik.*

(54) *Segmentu bakoitzean lau keta daude simetrikoki paratuta; beraien egitura eta garapena metasomako ketarenak bezalakoak bide dira.*

(55) *Horren osteko garapena egungo eskafopodoena bezalakoa izan daiteke.*

(56) *RNAn timina agertu beharrean uraziloa agertzen da, beste hiru baseak DNAn bezalakoak dira.*

(57) *Zelulanitzeko organismoak sortu zirenean, nolanahi ere, lurraren atmosfera gaur bezalakoa edo antzekoa zen.*

(58) *...la edozein ikuspuntutik (sic) sulfobakterio fotosintetiko anaerobioak bezalakoak dira, egitura, horma (sic) eta mintz zelular berberak bait dituzte.*

(59) *Anaskoen mintz frontalaren egitura ktenostomatuen orma somatikoarena bezalakoa da.*

(60) *Peristomio hau, besteak bezalako lakaina zen.*

13.1.3.2. Iruzkinak

Konparaketa adjektibalaren izenpean sailkatu ditugun kasuei dago-kienez, zenbait kasutan bi konparaketa-termino detektatzea inola ere erraza ez dela beha daiteke. Ikus dezagun, horrela, (51) eta (60) adibideak:

(51) *D erako aminoazido batzu, bakterioen ormetan eta gramizidina eta aktinomizina bezalako antibiotiko peptidikoetan ageri dira.*

(60) *Peristomio hau, besteak bezalako lakaina zen.*

Lehenengoari dagokionez, peristemio horrek, gaur egun lakain berezia izanik, aitzinan zituen ezaugarriak eta beste lakainenak erkatzen ari garelarik, ondorio modura, berdinak direla esan dezakegu. Perpaus hori, beraz, beste honetatik eratorria dateke.

(59') *Peristomio hau, beste lakainak ziren bezalako lakaina zen.*

Mota honetako perpausen sorrera-mekanismoa 12.08 sailean azaldua denez, ez dugu berriro errepikatuko, baina azter dezagun (51) adibidea. Antibiotikoek, mundu osoaren gizartearen osasun-arloari ekarri dioten aurrerapen ahaztezina dela eta, gaur egun, edonorentzat, ezagun dira; horrela ba komunitatearen hiztun askok erlaiona ditzake antibiotikoak eta gramizidina edo aktimonizina terminoak.

Antibiotikoak dira beraz, bi horiek, baina areago oraindik, antibiotiko peptidikoak direla, badaki nonbait edozein biologok. Hori horrela izanik, ondokoa pentsa daiteke: (59) delakoari esleitu diogun parafrasia, (50) perpausari ere egokitzekotan, perpausaren edukin semantikoa, aldatu egingo litzateke; hau da:

(51') *D erako aminoazido batzu, bakterioen ormetan eta aktinomizina eta gramizidina diren bezalako (beste) antibiotiko peptidiko batzutan ageri dira.*

Parafrasiak, D erako aminoazidoak agertu direneko antibiotikoak aktinomizina eta gramizidinaren ezaugarri berberak izanik ere, beste batzu direla adierazi du.

Gure ustez ordea, jatorrizko perpausaz D erako aminoazidoak zenbait antibiotikotan agertzen direla eta aktinomizina eta gramizidina antibiotiko horietakoak direla adierazi nahi zuen autoreak. Mota honetako perpausak, ez dute konparaketa adierazten, inklusioa baizik, RIEGELen (1985) zentzuan bederen.

Gure eritziz, bi perpaus-mota horiek, egitura sakonean desberdinak izanik, zenbait transformazioen ondoren, azalerako egituraranzko bidean konfluitu egin diren egiturak lirateke. Behintzat, kontzeptualki, garbi dago mundu errearen egoera desberdinei dagozkiela, hori antzemateko egitura morfosintaktiko bakarra delako "aurreritzi" egonik ere.

A) Konparaketaren kasuan, ondokoa genduke egitura sakonean:

(a) *Gramazidina eta aktinomizina, horrelakoak dira.*

(b) *Antibiotiko peptidikoak horrelakoak dira* (eta beraz, desberdinak dira).

(c) *D erako aminoazidoak, antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

Hiru perpaus koerlazioatu behar dugu beraz, lehenengo biek *hone-lakoak* izen-sintagma amankomuna duten bitartean, azkeneko biek *anti-*

biotiko peptidiko sintagma dutelarik. Hasiera batetan, (a) eta (b) koerlazioatuko ditugu 12.08 sailean azaldu zen modura.

→ $_{\text{po}}[*\text{Antibiotiko peptidikoak}]_{\text{IS}[\text{P}_1]}\text{[gramizidina eta aktinomizina horrelakoak diren] horrelakoak] dira}$.

→ **Antibiotiko peptidikoak, gramizidina et aktinomizina* $\emptyset$ *diren horrelakoak dira.*

→ *Antibiotiko peptidikoak, gramizidina eta aktinomizina diren bezalakoak dira.*

→ (d) *Antibiotiko peptidikoak, aktinomizina eta gramizidina* $\emptyset$ *bezalakoak dira.*

Orain, (d) eta (c) erlazioatu behar ditugu:

→ $_{\text{po}}[*\text{D erako aminoazidoak}]_{\text{IS}[\text{P}_1]}\text{[antibiotiko peptidikoak gramizidina eta aktinomizina bezalakoak diren] antibiotiko peptidikoetan] agertu dira}$.

Errepikaturiko izen-sintagma ezabatuz,

→ *D erako aminoazidoak* $\emptyset$ $\emptyset$ *gramizidina eta aktinomizina bezalakoak diren antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

Eta amaitzeko, perpaus erlatiboa izenlagun arruntaz ordezkatzuz:

→ (e) *D erako aminoazidoak, gramizidina eta aktinomizina bezalako antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

B) Inklusioaren kasuan, hurrengo perpaus hauek erlazioatu behar genituzte:

(a') *Gramizidina eta aktinomizina, antibiotiko peptidikoak dira.*

(b') *D erako aminoazidoak, antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

Beraz, adierazi nahi duguna ez da aminoazidoak soilik gramazidinan eta aktinomizinan agertzen direnik, gramizidina eta aktinomizina antibiotiko peptidikoen artean inkluditurik egonda, aminoazido hauek antibiotiko peptidiko guztietan agertzen direla baizik: Inklusio delako erlazioa, beraz. Arazoa lekuzteko gogora daitekeenez, konparaketaren kasuan gramizidina eta aktinomizina bezalakoak diren *bestelako* antibiotiko peptidiko batzutan agertu direla adierazi da.

Erlazio hau adierazteko, 13.1.1 sailean azaldu dugunaren antzeko modura jokatu beharko dugu, kasu honetan *bezalako* juntagailua erabiliko dugularik. Hemen ere, azpimarratu behar dugu *bezalako* juntagailuak, *horrelako* juntagailu absolutua ordezkatu beharrean, inolako konparaketa adjektibalik ez dagoeneko egituraren txertatu dugu, inklusiaren erlazioa adierazteko baliabide gramatikal huts modura.

→ *D erako aminoazidoak, gramizidina eta aktinomizina diren bezalako antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

Eta adizkia elidituz:

→ (c) *D erako aminoazidoak, gramizidina eta aktinomizina bezalako antibiotiko peptidikoetan agertu dira.*

Horrela ba, egitura sakon desberdinetatik hasita, azaleran itxura bera duten bi perpaus lortu dugu. Gure *corpusari* dagokionez, perpaus guztien artean (41) adibidetik (51)raino, *bezalako* partikularene bidez inklusioa adierazi den bitartean, (51)etik (59)raino, konparaketa adierazi dela esan behar da. Bestalde, erraz ikus daitekeenez, inklusioa adierazi deneko adibide guztietan, *bezalako* izenlaguna izenari lotuta erabili da, konparaketari egokitu dizkiogunetan ordea, soilik kasu batetan erabili da modu horretara, beste guztietan aipaturiko partikula kasu-markari zuzenki lotuta agertu delarik.

13.1.4. Konparaketa adjektibala gauzatzeko bestelako baliabideak

13.1.4.1. *Corpusa*

(61) *Baina hortik Kristobal Colomb gaur egun Amerika den modukoa izatearen erantzulea dela ondorioztatzea zilegi litzaiguke?*

(62) *...tetrapodoen orbitaren tamainu erlatiboa osteolepiforme gazteetan beha daitekeenaren antzekoa izateak.*

(63) *Batetik, krokodiloen antzeko animalia akuatikoko batzuren jatorri izan ziren.*

(64) *Azkenez esan dezagun badirela horren gisako eta berdintsu jokatzen duten beste zenbait nukleotido ere.*

(65) *Hau ikusiaz, eta horren gisako arrazoi batzurenegatik sortu zen.*

(66) *Nautilusen enbriologia koleoideoenaren modukoa dela suposatuz.*

(67) *Ezkerreko arku sistemikoa desagertu egin da hegaztietan. Baina, oinarritzko eredu morfologikoa narraztien modukoa da.*

(68) *Duten morfologia narraztaileen bezalakoa da.*

(69) *Proboszide hau, ez da poliketo harapatzaileen bezalakoa.*

(70) *Oligoketoen zirkulazio-aparatua poliketoen bezalakoa da.*

(71) *Izainen garapenari dagokionez, oligoketoen bezalako dela esan behar da.*

- (72) *Mitokondriaren errefrakzio-indizea hialoplasmaren antzekoa da.*
- (73) *Espermatozoideen flageloetatik isladatu den espermozinak berezitasun ATPasikoak ditu, miosinak dituen bezalakoak.*
- (74) *Bere egitura sareska endoplasmikoaren bezalako da.*

13.1.4.2. Iruzkina

Sail honi dagokionez, *moduko*, *erako* eta *gisako* partikulak konparaketa adjektibala adierazteko erabili dira, inklusioa delakoaren kasurik aurkitu ez dugularik.

Besteak beste, zenbaitetan *bezala* adberbioa *bezalako* izenlagunera aldatzeko bidean, eta halaber *modura* adizlagunetik *moduko* izenlagunera aldatzean ere, nolabaiteko neutralizazioa gertatzen dela esan behar dugu, eta batez ere, partikula hauekiko proklitiko den hitza genitiboan deklinaturik dagoenean, (66)-(74) direlakoan antzeko akatsak agertzen dira.

Esate baterako, (68) adibidean, *duten morfologia narraztaileen bezalako* da idatzi deneko lekuan, *...narraztaileena bezalako* da idatzi behar zatekeen. Gauza bera, (67) perpausean Baina oinarritzko *eredu morfologiko* narratzen *moduko* da irakur daitekeenekoan, *...narratzenen moduko* irakurri behar litzateke.

13.15. Konparaketa ez-orokorra

13.15.1. *Corpusa*

(75) *Dena den, xingola-ereduari dagokion kontrola ez da kolorearena bezain nabaria izaten.*

(76) *...animalienak aurrekoak bezain aktiboak ez izanik.*

(77) *...baina marea bien arteko desberdintasunak ez dira ur-bloke superfizialean ikusten genuen bezain handiak.*

(78) *Aurkitutako aleen kopurua ez da poliketoena bezain garrantzitsua izan.*

(79) *...izan ere intsektu hegodunen urgaritzea eman ez balitz, kelizertuak ekosistema lehortarretako partaide hain garrantzitsuak izatera seguras-ki inoiz ez bait ziren helduko.*

(80) *Ezberdintasun sexualak, ez ziren aurrekoan bezain nabariak.*

(81) *Azinoetan bezainbeste granulu agertu dira.*

13.1.5.2. Iruzkinazk

Sail honetan bildu diren adibideei dagokienez, berrikustapen bibliografikoan deskribatu den ereduari jarraitu zaizkiola adierazi behar da.

Horrela ba, kualitatezko konparaketaren kasuan *bezain* eta *hain* juntagailuak azaldu diren bitartean, kantitatezkoarenean, *beste* agertu da.

14. LABURPEN OROKORRA

Como juntagailuak dituen erabilera guztietatik bat, maila semantikoan bederen, konparazioari dagokio. Horrek, gramatika sortzailearen ikuspegitik, hauxe iradoki digu: Egitura sakonean zenbait elementu erreferentzikide dituen bi perpaus gertatuko dira. Erreferentzikidetasun horrek sorteraiziko du hain zuzen, elementuaren baten elipsia eta bestalde ere, konparazioaren oinarri semantikoaren gunea du bere barnean. Edonola izanik, eta beti kontzeptu sortzaileak erabiliz, azaleran eta euskarai gagozkiola, *bezala* agertuko da mundu logikoan elkarrekin konparatzeko dauden bi termino azaltzen direneko guztietan.

a) *-(E)n* atzizkidun adizki jokatu, izen-sintagma eta partizipioarekiko enklitikoak den *bezala*: Konparazioaz gain, modua adierazten bide da.

b) Adizki hipotekikoarekiko enklitikoak den *bezala*: Nabaria da egoea hipotekikoarekiko konparaketa isladatzen duela.

c) Lan honetan aztertutako *corpus* teknikoaren arauera, *bezala* partikula konparaketaren kasuan agertzen deneko kontestu morfosintaktiko berean ager daiteke kookurrentzia delakoa adierazteko.

d) *Bezalako* delakoak, absolutibo-marka hartuz, konparaketa adjektibal orokorra gauzatzen duela badirudi ere, *IS₁ + bezalako + IS₂* egituran, inklusio-erlazioa adierazten duela dirudi.

e) Gazteleraz, *como* bera egonik ere, euskararen baitan lexikalizazio-gradu minimoa izango duen konparaketa egin beharrean, kualitate edo kantitate bati dagokiona egiten denean, *bezain* eta (*bezain*)*beste* azaltzen dira, azken finean *bezala bezain* erlatiboak eta *honela, horrela, hala / honen(beste), horren(beste), hain(beste)* direlakoen alderantziz.

f) Gaztelerazko *comoren* beste zenbait erabilerari dagokionez, hala nola zenbait subordinazio kausal eta konparatibo ez diren zenbait modalenean, *-(e)nez* atzizkia erabil daiteke.

g) *-(E)n + Modu, era, gisa + kasu-marka* ereduak duten perpausak, honelako ereduak azal ditzakete:

P + *-(e)n(eko)*.

BEZALA	- <u>Konparaketa modala</u> (orokorra) <i>Neolosomatidae familiakoetan, laginketarako lakainak, poliketoeetan (paratsen diren) bezala paratsen dira</i> - <u>Kookurrentzia</u> <i>Neolosomatidae familiakoetan, laginketarako lakainak, poliketoeetan (gertatsen den) bezala, asko dira.</i> - <u>Atribuzioa</u> (?) <i>Neolosomatidae familiakoak, kutsadura-indikatzaile bezala erabili dira lan bonetan (mota bonetako egiturak beste lan batetan azter-tuko ditugu)</i>
BEZALAKO(A)	- <u>Konparaketa adjektibala</u> (orokorra) <i>Kutikula, beste artropodoen (den) bezalakoa da</i> - <u>Inklusioa</u> <i>Goroldioak bezalako landare ex-baskularretan, (goroldioak landare ex-baskularretarikoak dira) ez da estomarik agertzen</i> - <u>Atribuzioa</u> (?) <i>Kutsadura-indikatzaile bezalako erabilera hau oso emankor gertatu da</i>
MODU ERA GISA ANTZA	- <u>Henperatu adjektibal arruntak</u> <i>Ikerketa burutu deneko modura mintzatuko gara orain</i> - <u>Konparaketa modala</u> (orokorra) <i>Lehenengo ikerketa burutu den(eko) modura (lehenengo ikerketaren modura) burutu da bigurrena.</i> - <u>Kookurrentzia</u> <i>Neolosomatidae familiakoetan, poliketoeen modura (poliketoeetan gertatsen deneko modura), ugalketarako lakainak, asko dira</i> - <u>Atribuzioa</u> <i>Animalia horiek, kutsadura-indikatzaile modura erabili dira ikerketa bonetan</i>
MODUKO(A) ERAKO(A) GISAKO(A) ANTZAKO(A)	- <u>Konparaketa adjektibala</u> (orokorra) <i>Kutikula beste artropodoenaren modukoa (beste arteopodoen den modukoa) da</i> - <u>Inklusioa</u> <i>Goroldioen moduko landare ex-baskularretan, ez da estomarik agertzen (goroldioak, landare ex-baskularretarikoak dira)</i> - <u>Atribuzioa</u> <i>Kutsadura-indikatzaile modurako erabilera hau, oso emankor gertatu da.</i>
-(e)NEZ	- <u>Kausalitatea</u> <i>Metodo egokia erabili dugunez (erabili ditugula etalondorio zehatzak lortu ditugu)</i> - <u>Modua</u> <i>Asidu dugunez, ikerketarako metodo egokia da</i>

1.3. -koadroa: Gaztelaren como juntagailuarekiko erlazioa duten euskal juntagailuak (laburpena)

I + genitibo-marka + modu...

aditz-izena + delimitatibo-marka + modu...

Hiruretan, edukin semantikoari dagokionez, nolabaiteko gradientea soma daiteke *modu...* eta abarreko izenek jaso duten galera semantikoa-ren arauera: Perpaus adjektibal erlatibo arruntak *[-(e)neko]* edukin semantiko osoko puntan leudeke (*Lehenengo experimentua burutu deneko moduz mintzatuko gara orain*). Gradiente horren erdian, berdintasunezko konparaketa modalak (*Bigarren experimentua, lehenengo burutu deneko modura burutuko da*), bertan, izenaren galera semantika ertaina delarik. *Modu* eta abarreko izenak guztiz deslexikalizaturik bide daudeneko puntan, kookurrentzia adiraztekoak izango dira (*Lehenengo experimentuan, bigarreneanaren modura, ondorio interesgarriak lortu dira*).

BIBLIOGRAFIA

- ACADEMIA DE LA LENGUA ESPAÑOLA (1983): *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*. Espasa Calpe, Madrid.
- ALTUNA, P. (1979): *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*. Ed. Mensajero, Bilbo.
- ALTUNA, P. (1980a): Zenbait sintagmaren batasun hauskorra Ziburuko Etxeberrigan. *Euskera*, 25(2): 381-397.
- ALTUNA, P. (1980b): *Linguae vasconum primitiae* (edizio kritikoa). Mensajero, Bilbo.
- ALVAREZ, J. L. (1978): *Euskal Gramatika*. Ediciones Vascas, Bilbo.
- AZKUE, R. M.^a (1925): *Morfología vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.
- AZKUE, R. M.^a: *Diccionario vasco-español-francés*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.
- BIRAUDM M. (1982): *Les structures comparatives*. Cratyle, 6: 31-43.
- ETXEBARRIA, J. R. (1978): Istripua gertatu deneko ordua. *Anaitasuna*, 1978.eko Urtrarlaren 15.
- GILI GAYA, S. (1961): *Curso superior de sintaxis española*. Spes, Barcelona; 1979.
- GOENAGA, P.: (1980a): *Gramatika bideetan*. Erein, Donostia.
- ITHURRY, (1979): *Grammaire basque. Dialecte labourdin*. Ediciones vascas, Donostia.
- LAFITTE, P. (1944): *Grammaire basque*. Elkar, Donostia; 1979.
- LAFON, R. (1980): *Le système du verbe basque au XVI^e siècle*. Elkar, Donostia.
- NADAL, J. (1975): *Aspectes de la complementació en el català actual*. Tesi doktrala.
- OYHARÇABAL, B. (1986): Erlatibakuntza: Perpaus erlatiboaren egitura; izen erlatibatuaren betakizuna haren barnean. *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*. Donostiako Udako IV ikastaroak. Argitarapen zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea.

RIEGEL, M. (1985): *L'adjectif attribut*. Presses Universitaires de France. Paris.

RIJK, R. (1972): *Studien in basque syntax: Relative Clauses*. Argitaratu gabeko tesi doktora. M.I.T.

VILLASANTE, L. (1979): *Sintaxis de la oración compuesta*. Ed. Franciscana de Aránzazu. Oñati.

VILLASANTE, L. (1978): *Estudios de sintaxis vasca*. Ed. Franciscana de Aránzazu. Oñati;

EZ UKATZAILEA EUSKAL TRADIZIOAREN BIDETIK NOIZ TA NOLA

Bilbo, 1988-XII-13

Alfonso Irigoien

(Erdal eraginez zabaltzen hasi berri den usuario sintaktiko oker baten aztarrenen bila)

Tituluan agertzen den *ez ukatzailea* ez da erdarara ‘no negativo’ erara itzuli behar, erdarazko ohitura baten ondorik okerreko bidetik bat baino gehiago, baita Euskal Telebistako denik ere, euskal tradizioaren kontra egiten hasi berri den bezala, ‘el [elemento] negativo *ez*’ erara baizik. Erdarazko ‘no negativo’ euskaraz *ukatzaile ez dena* erran behar litzateke euskaldun guztien legearen arauera. Ikus Azkue-ren hiztegian *gauza-eztandu* hitza, lexikalizazioaren bidez hitz bakar bihurturik *gauzeztandu* moduan erabiltzen duguna, hain zuzen ere zimentarrian *gauza ez dana* duela.

Ikertzen ari garen joera okerraren bidetik abiatu behar dugula defendatzen hasi den artekoren batek edo bestek inoiz erantzun izan du euskarazko *ukatzaile ez dena* erako multzoa hitz bakarra ez dela, eta forma sinplea behar dugula, baina ene ustez halakori ozenki eta lau haizetara jakinerazi behar zaio ez dela konturatzan bi hitzez osatzen direla biak, bai erdarazkoa: *no negativo*, eta bai euskarazkoa: *ukatzaile eztena*, nahiz eta hau hirutan izkribatu ohi den, *ukatzaile ez dena*, eta hizkuntza batekoak bestekoak baino gehiago balitu ere argumentuak batere ez duela balio, zeren, munduko edozein alderditan, hizkuntza batetik bestera halako aldeak izaita zeharo arrunta eta komuna baita, eta batean hitz bat erabilirik erraiten dena bestean hitz bitan edo gehiagotan emaiten da maiz, eta beste kasu batzutan alderantziz hizkuntza beretan. Hau gauza elementala da. Baina izari gabe erdararen mende eroririk egoiteak ez dio hala dela ikusten uzten, eta bere subkonszientean erdarazko era bakoitzak euskarazko ordain zeharo berdina izan behar du.

Bada oraindik itsuago mintzatzen denik ere, zeren erraiten baitu: *halakoak hiztegitintzak finkatu eta zabaldu ditu eta lege bihurtu dira*. Eta hori legetzat hala formulatzea serio ez izaitaiz gainera jakitate gabeko perla faltso eta engainagarria onaren izenean gainerako guztioi nahi ta nahi ez irentsierazi nahi izaita da, hizkuntzaren etorkizuneko normalkuntzarentzat balio ez duela, horrek leiza-zulo sakona sortzen baitu betiko euskaldunen aho-mihitan korritzen duten egiazko hizkera bizien eta hizkerok berok haintzat hartu gabe eta bazterturik utz ditzakeen pseudo-hizkuntza alegiazko eta ortopediko baten artean, maila bien arteko simbiosi artifiziale ez denaren ukatzaile baita. Okerrena da Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen lanean berean bultzatzen dela joera hori, eta, izan ere,

alferrikoa izan zen iaz Arrate-n, azken testua esku artean hartu bezain laster oinarritzko beste gauza batzuren artean horrezaz ere ahoz arrazoiak eman ondoan, neure desadostasuna agertzea, Batzordeari berdin baitzaio, dirudienez. Eta hone-xegatik beragatik uste dut Euskaltzaindi osoak arazo hau serioski hartu behar lukeela, eta ikerketa sakona eginez gero arrazoizko ondorioak gogoan atxiki, bere kideen artean botoka erabakitzeak kontua ez baita, tradizio historikozko jakitatean oinarri harturik baizik. Bestela, baldin bakoitzari gogoak emaiten dionaren arauera hizkuntzaren sistema aldatzeko hautua libro uzten balitz oso bide arriskutsuan sartuko ginatke, aldapan behera abiatuak datorren osina noraino helduko litzatekeen ere ezin jakin litekeela (1).

Hona hemen etsenplu batzu hizkuntza bat baino gehiagoko hitzen artean gerta daitezkeen simetriarik ezak argitzeko, gaztelaniaz: *relaciones*, euskaraz: *artu-emanak* / *artu-emonak*, ikus Azkue, *harr-emanak*, ikus Lhande, edo antzekoak, hitz bi elkaturik; gaztelaniaz: *trabajar*, euskaraz: *lan egin, behar egin*, hitz bitan; gaztelaniaz: *tala*, euskaraz: *egur-mozte*, ikus Azkue, hitz bi elkaturik; euskaraz: *astia*, —*enetzat nahi ta nai ezkoa da asti aski izaitea halako lana garaiz amaituko badut, eta horretarako bestelako eginkizunen bat utzi beharko dut*—, gaztelaniaz: *tiempo libre*, hitz bitan; gaztelaniaz: *comedor*, frantsesez *salle à manger*, hirutan; gaztelaniaz: *[un] joven*, *[una] joven*, frantsesez: *[un] jeune homme* eta *[une] jeune fille*, bata gizonetza eta bestea emakumetza, hitz bitan; eta abar, eta abar.

Okerbidean abiatuak korritzen hasi den zenbait tipo ikus dezagun:

a) “Adizki ez **jokatuak**” §1.2.2, 26 orr., §3, 65 orr., “...ez dugu haatik esan aditz horren barnean forma **jokatuak** eta ez **jokatuak** ager dakizkigukeela” irakur

(1) Cfr. LUIX M. MUJICA: *La Prefijación clave del euskara técnico y urbano*, Bilbao 1978. Argitaratua bezain laster nik neure artikulua baten sakon astindu nuen: “Crítica sobre prefijación y sufijación en lengua vasca”, *FLV*, 32 (1979), 243-258 orr.

§10 epigrafean, 89 orr. eta hurrengoak, “*DES, EZ, -GABE (Des, In / Im)*” tituluaren azpian tratatzen da arazoa: “En nuestro DICCIONARIO GENERAL Y TECNICO, —dio—, su entrada ha sido total y decisiva —la de DES—; multitud de veces, sin embargo, en clara competencia con el sufijo autóctono EZ. Las voces con el prefijo DES en ese diccionario superan las 1.500. La variante EZ, sin duda, tiene también gran desarrollo en nuestro idioma, y es preciso potenciarlo grandemente, dado su carácter autóctono y fácilmente comprensible (*ezbide, ezgauza, ezbehar*, etc.)” “Nosotros proponemos estas formaciones lexicales, con idea de *negatividad*, desde la base del paraprefijo EZ. La mayoría de estos vocablos están presentes en nuestro diccionario técnico: *ezatentzio* ‘desatención’, *ezafinake-ta* ‘desafinación’, *ezabonatu* ‘desabonarse’,..., *ezmendeko* ‘desobediente’,..., *eztrebe* ‘desmañado’, *eznormal* ‘descomunal’, *ezmerezi* ‘desmerecer’, *ezlagundu* ‘desacompañar’, *ezkontseilatu* ‘desaconsejar’,..., *ezgobernatu* ‘desgobernar’, *ezesan* ‘desdecir’...”. “EZ, igualmente, no es desdeñable para vertir conceptos afines a la *negatividad*, como la *privación* o la *exclusión*... *ezordain* (impago), *ezdamu*, *ezgose*, *ezlan*, *ezbalio*, *ezbake*, *ezlegatasun*, *ezneurri*”, eta nik neure kontura gaineratzen dut: “y lindezas semejantes que en mi crítica de 1979 no señalé porque no merecía la pena de perder el tiempo recopilando más despropósitos de los que recogí”.

Baina dirudienez ene kritika ez da aski izan horren eta pareko hiztegiaren eragin bihurria zeharo bazterrerazteko, zirrikituren batetik Euskaltzaindiraino bertaraino ere oihartzunen bat sartu baita.

daiteke, §1.2.2., 26 orr., *Euskal Gramatika, Lehen urratsak-II*, Bilbao, 1987, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea-k, autore moduan agertzen dela, eginikoan. Beheratxoago, ordea, adizki *jokatuak* nahiz *jokatugabeak* dio, baina baita ere berriz adizki *ejokatuen* artean. Eta beste leku batzutan “*Erabilera ejokatu hauek*”, §3, 67 orr., baina “*Forma jokatugabeak*”, §3.1.4, 71 orr., “*Partizipio jokatugabea*”, §4.3.2, 89 orr.

Edozein euskaldun lege zaharrekok dudarik tipiena ere egin gabe terminologia bera hautatuz gero hurrengo datorrena besterik ez luke erranen: *forma jokatua*k eta *jokatu gabeak*, edo *jokatu gabekoak*, edo *jokatu bakoak* < *ba(ga)koak*, edo horren pareko zerbait. Eta ez du merezi horrezaz gehiago ezer gaineratzea, hain zuzen ere horretarakoxe baitu hizkuntzak *gabe*, *bage*, edo *baga* elementua, euskalkien arauera. Hala ere erran behar da partizipioen aitzinetik ez elementua proklitiko bihurtu gabe erabiltzea kontextu batzutan aski normala dela: *Etsamina hura orduan ez egin izana sekula ez zaio ahortzi*, zeren ondorio nabarmenak ekarri baitzizkion.

Norbaitek berehala lerradake euskaraz nonbait arruntak direla edo gutienez izan direla hurrengo formak: *ezizen*, *ezbehar*, *ezbide*, *ezune*, *ezuntsa*, *ezurte*, *ezuste*, *ezgauza* / *ezkauza* —eta ez da nahasi behar *gauzaez* formarekin, ikus Azkue-ren hiztegiari: *gauzaez bat da gizon ori—*, ezeuki, *ezikusi* egin, *ezikusiarrena* egin, *ezaxola*, *ezjakin*, *ezezagun*, *ezikasi*, *ezdeus* / *ezteus*, Azkue-ren hiztegiari azkenengo *ezteus* dela-ta erraiten da: “Proviene, por falsa analogia, de la aglutinación de *ez* + *deus*, como *ezkauza* de *ez* + *gauza*, y *etxaramon*, de *ez* + *jaramon*”. Izan ere era bat baino gehiagoko forma lexikalizatuak dira, batzu substantibo eta beste batzu adjetibo funtzioan erabiltzen direnak. Azkue-k bere *Morfología vasca*-n, Bilbao 1925, §126, dio:

“Los afijos evolutivos de origen adverbial son por lo menos tres: *ez* (prefijo en unos, sufijo en otros vocablos), *ka* y *len* que también precede a veces y sigue otras al tema”. Ikertzen dugun *ez* delakoari dagokionez, *gauzaez*a hitzaz gainera, *ondoeza*, *presteueza* eta *ezetarakoeza* emaiten ditu, berrekailu legez ondorik doala. Bestelako era hitz bitan agertzen direnak, ordea, ugari ekar ditzakegu gogora eta nahi diren beste asma, entzule edo irakurle euskaldunak ulertuko ez dituen beldurrik batere gabe: *dirurik eza*, *lanik eza*, eta abar, eta abar. Baita partizipioen ondorik ere: *hartu ez*, *jan ez* / *hartu ezarren*, *jan ezarren* / *hartu ezean*, *jan ezean* / *hartu ezik*, *jan ezik*, eta abar, eta azkenengo *ezik*, ezezko zentzuzkoa, ez da nahasi behar *ez ezik* delakoan agertzen den *ezik* juntagailuarekin, —*ez eze* aldagarria ere bada gutienez—, hala nola, *jan ezik gose izango da*, alderdi batetik, eta *jan ez ezik erre ere egingo du* edo *jan ez eze erre ere egingo du*, bestetik.

Aipatu direnez gainera orain batzuk, ez denek, *desberdin* forma zaharraren ordeaz *ezberdin* izkribatzen dute, purismoaren eraginez *des-* berrekailua *ez-* forma erakarri nahi izan baitzen garai baten, hura itsusiztat hartzen baitzuten, egungo egunean, ostera, halakotzat ez dugula. Azkue-k hiztegiari erraiten du: “Larramendi, en su Diccionario, acogió este afijo —*des*— dándole carta de naturaleza; y aunque es de uso general alguna palabra que le contiene (como *desbardin*, *desberdin*, ‘desigual’), *desegin*, ‘deshacer’, no se puede sostener su carácter indígena”. Edozein modutan ere ez da berdin *desegin* eta *ez egin*, eta arrazoi horregatik *desegin* forma ezin aldatu izan da inola ere, eta bizi bizirik dirau forma bakarra duela.

Aipatu dugun *Euskal Gramatika*-n, *Lehen urratsak-II*, badira, ordea, beste honako hauek ere:

“*Beste hauek, ordea, ez-gramatikalak dira*”, §15.1.2, 440 orr., baina ezin dudarik egin daiteke euskara normalean *beste hauek, ordea, ez dira gramatikalak* erran behar dela.

“**Beti nekusan han perpausa segur aski ez-gramatikala litzateke*”, §14.2.3.1.1, 406 orr., baina zuzena ... *ez litzateke gramatikala*. Ez gara hemen sartzen erraiten dena ondo dagoen ala ez argitzen, nola errana dagoen ikertzen baizik.

“*Perpaus ez gramatikalak sortzen baitzaizkigu*”, §2.3.3.2, 59 orr., baina zuzena *perpaus gramatikal ez direnak* sortzen baitzaizkigu.

Hala ere inoiz zuzen ere agertzen da: “*Ondoko esaldia ez da gramatikala*”, §2.2.3, 45 orr.

Euskal Gramatika, Lehen urratsak-I (eraskina), delakoan, Bilbao 1987, ostera, “*Jentilizioak izan ezik, gainerako izenondoak izenaren ezkerreko partean paratuz gero, izen sintagma ez gramatikal bihurtzen da*”, dio, §1.1, 21 orr. Baina euskaraz honela jarri beharko litzateke:..., *izen sintagma ez da gramatikal bihurtzen*. Lehenengoaren egituraren azpian hurrengo erdarazko frasea dago: “..., *el sintagma nominal se hace no gramatical*”.

Europako kulturaren bidetik korritzen duten hitzen arauera *agramatikala* erabili balitz ez zen gauza bera izanen, ikus grekoz *agrammatia*, letren ez ezagutzea. Baina nola N. Chomsky bide horretarik ibili izan ez den ez da gure artera halakorik iragan, eta posibilitate hori lege zaharreko izanarren existitzen ez balitz bezala jokatzten da.

Ikertzen dugun jokabidearen izkutuan gordetzen denak ondorio izugarriak dakartza, erdarazko (*agua*) *no potable* itzultzeko (*ur*) *ez ona* erabili izan baita, eta hori ontzat hartuz gero euskaraz zuzen errana litzateke **ura ez ona da*, baina mundu guztiak dioena *ura ez da ona* erakoa da, eta besteak belarrian min egiten du. Itzulpen normala eginez gero *ez da edateko / ez da ona edateko / edateko ez den ura / ez edan hemengo urik / ez edateko ura / ur ez edatekoa / ez edatekoa*, eta abar, norberaren gustuaren arauera nahi diren beste forma zuzen asma daitezke. Baina nik ez dakit gure artean zer gertatzen den gehienetan okerrean hautatzeko. Edo hobeto erranik begien bistan dago erdaraz *no potable* maiz irakurri duela edonork, eta horren ereduakoa da euskaraz ipintzeko oker hautaturikoa.

Harrigarriena da, neurorrek Arrate-n salatu nuen bezalatsu, *Euskal Gramatika, Lehen urratsak-II*, delakoan, §16.2.2, 492 orr., erraiten dela: “**ez egin du; *ez ekarri du* eta horien antzekoak, segidarik ez badute behintzat, ez dira euskara”. Eta nik orain horren autoreei diostet: **Ez ona da* erraitea ez alda gauza bera?

Beste alderdi batetik komunikabide publikoetan notiziak emaiterakoan erdarazko *proposición no de ley* bezalatsuko formak maiz *proposamen ez legezkoa* erara itzultzen dira euskarara inolako kezkarik gabe, *proposamen legezko ez dena* edo *legezko ez den proposamena* erakoak egin beharrean.

Toponimiarako ditugun eredu zaharren arauera ere hala litzateke. L. Mitxelena-ren artikuluan baten, “*Algunos nombres de Contrasta*”, *ASJU*, XIX-2 (1985), 598-599 orr., zenbait toponimo biltzen dira Gerardo López de Guereñu-ren baitarik

harturik, *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Bilbao 1983, 415-423 orr., gure arazorako ondo datozenak: *Aizluceadana*, *Artiadana*, *Cruceadana*, *Goicoeliseadana*, *Larradana*, *Lesiadana*, eta abar; erdaraz: 'lo que es la Peña larga' o 'donde está la Peña larga' o 'donde está Aizlucea', eta abar. Berdintsuak biltzen ditu J. M.^a Jimeno Jurio-k Nafarroarako, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona*, *Cendea de Cizur*, Estella-Lizarrar 1986: Arrizabal yturri *denecoan*, 60 orr., *Vi erreacac balcjen diren lecuam*, 64 orr., *Buzu andia denecoa*, 68 orr., *Domingoren ychaurra denecoan*, 79 orr., *Domingoren ychaurr sabalcoa denecoan*, *Urdeac eciten direnecoan*, 80 orr., *Dorrondoco ychaurra denean*, 82 orr., eta abar, eta abar.

Halako toponimoetan ezezko erakorik normalki agertzen ez bada ere sortzailak ezezkoan egin beharrean aurkitu izan balira ezin dudarik egin daiteke nolako erakoak emango zituzketen. Gutxienez *dana* / *eztana*, *denekoan* / *eztenekoan*, *batzen diren lekuan* / *batzen eztiren lekuan*, *denekoa* / *eztenekoa*, *etziñen direnecoan* / *etziñen eztirenekoan*, *denean* / *eztenean*. Beraz egungo eguneko itzulpenetan, gorago ikusi dugunez, proposamen *legeko dena* edo *legeko den proposamena* / *proposamen legeko ez dena* edo *legeko ez den proposamena* egin behar dela argi dago. Toponimian orduko euskaldunek ez zuketena baiezkorako *Butzu handia denekoa* sortu ondorik ezezkorako **Butzu ez handia denekoa* eginen, eta *Dorrondoko itxaurra denean* forma finkatu ondorik **Dorrondoko ez itxaurra denean* erranen.

Okerreko bidekoen artean Uitzin joan den azaroaren 26-an "Lexikologi erizpideak finkatzeko X. jardunaldiak" titulupean izaniko berriketetan txosten egileetarikoa batek erabili zituen zenbait seinalatuko ditut, —han bertan mintzatu nintzen gai honez eta jokabide hau zalantzan ipintzen saiatu nintzen—:

Izen ez-propioa. ZUZENA: *Izen propio ez dena* edo *propio ez den izena*. Gainera *izen ez-propiodunek*, ergatibo plurala, egiteraino heltzen da, eta hori euskaraz absolutuki ezinezkoa da, —*dun* berrekailua beti baiezko zentzuzkoa baita. Izan ere ezezkorako *gabe* / *gabeko*, *baga* / *ba(ga)ko*, eta abar, hartzen da. Hau da: *izen propioduna* alderdi batetik, 'izen propioa duena', eta *izen propio bakoa* bestetik, 'izen propiorik ez duena'.

Ipar eta Hego direlakoan izaera *ez-propioa* onartzekotan,... ZUZENA: *Ipar eta Hego direlakoan* [izen] *propio ez izatea* onartzekotan, ...[Ipar Afrika, Hego Amerika, eta halakoez ari da].

Euskal testu ez-teknikoetan. ZUZENA: *Euskal testu tekniko ez direnetan* edo *tekniko ez diren euskal testuetan*.

BASQUE "ON" ET LATIN "BONUM"

Michel Morvan

Cela fait déjà un certain nombre d'années que traîne de=ci, de-là l'idée que le terme basque *on* (var. *un*, *hon*, *hun*) "bon" pourrait bien provenir du latin *bonus/bonum* de sens identique. On la rencontre chez des auteurs de nature très différente, tant sérieux que fantaisistes.

Éliminons tout de suite le fantaisiste: comme celui-ci est un partisan acharné de l'origine latine ou latino-celtique du basque, il va sans dire qu'il n'hésite pas un seul instant à donner l'étymologie bsq. *on* < lat. *bonum* sans y ajouter le moindre commentaire. Ce n'est d'ailleurs pas la plus saugrenue puisque ce même auteur, J. Lemoine (1) (docteur en médecine et ex-président d'une improbable "Académie Gasconne") avait pour habitude de nous asséner sans coup férir le résultat de ses élucubrations du genre bsq. *hotz* "froid" < lat. *frigidus* (sic) et autres farfeluteries. Paix à son âme, mais sus à son élaborat!

Venons-en maintenant aux linguistes sérieux. Il faut remonter à peu près à Uhlenbeck (2) et Gavel (3) pour trouver la base de l'étymologie en question. Elle s'appuie sur le fait que pour un certain nombre de termes basques on serait en droit de supposer qu'une occlusive sonore /b/ est tombée devant la voyelle *o*, étant donné que le basque peut traiter en principe de la même manière un emprunt au latin dont l'initiale est une occlusive sourde /p/ ou une sonore /b/. Ainsi, le terme basque *ollo*, *oilo* "poule" qui correspond au castillan *pollo* provient vraisemblablement du latin *pullum* "poulet" ou de sa variante **pullium* en latin tardif (cp. vx fr. *poil*). En conséquence *oilo* pourrait s'expliquer à partir d'un vieux-basque */boilol/, ce qui permettrait alors de proposer

(1) J. LEMOINE, *Toponymie du Pays Basque français et des pays de l'Adour*, Paris, 1977.

(2) C. C. UNLENBECK, *Contribution...*, p. 92.

(3) GAVEL, *Elements...*, pp. 329-330.

pour bsq. *on* "bon" une étymologie latine ou romane. Notez le conditionnel que je reprends ici à A. Martinet (4).

Luis Michelena, de son côté, écrit que le terme est peut-être (acaso) apparenté au latin *bonus/bonum* ou encore à certaines formes anthroponymiques en *Bon-*, *-ponnis* relevées en aquitain (5). L'alternance p-/zéro existerait encore dans quelques autres cas comme par ex. *aieru/paieru* "soupçon" ou *ausatu/pausatu* "s'attarder". On trouverait même des exemples de la chute de /p-/ dans la comparaison du basque et des langues caucasiennes: bsq. (*h*)itz "mot" vs. géorg. *pici* "serment", bsq. (*h*)uts "vide" vs. géorg. *puč-i* "id.", bsq. *orri* "feuille" vs. géorg. *purceli* "id." (6).

"Tout ceci", écrit encore A. Martinet, "est plutôt maigre en regard des longues listes de mots où *k-* alterne avec *h-* ou zéro. Mais il est probable que le phonème /p/ était généralement rare en basque ancien...". Je ne me prononcerai pas, pour ma part sur la valeur des rapprochements basco-caucasiens ci-dessus, qui ne m'ont jamais beaucoup convaincu. Le *h-* initial des mots basques en général (ici *hitz* "mot, parole", *huts* "vide, pur") est loin d'être toujours étymologique et son maniement en matière de comparaisons exige une grande prudence.

Mais c'est sans hésitation, cette fois, que je donnerai mon point de vue au sujet de *on*, point de vue au demeurant largement partagé par J. B. Orpustan de l'Université Bordeaux III (échange épistolaire). Cette analyse se résume aux quelques réflexions suivantes:

a) Il est impossible que *on* vienne du latin *bonum* car, en phonétique basque, même avec chute du *b-* initial, le terme aurait abouti à **onu* et non pas à *on* (cp. lat. *coelum* "ciel" > bsq. *zeru*, etc.).

b) Il conviendrait donc de faire provenir bsq. *on* d'un emprunt à une forme romane, très tardive par conséquent, qui perd complètement la désinence latine (type fr. *bon*, gasc. *boun*, etc.).

c) Un tel emprunt au roman semble impensable et défie le bon sens. Il serait curieux que les anciens Basques aient attendu l'époque romane pour emprunter un terme qui recouvre une notion aussi fondamentale que "bon, bien" et ses diverses connotations (*favorable, bénéfique*, etc.).

Il demeure que nous nous trouvons en présence de variantes de deux types: une variante vocalique avec *un*, mais nous savons qu'en

(4) Cf. A. MARTINET, *Economie...*, ch. XIV, les occlusives du basque, p. 380.

(5) Cf. L. MICHELENA, *Textos arcaicos, vascos*, p. 17 et *FHV*, p. 253.

(6) MARTINET, *ibid.* et K. BOUDA, *Baskisch-kaukasische Etymologien*, pp. 14, 16 et 23.

basque *o* et *u* sont extrêmement proches, voire confondus; une variante avec *h-* initial (*hon*, *hun*). Ce second type de variante est le plus délicat, car il rend inévitable la question sur la valeur étymologique ou non étymologique de cette aspirée. C'est à ce niveau qu'une observation "sur le terrain" s'impose, pourrait-on dire. S'il est vrai que l'on peut rencontrer assez facilement les formes isolées *hon*, *hun* (notamment en souletin), par contre on peut constater qu'en composition, même dans les dialectes du Pays Basque Nord qui conservent habituellement l'aspirée, cette dernière est beaucoup plus rare: *untsa*, *ontsa*, *ongi* "bien", *onetsi* "approuver", *ongarri* "engrais, fumier", *ontasun* "bien, possession", etc.

Il s'agit là, à n'en pas douter, d'un fait phonétique qui milite en faveur d'une aspirée non étymologique. Ce fait, combiné avec l'argument de bon sens énoncé plus haut sur le caractère fondamental de la notion envisagée, nous permet de penser que le terme *on/un* existait déjà sous cette forme ou sous une forme extrêmement voisine en proto-basque, et qu'il représente donc un très vieux terme autochtone n'ayant pas la moindre affinité avec le latin, en dépit d'une ressemblance morphologique et de certaines lois phonétiques qui avaient eu tendance à séduire les chercheurs, même parmi les plus avisés.

Le caractère pré-indo-européen de *on/un* "bon" (la var. *un* a son importance comme on va le voir) et du basque en général m'incite à ouvrir la comparaison avec d'autres langues non indo-européennes, et notamment avec le turc où l'on trouvera sans grand peine un thème-racine **on-* ou **oŋ-* "bon". La forme **oŋ-* est mentionnée par A. von Gabain qui donne *oŋ* "bon, exact, positif, ouest, sud, droite" "en vieux turc, ainsi que *oŋul* "guérir, devenir bon" et *oŋar* "améliorer" (7). La notion de "sud" est due à la position géographique favorable face au soleil et celle de "droite" à l'opposition classique droite/gauche = positif/négatif (cp. lat. *sinister* "gauche, maléfique"). En turc moderne, on trouvera facilement **on-* en composition dans *onarmak* "réparer, améliorer, mettre en ordre", *onmak* "guérir, améliorer, réparer" "et son causatif *ondurmak* "soigner, guérir, améliorer une condition", *onarim* "réparation, restauration", *onaylamak* "certifier, ratifier, confirmer", *ongun* "florissant, prospère", etc.

Il est intéressant d'observer que la racine turque ainsi dégagée se présente aussi sous la forme *un-*: *unalmak*, *unarmak* (8) et que J. Hamilton cite dans son glossaire ouïgour: *una-*, *WN* "consentir". Ce dernier étudie par ailleurs une forme *öŋ* dans l'expression *öŋ ülüg*, forme qu'il ramène à *oŋ* "côté droit" "salutaire, faste, favorable, bon, prospère, etc.",

(7) A. von GABAIN, *Altürkische Grammatik*, p. 349.

(8) cf. H. C. HONY, *A Turkish-English Dict.*, p. 377.

parfois aussi "sort, destin" (cf. *EDPT*, pp. 166-167, et *onjal*-, p. 185: *TMEN*, II, n° 624) (9).

La piste ainsi suivie semble par conséquent extrêmement troublante, qui met côte à côte bsq. *on/un* et tü. *on/on-/un-* (*WN*) "bon". Au delà, on devra porter son attention sur le mongol *ön(g)* "plein, bonne saison, fertilité" ou *onts* "excellent, remarquable" (10). Le samoyède *enets* offre à son tour *on*, *onej*, *onaj* "vrai, authentique, exact" (11) et l'on pourrait éventuellement pousser jusqu'au japonais *on* "bonté, faveur, bénéfice, charité" (12) avec prudence bien entendu.

En tout état de cause, il sera désormais impossible, selon moi, de ne pas tenir compte de ces formes ouralo-altaïques lorsqu'on traitera du basque *on* "bon" et de son étymologie, et c'est tant mieux, car il est plus que temps de renouer avec la grande tradition du comparatisme.

BIBLIOGRAPHIE SOMMAIRE

- BOUDA, Karl, *Baskisch-kaukasische Etymologien*, Heidelberg, 1949.
- CLAUSON, Sir Gerard), *An Etymological Dictionary of Pre-Thirteenth Century Turkish*, 1972.
- DOERFER, G., *Türkische und Mongolische Elemente im Neupersischen*, I-IV, 1963-1975.
- DOLGICH, B. O., *Očerki po etničeskoj istorii nencev i encev*, Moscou, 1970.
- GAVEL, Henri, *Eléments de phonétique basque*, Paris, 1920.
- HAMAYON, R.; SUXBAATAR, C.; BEFFA, M.-L., *Manuel de langue mongole*, INALCO, Paris, 1975.
- HAMILTON, James, *Manuscripts ouïgours du IX-X^e siècle de Touen-Huang*, Paris, 1986.
- HONY, H. C., *A Turkish-English Dictionary*, Oxford, 1957².
- KATZSCHMANN, M.; PUSZTAY, J., *Jenissej-samojedisches Wörterverzeichnis, Fenno-Ugrica*, 5, Hambourg, 1978.
- LEMOINE, Jacques, *Toponymie du Pays Basque français et des pays de l'Adour*, Paris, 1977.
- MARTINET, André, *Economie des changements phonétiques*, Berne, 1955.

da: euskaltzain berriaren aurkezleetako bat eta bere sarrera hitzaldia azken egina duen euskaltzainkidea izango dira berezko laguntzaileak. Hauetakoren baten faltan, bertan daudenetako Akademian lehen sartutakoak beteko du eginkizuna. Horren arabera, F. Ondarra, eta P. Zabaleta izango dira Oiartzunen J. M. Lekuona batzar gelan sartzen lagunduko dutenak.

L. Dassance euskaltzain ohiairen omenez Uztaritzen irailaren 3an egitekoak diren ospakizunen berri eman du J. Haritschelharek.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*J. M. Satrustegi,
Idazkaria*

2. batzarrea

J. M.^a Lekuona euskaltzainaren sarrera

Oiartzungo Udaletxean, 1988.eko irailaren 30ean, eguerdiko 12etan egin da J. M.^a Lekuona euskaltzainaren sarrerako batzarre irekia. Mahaipuruan bildu dira: L. Villasante, euskaltzainburua; J. M.^a Satrustegi, idazkaria; Jon Iñarra, Oiartzungo alkatea; M.^a Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkaria; Imanol Murua, Gipuzkoako diputatu nagusia eta Oiartzungo udalaldean zinegotzi ordezkariak.

Beste bilkuran aipaturiko euskaltzain osoez gainera, urgazle hauek ere baziren Oiartzungo Udal-batzartegian: E. Agirretxe, J. A. Arana, J. M.^a Aranalde, X. Arbelbide, P. Arregi, M. Azkarate, J. M.^a Azpiroz, R. Badiola, P. Berrondo, R. Camblong, J. M.^a Etxebarria, E. Etxezarreta, B. Gandiaga, J. Garmendia Larrañaga, P. Goenaga, J. M.^a Iriondo, J. Kortazar, J. M.^a Larrarte, J. L. Lizundia, A. Muniategi eta J. J. Zearreta.

1. Euskaltzainen bilkuraren kontu ematea: J. M.^a Satrustegi idazkariak ematen du gai honen azalpena, punturik garrantzitsuenak azpimarratuz.

2. Jarraian, Jon Iñarra Oiartzungo alkate jaunak, herriaren izenean, ongi-etorria ematen die euskaltzainei eta bildutako guztiei, zorionak emanez Akademiari, euskararen alde egiten diharduen lanak, azpimarratuz nola Konstituzioaren garaian salatu zuen hizkuntzarekiko tratamendua. Bestalde, D. Manuel Lekuona zena eta Juan M.^a Lekuona euskaltzainen mailako gizonak herriarentzat daukaten garrantzia adierazi du.

Ondoren, L. Villasante euskaltzainburuak bere hasierako hitzak egin ditu, D. Manuel Lekuona, beraren aurretiko euskaltzainburua bereziki goraiapatuz.

Euskaltzainburuaren hitzen ondoren, J. M.^a Satrustegi idazkariak sarrera ospakizunezko bilkurak arautzen dituen Barne Erregelen artikulua irakurtzen ditu. Jarraian, euskaltzain bi joan dira Juan M.^a Lekuona euskaltzainaren bila, hain zuzen, F. Ondarra eta P. Zabaleta jaunak.

Juan M.^a Lekuona Berasategi euskaltzain berriak eman du segidan bere sarrera hitzaldia, alegia, *Herri-literaturaren estiloaz*. "Ahozko eta idatzizko estiloen artean. Erdi-ahozkotasunaren zenbait alderdi" gaiaz. Eskerrak eman dizkie, bai Euskaltzaindiari erakunde barruan sartzeagatik eta baita, Oiartzungo herriari, hain harrera beroa egiteagatik. Punturik nagusienak beronen sarreran hauek azpimarra daitezke: eskema metrikoak, ortografia. Lehen eta behin ahozkoa. Bestalde zera gogoratu du, hots: bertso paperak, aldizkariak, liburuxkak: alderi historikoa, soziologikoa, antropologikoa, estilistikoa. Azken honetan: baladak, ahozkotasunaren balioa,...

J. Haritschelhar euskaltzainburuordeak ematen dio erantzuna: “Hura zen D. Manuel, zu zara Joan Mari” lelo zoragarri honekin ekin dio. Osaba bide urratzaile izan baldinbada, zuri esker xendra edo bidexka hori errege bide bilakatu da”. Bestalde, sartu berriaren lanak laburbildu ditu eta zenbait bertso zehazki aztertu ditu.

Eta azkenik, denak zutik, L. Villasantek izendapen agiria eskuratuz eta erakundearen domina ezarriz, zoriondu du euskaltzain lagun berria.

1988-IX-30

Gernikako Udaletxean bildu da Euskaltzaindia 1988ko irailaren 30ean. Arratsaldeko 4etan hasi da batzarrea eta bertara etorri dira, L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, P. Charritton, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, J. M. Lekuona, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, P. Zabaleta eta A. Zavala, euskaltzainak. J. L. Lizundia urgazle eta idazkariordea.

P. Altuna eta F. Ondarra jaunek ezin etorria adierazi dute.

Azken batzarreko agiria onartu da.

Euskaltzaingaien aurkezpena

J. Gorostiaga euskaltzain ohiaren aulkirako hautagaien izenak emateko epea batzarre honetan amaitzen dela aditzera eman du euskaltzainburuak. Ez du inork izen berririk aipatu gaurkoan. Uztaileko batzarrean esandako X. Kintana eta J. A. Arana dira, beraz, Arautegiaren arabera aurkeztutako izen bakarrak. Datorren urriko batzarrean egingo da legezko bozketa.

Onomastika batzordea

Nafarroako Gubernuaren eskariz egitekoa den Herri Izendegia ikusi da gero. Eremu Mistoko bost zerrendak dira udazken honetan amaitu beharrak eta azken aldiko oharrei gain begiratu eman zaie. Lan orokorraren bigarren atala da hau, Euskal Eremukoa zelarik lehena. Besterik gabe onartu du Euskaltzaindiak Onomastika batzordeak egun aurkezturiko izen multzoa. Horrela jakineraziko dio idazkariak Nafarroako Gobernuari, eta epe labur baten ondoren eskuratuko zaie agintariei ofizialki zerrenda. Erriberako izen bilketa egiten hasia dela jadanik batzordea, aditzera eman dute arduradunek.

Orixeren mendeurrena

Orixe zenaren jaiot-mendeurrena prestatzen joateko, hizlarien arazoa aipatu da. P. Altuna, J. M. Aranalde, J. Azurmendi eta P. Iztuetaekin egotea erabaki da, berauen artean txostenak egingo dituzten jakiteko.

Orotariko Euskal Hiztegia

Azken egun hauetan egunkariak OEHar buruz esandakoez, I. Sarasolak dio berak ez diola inongo kazetariri Hiztegiaren azalpenik zuzenean egin. Non edo han elkar agurtuz aipamenik sortu bada, era informalean eta zabalkunde asmorik gabe izan dela.

Arazoa da, OEHren bigarren tomoa iragan martxoko sanjosetarako plazartzekoa zela, eta EJIEn nagitasuna dela medio argitara gabe dagoela. Tokiz aldatu dira, alde batetik, laneko sistema ere aldatu dute, eta eragozpenak sortu dira Hiztegiarentzat.

Laugarren tomoa prestatzen ari diren bitartean, bigarrenaren zuzenketak egin beharrean gertatu dira egun hauetan, lan zaharra berriztatzeak dakartzan arazo guztiekin. Nola nahi ere, hamabosten bat egunen buruan zuzendurik egon daitezke proba horiek, eta biharamonetik ekinen diote hirugarren tomoa bideratze lanari.

Argitaletxeekin Bilboko egoitzan izandako harremanak aipatu ditu J. San Martin diruzainak. Oso kezkatu daudela atzerapenarekin, aditzera eman du. Egoera bizkortzeko, agintariekin egon beharra ikusten da, EJI, azken finean, Administrazioaren zerbitzua baita.

Izendapena

Gipuzkoako Kutzaren eskariz, Literatura unibertsaleko lanak itzultzeko "Orixe" sariari epaimahaia osatzeko Euskaltzaindiaren ordezkari, Tx. Peillen izendatu da.

Eskuarztekoak

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusitik gutun bat jaso da Euskaltzaindiaren argitalpenei buruz zenbait zehaztasun eskatuz. Argitalpen horien politika zertan oinarritzen den, zein asmo eta prebisio dituen, galdeztzen du besteak beste. Zer argitaratzen duen eta bere liburuak nola eta nora zabaltzen diren ere itauntzen du.

Zuzendaritzak ikusi zuen gai hau, eta erantzun ere. Batzordeen lanak ez badira argitaratzen ez dutela ezertarako balio, esaten zaio. Lekukoen bilduma eta IKER sailan euskal testu zabalkunde gutxikoak, baina hizkuntzari buruz beharrezkoak direnak, plazaratzen dituela ere aipatzen da. Euskaltzaindiak bere katalogoak argitaratuak ditu, eta urteko Memorian bere prebisioak aurkezten dizkio Eusko Jaurlaritzari.

P. Charritton euskaltzainak, bere aldetik, Euskaltzaindiak zer politika jarraitzen duen argitalpenen arloan, galdetu du. Liburu jakingarri batzuren zerrenda eman du, zokoratuak daudela esanez.

Zoritxarrez, diru laguntzen arabera ateratzen direla liburuak, erantzun zaio, eta Diputazio bakoitzak bere euskalkikoak atera nahi dituela, eta ez beti. Baionan balego Diputazio babeslerik hangoentzat iturri baliagarri izan litekeela, noski.

J. M. Lekuonak harri marratuetako gurutze hiztegiari egindako zuzenketak banatu dira batzartuen artean.

Euskera aldizkariari buruz E. Knörrek egindako ohar batzu ere zabaldu dira. Pundu nagusiak laburtuz, Euskaltzaindiaren aldizkariak ateka estua behar duela idazlanak onartzekoan, erdarazko lanei eskua ireki behar zaiela, eta euskarazkoen erdal laburpena egin. Testuko hutsak eta inprimatzeari dagozkion arau orokorrak ere aipu ditu. Azkenean, sorreratikako *Index verborum* osoa egitea eskatzen du.

Jardunaldiak

Aurrez iragarririk zegoen moduan, irailaren 29, 30 eta urriaren lehenean, Estilistikaz Literatura batzordeak, eta Lexikologi Erizpideak Finkatzeko LEFen batzordeak, bakoitzak bere aldetik antolatutako bi Jardunaldi egin dira Gernikan, bertako Jaiei mendeurrenkari.

Euskaltzain osoen batzarre honen amaieran E. Knörrek gutun bat zabaldu du. Bertan galdetzen du, Euskaltzaindiak bere iragarki ofizialetan euskara batua-ren edo orotako euskararen arauak ez baditu betetzen, ez betearazten, zeinek beteko edo betearaziko dituen.

Euskaltzainburuak Zuzendaritzaren izenean gai hau erabili zuela Jardunaldion sarrera hitzaldian, erantzun zaio. Estilistikako saioen amaieran, bestalde, kezka bera azaldu du, euskarak behar-beharrezkoa duen batasunaren bidea indartzen joateko denen laguntza eskatuz.

Eta besterik gabe amaitutzat eman da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi,
Idazkaria

1988-X-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian egin du Euskaltzaindiak euskaltzain osoen hileroko bere batzarrea. Goizeko hamar t'erdietan bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu eta J. San Martin euskaltzainak, J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea barne dela.

J. M. Barandiaran, X. Diharce, E. Erkiaga, A. M. Labayen, P. Zabaleta eta A. Zavala jaunek ezin etorria adierazi dute, hala nola I. Sarasolak azken orduan.

Iraileko batzar-agiria onartu da.

Eskuarteko gaiak

Iragarritako lehen gaia J. Gorostiaga euskaltzain zenaren hutsarte batetzeko bozketa da. Iritsi ez den I. Sarasola etorriko delakoan, eguerdiko hamabietara atzeratu da bozketa.

Orixenaren omenez Uitzin egitekoa den azaroko batzarreaz mintzatu da J. L. Lizundia. Bertako alkatea ikusten izana dela J. M. Satrustegirekin aste honetan bertan, aditzera eman du. Barnetegitako antolatu nahi den Orixeneko berritatzeko lanak ez dira hasi. Kontzejuko etxeak bileretako leku aproposak badi-tu. Ostatuan, bestalde, hamar bat logela badira. Alkatearen ustez, igandea da omenaldia egiteko egunik egokiena.

Lexikologi Jardunaldien eta euskaltzain osoen bilerarako egutegia zehaztea da une honetan egiteko nagusia. Bizpahiru aukera aztertu ondoren, Jardunaldiak eta euskaltzain osoen hileroko batzarrea larunbatean, azaroak 26, egitea erabaki da. Igandean goizeko hamaiketari izango da meza eta hamabietan omenaldiko batzar irekia.

P. Altunaren ustez laburregia da eskatu zaion gai zabalarentzat Uitziko omenaldian eskaintzen zaion denbora eta, bere aldetik, uzteko prest dago. J. M. Le-kuonak dio hobe dela bere txostena baztertzea. Azkenean, P. Altunaren txandari denbora gehiago emanez hiru txostenak aurkeztea erabaki da.

P. Goenagak gutun baten bidez aditzera ematen duenez, J. Butron eta J. de Pedroren *Euskal Gramatika Praktikoa* hein haundi batean Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak orain arte argitaratuaren laburpen soiltzat har daiteke, eta Euskaltzaindiak erabakiren bat hartzea bidezko iruditzen zaio.

Salaburuk bere aldetik liburuan jasotako atal berdintsuenen azalpena egin du. Salgai dauden aleen bada-ezpadako bahiketa agindua lehen-bait-lehen eman beharra aipatu da. Arazoa legegizon trebe baten esku uztea erabaki da. Gramatika batzordeko burua eta buruordea arduratuko dira lehen urratsak ematez.

J. M. Satrustegi Nafarroako ordezkariak esan du, aurreko batzarrean aipatu zen bezala dagokien arduradunei emana diela Eremu Mistoko herri izenen zerrenda. A. Colin Lehendakariitzako kontseilariarekin elkarriketa eskatua du datorren azaroaren 11an, ahal bada, aurkezpen ofiziala egiteko. E. Knörr Toponimia batzordeburua, J. M. Jimeno Jurio lanaren arduraduna eta L. Villasante euskaltzainburua joango dira Euskaltzaindiaren izenean.

Bilboko egoitzari buruz azken albisteak eman ditu J. L. Lizundia bulego arduradunak. Arbietoko gelak utzi beharrean aurkitzen gara Diputazioaren aginduz. Plaza Barriko egoitza egokitu arte egoteko, Elkano kalean dagoen barne bat eskaini digute. Baina Erribera kalean, Azkue Bibliotekaren alboan hutsik dagoenez barne bat, hori eskatu zaie behin-behineko bulego tokitzat.

J. San Martin diruzainak J. J. Zearretarekin Madrilera egindako bidaiaren berri eman du. Memoria emateaz bestalde, "Educación y Ciencia" Ministeritzatik dirulaguntza hitzeman zieten "Azkue Bibliotekako" informaketa eta mikrofilmaketa tresnariarendako. J. A. Aranak, behar bada, Madrilera itzuliren bat egin beharko duela aditzera eman du.

Gorostiagaren ordezkia

J. Gorostiaga zenaren euskaltzain aulkirako bi hautagai izan dira aurkeztuak: J. A. Arana-Martija eta X. Kintana jaunak. L. Villasantek bozketari dagozkion Arautegiko 25. artikulua eta Barne Erregelaren 41, 42 eta 43 garrena, irakurri ditu.

Batzar-agiri honen hasieran aipatutako hamasei euskaltzainak bertan daudelarik, beste sei euskaltzainkidek eman dute izkribuz bozketako ahala. I. Sarasolak ezin izan duela Barcelonatik etorri, aditzera eman du azken orduan telefonoz. Hogeita bi hautesle dira, beraz, eta hamabi botu behar dira gehiengo nagusia lortzeko.

Ordezkoaren izena eman duten euskaltzainak hauek dira: J. M. Barandiaranek, E. Knörr; X. Diharce, E. Erkiaga eta A. M. Labayenek euskaltzainburuari; P. Zabaletak, P. Charrittoni, eta A. Zavalak, E. Larreri.

Bozketako lehen itzulian 13 txartel izan ditu J. A. Arana-Martijak, eta beste bederatziak jaso ditu X. Kintanak. J. A. Arana Martija da, beraz, euskaltzain berria. Horrela jakineraziko dio idazkariak.

Izendapenak

Euskal olerkien “Felipe Arrese-Beitia” sarirako, J. L. Davant, A. Irigoyen eta J. M. Lekuona izendatu dira epai-mahaikide.

“Toribio Altzaga” antzerki sarien mahairako J. L. Goikoetxea, J. San Martin eta Tx. Peillen izendatu dira. P. Urkizuk ordezkatzuko du, izendatutakoren batek huts egiten badu.

Argitalpenak

Nafarroako ordezkaria den J. M. Satrustegik azken egunetako zenbait jestioen berri eman du. R. Badiola, argitalpenen eragilearen eskariz, *Cendea de Oltza* izeneko liburukiaren argitaratzeko dirulaguntza eskatu die Nafarroako agintariei. Begi onez ikusi dute eta egun hauetako batez erantzun zehatza ematekotan gelditu dira.

Jimeno Jurioren Toponimiako bigarren liburuari eskainitako diru laguntza ere jaso dela, esan du.

J. San Martinek, bere aldetik, Joan de Beriain Utergako apaizaren *Doctrina Cristiana* (1626) berargitaratzeko urratsen bat emateko eskatua zion Nafarroako ordezkariari, eta honek Nafarroako Kultura Kontseilukoa denez, argitalpenen batzordean hitzez egin zuen eskaria. Oso ongi hartua izan zen faksimilean egiteko asmoa, eta idazle honen biziko berriak oraintxe aurkitu berriak baitira eta FLV aldizkariaren azken zenbakian emanak, berargitalpenari hitzaurre on bat egitea proposatu zuten. Batzarreak onartu du hitzaurre hori egiteko xedea.

Bere jestioaren berri eman ondoren, J. M. Satrustegik Argitalpenen batzordearen esku uzten du jarraipenaren ardura.

Orotariko Euskal Hiztegiari buruz egindako bileraren berri eman du J. San Martinek. Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak, Euskaltzaindiak eta EJIeko ardura-dunek hartu zuten parte. Hasierako tirabiratzaren bat gora-behera, arazo teknikoetan finkatu zen elkarriketa. Borondate ona ikusi dela, dio, eta oztopoak bideratzeko gogoia ere bai. Bigarren zenbakian zuzendu nahi dira sistema berriak sorturiko akatsak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi,
Idazkaria

2. batzarrea

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1988.eko urriaren 28an, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere 2. batzarrea. Arratsaldeko 4etan bildu dira, goizeko batzar agirian agertzen direnez gain, beste hauek: J. A. Arana, J. M.^a Aranalde, X. Arbelbide, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, J. M.^a Etxebarria eta J. Garmendia Larrañaga, urgazleak.

a) *Goizeko bilkuraren berri*. J. M.^a Satrustegi idazkariak egiten du goizeko euskaltzainen bilkuran tratatutako gaien azalpena.

b) *Argitalpen Batzordearen bilkura*. L. Villasante euskaltzainburuaren aginduz, R. Badiola batzorde eragileak ematen du, goizean batzordeak onartutako argitalpenen programakuntza. Hara hor laburpena: *Euskera* 1988, 2 agerkarian argitaratuko diren txosten eta agiriak eta bestalde, 1989. urterako argitarapen programaketa nolakoa izanen den eta zein lan dauden prest argitaratzeko.

d) Jose Migel Barandiaran jaunak “Gentilei buruz adierazgarri batzuk” deitutako txostena beste batetan eman ahal izango duela, adierazi du Euskaltzainburuak.

e) “Euskal lexiko etnografiak” izeneko txostena irakurri du Juan Garmendia Larrañaga euskaltzain urgazle jaunak. Oraintsu berak egindako dotoradutzako tesiari buruzkoa da, hain zuzen. Aipamen azpimarragarrienak hauek lirateke, hots: hiztegi berezia dela, etnografi/etnologi alor jakin batzutan finkatzen dena. Liburuak zazpi zati dauzkala eta honetaz hainbat xehetasun eskaini ditu, alegia: “Iñauteria”, “Baserria Artzantza”, “Otarregintza, Ihizkoa eta Zumezkoa”, “Zurgintza” eta “Eriotza”.

Batzartuek zenbait itaun eta ohar eginez, amaitutzat eman da batzarrea.

1988-XI-26

Nafarroako Larraun bailaran eta Uitziko Kontzeju-etxean egin du Euskaltzaindiak, 1988ko azaroaren 26an, euskaltzain osoen hileroko batzarrea. Arratsaldeko 4etan bildu dira: L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, P. Altuna, J. A. Arana, P. Charritton, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta P. Zabaleta, euskaltzainak; J. L. Lizundia idazkari-ordea eta J. J. Zearreta ekonomia eragilea, P. Goenaga Gramatika batzordeko idazkaria, urgazleak; eta J. Lavin, Literatura batzordeko idazkaria.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Knörr, J. M. Lekuona eta A. Zavala euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Urriko batzar-agiria onartu da.

J. A. Arana-Martija euskaltzain berriari ongietorria eman dio L. Villasantek.

J. Carrasquedo urgazlearen hil-berria eman du J. San Martinek, haren lan eta euskal arloko ekintzen aipamena eginez.

1989ko lanen kronograma

Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusitik hartutako gutunaren berri eman da, Euskaltzaindiak 1989rako lan-programa bakoitzaren barnean atal desberdinak burutzeko epe edo kronograma delakoaren berri zehatza eskatzen bait du. Lan-programa bakoitzean, bestalde, urtez urte noraino heltzeko asmoa dagoen azaltea ere aipatzen da.

Gramatika. P. Goenagak aditzera eman du, koordinazioaz jadanik hasia den lanaren jarraipena izango dela, bera idazkari den Gramatika batzordearen egitasmoa 1989rako batipat, lehen zirriborroa behintzat burutua egon daitekeelarik urtearen azkenerako.

Atal horretan jorratuko diren gaiak banaturik daude dagoeneko lankideen artean, bakoitzak zenbait juntagailu hartu dituelarik aztergai.

Orain arteko moduan egingo dute batzorde lana, informatizaziorako tresnen erabilpenaz behar bezala jabetu arte, orduan beste prozedura emankorragoren bat

erabiltzeko moduan egongo badira ere. Eta juntagailu hauek "hitzak" diren aldetik OEHrekiko lotura edo hartu-emanen baliabidea mugatu beharra aipatu du azkenik.

Dialektologia. Batzorde honen idazkaria den X. Videgainek ezin etorria adierazi du, 1989rako lan programa bidaliz denbora berean. Helburu nagusia den Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren esparrua ahan-tzi gabe, ekintza horren osagarri diren lau egitasmo berezi aipatzen ditu. a) Dialektologiari buruzko bibliografia berezituaren oinarriak finkatzen jarraitzea. b) Desagertzen ari diren langintza zaharren lexiko bilketa. c) Hunkipen-areetan hil zorian dauden euskal mintzairaren aldakinak biltzeko programa eskaintzen du, zientifikoki non, zer eta nola lan egin erakusteko. d) Gero eta gehiago senditzen du batzordeak, bai Atlaserako erabilitako ahozko dokumentuen so-porte fisikotzat, eta bai berorien edukina baliatzeko ahalak eskaintzen dituen euskal patrimonioaren osagai, fonoteka baten beharra.

Esandakoen zehaztasunak eman ditu gero lan-programaren kronograma finkatuz.

Onomastika. J. L. Lizundia, batzordeko idazkariak, eman du datorren urteko aurreasmoen berri. Nafarroako Herri Izendegiaren hirugarren eremuko zerrenda amaitzeaz bestalde, Erdi Aroko dokumentuen iaz hasitako biluzketarekin jarraitu nahi da. Horretarako badago Euskal Unibertsitateko Euskal Filologia, Geografia eta Historia Fakultateekin izenpeturiko hitzarmen bat.

Egitasmo berrien artean, Euskal Herriko Udal mailan egin nahi den toki-izen txiki-en bilketa lana behar bezala egiteko aholkuak eman eta bateratzea legoke. Abiatuak dira jadanik zenbait tokietan eta ondore onik ekar lezakeela uste du batzordeak, behar den seriotasunez egingo balitz. Arau batzu emateko eskaintza egiten zaie.

Lizarrako hiriaren foruak 900 urte betetzen duela- eta Onomastika Jardunaldiak bertan antolatu nahi dira, inguruko toponimia eta testuen azterketa gai nagusitzat harturik.

Literatura. Eskuarteko lanari jarraituz, Beskoitzeko Lizarragaren estiloa beste idazle batzurekin konparatu nahi da. Apokalipsis greko-zko orijinalarekin parekatuko dute, beste zenbait autore ere ikusiz. Lizarraga beraren obra ordenagailuz aztertzen ari denik badagoela, esan du Krutwig jaunak, eta harremanetan sartzeari komeni da.

Prosazko hizkuntzari buruz, Isokratesen testu batzu latinera nola aldatu ziren ikusi, eta handik euskarara nola datozen aztertuko dela, esan du batzorde idazkariak. Prosa klasikoa eta prosa biblikoa ere aztergai daude helburuetan.

Lanen argitalpenak kezkatzen du F. Krutwig batzordeburua.

Herri Literatura. A. Zavala batzordeburua eta J. M. Lekuona Irun sariaren epailetan daudenez batzar honen une berean, ezin etorria adierazi dute eta datorren urterako asmoen berri idatziz bidali ere.

Batzorde gaztea da, 1987an sortua, eta bi ekintza nagusi burutzen ditu: ikerlana eta bilketa lana. Ikerketari dagokionez, 1989rako gaia "Kontaezko herri-

kantagintza”, izango da. Gai hau lantzeko, batzordekideez bestalde, kanpoko zenbait ikerlari eta irakaslerekin hartu-emanetan daude.

Bilketa lana ez da, noski, bertsolaritzako mundura mugatzen, eta datorren urteko asmoetan bertso-paperean “Xenpelar” saria, eta herri-umorearekiko “Fernando Amezketarra” lehiaketa daude.

Zenbait bertsolari eta gai-paratzaile kazetari bihurtzeko xedea ere aurrera eramango dute. Jadanik egunkarietan egiten duten agerpena areagotu eta herri-periodismo delako horren bidez, egundaino euskaraz pentsatzen duten pertsona hauen burubideak paperean jasotzea da helburua. Denbora eramaten duela horrek eta diru arazoa sortzen, esan dute.

Izendapenak

M. Lekuona ikerketa sariaren epai mahairako, A. Irigoyen, J. M. Lekuona eta A. Muniategi izendatuak izan dira.

Eskuarteak

Akademiaren arauak Euskaltzaindian gordetzeaz mintzatu da J. Haritschelhar. Beste batzarre batean A. Zatarain urgazlearen txostena ortografia arautu gabea egin *Euskera* aldizkarian sartzea onartu bazen ere, Zuzendaritzak eztabaidatu ondoren, lan hori egileari itzultzea proposatu du, berak zuzendu dezan. P. Salaburuk dio, Euskaltzaindiak berak argitaratzen dituenak ortografia batuan egon behar luketela, nor-berarenak libre utziz.

Ortografia araez ari garen bakarrik, esan da orduan.

Gaia hurrengo batzarrean eztabaidatu eta bozkatzeko utzi da.

I. Sarasola euskaltzainaren sarrera-hitzaldia abenduaren 30ean egingo da Donostian. J. San Martin Gipuzkoako ordezkariak Udaletxean egindako jesticen ondoren, Miramar jauregian izango da batzar irekia.

Abenduko batzarrean, bestalde, karguen berritzea egingo dela, aditzera eman du euskaltzainburuak, eta ez dela aurkeztuko bera orain arte zuen burutzarako. Urte asko daramatzala, alde batetik, eta eskuartearen dituen beste eginkizun batzuk bultzatzen dutela, bestetik, erabaki hori hartzera.

J. Haritschelhar jaunari proposatu dio bere izena aurkeztea, botua emango ziotenei J. Haritschelhari emateko gomendatuz. Honek ontzat emanez gomita, datorren hileko hauteskundeetarako burutzat aurkeztu du bere izena.

Euskaltzainen baitan dago orain erabakia.

Bilboko egoitzari dagokionez, Bizkaiko Diputazioak 1989ko aurrekontuetan 80 milion pezeta sartuak dituela Plaza Barriko egoitzaren birmoldaketa lanetarako, aditzera eman du Tomas Uribeetxebarria jaunak, Uitzin baitzegoen LEF

Jardunaldietan parte hartzen. Eragozpen teknikoak bideraturik, badirudi laster hasiko direla berrikuntza lanak.

Eusko Jaurlaritzak 1:25.000 mapagintzarako toponimia bilketa egingo duen lantaldeari Euskaltzaindiak gainbegirada ematea nahi du. Hizkuntz Politikarako idazkariak deiturik, A. Irigoyen, E. Knörr eta J. L. Lizundia izan dira bertan. Onomastika batzordearen esku uzten da gai hau garatu eta finkatzea.

LEF. X. Jardunaldiak

Lexikologi Erizpideak Finkatzeko X. Jardunaldiak egin dira gaur, egun osoan zehar, Uitziko Kontzeju-etxe honetan. Nikolas Ormaetxea "Orixé" zenaren jaiot-mendeurrena ospatu nahi izan du horrela Euskaltzaindiak, hitz-elkarketari buruzko zazpigarren ekitaldian.

Bihar Euskaltzaindiak egingo duen ospakizuna irekia izango da eta "Orixé" zenaren bizia, eta bere *Euskaldunak* poeman agertzen diren adibide pertsonalak nahiz tokikoak izango dira aztergai.

Ekintza hauek Uitziko Kontzejuaren laguntzarekin eta bere babesean antolatuta dira.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi,
Idazkaria

ORIXEren mendeurren ospakizunez batzar irekia

Uitziko Kontzeju-etxean egin du Euskaltzaindiak, 1988.eko azaroaren 27an, eguerdiko 12etan, Nicolas Ormaetxea ORIXE euskaltzainaren mendeurrena ospatuz, bere hileroko batzar irekia. Mahaipuruan jartzen dira: L. Villasante, euskaltzainburua; J. Haritschelhar, buruordea; J. M.^a Satrustegi, idazkaria; Juan Cruz Martirena, Uitziko alkatea; J. J. Ekisoain, Nafar Gobernuako Euskara Zerbitzuaren arduraduna; M.^a Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkari nagusia eta Imanol Murua, Gipuzkoako diputatu nagusia. Batzar aretoan hurrengook ere badaude: P. Altuna, J. A. Arana, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, P. Zabaleta eta A. Zavala, euskaltzainak; J. M. Aranalde, M. Atxaga, R. Badiola, J. Garmendia Larrañaga, P. Goenaga, J. L. Goikoetxea, M. Itzaina, F. Ixurko, J. M.^a Jimeno Jurio, J. M.^a Larrarte, M.^a P. Lasarte, J. L. Lizundia, L. M.^a Mujika, M. Zalbide eta J. J. Zearreta, urgazleak.

J. M. Satrustegi idazkariak, bezperan egindako euskaltzainen hileroko bilkuran tratatutako gai nagusien azalpena egiten du.

Jarraian, herriko alkate jaunak uitziarren izenean, ongi etorria ematen die Euskaltzaindikoei, beste agintariei eta etorri diren ORIXEzale guztiei.

P. Altuna euskaltzainak ematen du ondoren, lehen txostena: “ORIXEk Lagundian eman zituen urteak” izenekoa. Hitzaldia luzea izanik, zatirik garrantzitsuenak irakurtzen ditu, gero, *Euskeran* testu osoa argitaratuko delarik. ORIXEren bizitzako garai horri ikerketa sakona egin dio egileak.

J. M.^a Aranalde urgazleak: “ORIXEren autobiografia *Euskaldunak* poeman” txostenari ekiten dio, Nicolas Ormaetxea eta Uitzu inguruaren arteko harremanak gogoz eta sentikiro azalduz.

Azkenik, J. M. Lekuona euskaltzainak: “Pertsona herrikoien erretaula *Euskaldunak* poeman” txostena aurkezten du, modu biziz bertoko adibide ugari eskainirik.

1988-XII-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian egin du Euskaltzaindiak, 1988ko abenduaren 30ean, euskaltzain osoen aurtengo azken batzarrea. Goizeko hamar t'erdietan bildu dira: L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, P. Altuna, J. A. Arana, P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, eta P. Zabaleta, euskaltzainak. J. L. Lizundia idazkariordea eta, berari dagokionerako R. Badiola, argitalpenen eragilea, biak urgazleak.

J. M. Barandiaran eta A. Zavalak ezin etorria adierazi dute.

Azaroko batzar-agiria onartu da.

1989. urteko batzar egutegia

Idazkariordeak aurkeztu du datorren urterako egutegia. Laburtuz, euskaltzain berrien hiru sarrera-hitzaldi daude: I. Sarasola, Tx. Peillen eta J. A. Arana jaunena. Mendeurrenei dagokienez, Ubillosena Billabonan eta J. Agerre zenarena Iruñean. Hil berria den M. J. Urmeneta urgazlea omenduko du, denbora berean, Euskaltzaindiak. Datorren urtean ehun urte betetzekoa denez, bestalde, J. M. Barandiaran euskaltzaina, urtean zehar batzarre bat egingo da Ataun bere jaioterrian.

Hiru Jardunaldiren egunak mugatu dira: VI. Barne Jardunaldiak Araban, Herri Literatura I Jardunaldiak Billabonan, eta LEF batzordearen hitz-elkarketa burutzeko Jardunaldiak Iruñean. Aipamen hutsean gelditu da ebakerari buruz Durangon hasitako lanaren jarraipena.

Gurutz harrien hiztegiñoa

Aspalditik eskuartean dugun gurutz harrien hiztegiñoaren zuzenketak aipatu dira gero. R. Badiolak aurkeztu du, F. Ondarra eta J. M. Lekuonarekin, hiruek egindako zerrenda. Azken diferentziak direla eta, bateratze ahalegina egin dezaten eskatu zaie arduradunei, gero onespena emateko.

Izendapenak

Eusko Jaurilaritzako Hizkuntz Politikarako Ordezkaritzatik gutun bat jaso da, Araba eta Gipuzkoako toponimia bilketarako izenpetzekoa duen hitzarmena dela-eta, lanari jarraipen zuzena egingo dion batzorde bat izendatzeko eskariarekin. A. Irigoyen izendatu da arduradun, J. A. Gonzalez Salazar, E. Knörr, J. L. Lizundia eta J. San Martin izango direlarik batzordekide.

Madrilgo Kultura Ministeritzatik Literatura sariketen epai mahaietarako ordezkariak eskatzen dituzte. Hiru direlarik sarien arloak, J. M. Lekuonak egingo du olerki mahaikoa, I. Sarasolak narratibari dagokionarena, eta P. Altuna arduratuko da saiakerazkoez.

Euskaltzaindiak bere aldetik, J. M. Barandiaran proposatzen du “Príncipe de Asturias” sarirako hautagai. Antropologia izango litzateke bere merezimenduen alderik ezagunena, eta Euskal Herriko beste erakunderen batek ere bultzatzen nahi balu aurkezpen hau, asmoak bateratuz elkarrekin lan egitea erabaki da.

Eskuartekoak

Manuel Lekuona Ikerketa Saria Pello Esnal Ormaetxeak irabazi du, “Uztapideren oinerrimen almazena berrosatzen” izeneko lanarekin. Aurtengoan bi lan aurkeztu dira sariketara.

Euskaltzaindiaren izenean Madrilgo “Haur Literatur Sariketan” epaimahaiko izan den Frantziska Arregik eginkizunaren berri eman du. Guztira 36 liburu aurkeztu zirela, esan du; 17 literatur sormenaren ikuspegitik aztertzeak, eta beste 19 itzulpenari zegozkionak. Euskarazko lan bakarra, ministeritzaren aginduz gure kulturaren arrastorik gabe itzulirik omen zegoen. Azkenik, sarituen izenak eman ditu.

Manuel Alvar Espainiako Akademian partaide izendatua izan da eta zorionak eman zaizkio.

Azkue saria Miren Azkaratek irabazi duela jakin da azken unean, eta batzar-tuen izenean goresmenak bidaltzea erabaki da.

Kargu berritzea

Zuzendaritzako kargudunen hautaketarako bilkura hamabi t'erdietan hasi da Gipuzkoako Foru Diputazioan bertan. Agiri honen hasieran aipaturiko 20 euskaltzainez bestalde, E. Knörrek jaso du J. M. Barandiaranen ahala. 21 botorekin egingo da, beraz, bozketa.

Arautegiaren 28. 29. 30. 31 eta 32. artikulua irakurri ditu L. Villasante euskaltzainburuak. Hemezortzi urtez ukan duen kargua uzten duela gogorarazi du gero.

Arrazoiak emanez proposamenak egitea eskatu du P. Charrittonek, baina ez da onartu. Jagon Sailerik ez dagoela funtsean, eta behar-beharrezkoa ikusten duela horren sustapena, aditzera eman du gero. Barne Jardunaldietako arazoa dela, erantzun zaio, eta mugatu behar dela atal horren eginkizuna.

Euskaltzainburuaren kargua bozkatu da lehenik, 18 boto atera dituelarik lehen aldian J. Haritschelharek, A. Irigoyenek 2 eta zuri bat.

A. Irigoyen eta J. San Martin aurkeztu dira buruordetzarako. J. San Martinek 14 boto izan ditu, A. Irigoyenek 6, eta J. M. Lekuonak bat.

Idazkaritzarako hautagai bakarra P. Salaburu izan da aurkeztua. J. M. Satrustegik bere aldetik esan du, ez duela inoiz kargurako bere aurkezpenik egin eta orain ere ez dela aurkezten. Horrela, lehen itzulian 10 txartel izan ditu P. Salaburuk, J. M. Satrustegik 8, J. A. Aranak 1, A. Irigoyenek 1, eta J. M. Lekuonak 1.

Gehiengo nagusirik ezean, bigarren bozketa egin da, 11 boto izan dituelarik J. M. Satrustegik, eta 10 P. Salaburuk.

Diruzaintzarako lehen txandan, 8 boto izan ditu A. Irigoyenek, J. A. Aranak 7, eta P. Altunak 6. Bigarrenean, J. A. Aranak 10 txartel lortu ditu, Irigoyenek 8, eta P. Altunak 3.

Zuzendaritza, beraz, honela finkaturik gelditu da: Euskaltzainburu J. Haritschelhar, buruorde J. San Martin, idazkari J. M. Satrustegi eta diruzain J. A. Arana.

Eta besterik gabe amaitu da urte zaharreko batzarrea.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi,
Idazkaria

2. Batzarrea

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1988.eko abenduaren 30ean, egin du Euskaltzaindiak hileroko arratsaldeko batzarre arrunta. Arratsaldeko 4etan bildu dira, goizeko batzar agirian agertzen diren euskaltzainez gain, urgazle hauek: J. M.^a Aranalde, X. Aranburu, J. A. Arkotxa, P. Arregi, R. Badiola, J. Etxaide, J. G. Etxebarria, J. M.^a Etxebarria, R. Kanblong, J. M.^a Larrarte, M.^a P. Lasarte, J. L. Lizundia, J. A. Mujika, A. Zatarain eta J. J. Zearreta.

a) *Goizeko bilkuren berri*. J. M.^a Satrustegi idazkariak egiten du goizeko euskaltzainen bilkura bietan, hots, hileroko arruntan eta berezian, tratatutako gaien azalpena.

b) Patxi Altuna euskaltzain jaunaren txostena: "Euskal filologiazkoak, nahas-mahas".

Txostenduna irakurtzen hasi baino lehen, Euskaltzainburuak sarrera gisa hitz batzu esaten ditu, zera adieraziz, P. Altunarekin, alfabeto ordenaz, hasten dela euskaltzainek banan-banan arratsaldeko hileroko batzar arruntetan txosten akademikoak aurkezteko egitasmoa.

Jarraian, P. Altunak bere txostena irakurtzen du, punturik azpimarragarrienak hauek liratekelarik: idazle zaharretan, Etxepare, Ziburuko Etxeberri eta Harnederrengan, agertzen den zenbait esapide bitxi aztertu du eta hamalaukoek, Oihenartegandik hasita, euskaraz erakusten duten egitura eta silaba kopuru desberdina agerian ipini.

Ondoren, txostenaren inguruan elkarriketa-eztabaida sortzen da, batzarkide ugariak parte hartzen dutelarik.

d) *1989rako batzar egutegia*. J. L. Lizundia idazkariordeak, Zuzendaritzan eta goizeko lehen bilkuran, aurretiaz aurkeztu eta onartutako datorren urterako egutegia irakurtzen du eta baita, beronen osagarri bezala, burututako txostena ere.

Egutegi honen laburpena honela finkatu da: urtarrilaren 27an, hileroko bilkura eta Ibon Sarasolaren sarrerako batzar irekia, Donostian; otsailaren 23, 24 eta 25ean, hileroko bilkura, *Onomasticon Vasconiae* 3 eta 4 liburuen aurkezpena eta VI. Barne Jardunaldiak, Araban. (Barria eta Gasteiz); martxoaren 31n, euskaltzainen hileroko bilkura eta agian, Jardunaldiren bat. Apirilaren 1ean, Txomin Peillen sarrerako batzar irekia, Baionan. Apirilaren 28an, hileroko bilkura eta batzarra, Jose Migel Barandiarani mendeurren urtean eskainia, Ataunen. Maiatzaren 26, 27 eta 28an, hileroko bilkura. Juan Antonio Ubillosen II. mendeurren omenezko batzar irekia eta I. Herri Literatura Jardunaldiak, Billabonan. Ekainaren 30ean, hileroko bilkura eta batzarra, Donostian. Uztailaren 28 eta 29an, hileroko bilkura, Jose Antonio Aranaren sarrerako batzar irekia eta agian, Jardunaldiren bat, Gernikan. Irailaren 29an, hileroko bilkura eta batzarra, Donostian. Urriaren 27an, hileroko bilkura eta batzarra, Bilbon. Azaroaren 24ean, hileroko bilkura eta batzarra, Donostian. Abenduaren 28 eta 29an, hileroko bilkura. Jose Agerre eta Migel Javier Urmenetaren omenezko batzar irekia eta Lexikologi Jardunaldiak, Iruñean.

e) Azkenik, eta batzarrearen amaiera bezala, *Manuel Lekuona* Euskaltzaindiak jarritako Herri Literatura ikerketa saria Pello Esnal Ormaetxeari ematen dio L. Villasante euskaltzainburuak.

BERRIAK

EUSEBIO ERKIAGA LEKEITIO-KO SEME OSPETSU

Alfonso Irigoien

Lekeitio-ko hiriak omenaldia egin zion Eusebio Erkiaga idazle eta euskaltzainari 1988-garreneko Maiatzaren 28-an, eta Udalak ageriko batzarre gorazarrezkoan *Lekeitioko seme ospetsu* izendatu zuen. Euskaltzainburuak izkribu bat bidali zuen, eta neuror, Alfonso Irigoien, Euskaltzaindiaren izenean agertu nintzen bertara hitz batzu ere erran nituela.

FEDERIKO KRUTWIG ATHENETAN ELKARTE BATEKO KIDE OSOA

Alfonso Irigoien

Athenetan 1988-garren urteko maiatzaren 18-an eginikako batzarrean, hain zuzen ere Kultura eta Tradizio Grekoen Ikerketarako Elkartearen egoitzan (*Εταιρεία Παραδοσιακών Σπουδών*) Federiko Krutwig-ek Konstantinos E. Basiliakes-en eskuetarik Elkarte hartako agiria hartu zuen, non bertako kide osotzat aitortzen den.

Evangelos Sabbopoulos Greziako Edukazioko Ministro-ohi eta Europako Kontseiluko Presidenteorde-ohiak ireki zuen bilkura.

Gero Silvio Peluffo helenista eta akademiako italiarrari irudi bat eman zitzaion.

E. Basiliakes-ek F. Krutwig agurtu zuen Greziako adiskide handi eta haren kulturaren ezagupide handikotzat harturik, eta Bilboko *Καλιότης Γνώσεως* (Jakintza Baitha) Elkarteak bultzatzen duen ekintza egokia aipatu zuen, eta izendapena eskura zion. F. Krutwig-ek bere sarrera hitzaldia egin zuen eta kultura eta hizkuntza grekoak axola handikotzat ezarri zituen informatikako garairako eta Europako batasunerako, mendebaldeko zibilizazioaren oinarri baitira, eta bide batez euskara eta greko klasikoaren arteko zenbait kidetasun syntaktiko eta gramatikazko azaldu zituen. Federiko Krutwig, gainera, Euskal Akademian sarturik dauden kideen artean une honetan antigualekoena da.

Batzarrea Theodoros Spyropoulos Athenetako Unibersitateko irakasleak itxi zuen, kultura mykenikoaz egin diren azken aurkikuntzak gogoan harturik.

Aipatu direnez gainera beste batzuren artean present egon ziren: Harilaos Ghitakos, Greziako Kultura Ministeritzan Kanpoko Harremanen Zuzendari Orokorra —hark egin baitzion legezko gomitua F. Krutwig izendatuari—, eta baita ere Andreas Keramidas, Greziako Diputatu Ganbararen Kultura Taldeko Ordezkaria, N. Stratelos, Greziako Musika Batzarreko Ordezkaria, Helena Kaphari, Byzantzioko Zibilizazioaren Institutuko presidenteordea, eta abar, eta abar.

Izendapenez gainera etorkizunerako kulturazko harremanak finkatu ziren Bilbao eta Athenetaren artean.

FEDERICO KRUTWIG MIEMBRO TITULAR EN ATENAS

Alfonso Irigoien

En la reunión celebrada en Atenas el 18 de Mayo de 1988, miércoles, en la sede de la Asociación para el Estudio de la Cultura y Tradición Griegas (*Εταιρεία Παραδοσιακών Σπουδών*) Federiko Krutwig recibió personalmente de manos de Konstantinos E. Basiliakes el diploma correspondiente a miembro titular de dicha Asociación.

Abrió la sesión Evangelos Sabbopoulos, ex ministro de Educación de Grecia y ex vicepresidente del Consejo de Europa.

A continuación se llevó a cabo la entrega de una estatuilla al académico y helenista italiano Silvio Peluffo.

E. Basiliakes saludó a F. Krutwig como un gran amigo de Grecia y gran conocedor de su cultura, y comentó la actividad positiva llevada a cabo por la *Καλιὰτης Γνώσεως* (Jakintza Baitha) de Bilbao y le hizo entrega del nombramiento. F. Krutwig pronunció su discurso de entrada exponiendo la importancia de la cultura y lengua griegas, base de la civilización occidental, para la era de la informática y de la unificación política de Europa, así como exponiendo algunas similitudes de tipo sintáctico y gramatical entre la lengua vasca y el griego clásico. Federico Krutwig Sagredo es actualmente además el miembro más antiguo de la Real Academia de la Lengua Vasca.

La reunión se cerró con una exposición de Theodoros Spyropoulos, profesor de la Universidad de Atenas, sobre los últimos descubrimientos en relación con la cultura micénica.

Aparte de los mencionados asistieron entre otros Harilaos Ghitakos, Director General de Relaciones Exteriores del Ministerio de Cultura de Grecia, —quien había invitado oficialmente con este fin al nombrado Federico Krutwig Sagredo—, así como también Andreas Keramidas, representante del Grupo Cultural de la Cámara de Diputados de Grecia, N. Stratelos, representante del Comité de Música de Grecia, Helena Kaphari, vicepresidente del Instituto de Civilización Bizantina, etc., etc.

Independientemente del nombramiento se establecieron relaciones culturales para el futuro entre Atenas y Bilbao.

LOUIS DASSANCE EUSKALTZAIN ZENAREN OROITZAPENETAN

Uztaritze, 1988-IX-4

Jean Haritschelhar

Ehun urte ukanen zituen aurten Louis Dassance jaunak, sortu baitzen 1888 ko Abuztuaren 20 ean herri honetan. Familia ohoragarri baten semea zen, notario familia batena. Laborantzako ikasketak eginik Pariseko "Institut National Agronomique" ikastetxe nagusi famatuan, berriz etorri zen Uztaritzerat "Ingénieur agronome" tituluarekin.

Hogoi eta sei urte zituen joan zelarik 1914.eko gerla haundirat, lau urte oso pasatu zituela euskaldun gehienek bezala guduka latz horretan. Bakea egin zelarik etxeratu zen eta laborantzari lotu.

Bainan Louis Dassance-n gogoan bazen bertzerik. Ez zen bakarrik laborantzaz arduratua, bazuen bertze xederik, hala nola euskara eta euskal kultura bere erran nahi zabalean.

1920 ean biltzen dira orduko gazte batzu sendituz Ipar Euskal Herriak bazuela euskal kulturaren hedatzeko aldizkari baten beharra. Horiek ziren Saint-Pierre, Barbier, Elissalde, Moulier apezak eta haiekin Apeztegi, Choribit, Christophe Dufau eta Louis Dassance. 1921 ean agertzen da *Gure Herria* deitzen den aldizkaria.

Urte berean, 1921 ean, Jean Ybarnegaray, euskaldun deputatuak sortzen du Fédération française de pelote basque delakoa, bilduz zonbait adixkide, haien artean kausitzen zela Louis Dassance. Gerla aintzineko jokoak nahi zituzten piztu, bereziki errabotea eta joko garbia, bizpahiru herritan bakarrik jokatzen baitziren.

Erraboteko legeen antolatzailetarik bat da Louis Dassance eta bere adixkide Elissalde - Zerbitzari-rekin lan ona egingen dute ez baitu balio haundirik Federakuntza batek ez balinbaditu bere inguruan, hats eta biziaren emaitako, bederen herri gotorretan, pilota batasunak. Hala izan zen Louis Dassance, 1926 ean, "Kapito Harri" Uztaritzeko pilota batasunaren sortzailea eta lehenbiziko buruzagia. Nola ez oroit hainbeste eta hainbeste pilotariren izenez, bai esku huskakoez, bai joko garbikoez, Uztaritzeren fama hedatzen zutela Euskal Herri guzian.

Urte berean ere, 1921 ean, sartzen da Louis Dassance Euskaltzaleen biltzarran, hogoi urte zeraman batasun zaharrean, laster bere kideek batasun horren buru izendatuko baitute.

Hona beraz nola gerlaren biharamunean sendi daiteken Ipar Euskal Herrian egiazko berpizte bat eta berpizte horren sustatzaile eta langile porrokatua Louis Dassance, gizon plaxent eta baketzailea, euskal kulturaz eta euskaraz kezkatua. Honen inguruan orduko idazle hoberenak, Saint-Pierre, Barbier, Elissalde-Zerbitzari, Moulier-Oxobi, ahantzi gabe Jean Etxepare medikua, Blazy, Leon Leon eta heietan gazteena Pierre Lafitte. Zer deitura zerrenda miragarria! Horiek eman diete euskal kulturari, euskal literaturari eta euskarari, bi gerla haundien arteko epe laburrean, egiazko dirdira bat. Berrogoi eta hamar urteren buruan hobeki ikusten dugu zer izan den heien emaitza.

Ez da harritzeko beraz Euskaltzaindiak 1930-ean Louis Dassance urgazletzat hautaturik eta 1949-an ilunpetik berriz agertzen zelarik Euskaltzaindia, orduko euskaltzainek euskaltzain oso eginik.

Euskaltzain oso! Segur merezi zuen holako izendapena. Beri bizi guzian segituko ditu bere ikerketak Louis Dassance-k. Egia erran jakintsun bat sartzen da Euskaltzaindian eta ez sail bati lotua den jakintsun bat. Euskal kulturak dauzkan alor gehienak irauli ditu.

Hizkuntza lehenik, hizkuntzaren zerbitzari leiala izanez. Aski dira irakurtzea Euskaltzaleen biltzarrean egin dituen mintzaldiak, ikusteko zein ongi zerabilan euskara. Hizkuntzari datxikola, onomastikaz arduratzen zen, bereziki aztertuz landareen eta toki izenen arteko harremanak, nola eginak ziren etxeen izenak Euskal Herrian, emanez herrien eta herritarren izenak euskaraz, agertuz non erabiltzen diren *tar* edo *ar* atzizkiak, on baita jakitea tokian tokiko erabilera.

Laborantzaz ohartua, laborantza eta ingurumenaz agertu ditu artikuluak *Gure Herria* aldizkarian, hortan baitzuen maizenik idazten. Elissalde - Zerbitzari-rekin publikatu du artikulu andana bat "Euskal Herriko hegaztinak eta xoriak" deritzana (1923-1926 artean). Hartuko dut etsenplu bat erakusteko zer lan ederra egiten zuten:

"*Galerna xoria*. - Thalassidrome (le). Xori huni itsasturiek bardin erraten diote *ekaitz xoria* edo oraino *debruxka* euskaraz, erdaraz *Sataniques* bezala. Galerna xoriak iduri du ainhara. Maiz itsaso zabalean bizi da eta ez da hegietarat hurbiltzen galerna handi-handien ondotik baizen. Hortarik izen hau.

Itsasturien arteko erran baten arabera - eta tieso finkatzen dutela gero! -galerna xoriak ez omen dire egiazko xoriak, baina bai arima herratu batzu: beren untziak galdu dituzten kapitainen arimak. Ez da beraz harritzeko bat eskuratzen dutelarik itsasturiek, mila puska egiten badute! Gaixo xoria! Eskutan behin galerna xori bat ibili dugu eta guri ez zauku deusik iduritu!"

Agertzen daukute hegaztinaren itxura, emaiten erabiltzen diren izenkideak, aipatzen ere hegaztin horri atxikiak zitzaizkion herri sinesteak, hemen itsasturienak. Oro har, egiazko entziklopedia bat da eta bada hor zer ikas.

Historia, Lapurdiko eta Uztaritzeko historia, maite zuen Louis Dassance-k. *Gure Herria* aurki daitezke idatzi dituen artikuluak, Eugène Goyheneche-kin agertzen zituela ezagutuak ez ziren dokumentuak. Uztaritzek eta Lapurdiko biltzarrak badauzkate historiazealek herrian berean bi gizon horiekin.

Euskal literaturan maiteenik zuena Louis Dassance-k herri literatura, kantu zaharrak bereziki. Ez daiteke ahantz Bouchet Ligiko auzapezarekin antolatu zituela, orai berrogoi urte kantu xapelketak, gero Pierre Lafitte-kin publikatu zuela *Kantu Kanta Khantore* deitzen den kantu bilduma, nahi baitzuten biek gazteek ikas zitzaizen kantu zaharrak. Hanbat eta hanbat artikulua irakur daitezke *Gure Herrian* kantu zaharrez, denbora berean aztertzen zituela bai hitzak eta bai musika.

Gazteek ikas zitzaizen kantu zaharrak erran dut. Euskararen irakaskuntza izan da Louis Dassance-n kezketarik haundiena. Hortakotz sortu zuen eskola laiko eta eskola pribatuetakoa erakasleekin *Ikas* batasuna 1959 an. Utzi zidalarik batasun horren zuzendaritza ohartu nintzen zer lan ederra egina izan zen anartean. *Ikas*-en helburu nagusia da euskara sarrazaztea erakaskuntzan. Orduz geroz bide egin da ez guk nahi ginuen bezanbat. Gero etorri da *Seaska*, bere ikastola sarea hedatzen zuela Euskal Herri osoan. Uztaritzeko ikastolari emanen zaio egun Louis Dassance-n izena. Nahi dut erran Uztaritzeko ikastolaren arduraduneri ez zezaketela hautu egokiagorik egin, uztariztar euskaldun euskaltzale eta euskaltzain ohoragarri baten itzalpean jarritz.

Azken lekukotasun bat: nere ikerketen egiten ari nintzelarik Etxahun Barkoxeren eta XVIII. eta XIX. mendeko pertsularien, kantu egileen hatzetarik nindabilalarik, ongi etorri hoberena ukan dut beti Seminario ttipian, bai Hirigoinian, gain hartan Pierre Lafitte-n ganik, beherean Louis Dassance-n ganik. Heieri esker, heien jakituriari esker, hobeki aztertu dut nik ere hain maite dudana gure herri literatura. Ene tesisen aintzin solasetan aitortu dut zonbatetaraino zordun nintzan. Egun, hemen, Uztaritzen, elgarretaratzen ditut bi jaun haundi horiek eta bihotzetik erraiten deiet: milesker.

GUERO-REN FAKSIMILEZKO EDIZIOA AURKEZTEAN

Durangoko Liburu-azokan, 1988ko Abenduaren 4ean

Fr. Luis Villasante

Juan Manuel Velasco, Director General de Libro y Bibliotecas
Hizkuntz Politikako Idazkaritzako Roman Berriozabal ordezkaria
Jose Luis Telleria Gipuzkoako Diputazioko Kultura-Diputadua

Jaun-Andreak:

Gutziz pozgarria da Euskaltzaindiarentzat, eta enetzat, noski, argitarapen berri honen aurkezpena gaur eta hemen egitea, hots, *Guero*-ren lehen edizioa, 1643koa, faksimile erara zehatz-mehatz orain agertua. Eta guztiz pozgarria da halaber Velasco jauna INLE delakoaren Zuzendaria aurkezpen honetan gurekin gertatzea. Gure amets hau mamitu baldin bada, jaun honen babes eta laguntzari zor zaio. Eskerrak ematen dizkiot, bada, bihotz-bihotzez Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriaren izenean.

Guero-ren lehen edizioa, esan dudanez, 1643. urtean Bordelen G. Milanges Erregeren inprimatzailea baitan egin zen.

Gaurko argitarapena lehenbizikoaren berregintza izanik, lehengo hura edukitzea eta oraingo hau edukitzea orobatsu dela esan daiteke. Ez da ezertxo ere aldatu, ez ortografia, ez eta hutsak ere. Badira, noski, lehen edizio horretan huts batzuk, paginazioan esate baterako, eta bai bestelakoak ere, baina oso guti. Lan benetan arduratsua eta arretaz egina burutu zuten Milangesen lantegiko ofiziale haiek, gaur beti egiten ez dakiguna. Nik ez dakit Milangesen inprimerian euskaldunik ba ote zen; segur aski ez; haatik, bazekiten lana ongi egiten. Badugu zer ikasirik haiengandik.

Baina goazen aurrera. Zertarako behar zen honelako argitarapen bat, gaur *Guero*-ren edizio gaurkotuak ditugularik, erdal itzulpen eta guzti, gainera? Lehenik, euskal literaturaren maitale den ororentzat pozgarri eta bihotz hunkigarri delako, ene ustez, “editio princeps” horren berregintza hau edukitzea.

Lehenbiziko edizioaren aleak oso bakan dira gaur. Bigarrenekotik, urte muga jakinik gabe eta titulua aldatuz eta, dirudienez, legezko baime-

nik gabe egin zeneko horretatik, bai, badira ale gehiago, baina ez gehiegi. Hirugarrena, berriz, Intxauspek egin izan zuen 1864ean, baina aldaketa eta atzekoz aurrera jartze asko ditu, eta horregatik ez da hain fidagarri. Eta gure mendera arte ez dira hiru horiek baizik egin.

Orain bada, gaurko argitarapen honen jabe denak badauka zalantzazko kasuetan iturrira artez eta zuzen joateko bidea. Gaur zabalkunderako edizio gaurkotuak nahi izaten ditugu, ortografia aldatuz etab. eginak, baina euskal testu zaharrekin ari garenean, ortografia batetik bestera aldatzean, makurrak gerta daitezke, inoiz, han edo hor letra bati ematen zitzaion balioa ez jakinik, eta iturrira zuzen jotzea bide bat izan daiteke zalantzak aienatzeko. Guzti horrengatik, euskal literaturaz eta euskal jakintzaz kezkatutik den orok nahiko du, nik uste, argitarapen berri honen jabe izan.

Esan dezagun, laburzki baino ez bada ere, nor den Axular eta zer den *Guero*, haren liburu famatua. Duela urte batzuk agertu nuen horretaz liburuska bat, gaur agorturik dena: *Axular: Mendea, Gizona, Liburua*, 1972an aterea. Urdazubiko hirian jaio zen Axular, Nafarroa Garaian. Bere ikasketa nagusiak Salamankako Unibertsitatean egin zituen. Hori lehenetik ere bagenekien, baina gaur zehazkiago dakigu, zeren eta Mitxelena-ren alaba Itziar-ek Axularren izena aurkitu baitu Unibertsitateko ikasleen zerrendan. Gainera, *Guero* horretan Axularrek izendatuki aipatzen du Zumel, Salamankan irakasle zena, eta espresuki esaten du: "Hala erraiten du ene escola nabusi batec". Beraz, Zumelen ikasle izan zen Axular Salamankan. Bada oraino Salamankako beste irakasle bat, Domingo de Soto, Axularrek bi aldiz aipatzen duena, baina pasarteok haren liburuetatik hartuak izan daitezke, nahiz eta Axular, artez haren ikasle ez izan.

Jakina denez, Axularren *Guero* autore zaharren aipamenez josirik ageri da; aintzinateko autoreak dira gehienak, bai kristauak eta bai jentilak ere. Modernoagoak edo beragandik hurbilago zeudenak ere erabili izan ditu, noski, baina horiek gehienetan ez ditu beren izenez aipatzen. Kasu honetan dago Fr. Luis de Granada. Beronen laugarren mendeburua ospatzen da aurten. Julio de Urquijo jaunak aspaldi frogatu zuen Axularren *Guero*-n badirela pasarteak Fr. Luis de Granadagandik hartuak, eta nik gorago aipatu dudan liburuan, 35 pasarte aipatzen ditut autore horrengandik hartuak diruditenak. Eta beharbada egongo dira gehiago ere. Axularren aipamenei eta iturrien azterketa egin gabe dago oraindik. Aurten autore horren mendeburua izanik, abagadune horretaz baliatu gara *Guero*-ren argitarapen hau egiteko, eta hala jarririk dago liburuaren kolofoiari. Beherago esango dugunez, ordean, handik eta hemendik garraio batzuk izate horrek ez dio bere nortasunetik den gutiena ere kentzen Axularren liburuari.

Axular apaiz egin zen, eta apaiz egite hori gertatu zen, dirudienez, adinean pixka bat aurrera zihoanean. Tarbesen apaiztu zen, gainera. Eta

berarekin batean ordenatu zirenen artean, gero Karitateko Alaben sortzailea izango den S. Vicente de Paul zegoen. Ordurako Axular Iruñeko eliz barrutia utzi eta Baionakora pasatua zen. Zergatik egin zuen hori? Ez dakigu xuxen. Baina, alde batetik, berak jaiotzatik zekien euskara-modua edo 'euskalkia lapurtarra zen, eta, bestetik, Lapurdiko ekonomi egoera aski ona zen garai hartan, Ternua edo Terranobara baleak harrapatzera joan ohi ziren arrantzaleei esker.

Saran, Lapurdiko aldean, egongo da erretore gure Axular, baina bere sorterritik oso hurbil, halere, bien bitartean muga politikoa delarik.

G V E R O

B I P A R T È T A N

partitua eta berecia,

L E H E N B I C I C O A N
E M A I T E N D A , A D I T C E R A ,
cenbat calte eguiten duen, luça-
mendutan ibiltceac, eguitecoen
gueroco utzteac.

*Bigarrenean quidatcenda, èta aitcinatcen, luça
menduac utciric, bere hala, bere eguin bi-
deari, lothu nahi çaicana.*

Escriptura faindutie, Eliçaco Doçtor etatic-
eta liburu debocinozco etaric. Axular Sa,
raco errororac vildua,

*Ne tardes converti ad Dominum, & ne differas
de die in diem, Ecclef. 5.*



B O R D E L E N ,
G. M I L A N G E S Erregueren Imprima-
çaillea baithan.
M. D C. X L I I I .

Zer da, bada, *Guero*, Axularren obra famatua? Bere egituraz eta eitez Berpizkunde edo Renacimiento garaiko obra. Baditu, bai, handik eta hemendik hartutako gaiak, baina, hori gorabehera, egileak euskaraz eta euskaldunentzat pentsatua eta zuzendua den liburuaz egiten asmatu du. Euskal jeinuaren jabe da Axular, barnetik ezagutzen eta menderatzen du hizkuntza, zaluki eta trebeki erabiltzen du bere erreminta; beste hitzez esanik, iturriari ura bezain gozo dario Axularri elea.

Euskal prosaren sortzailea dugu Axular, duda gabe. Zehazkiago esanik, Europako sartaldean onarturik den prosa egiteko moldea, Erroma eta Greziako tradizioetik heldu dena, hura bera ekarri zigun etxera; baina, zoritxarrez, gure aroan purismo hertsia baten ondorioz tradizioaren eten-dura gertatu da, prosaren normalkuntza lortzeko kaltegarria izan den etendura. Eta beharko dugu berriz ere tradizioaz elkartu, agian egokitza-pen batzuk eginez.

Guero liburuaren gaia badakizute zein den, bestalde: Axularrek kristau bekatariari burutik kendu nahi dio ez konbertitzeko atera ohi duen aitzakia: "Konbertitu, bai —esaten du jendeak— baina ez orain, bihar, gero". Jarrera honen desarrazoina frogatzeko, mila adibide, enxepulu eta autoritate metatzen ditu. San Agustinek ere bere denboran antzeko zer-bait zioen: "Cras, cras" esaten duela bekatariak, "bihar onduko naiz", alegia, "orain ez".

Nik Axularren *Guero* ortografia gaurkotuan eta erdal itzulpen eta guzti argitaratzeko asmoa hartu nuenean, ibili nintzen argitaratzaile bila Euskal Herriko editoreen artean. Baina inor ez zen ausartzen. "Nork irakurriko du hori? Liburuak ez du irteerarik izango", zioten. Orduan Madril eta Barzelonara jo behar izan nuen. "Espirituales Españoles" sailak eta Juan Flors argitaratzaileak hartu zuten nere lana. Dena esan behar da, ordea: inprimatze lana, bai, Donostian egin zen, "Gráficas Izarra"-n, 1964ean. Uste baino arrakasta handiagoa izan zuen. Gogoan dut oraino zer esan zidan behin Pedro Sainz Rodríguez jaunak, sail horren aholkulari zenak: "Gure bilduman ahitu den liburu bakarra Axularren *Guero* izan da. Hori enetzat arraro xamarra eta ulertezina da, politika ez baldin badago tartean, behinik behin". Nik esan nion: "Hara, jauna. Erdaldunentzat zer den Cervantes, eta hori da, besteak beste, Axular guretzat. Gaur bada gaztedi bat euskararen arrangura duena. Nahi dute euskara sustraitik menderatu. Badakite horretarako euskal literatura-ren maisu-lan bat gidari hartzea bezalakorik ez dagoela, eta argitarapen honekin topo egin dutenean, ba erosi egin dute. Hori da guztia".

Bukatzeko: *Guero*-ren faksimilezko edizio honen asmoa mamitzen edo gauzatzen parte hartu duten guztiei eskerrak: Juanito San Martini, Juanjo Zearretari, Grafo etxeari, eta nola ez, INLE delakoaren zuzendari

den Velasco jaunari. Eta *Guero*-ren argitarapen berri honek izan dezala aurrekoek izan zuten bezalako arrakasta edo handiagoa! Halabiz!

* * *

Es para mí, y lo mismo para la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, motivo de íntima satisfacción el presentar hoy esta edición facsímil del *Guero* de Axular, teniendo entre nosotros al director general del Instituto Nacional del Libro Español, Sr. Velasco. Gracias a su generosa ayuda se ha podido plasmar en realidad el viejo sueño de llevar a cabo esta edición. Tenemos, pues, delante la reproducción exacta de la edición príncipe, hecha en Burdeos en 1643 en casa de G. Milanges, impresor real (del rey de Francia, claro).

Al ser reproducción exacta dicho se está que se publica tal cual salió de dicha imprenta. No se cambia nada, ni la ortografía ni aún siquiera las faltas que pudiera haber, y hay algunas, en efecto. Hay por ejemplo, algunos errores en la paginación, algunas erratas, más bien pocas.

En realidad es una obra primorosa —bien hecha, quiero decir— la que realizaron los oficiales de la casa Milanges en aquel lejano 1643. Yo no sé si en aquella imprenta había gente que sabía el vasco; más bien me inclino a pensar que no; pero sabían trabajar bien. Lo que actualmente en nuestros días, en que nos enorgullecemos de nuestro vasquismo y de nuestros adelantos técnicos, no siempre sabemos hacer. alguna experiencia tengo de esto y sé que, con honrosas excepciones, las galeras de libros y artículos en vasco se presentan cosidas de faltas. Como disculpa te dicen que los obreros no saben vasco. Pero si se les presentan buenos originales ¿por qué no han de ser capaces de transcribir fielmente lo que en ellos hay, aunque no entiendan la lengua? ¿No se publican hoy mismo libros en español editados en Japón, en Alemania, etc., y están irreprochablemente realizados? A buen seguro que los obreros de esas casas no conocen el español, pero tienen el sentido de responsabilidad y el pundonor de hacer bien las cosas. Buena lección para nosotros.

Pero vamos al grano. Alguien podrá preguntar: ¿Para qué sirve una edición de estas características, si hoy hay ediciones modernas actualizadas del *Guero*?

Respondiendo a esta pregunta diremos, en primer lugar, que para todo amante de la literatura vasca es motivo de gozo tener en sus manos una reproducción exacta de la edición príncipe del *Guero* de Axular, tanto más cuanto que sólo muy pocos ejemplares de dicha edición han llegado hasta nosotros. De la 2.^a edición, hecha en época desconocida con el título cambiado (*Gueroco guero*) y que parece fue una edición pirata, sí han llegado más, pero tampoco demasiados. La 3.^a, hecha por Inchauspe en Bayona en 1864, fue objeto de muchas manipulaciones y

trastrueques en la ordenación del texto, y por ello tienen menos valor. Y no hay más ediciones del *Guero* hasta nuestro siglo.

En segundo lugar, el que posea esta edición facsímil que hoy presentamos, podrá en casos de duda acudir a la fuente para hacer luz en las dudas. No olvidemos que el cambiar la ortografía, cuando se trata de textos relativamente antiguos, trae sus problemas, no siempre fáciles de solucionar. Ciertos signos, letras o conjuntos de letras han tenido diversos valores según las épocas y las variedades de la lengua; entonces el sistema de transliteración adoptado para actualizar la ortografía puede fallar o no ser acertado en algún caso concreto. Por ello, para todo el que se interesa por la lengua y literatura vasca resulta de interés y de valor práctico el poseer la edición príncipe o una reproducción exacta de la misma.

A todo esto, ¿quién fue Axular y qué es el *Guero*? Hace unos años publiqué un ensayo, hoy agotado, sobre Axular, su época y su libro. Axular nació en Urdax, villa de Navarra situada en el extremo Norte del viejo reino, en época en que la Alta Navarra y la Baja se hallaban ya políticamente separadas entre sí. Hizo sus estudios (aparte de los primeros que pudo hacer en la Colegiata de su villa natal) en la Universidad de Salamanca, que se hallaba entonces en su mejor hora. Se sabía ya que Axular había estudiado en Salamanca, pero últimamente la hija de Luis Michelena, Itziar, ha llegado a descubrir su nombre en las listas de alumnos de la vieja Universidad. Y en el *Guero* Axular cita a Zumel, profesor de Salamanca, de quien explícitamente afirma que fue maestro suyo; también cita por dos veces a Domingo de Soto, profesor de Salamanca, aunque no parece que Axular fuera oyente de éste, como lo fue de Zumel.

Cualquiera que ha hojeado el *Guero* sabe que esta obra está literalmente cuajada o cosida de textos y citas de viejos autores, o sea, autores de la antigüedad, tanto cristiana como pagana. Cuando se trata de autores más modernos o cercanos a él, no es que Axular no los conozca o emplee, pero tiende a no citarlos. Este es el caso de Fr. Luis de Granada. Ya Julio de Urquijo descubrió una serie de textos del *Guero* en que la dependencia respecto al granadino es manifiesta, y yo en el ensayo al que me he referido hace poco, he podido señalar algunos más. Y es posible que haya más todavía. El estudio de las fuentes del *Guero* está aún por realizarse. Celebrándose este año el 4.º centenario de la muerte de Fr. Luis de Granada, se ha aprovechado esta ocasión para esta edición facsímil del *Guero*, y así se hace constar en el colofón.

Axular se ordena de sacerdote a edad bastante madura, a lo que parece. Y se ordena en Tarbes. Entre los que se ordenaron con él se encontraba el que sería San Vicente de Paúl, fundador de las Hijas de la

Caridad. Poco antes Axular había causado baja en la diócesis de Pamplona y pasado a pertenecer a la de Bayona. No sabemos a ciencia cierta cuál fue el motivo del cambio. Una razón pudo ser que la variedad vasca de la villa natal de Axular es más próxima a la del país de Labort que a la de Navarra; otra razón o motivo pudo ser que el país labortano gozaba a la sazón de una cierta prosperidad económica, gracias sobre todo a la pesca de la ballena en Terranova.

Hasta Aránzazu, donde yo vivo —aunque hoy nos parezca increíble— venían los pescadores labortanos o sus mujeres o sus novias a pedir o dar gracias al cielo por los que hacían estos viajes erizados de peligros. Así consta por una vieja historia del Santuario de Aránzazu, escrita en 1648, que permanecía inédita en el archivo y que yo edité en las páginas de *Scriptorium Victoriense*. Véase el siguiente pasaje:

“Y no es menos la devoción que tienen los del Reyno de Francia, pues de más de veinte leguas de la tierra adentro viene todos los años muchísima gente en romería, así hombres como mujeres, y es cosa particular; porque las mujeres vienen por la pascua del Espíritu Santo, que es tiempo en que sus maridos están en Terranova y Noruega a la provisión del bacallao y vallas; y vienen con tanta devoción, que es para edificar al mundo, pues siendo los caminos tan ásperos, y en particular lo alto de la Aloña, cuyas cimas pasan en más de tres leguas de subida y bajada, siendo toda ella pedregosa, llena de espinas y sin camino, vienen por ella a pie y descalzas; y como la montaña es tan alta, de ordinario hay nieblas y lluvias, de suerte que llegan en esta santa casa muy afligidas, mojadas y cansadas; y de esta suerte, sin admitir abrigo de hospedería y aposentos, velan toda la noche en la iglesia con tanta devoción y afecto, que es para alabar a Dios; y suelen ser los concursos de mucha gente, que tal vez se han visto más de dos mil personas de Francia juntas; y con ser estos años, en que se escribe esta historia, tan calamitosos y de tantas guerras entre estos dos Reynos, no por eso faltan a su piedad y devoción, sino que con el mismo afecto que antes vienen atropellando muchas dificultades, trayendo muchas limosnas a esta santa casa, de plata y oro. Luego por el mes de Octubre del mismo año, que es cuando vuelven los navíos de Terranova, apenas saltan en tierra los piadosos marineros, cuando aun sabiendo que han estado aquí sus mujeres y parientas, vienen en tropas de a veinte y treinta, todos a pie, y muchos descalzos con gran devoción a rendir gracias a la Virgen Señora nuestra, que por medios de esta santa imagen los ha librado de tantos peligros y tormentas, como se padecen en el mar, y hacen de nuevo sus limosnas; con que viene este convento a tener gran socorro de la nación Francesa”.

Hasta aquí la cita del P. Gamarra, autor de esta Hitoria. Gamarra describe aquí a estos peregrinos como si fueran meros franceses, pero en otro lugar de su historia puntualiza mejor la región a que pertenecen: Provincia de Labort, es decir, Lapurdi, como hoy decimos.

Estas cosas pasaban en tiempos de Axular. Pero, claro, las guerras entre España y Francia acabaron con esta peregrinación. ¿Y qué hicieron los peregrinos labortanos al no poder acudir a Aránzazu?: pues crear una sucursal, por así decir, de Aránzazu en su propio territorio, en Ainhoa, junto a la frontera política: Arantzeko Ama Birjina. J. Olhagaray escribió la historia de esta capilla de Ainhoa. Allí acudían luego los pescadores de la costa labortana y sus familiares. Algunos años más tarde, con el tratado de Utrecht, Terranova pasaría a pertenecer a Inglaterra, con lo que acabaron también los viajes a Terranova.

Axular se estableció como párroco en Sara, no sin tener que vencer dificultades para ello, pues un clérigo que quería para sí el curato, le plantó pleito alegando que un español no podía tener un cargo con beneficio en Francia. Lo curioso es que Axular perdió el pleito, pero a pesar de ello, gracias a la protección del Rey, no fue molestado. Enrique IV, que se titulaba rey de Francia y de Navarra, debió de decir que un navarro no podía ser considerado extranjero en Francia; pese a todo, la sentencia adversa del tribunal también se mantuvo en pie, pero no le afectó a Axular. ¡Sutilezas de la jurisprudencia y de la política!

Sara, donde Axular ejercía de párroco, se halla a pocos kilómetros de la costa, y en ésta se encuentran S. Juan de Luz y Ciboure, que constituían el cogollo, por así decir, de la provincia de Labort. Y fue en este triángulo, San Juan de Luz-Ciboure-Sara donde en estos años se inicia un movimiento literario de cultivo del euskara, obra de una Peña de amigos que se reunían para animarse mutuamente. Conocemos algunos nombres de la dicha tertulia: el franciscano Materre, Etcheberri de Ciboure, Guillentena, el médico Hirigoity y, por supuesto, Axular. Este nos dice, en el prólogo al lector que figura al frente del *Guero*, cómo surgió la idea de componer el libro. Hallándose reunidos los amigos, tal vez en el conventito franciscano de Ciboure, salió a colación el tema que había de constituir el argumento del *Guero*, a saber, que nada daña tanto a la vida cristiana y a la conversión como la falsa seguridad y confianza de que se convertirán, sí, pero más tarde, luego. Seguidamente se trató de que había que hacer un libro en vasco sobre esto y, por fin, se pasó a designar quién había de ser el autor, y todos volvieron los ojos a Axular, el cual sobresalía por sus dotes de ciencia y de orador sagrado. Este fue, pues, el origen del *Guero* y este es el argumento que da perfecta unidad al libro.

Se trata, por su género y estilo, de una obra renacentista, en que el autor hace gala de una erudición notable, pero no por eso el libro deja

de estar pensado en vasco y dirigido a un público vascoparlante. Se ve que el autor domina a perfección el instrumento que maneja y conoce los recursos del mismo, cosa que se revela por los giros, modismos, proverbios, juegos de palabras, etc. Creo que se puede decir, sin temor a equivocarse, que Axular es el verdadero creador de la prosa vasca. Es verdad que antes de Axular escribió Leizarraga la traducción del Nuevo Testamento, pero se trata de una traducción y de unos textos en que apenas hay lugar para unos amplios desarrollos. En el *Guero*, en cambio, el autor adopta un género lógico-discursivo, tiene que argumentar, rebatir al adversario, explayarse en amplias exposiciones. Para esto necesitaba el instrumento de una prosa desarrollada, que ya por sus sermones Axular la tenía más o menos lograda.

El género de prosa que emplea Axular es, en líneas generales, el mismo que es común a las lenguas de Occidente, que a su vez siguieron en esto la tradición grecolatina. Desgraciadamente, en nuestro siglo, por un intempestivo purismo, entre nosotros se ha interrumpido esta tradición, con daño para nosotros. Yo creo que el volver a empalmar con ella, con las matizaciones que sea preciso, nos es necesario para llegar a una prosa normalizada.

Para terminar, he de decir que cuando yo concebí la idea de reeditar el *Guero* con ortografía actualizada y acompañado de la traducción castellana —que hasta entonces no existía—, hice algunas gestiones o sondeos para hallar en el país algún editor que se hiciera cargo de la publicación. No lo hallé. “¿Quién va a leer eso? No va a tener salida”, me decían. Y tuve que acudir a Madrid y a Barcelona. La colección Espirituales Españoles de Madrid y la editorial Juan Flors de Barcelona admitieron la obra. La impresión se hizo en Gráficas Izarra, de S. Sebastián. Esto fue en el año de 1964. Tuvo más éxito de lo que se esperaba. Tanto es así que D. Pedro Sainz Rodríguez, asesor de la colección, me dijo: “El *Guero* de Axular es el único libro de la colección que se ha agotado. Esto es algo extraño, que no me lo explico, a no ser que ande de por medio la política”. Yo le contesté: “¿Política? No sé. Mire Vd.: Salvadas las distancias, Axular es en vasco algo así como lo que es Cervantes en castellano. Hoy hay una juventud que quiere formarse a fondo en el conocimiento y manejo del euskera y sabe que para esto no hay otra cosa mejor que el manejo de una obra maestra de esta literatura, y claro, al encontrarse con esta edición, pues la han adquirido. Eso es todo”.

Con esto queda dicho brevemente qué clase de obra tenemos delante, publicada ahora por primera vez en edición facsímil. Muchas gracias de parte de la Academia y del pueblo vasco al Sr. Velasco, director general del Instituto Nacional del Libro Español, y a cuantos han intervenido en la materialización de este proyecto: Juanito San Martín, Juanjo Zearreta, talleres Grafo, etc.

EUSKO LEGEBILTZARREAN

Gasteiz, 1988-XII-16

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburua

- Jesus Egiguren, Parlamentuko Presidentea
- Patxi Ormazabal, Presidente-orde lehena
- Joseba Leizaola, Presidente-orde bigarrena
- Koro Garmendia, Idazkari lehena
- Alfredo Marko Tabar, Idazkari bigarrena
- Alberto Figuerola, Letradu Nagusia

Jaun-andreak:

Eskerrak eman beharrean naiz zuei, Legebiltzarreko Mahaia osatzen duzenoi, alegia, Euskaltzaindia gaur zeuekin egoteko gogoia eta eskea agertu diguzuelako. Ohoragarria da hori gure erakundearentzat; eta baita une egokia ere izan daiteke elkarrekin ditugun helburu, jokabide eta lokarri aski hurbilak gogoratzeko.

Euskaltzaindia orain dela 70 urte sortua da, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek sortua; beraz, herri-agintariak sortutako instituzio bat da, hots, instituzio publikoa. Eta xede jakin batekin sortua izan zen: euskara zaindu, arautu eta gaurko egunean tresna edo mintzabide egokia bihurtzeko xedearekin, horretarako behar diren urratsak ematen saia dadin, alegia. Eta bere sorrera-egunetik Euskaltzaindiak halako ikuspegi orokor batekin heldu zion bere eginbeharrari, esan nahi dut, hizkuntza hau mintzatzen den eremu guztia, bere euskalki eta mintza molde berezi guztiak gogoan hartuz; hain zuzen horrexegatik Euskaltzaindiak euskalki guztietako ordezkari eta mandatariak ditu bere galtzarrean. Eta ikuskera pluralista honekin eta guztien eritziak entzunez, saiatzen da bere sorrera-egunean egotzi zitzaizkion helburuak betetzen.

70 urte hauetan saiatu da, bada, Euskaltzaindia, bere ahalbideen neurrian, leporatu zitzaion egitekoari erantzuten, bai kinka larriak eta bai beste batzuk hobeak, igaroz. Urte horietan burututako lana ez dut uste bat ere makala izan denik, eta esan dudan bezala, beti egin du bere eginbehar hori instituzio bati dagokion gisa, alderdikerietatik urrun egonez, pluralismoa eta demokrazia kontutan hartuz. Ez dut uste une hau egokia denik egindako lan hori zehatz-mehatz azaltzen eta kontatzen hasteko. Bakarrik esango dut lan hau beti egin dugula ikuspegi pluralista eta demokratiko hori aintzat hartuz. Honekin ez dut esan nahi, bestalde, euskararen etorkizuna arrosa kolorekoa ikusten dudala. Guri dagozkigun lanak eginik ere, baditu bai euskarak bestelako katramilarik eta ahuleziarik aski, eta horiek sendatzea ez dago gure eskuan, zuzenean behintzat.

Hizkuntzak, hizkuntza bizi bezala irauteko, ezinbestekoa du mintzatzaileen komunitate trinko bat edukitzea eta ni beldur naiz komunitate hori gero eta gehiago, mehetuz eta bakanduz ez ote zaigun joango. Baina bego.

Dena dela, eta honetara doa esan nahi nuen guztia: gure Erakundeak badu zuekin idurika edo antz handia. Beste maila bateko auziak, baina beti ere gure herriaren onerako zuzendu eta konpondu nahiez zabiltzate zuek ere; beste maila bateko auziak esan dut, baina halere guk darabilzkigunekin zer ikusia dutenak. Eta bai batzuk eta bai besteak erabakitzeke jokaera berdintsua, hots, pluralista eta demokratikoa darabilgu biok. Zalantza gabe, aurrenengo instituzioa zarete, herriak hautatu zaituztenez eta zuengan bere fidantzia jarri duenez gero. Labur bilduz, zuek eta guk, bakoitzak bere sailean, lan egin dezagun gogotik herri honentzat batasunean eta aniztasunean etorkizun hobe bat sortzeko. Halabiz.

* * *

Señoras y señores:

Tengo que agradecer en nombre de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia esta iniciativa de la Mesa del Parlamento Vasco por la que habéis querido recibirnos. Es un motivo de honor para nuestra institución, al par que una oportunidad para reflexionar sobre los vínculos, aspiraciones, objetivos y modos de actuar similares que unen a ambas instituciones.

Euskaltzaindia es creada en 1918-1919 por las Diputaciones de Vizcaya, Guipúzcoa, Alava y Navarra para cuidar de la lengua vasca y tratar de normalizar el cultivo de esta lengua, adaptándola a las necesidades del mundo actual. Desde el primer momento fundacional preside a la concepción de la Academia una mirada por así decir ecuménica, quiero decir que abarca a todo el ámbito de la lengua vasca con todos sus dialectos y variedades, por lo que la Academia trata de tener en su seno representantes de todos ellos. Dentro de esta visión pluralista y contrastando las opiniones entre todos, trata de alcanzar los objetivos por los que fue fundada.

Desde su fundación, como he dicho, en los años 1918-1919, hasta hoy, o sea, hace ahora 70 años, pasando por tiempos difíciles y otros más favorables, pero que tampoco dejan de ser conflictivos y problemáticos, intimidados como están por el flagelo de la violencia, la Academia, sin perder nunca de vista su método abierto al pluralismo y a la democracia, creemos que ha realizado y está realizando un trabajo no desdeñable en orden a cumplir los objetivos para los que fue fundada. No es este el momento —creo— de descender a exponer en concreto cuáles han sido los logros que se han conseguido o están en vías de conseguirse, sin que esto quiera decir tampoco que veamos con lentes de color de rosa el futuro de la lengua vasca, pues el camino a recorrer es arduo y los obstáculos a remontar son numerosos, y muchos desbordan nuestro campo de acción. Sólo os diré que de los 24 académicos de número de que consta la institución, 7 son de Iparralde, 4 de Navarra y el resto —o sea 13— de esta Comunidad Autónoma del País Vasco y todos procuramos trabajar unidos por el mismo amor a la lengua del país, dialogando, confrontando los puntos de vista de unos y otros, o sea, con un espíritu pluralista y democrático.

Creo que dicho está con esto que la semejanza con vosotros, de que he hablado antes, no es traída por los pelos. También vosotros en esta Comunidad

Autónoma, que abarca parte del país y que aspira a resolver problemas de otro orden, pero que están también conexos con los nuestros, seguid el mismo método pluralista y democrático para ello. Sois, sin duda, la primera institución en cuanto que encarnáis la representación del pueblo que os ha elegido y ha depositado en vosotros su confianza.

Que unos y otros, cada uno en su campo, trabajemos animados por el mismo ideal de conseguir para este país un futuro mejor de unidad en la pluralidad. Así sea.

EUSKALTZAIN JAUNOK

Vitoria-Gasteiz, 1988-XII-16

Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco

Jesus Egiguren

Lehendakaria/El Presidente

Benetan atsegingarri zait gaur, euskaldunen goren mailako ordezkotza duen inguru honetan zuekin izatea. Eusko Legebiltzarra bere ateak ahalik eta gizarte-sailik haundienei zabaltzen ahalegintzen deneko aldi honetan, Akademi batek, kasu honetan Euskaltzaindiak, herri honen joan-arian izan duen eta oraindik era ba duen garrantziari buruz zorretan geunden.

Legebiltzar honek, gure hizkuntza, euskaldunon hizkuntza hau zaintzeko, normaltzeko eta gaurkotzeko lanean, etenik gabe eta tinko jardun izanari zor zaion aitortpena argi eta garbi adierazten dizue.

Euskaltzaindiak euskeraren aldeko lanean izan duen tinkotasunari, herriaren onari begira jokatzeko eta herri honen ordezkotza duten erakundeei laguntzeko izan duen gogoari esker dugu gaur egun Euskaltzaindia horren erakunde irmoa.

Bere baitan irizkera guztietakoak izateari, eta horiek guztiak euskaldun guztiona den helburu baten aldeko ahaleginean biltzeko gauza izateari esker sendotu da Euskadin Euskaltzaindiak duen, zalantzan jarri ezinezko eta inork zalantzan jartzen ez duen izen ona.

Gizartean euskerari dagokion nagusitasunaren aldeko lanean gabiltzan guztioi zer pentsaturik eman behar liguke horrela egindako bideak. Euskadiko gizarte osoa kontutan hartu, eta gehiegikeriak alde batera utzirik, lortuko dugu gure hizkuntzak behar duen gizarte-mailako adostasuna.

Zuek guztiok jakin ba dakizuenez, Legebiltzar honek arreta berezia egin dio euskeraren erabilerako normalkuntzari. Eta, hemen zaudetenen artekoren batek gogoan izango du, inoiz legebiltzarkide izan delako, gure hizkuntza-lege nagusia ahalik eta irizkidetasunik haundinez onartzeko, ahalegin-faltarik ez zela izan.

Garai hartan (Euskeraren erabilera normaltzeko Oinarrizko Legea onartu zeneko, 1982garreneko Azaro hartan) Legebiltzar honetan lortu zen adostasun-maila berriro aipatu nahi dut, izan ere, gizartearen aldetik irizkidetasun haundia-
ren gai izan beharreko gairik izatekotan, hori hizkuntza da eta. Alderdikeriazko irizpideen artean zartatuta uzteko baino askoz garrantzi haundiagokoa da euskera.

Alperrikako borroketatik gorde egin behar dugu euskera. Hasarreak sortzen dituen hizkuntzak porrot egiten du, zabaldu ezineko gertatzen da eta. Alderantziz, ordea, nor bakoitzaren pentsakera itxiak gaindituz, gizarteko sail haundiek

ontzat ematea izango da gure jatorrizko hizkuntzaren etorkizunik onena segurtatzeko era.

Eta gero eta jende gehiago ari da honetaz ohartzen. Gero eta euskal herritar gehiago ari dira euskera inoren ogasun ez denaz jabetzen eta, hori, euskera guztiona delako, noski.

Azkenik, aukeraz baliatuz, Aita Villasanteri, Euskaltzaindiko buru izanez egin duen lan bikain eta baliotsuagatik, nere zorionik beroenak eman nahi dizkiot. Eta zorionak eman, ez Legebiltzarreko buru naizenez soilik, ez; baita euskaldun naizenez ere, euskeraren eta literatura-mailako batasunaren onerako, hemezortzi urte hauetan Euskaltzaindiko buru izanez egin duzun guztiagatik, nere eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizut.

Eta ez egin duzunagatik bakarrik, baita nola egin duzunagatik ere, eztabaidagai izan behar ez duen arazo bat, eraman duzun eran, patxadaz eramaten jakin duzulako.

Izan ere, azken baten, eta esatea zilegi bekit, hizkuntza gizakiarentzat egin dago, eta ez gizakia hizkuntzarentzat. Eta hizkuntza gizakien harremanetarako bide denez, euskaldunen arteko harreman-maila areagotzeko gauza izatea izango da gure hizkuntzaren salbamen-bidea.

Eskerrik asko.

* * *

Señores académicos:

Es para mí un motivo de verdadera satisfacción poder estar hoy con ustedes, en este ámbito de la máxima representación de los ciudadanos vascos. En una etapa de su todavía corta existencia, en la que el Parlamento Vasco se esfuerza por abrir sus puertas a los más amplios sectores sociales, teníamos una deuda pendiente con todo lo que la Academia ha representado y sigue representando en este país.

Esta Cámara que me honro en presidir desea expresarles abiertamente el reconocimiento institucional que se debe a una labor tenaz y constante, dedicada a preservar, normalizar y actualizar nuestra lengua, la lengua de los vascos.

Su tenacidad, su capacidad de diálogo y su espíritu constructivo y de colaboración con las instituciones representativas del país en la defensa del euskera han hecho de Euskaltzaindia la sólida realidad que hoy es. Su pluralismo interno y su capacidad para integrarlo en la lucha por un objetivo común a todos los vascos ha cimentado la autoridad indiscutible e indiscutida de la Academia en Euskadi.

Una trayectoria semejante debería hacernos reflexionar a todos los que nos sentimos vitalmente interesados en que el euskera adquiera el protagonismo social que le corresponde. Porque sólo partiendo de una actitud flexible y realista, que tengan en cuenta a la sociedad vasca en su conjunto, sólo aplicando unos criterios científicos que huyan de maximalismos, se puede propiciar el acuerdo social que necesita nuestra lengua.

Todos ustedes saben que este Parlamento ha dedicado una especial atención a la normalización del uso del euskera. E, incluso, algún académico aquí presente recordará, por su pasada condición de parlamentario, que no escasearon los esfuerzos para que se aprobara nuestra ley lingüística fundamental con un alto grado de consenso.

Quiero insistir en el consenso parlamentario alcanzado en aquella época (aquel mes de Noviembre de 1982, en que se aprobó la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera), porque, si existe una materia que debe ser objeto de un amplio acuerdo social, ésta es la lengua. El euskera es algo demasiado importante como para desgarrarlo en consideraciones partidistas.

Debemos preservar al euskera de luchas estériles. Una lengua que provoca el enfrentamiento fracasa, porque no puede expandirse. Por el contrario, un amplio acuerdo social por encima de los clichés ideológicos será la garantía de un futuro prometedor para nuestra lengua originaria. Esto es algo que se va entendiendo progresivamente. Cada vez en mayor medida, los ciudadanos vascos están asumiendo que el euskera no es patrimonio de nadie, porque pertenece a todos los vascos.

Quiero, por último, aprovechar la ocasión para felicitar muy cordialmente al padre Villasante por su eficaz y brillante labor al frente de la Academia. No sólo como presidente del Parlamento, también como euskaldun, deseo expresarle mi más sincero agradecimiento por todo lo que usted ha hecho en beneficio del euskera y de su unificación literaria, en estos dieciocho años al frente de Euskaltzaindia. Y no sólo por lo que ha hecho, sino por cómo lo ha hecho, por la serenidad que ha sabido imprimir a una cuestión que no debe ser objeto de polémica.

Porque, en definitiva, y me permito citarle, el idioma está hecho para el hombre, y no el hombre para el idioma. Y, teniendo en cuenta que un idioma es un vehículo de comunicación, la clave del éxito de nuestra lengua estará en su capacidad de aumentar el nivel de comunicación entre los vascos.

Muchas gracias.

Así pues, y resumiendo, les reitero mi agradecimiento por su presencia en el Parlamento, en un acto que quiere ser una muestra de reconocimiento a la importante labor desarrollada por Euskaltzaindia en pro del euskera; un idioma que, como antes les decía, es algo demasiado importante como para desgarrarlo en consideraciones partidistas. Una realidad que se está asumiendo, porque el euskera no es propiedad de nadie, sino que es patrimonio de todos los vascos.

Deseo, igualmente, agradecer al Padre Villasante su gran labor en pro del euskera y de su unificación literaria. Y, por último, no quiero olvidarme de felicitar al señor Haritzelar, por su reciente nombramiento de "Doctor Honoris Causa" por la Universidad del País Vasco. Nombramiento sobradamente merecido, por su brillante trayectoria.

**Jean Haritschelhar, Euskal Herriko Unibertsitatetik
Doctor honoris causa**

Abenduak 15, 1988, hartu zuen Jean Haritschelhar euskaltzainak Euskal Herriko Unibertsitateko *Doctor honoris causa*-jantzia, Gasteizen, Filologia eta Geografi-Historia Fakultatean egindako ospakizunean.

E. Barberá Erretore jauna zen mahai-buru, eta harekin jarriarik zeuden Fakultateko Dekanoa, Patxi Goenaga, eta beste agintariak. Aula Magna bete-beterik zegoen, Unibertsitate bereko eta kanpoko irakasleez, eta ikasle eta bestelako jendez.

Lehendabizi, Erretore eta Dekano jauna mintzatu ziren, bilera berean Fakultatearen zabaltze ofiziala ospatzen bait zen kondaira apur bat eginez, Haritschelhar jaunaren merezimenduak aipatuz ere.

Haritschelhar jaunaren aurkezpena eta *laudatio* delakoa Endrike Knörr euskaltzain eta Fakultateko irakasleak egin zuen. Lafonen ikaslearen ikasketak eta irakasketak gogoratu ondoren, Baionako Euskal Erakustoki eta Aldizkariaren zuzendariaren azterketak eta argitarapenak aipatu zituen. Azken aldean, gobernuak Frantzia euskara aintzat har zezan eskatu zuen, bai eta Bordele eta Euskal Herriko Unibertsitateen arteko lotarriak sendo zitezen.

HILBERRIAK

JAZINTO CARRASQUEDO OLARRA 1895-1988

Azaroaren 9an hil zen Donostian 93 urte beterik Jazinto Carrasquedo Olarra urgazlea. Jazinto, Billabonan jaioa zen 1895eko Otsailaren 10ean. Salerosketarako ikasketak egina zen, baina laster agertu zuen literaturarako zaletasuna. 1923an hasi zen *Euskal Eснаlea* zeritzan aldizkarian euskaraz idazten eta geroago *Argia*, *El Día*, *Pueblo Vasco*, *Euzkadi* eta beste zenbaitetan gudara arte; guda ondoan ere bai zertxobait *Zeruko Argia* astekarian.

Lehen aldiko denbora berean ekin zion antzerkigintzari eta Donostiako Santomasetako emanaldietan agertu ziren bere lanetarik zenbait eta garai haietako sariak ere jaso zituen. Lehen antzerki lan aipagarrien arteko ditu: *Gure semea* eta *Guzia illun itzaltu* deitzen direnak, Toribio Altzagaren zuzendaritzapean Donostiako Euskal Iztundeak 1927an sarituak. Ohizko bizitzari loturik zebiltzan antzerki gaiok. Holakoak genituen *Kokolo txerritatalari*, *Etxe aldaketa* eta *Garosuaia* Hauek 1933 eta 1935ean “Antzerki” ekintza taldeak sarituak. Azkena, Txomin Agirrereren *Garoa* liburuan oinarriturik egina, 1936ko Maiatzaren 17an aurkeztu zen eta harrera ona izan zuen. Ondoren *Etxerako... nor?* P. Sarriegiren original batetan oinarriturik, eta *Laratzean sua*. Humorezko komedia entretenigarriak ziren, gatz eta piperrik ez zitzairen falta. Denbora hartako jenteagandiko harrera dugu lekuko.



Horiez gainera, itzulpenez ere arduratu zen. Hara nola burutu zituen adaptazioz Lope de Vega-ren *La discreta enamorada* (*Neskatx zuhurra maitemiñez*, bere kaxaz moldaturik), Calderón de la Barca-ren *La vida es sueño*, Eugène Ionesco-ren *Les Chaises* eta Vilhen Moberg-en *Mans Hvinna*, horiez gainera Tolstoi-ren lanen bat ere itzulua omen zuen.

Gipuzkerazko idazkera herrikoia zuen maite eta euskara idatziaren batasunerako arauak ez zitzaizkion atsegin. Baina, gizonari ezin diogu uka zintzotasuna eta garaiko giroan hain jator eskaini zuen obra.

1966an izendatu zuen Euskaltzaindiak urgazle. Azken urteotan, 1970ean lanetik erretiratu zenetik, apenas ezer idatzi zuen.

Euskaltzale zintzoa, goian bego.

J. S. M.
1988-XI-29

